

ESPAZIO KRITIKO FEMINISTA



LATINOAMERIKAKO EMAKUMEEN
ERAKUNDE ETA GGKEen
ARTEKO ALIANTZAK

ESPAZIO KRITIKO FEMINISTA



LATINOAMERIKAKO EMAKUMEEN
ERAKUNDE ETA GGKEen
ARTEKO ALIANTZAK



Argitalpen hau "Generoa Garapenerako Hezkuntzan: Iparra-Hegoa eztabaida-gaiak emakumeen agenda politikorako" izeneko proiektuaren barruan dago; beste jarduera batzuen artean, Garapenerako Lankidetzan feminismoa sartzea ahalbidetuko duten oinarriko gaiet buruzko gogoeta egiteko espazioak sortuko dira, eta, era berean, laguntzarako materialak eta tresnak sortuko dira, emakumeen berdintasun ezari, desberdintasunari eta mendekotasunari aurre egiteko.

Argitaratzailea:



Bilbao • Zubiria Etxea. UPV/EHU
Avda. Lehendakari Agirre, 83 • 48015 Bilbao
Tel.: 94 601 70 91 • Faxa: 94 601 70 40 • hegoa@ehu.es
Vitoria-Gasteiz • Biblioteca del Campus de Álava. UPV/EHU
Apdo. 138 - Nieves Cano, 33 • 01006 Vitoria-Gasteiz
Tel. • Fax: 945 01 42 87 • hegoagasteiz@ehu.es
www.hegoa.ehu.es



Cedaceros 9, 3º izda • 28014 Madrid
Tel.: 91 429 16 61 • Fax: 91 429 15 93
acsur@acsur.org
www.acsur.org

Proiektu hau kofinantzatu duten erakundeak:



Koordinazioa: Amaia del Río, Rocío Lleó eta Sarai Martín

Euskarazko itzulpena: Labayru Institutoa

Diseniua eta Maketazioa: Marra, S.L.

Inprimaketa: Lankopi S.A.

ISBN: 978-84-89916-24-1

Lege zenbakia: BI-3641-08



Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 2.5 Generikoa Espainia

Creative Commons-en lizentziapean dago. Aske zara lan hau kopiatzeko, banatzeko eta publikoki hedatzeko, betiere kontuan hartuta lanaren kredituak aitortu behar ituzula, eta ezin duzula merkataritza xedetarako erabili. Ezin duzu lan hau bestelakotu, eraldatu edo lan eratorririk sortu hartatik abiatuta.

Baimen osoa: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/2.5/es/>

Aurkibidea

Egileen aipamenak	5
Aurkezpena	9
Sarrera	11
1. kapitulua: Emakumeen eskubide ekonomikoak	17
Ikuspegi feministak	19
Ekonomia feminista: emakumeen eskubide ekonomiko, sozial eta politikoen aldeko apustua	21
<i>Yolanda Jubeto</i>	
Herraldearen egoera orokorra	25
El Salvador	27
<i>Beatriz de Paúl</i>	
Peru	35
<i>Leire López</i>	
Latinoamerikako emakumeen elkarrengandik eta elkarte feministengandik ikasiz	45
Genero ikuspegiko aurrekontuen azterketa: kontraloria ekintzak bideratzeko lanabesa, emakumeak aintzat hartuz	47
<i>Movimiento de Mujeres "Mélida Anaya Montes"</i>	
Peruko landa-inguruneko emakumeen autonomia eta jabeakuntza ekonomikorako estrategiak: erakunde feministatik partekatzeke esperientziak	53
<i>Centro de la Mujer Peruana Flora Tristán</i>	
Latinoamerikako emakumeen elkarte eta elkarte feminista batzuen direktorioa	65
El Salvador	67
Peru	71
Kanpainak	75
Bibliografia	91
2. kapitulua: Generoa, Gatazka armatuaren eragina eta bakearen eraikuntza	95
Ikuspegi feministak	97
Emakumei eta gatazka armatuari buruzko eduki politiko feministak	99
<i>Pilar Palacio</i>	

Herrialdearen egoera orokorra	103
Kolonbia	105
<i>Laura Rangel</i>	
Guatemala	113
<i>Nadia Ruiz</i>	
Latinoamerikako emakumeen elkarrengandik eta elkarte feministengandik ikasiz	127
Egia, justizia eta kalte-ordaina, Kolonbiako emakume biktimei zor zaien agenda. Kolonbiako Emakume Nekazari eta Indigenen Elkarrearen esperientzia	129
<i>Sisma Mujer</i>	
Emakumeen aurpegia, Guatemalako gatazka armatuan zehar eta ondoren	141
<i>Centro para la Acción Legal en Derechos Humanos</i>	
Latinoamerikako emakumeen elkarte eta elkarte feminista batzuen direktorioa	147
Kolonbia	149
Guatemala	153
Kanpainak	157
Bibliografia	171
3. kapituluak: Emakumeen eragin politikoa eta herritasun-partaidetza	175
Ikuspegi feministak	177
Ikuspuntu feministak emakumeen partaidetzan eta eragin politikoan	179
<i>Justa Montero</i>	
Herrialdearen egoera orokorra	183
Bolivia	185
<i>Mónica Gil</i>	
Honduras	195
<i>Pilar González</i>	
Latinoamerikako emakumeen elkarrengandik eta elkarte feministengandik ikasiz	203
Emakumeen partaidetza politikorako eta genero ekitaterako mezua	205
<i>Red Nacional de Trabajadoras/es de la Información y Comunicación</i>	
Emakumeen lehen udal-bulegoen sorrera Hondurasen	215
<i>Centro de Derechos de Mujeres</i>	
Latinoamerikako emakumeen elkarte eta elkarte feminista batzuen direktorioa	221
Bolivia	223
Honduras	227
Kanpainak	231
Bibliografia	243

Egileen aipamenak

CRESPO, ELENA. Kazetaritzan lizentziaduna da, eta Genero, Komunikazio eta Landa Garapenean espezializatuta dago. RED-ADA (Informazioaren eta Komunikazioaren Langileen Sare Nazionala) erakundearen sortzailea izateaz gain, erakunde horretako Bazkideen Batzordeko kideetako bat da. Boliviako ordezkaria da, "indarkeriako aditu" gisa, CEVI-MESECVIren barruan, 2006-2008 urteetako Amerikako Estatuaren Erakunde Herrialde Amerikarren arteko Emakumearen Batzordean. Hainbat ikerketa egin ditu Boliviako hiru estai ekologikoetan dauden generoko harremanei buruz; hiri- eta landa-arloetan dagoen feminizidioari buruz; lurraren jabetza eta emakumeei buruz; emakumeek politikan duten parte-hartzeari buruz; eta hiri- eta landa-guneetako emakumeen irudiaz masa-komunikabideetan egiten den erabilerari buruz. Onarpen ona jaso du Cincinnati – Ohioko Unibertsitatean (AEB) emakumeen eskubideen alde egin duen lanarengatik.

DE PAÚL, BEATRIZ. Ekonomian lizentziaduna, feminista eta ikertzailea da. Horrez gain, Genero eta Ekonomiako aholkularia da. Generoko ikuspegia aintzat hartzen duten era askotako politika publiko eta garapenerako proposamenak diseinatu ditu. Gaur egun, El Salvadorreko Nazioarteko Planaren antolakuntzan ari da lanean, Genero eta Babeseko aholkulari nazional gisa. Era horretan, indarkeriak eta botere-harremanek sorrarazten dituzten arazoak aztertu nahi ditu, hartara, legeetan eta politika publikoan eragina izateko eta, azken batean, eskubideak osorik erabili ahal izateko eta eskubideak babesten dituen sistema bat bermatzeko.

GARCÍA, FABIOLA. Kazetaritzan lizentziaduna, gizarte-komunikatzailea eta giza eskubideen aldeko ekintzailea da. Gaur egun, Giza Eskubideen Lege Ekintzarako Zentroko (CALDH) koordinatzailea da Guatemalan, hain zuzen, Komunikazio Unitatean.

GIL, MÓNICA. Soziologian lizentziaduna da, Berdintasuneko Agentea izateko Masterra egin du Valentziako Unibertsitatean, eta, era berean, Genero, Gizarte eta Politiken Maisutza burutu du FLACSO-n, hau da, Gizarte Zientzietako Latinoamerikako Fakultatean. Bestalde, fakultate horretan, Ekonomian eta Genero-arloan espezializatu zen; eta generoaren araberako aurrekontuei buruzko tesina egin zuen. Latinoamerikako hainbat herrialdetan bizi izan da, eta horrek aukera eman dio Latinoamerikako historia eta kultura ondo ezagutzeko, egunero hango jendearekin zuzenean eta bertatik bertara harremanak izanez. Denbora horretan, genero-arloko berdintasuna sustatzeko lanetan aritu da, hala tokiko erakundeetan, nola Nazio Batuen Emakumearentzako Garapen Funtsean (UNIFEM). Era berean, irakasle-lanetan jardun du generoaren araberako aurrekontuei buruzko hainbat ikastarotan, eta gaur egun, berdintasuneko teknikari gisa aritzen da.

GONZÁLEZ, PILAR. Informazio Zientzietan lizentziaduna da Valentziako Unibertsitatetik. Horrez gain, Genero eta Garapenerako Maisutza, eta Latinoamerikako ikasketa aurreratuei buruzko gra-

duatu ondoko ikastaroa egin ditu Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean (UCM). Hainbat dokumentalen zuzendaria eta gidoilaria izan da nazioartean. Garapenerako lankidetzako programa eta proiektu batzuk koordinatu ditu zenbait herrialdetan, hala nola, Txilen, Paraguan, Hondurasen eta Uruguain. Gaur egun, bulegoko programako ofiziala da Uruguain, Nazio Batuen Emakumearentzako Garapen Funtsean (UNIFEM).

JUBETO, YOLANDA. Enpresa Zientzietako lizentziaduna da Euskal Herriko Unibertsitatetik (UPV/EHU). Eskolak ematen ditu Ekonomia Aplikatua I Sailean, UPV/EHUko Ekonomia Zientzietako Fakultatean; hain zuzen ere, nazioarteko ekonomiari eta ekonomia feministari buruzko gaiak irakasten ditu. Bere ikerketen arlo nagusietan nolabaiteko bilakaera izan da: hasieran, Eskualdeko Berrikuntzako Sistemak aztertu zituen, eta orain, berriz, Ekonomia Feminista hartu du ardatz gisa. Izan ere, doktorego-tesia egin zuenetik, gaur egun, arlo horretan ari da ikerketan gehienak egiten. Honako hau izan zen bere doktorego-tesia: "Presupuestos Públicos con Enfoque de Género: instrumento de análisis de la Política Económica desde la Perspectiva Feminista" (Genero-ikuspegia aintzat hartzen duten aurrekontu publikoak: politika ekonomikoa ikuspegi feministatik aztertze tresna, UPV/EHU, 2006).

LÓPEZ, LEIRE. Gizarte Zientzietan lizentziaduna da, Zientzia Politikoaren adarrean, eta Nazioarteko Garapenaren arloan eta Aurrekontuetan, Pobrezia eta Generoan espezializatuta dago. Urtebete eman du lanean Brasilen, eta bi urtez aritu da Perun, Nazio Batuen Emakumearentzako Funtsean (UNIFEM). Hor, genero-ikuspegia aintzat hartzen duten aurrekontuei eta Milurtekoko Garapen Helburuei lotutako gaiak landu ditu gehienbat. Horretarako, prestatuntza, laguntza teknikoa eta horrelakoak izan ditu, hala tokiko erakundeekin aritzean, nola gobernuko instituzioekin edota alde bikoak edo alde aniztunak diren agentzien arteko lanmahaietan jardutean. Borondatezko lankide gisa aritu zen urtebetez Txilen, tokiko garapenerako programa batean sartuta. Horrez gain, lanean jardun du garapenerako gobernu kanpoko erakunde batean, nazioarteko lankidetzako eta proiektuetako hainbat sailetan, eta gaur egun eginkizun horretan jarraitzen du.

MATUS, SILVIA ETHEL. Soziologian lizentziaduna da El Salvadorreko Unibertsitateko (UES) Giza Zientzietako Fakultatetik. Bestalde, Gizarte-ikerketarako teknika eta metodoei buruzko Maisutza egin zuen El Salvadorreko Unibertsitatean (UES) (2005-2008). Hainbat ikerlan egin ditu, besteak beste, hauek: "Diagnóstico sobre necesidades prácticas e intereses estratégicos de las Mujeres del Movimiento de Mujeres Mélida Anaya Montes" (Mélida Anaya Montes Emakumeen Mugimenduko emakumeek dituzten beharizan praktikoak eta interes estrategikoen diagnostikoa); "Situación de las Mujeres de las Comunidades de Las Lucías, Las Marías, El Carmen y El Coco, después del Mitch" (Las Lucías, Las Marías, El Carmen eta El Coco erkidegoetako emakumeen egoera, Mitch urakana igaro ondoren); "Diagnósticos y Políticas de Género de los Municipios de Santa Tecla, San Rafael Cedros, Cojutepeque, Nueva Trinidad, Tecoluca y Mejicanos" (Genero-arloko politikak eta diagnostikoak Santa Tecla, San Rafael Cedros, Cojutepeque, Nueva Trinidad, Tecoluca eta Mejicanos udalerrietan); eta "Estrategias de las Organizaciones de Mujeres para la promoción y vigencia de los Derechos Sexuales y Reproductivos" (Sexu- eta ugaltze-eskubideak sustatzeko eta indarrean izateko emakumeen erakundeek dituzten estrategiak). Gaur egun, aholkularia da Las Mélicas erakundeko ikerketa-arloan.

MEJÍA, CLAUDIA MARÍA. Zuzenbideko ikasketak egin zituen, Giza Eskubideen espezialitatearen barruan. Era berean, Bake eta Garapenerako Ikasketetako Maisutza egin zuen. Hogeita hamar urte baino gehiago eman ditu Kolonbiako emakumeen eskubideak sustatzeko eta aldezteko lanetan. Kolonbian egin duen lanean, instituzio publikoetan eta pribatuetan jardun du. Gaur egun, eta, zehazki, 2003. urtetik hona, Corporación Sisma Mujer erakundeko zuzendaria da. Erakunde horrek laguntza eman nahi du emakumeen mugimendua ekintzaile politiko gisa sen-

dotu eta finkatu dadin, eta, era berean, jarduerak egiten ditu Kolonbiako emakumeen eskubideen alde. Duela gutxi, gainera, Estatu espainiarrean aritu da, herrialde horretan duen ordezkariaren bidez.

MONTERO, JUSTA. Ekonomia Zientzietan lizentziaduna da Madrilgo Unibertsitate Konplutentsetik (UCM). Horrez gain, Immigrazio, Babes eta Erkidegoen arteko Harremanetako Maisutza egin du Madrilgo Unibertsitate Autonomoan (UAM). Ekintzaile feminista da 1975. urtetik. Emakumeentzako zentro bat sortu zuen Madrilen, beste kide batzuekin batera; eta, era berean, Abortatzeko Eskubidearen aldeko Batzordeko, Erakunde Feministen Estatuko Koordinakundeko eta Batzorde Feministako kide sortzaileetako bat da, eta gaur egun ere batzorde horietan sartuta dago. Besteak beste, artikulu hauek eman ditu argitara: "Debates feministas en torno a la prostitución" (Eztabaida feministak prostituzioari buruz); eta "Feminismo, un movimiento crítico" (Feminismoa, mugimendu kritiko bat).

PALACIO, PILAR. Pedagogian lizentziaduna da, eta honako diplomatura hauek ditu: Bakearen Kultura, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan (UAB); Osasun Mentala Indarkeria Politikoaren eta Hondamendien Biktimekin, Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean (UCM); eta DEA Bakea, Gatazkak eta Demokrazia, Granadako Unibertsitatean (UGR). Era berean, ikerlan hauek egin ditu: "Unión Nacional de Mujeres Saharaui y Movimientos de mujeres palestinas e israelíes por la paz" (Emakume Sahararren Batasun Nazionala, eta emakume palestinarren eta israeldarren bakearen aldeko mugimenduak); eta "La construcción de la paz desde la perspectiva de género en el Mediterráneo 2005-2008" (Bakea eraikitzea genero-ikuspegitik Mediterraneo aldean, 2005-2008). Bestalde, koordinatzaile akademikoa da "Emakumeak eta Bakearen Kultura" izeneko on-line unibertsitate-ikastaroan.

RANGEL, LAURA. Zuzenbidean lizentziaduna da, eta ibilbide luzea egin du giza eskubideen babesean arituz, batez ere, lan arloko eskubideen eta emakumeen eskubideen alde jardunez. Orobat, esperientzia du merkataritza askeari buruzko eztabaida publikoetan eta aztertze-lanetan. Hona hemen argitara eman dituen dokumentu nabarmenetako batzuk: "Los derechos de las mujeres y el TLC: letra muerta o compromiso" (Emakumeen eskubideak eta Merkataritza Askeko Itunak: hitz hutsak edo konpromisoa); "Plan de Igualdad de Oportunidades... preguntas, logros y riesgos" (Aukera-berdintasunerako Plana... galderak, lorpenak eta arriskuak); "Deuda externa: más discriminación para las mujeres" (Kanpoko zorra: bereizkeria gehiago emakumeen aurka); "ALCA y Agricultura: la inequidad se legitima" (Amerikako Merkataritza Askeko Arloa eta nekazaritza: ekitate eza legezkatzat hartua); "Funcionalidad del trabajo de las mujeres en la producción de flores para la exportación" (Esportatzeko loreen ustiapenean emakumeek egiten duten lanaren funtzionaltasuna); eta "Del dicho al hecho o del derecho al hecho. Los derechos económicos, sociales y culturales de las mujeres" (Esanak eta eginak edo eskubideak eta eginak daukaten alde handia. Emakumeek ekonomian, gizartean eta kulturaren dituzten eskubideak).

RUIZ, NADIA. Itsas Zientzietan lizentziaduna da, eta Genero eta Garapenerako Maisutza egina du. Ingurumen-arloko garapenerako gobernuz kanpoko hainbat erakundetan aritu da lankidetzan, Estatu espainiarrean, El Salvadorren, Nikaraguan, Ekuadorren eta Guatemalan. Gaur egun, IPADE Fundazioko ordezkaria da Guatemalan. Bertan, urari lotutako proiektuak koordinatzeaz gain, Ekuadorreko Genero eta Ingurumenari buruzko liburu bat prestatzen ari da, eta parte hartzen ari da emakumei eta babestutako arloei buruzko artikulu bat argitaratzeko.

TERUEL, HOGLA. Gizarte Lanean lizentziaduna da Hondurasko Unibertsitate Autonomotik, eta Genero eta Landa Garapenari buruzko Ikasketetan diplomaduna da Francisco Morazán Unibertsitate Pedagogikotik. Emakumeen Partaidetzarako Programaren koordinatzailea da, Emakumeen Eskubideen aldeko Zentroan (CDM). Hamasei urte baino gehiago eman ditu lanean

antolatutako emakumeen buruzagitza sendotu nahian, hau da, emakume nekazarien, sindikalisten, sortzaileen, eta hiri- eta landa-guneetako alderdi politikoetako emakume ekintzaileen buruzagitza indartu nahian. Hezkuntza-arloko era askotako materialak prestatu ditu beste kide batzuekin batera.

VILLANUEVA, ESTHER ELENA. Soziologian lizentziaduna da, eta, orobat, esperientzia du genero-ikuspegitik landa-garapenerako proiektuak diseinatzeko, betearazteko eta jarraipena egiteko lanetan. Era berean, oso aritua da emakumeen erakundeekin, erakunde mistoekin eta landa-ekoizleen erakundeekin sustatzeko lana eta landa-lana egiten. Bestalde, hainbat artikulu eta argitalpen atera ditu, hala nola, hauek: "Microempresarias rurales: construcción de futuro con seguridad alimentaria" (Landa-guneetako emakume mikroenpresaburuak: etorkizuna eraikitzea elikadura-arloan segurtasuna izanda); eta "De invisibles a ciudadanas: por los derechos ciudadanos de las mujeres rurales y su derecho a la identidad" (Ikusezin izatetik, herritar izatera: landa-guneetako emakumeek herritar gisa dituzten eskubideen alde eta haien nortasunari eusteko duten eskubidearen alde).

Aurkezpena

Eskuartean duzun argitalpen hau **Generoa Garapenerako Hezkuntzan: Iparra-Hegoa eztabaidagaiak, emakumeen agenda politikorako** proiektuaren barruan plazaratu da, eta, beraren bitartez, HEGOA eta ACSUR-LAS SEGOVIAS elkarteek gizartea kontzientziatu nahi dute, emakumezkoen eta gizonezkoen botere-harremanen desberdintasunen gainean. Gainera, bere helburua da Nazioarteko Lankidetzari eta Garapenerako Hezkuntzari lotutako eragileek genero-ekitatea giza-garapenerako funtsezko gaitzat har dezaten, eta onar dezaten, halaber, emakumeen eta feministen elkarteen lana, aldaketa-eragile gisa. Horretarako, erakunde horiek sendotu eta Iparra eta Hegoaren artean itunak sinatu beharko dira.

HEGOA eta ACSUR-LAS SEGOVIAS elkarteen balioen artean emakumeen giza-eskubideen defentsa sustatzea dago, emakumezkoen eta gizonezkoen harremanen egiturazko baldintzak aldatzea, baita balore zein estereotipo sexisten kontrako borroka bultzatzea ere. Gisa horretan, ekimen hau abian jarri da, garapenerako lankidetzaren agendan emakumezkoen interesak jaso daitezten, eta GGKEek eta Hegoaldeko emakumeen erakundeek elkarrekin estrategia posibleak bidera ditzaten.

Argitalpenak ondorengoak ditu aztergai: emakumeen eskubide ekonomikoak; gatazka armatuak genero-harremanetan eragiten dituen ondorio negatiboen murrizketa, eta bakearen eraikuntza lortzeko emakumeen ekarpena; eta, azkenik, emakumeen herritartasun-partaidetza eta eragin politikoa. Lan horiek guztiak urte askoan landu izan dira hausnarketarako eta elkarriketarako espazio ezberdinetan; horietan guztietan, iparraldeko nahiz hegoaldeko adituek, GGKEetakoeak eta mugimendu feministakoeak parte hartu dute. Zinez uste dugu gai horiek lantzea ezinbestekoa dela emakumezkoen giza-eskubideen lorpenean aurreratzeko. Zentzu horretan, hiru ardatz horiek oinarri harturik, Latinoamerikako emakumeen errealitatean sakondu nahi dugu. Hala, bada, genero-ekitatea aintzat hartuz giza-garapena eraikitzea xede duten Hegoaldeko elkarte feministen esperientzia batzuk ezagutaraziko ditugu.

Hiru gai horiek hiru kapitulutan banatzen eta garatzen dira: 1. Emakumeen eskubide ekonomikoak; 2. Generoa, gatazka armatuaren eragina eta bakearen eraikuntza; eta 3. Emakumeen herritartasun-partaidetza eta eragin politikoa. Hiru kapituluek egitura berbera dute, hainbat ataletan banaturik, eta arestian aipatutako gaiak sakon heltzen diete. **Ikuspuntu feministak** izeneko atalarekin ematen zaio hasiera argitalpenari, eta ikuspuntu feminista batetik hurbildu nahi zaie gaiak. Ondoren, **Herrialdearen egoera orokorra** dator. Bertan, herri batzuek esparru ezberdinetan duten egoera deskribatzen eta aztertzen da, betiere, emakumearen historia eta euren eskubideen bilakaera nabarmenduz. Herrialde bi hautatu dira kapitulu bakoitzeko –eredu gisa–: El Salvador eta Peru lehenengo kapituluan; Kolonbia eta Guatemala, bigarrenean; eta Bolivia eta Honduras hirugarren eta azken kapituluan. Hirugarren ataletan, **Latinoamerikako emakumeen elkarte** eta

elkarteengandik feministengandik ikasiz gaia jorratzen da, eta bertan, Latinoamerikako emakumeen elkarte ezberdinek gauzatutako praktika egokiak eta esperientziak jasotzen dira: Las Méridas (El Salvador) eta Flora Tristán (Peru); Sisma Mujer (Kolonbia) eta Giza Eskubideen Legezko Ekintzen Zentroa (Guatemala); eta Red ADA (Bolivia) eta Emakumeen Eskubideen Zentroa (Honduras). Laugarren atalean, Latinoamerikako emakumeen elkarte eta elkarte feminista batzuen direktorioa izenekoan, emakumeen eta feministen hainbat erakunde, mugimendu eta sare adierazten dira, garapenerako eragile gisa ezagutzera emateko. Bosgarren atalean, **Kanpainak** deritzonak, lau kanpaina jaso dira gai bakoitzeko. Gisa horretan, elkarte feministak garatzen ari diren ekintzak ezagutarazi nahi dira, gure inguruko lankidetzaren eragileen artean zabaldu daitezkeen. Eta, buruenik, azken atalean, **Bibliografia** izenekoan, bai iparraldeko bai hegoaldeko baliabide bibliografiko batzuk adierazten dira, argitalpen honek proposatzen dituen gaietan are gehiago sakontze aldera.

Espero dugu hemen aurkezten zaizuen edukia interesgarria iruditzea Garapenaren arloan lan egiten duten lagun, elkarte eta erakundeei, baita hausnarketa kritiko feminista sustatzen dutenei ere. Era berean, GGKEen eta Iparra-Hegoa mugimendu feministaren artean hitzarmenak sortzea eta sareak sendotzea espero da lan honen bitartez.

Bukatze aldera, aurkezpen honi amaiera eman baino lehenago, gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu argitalpen honen dokumentu bakoitzaren egile orori, izan ere, euren parte-hartzerik gabe eta ekimen honen aldeko apustu desinteresaturik gabe, ezin izango genukeelako talde-lan hau egin. Halaber, Eusko Jaurlaritzako Lankidetzarako Zuzendaritzari eta Nazioarteko Lankidetzako Espainiako Agentziari ere bai, argitalpen hau ateratzeko eta proiektu honetan saritutako ekintzak egiteko eman diguten laguntzagatik.

HEGOA

ACSUR-LAS SEGOVIAS

Sarrera

Emakumeen giza eskubideak nazioarteko zuzenbidean jasotzen dira, baina adierazpen hori ez da nahikoa, praktikan gizonezko eta emakumezkoen arteko harremanen aniztasunari, berariazotasunari eta zailtasunari erantzuten ez bazaio. Askotan, eskubideen aintzatespen hori araudi juridikoan soilik jasotzen da eta ez da gauzatzen, hau da, eskubideok ez dira praktikara eramaten. Eskubide horiek eskuratzeko, lan-ildo bateratuak koordinatu behar dira nazioarteko lankidetzaren eragileen artean, genero-ekitatea lortzeko. Hala, genero-ekitatea giza eskubideen auzi bihurtuko da, baita gizarte-justiziarena ere. Nazioarteko lankidetzaren eragile ezberdinek baliabideak landu eta politikak garatu behar dituzte, emakumeen premia eta interes estrategikoak, bai eremu publikoan bai pribatuan, aintzat hartuz. Gisa horretan, historian zehar emakume jaio izanagatik jasan-dako desberdintasunak eta egiturazko injustiziak ezabatzea bermatu ahal izango da.

Garapen ekonomikoaren eredu neoliberalaren inpaktuak, globalizazioak, eta sistema patriarkalak modu negatiboan eragiten diete genero-harremanei, baina, batez ere, bazterketa bikoitza eta hirukoitza jasaten duten emakumeen bizitzetara. Era berean, globalizazio ekonomikoak garapenean eragiten du, eta politikan nahiz gizartean ez bada esku hartzen eredu bidezkoagoak eta zuzenagoak lortze aldera, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko botere-desberdintasunek areagotzen segituko dute. Funtsezkoa da berdintasunean eta emakumeen parte-hartzean oinarritzen den sistema bat eratzen laguntzea. Modu horretan, emakumeek garapen-eragile gisa jardungo dute, egungo sistemak biztanleen erdia baino gehiagorengan eragiten duen menpekotasun eta nagusitasun egoera gainditzearren. Aberastasuna banatzeko beste modu batzuk aurkitu behar dira, baita gizarte-eredu baten eta gizarte solidarioen oinarriak sendotzeko bideak ere, emakumeak subjektu aktiboak izan daitezten. Zenbait hamarkadaz geroztik, emakumeek garapenean aktiboki parte hartu izan dute. Halere, emakumeak gobernu kanpoko erakundeetan eta gizartearen bestelako sektoreetan gutxietsiak eta ikusezinak izan dira. Horrenbestez, nazioarteko lankidetzaren gobernu eta eragileek emakumeen elkarte eta talde feministen ekimenak bultzatu behar dituzte, eta euren politiketan emakumeen agendak sartu behar dituzte.

Nazioarteko lankidetzak emakumeen giza eskubideak eta herritartasuna sustatzeko erronka du, emakumeen jabekuntzaren bitartez. Xede horretarako, herrialde guztietan eskubide ekonomiko, sozial, sexual, politiko eta kulturalak betearaziko dituzten neurri zehatzak proposatu eta garatuko ditu. Garapenerako lankidetzan genero ikuspegia aintzat hartzeko, beharrezkoa da emakumezkoen eta gizonezkoen arteko harremanak definitzen eta antolatzen diren errealitatearen azterketa kritikoa egitea; hala, bazterkeria eragiten eta iraunarazten duten zioak antzemango dira. Gainera, arazoan esku hartzeko ildoak ezartzea nahitaezkoa da, ikuspegi hori garapenerako ekintza ororen ardatz estrategikoa eta nagusia izan dadin, eta egungo botere-harremanak aldarazteko.

Emakumeen eskubide ekonomikoak

Arestian aipatu dugun legez, hainbat dira genero desberdintasun hau eragiten duten zioak, baina guztiek ere ezaugarri komuna dute: egungo eredu ekonomiko neoliberean eta sistema patriarkalaren joeretan oinarritzen dira. Izan ere, politika ekonomiko neolibereak eta sistema patriarkalak lanaren banaketa sexuala betikotzen dute, eta, ondorioz, gizarteak ez ditu igartzen emakumeen jarduerak ezta lana ere, eta, askotan, ordaindu ere ez diete egiten. Horren guztiaren kariaz, emakumeen autonomiaren garapena oztopatzen dute, laneko eta bizitzako aukerak murrizten zaizkie eta nekez eskura dezakete euren jabekuntza ekonomiko irrikatua eta beharrezkoa. Beraz, horrek guztiak emakumeak pobrezia mugaren azpitik egotea baldintzatzen du.

Hegoaldeko herrialdeetako emakumeen egoera ekonomikoak modu arras negatiboan eragiten die euren eskubideei. Emakumeen pobrezia hertsiki loturik dago euren eskubide ekonomikoak izateko eta erabiltzeko pairatzen duten bazterkeriarekin. Emakumeek erantzukizun eta betebeharr handiagoak dituzte; munduko etxe gehienak kudeatzen dituzte; irtenbideak bilatzen dituzte goseari aurre egiteko, senide eta euren komunitateen elikadura ziurtatzeko; euren menpe dauden pertsonen segurtasun fisiko, ekonomiko eta osasunaren jagole dira; eta muga handiak dituzte. Emakumeek ondasunak eta baliabideak eskuratzen dituztenean, euren beharrak bermatzen direla esan nahi du, besteak beste, elikadura, osasun eta hezkuntza arloetan. Baina ez hori bakarrik, autoestimurako elementu funtsezko bat izateaz gainera, erabakiak aske eta modu autonomoan hartzeko aukera ahalbidetzen zaie horrela. Beharrezkoa dute euren eskubideez baliatzea, izan ere, gaur egun oraindik modu masiboan esleitzen zaie tradiziozko rola (ugaltzailea, jagolea eta babeslea), euren zeregin naturala hori izango bailitzan.

Azken hamarkadotan, emakumeak lan munduan sartzen joan dira (modu ezberdinean, herrialdearen arabera); halere, gizonaen aldean, bazterkeria handia jasaten dute lan mundura sartzeko orduan, baita baldintza eta aukerei dagokienez ere. Gainera, soldata-ordainsari baxuagoak dituzte, lanaldi bikoitzak edo hirukoitzak egiten dituzte, eta langabezia-tasa altuagoa da emakumezkoen kasuan, ezegonkortasun handiagoa izateaz gain. NBGPren arabera, 1995ean, emakumeek ordaindu gabeko lanaren bi heren egiten zuten mundu mailan; haatik, diru-sarreraren %10 soilik jasotzen zuten, eta ekoizpen bideen %1.

Nazioarteko ekonomiari eta merkataritzari buruzko eztabaidetan, generoaren inguruko gaiak ez dira lehentasunezko hartzen. Izan ere, batzar horietan gizonak dira batik bat egoten direnak, eta, ondorioz, ez dute premiazkoa ikusten genero-berdintasunaren aldeko aldaketarik bideratzea. Era berean, neurri politiko eta ekonomikoek (bai nazionalak bai nazioartekoak) modu ezberdinean eragiten diete emakume eta gizonei, baliabide ekonomiko eta sozialak eskuratzeko eta horiek kontrolatzeko egon dauden genero-desberdintasunak direla-eta. Neurri politiko eta ekonomiko horiek demokratikoki zehaztu behar dira, gobernu eta gizarte-mugimenduek (eta horien artean, besteak beste, tokiko mailako eta nazio mailako emakumeen elkarte eta talde feministak) parte hartzen dituzten prozesuetan. Merkataritza-sistema bidezko batek genero-ekitate sustatu behar du, eta garapen iraunkorreko politikak ezartzea eskatzen du, genero desberdintasunak antzeman eta aldatzeko. Gainera, baliabide egokiz hornitu behar dira emakumeen eta gizonen gaitasunak garatzea xede duten proiektuak eta programak. Eta, azkenik, pobreziarekin behin betiko amaitzeak izan behar du jomuga, baita emakumeen jabekuntza ekonomikoak ere. Merkataritzaren arloan, emakumeek zeregin ezberdinak dituzte, izan ere, ekoizle, enpleguemaile eta kontsumitzaileak dira. Era berean, ugalketaren eta zaintzaren ardura euren gain hartzen dute, baina, halere, ez dira eragile ekonomikotzat hartzen. Ekonomiaren arloan genero desberdintasunaren eragina neurtzeko adierazleak sortuz gero, emakumeek egiten duten lan ez ordaindua kontuan hartu beharko litzateke, baita produkzio-ekonomiaren eta ugalketa-ekonomiaren arteko desoreka jorratu ere.

Historikoki, emakumeei ukatu egin zaizkie euren eskubide ekonomikoak, eta modu marjinallean baino ez dute parte hartu izan jarduera ekonomiko nazionallean. Agente ekonomikoaren estatusa ukatu izan zaie, eta, ondorioz, erabaki arauemaileek familiarekiko erantzukizuna emakumearen esku jarri izan dute beti; inoiz ez dira hartu autodeterminaziorako eta autonomia pertsonalerako eskubidea duten herritar gisa. Gauzak horrela, lankidetzarako eragile gisa jarduten duten GGKEk garapenaren gaineko hausnarketa kritikoa egin behar dute, eta garapenak emakumeen eskubide ekonomikoen alde egin dezakeenaren gainean ere bai. Zentzu horretan, pribatutasunaren dimentsio politikoa eta emakumeen egoera antzeman behar dute, emakumezkoen eskubide ekonomikoen agenda feminista berreskuratzeko estrategiak gauzatze aldera.

Generoa, gatazka armatuaren eragina eta bakearen eraikuntza

Munduko milioika emakumek egunero jasaten duten indarkeriak giza garapena baldintzatzen du, biktimek ordaindu behar duten prezioa altua baita, oso. Egora horrek, ondorioz, gizartearen garapen ekonomiko, politiko, sozial eta kulturalen eragiten du.

Emakumeeek historian zehar jasan duten bazterkeria are gehiago larriagotzen da gatazka armatu-ko egoeretan, boterearen egitura sozial autoritarioaren eta patriarkalaren erruz. Horrenbestez, euren aurkako indarkeria-modu berriak sortzen dira, euren segurtasuna arriskuan jartzen da eta euren eskubideak etengabe mehatxatzen dira. Gizonek zuzentzen duten botere-agertoki honen ezaugarri nagusia da armen erabilera, emakumeak hertsatzeko eta menpean izateko. Eragile armatuek moneta-truke eta gerrako harrapakin erabiltzen dute emakumezkoen gorputza, eta, horretarako, genero indarkeriaz baliatzen dira. Emakume izate hutsagatik etsaia kikildu eta iraintzeko erabilitako indarkeriak (emakumezkoen eskubideak etengabe urratuz, euren herritartasuna ukatuz -eta herritartasuna erabiltzen badute, zigortuz-) errepresioa, hilketak, eroak, bortxaketak eta sexu-esplotazioa eragin izan ditu. Gainera, gehiegikeria hori are larriago bilakatzen da arraza, adin, klase, enda, erlijio edota sexu-aukera arrazoiak direla-eta.

Gatazka armatuak emakumeenganako sexu-indarkeriaren ereduak are gehiago okerragotzen ditu. Ekintza mota horiek areagotu egiten dira gatazka egoeran dauden komunitateak desegiten doazen heinean, baita gatazkak amaitu ondorengoetan ere. Kasu askotan, emakumeak okupazioko indar armatuekin zerbitzu sexualak ematera behartuta daude, horren truke baliabideak eskura ditzaten. Horregatik, gatazkak botere-harreman eta botere desberdintasunak handiagotzen ditu, eta emakumeei zuzen-zuzenean eragiten die: sexu-organoak kentzen dizkiete, antzutasuna izaten dute, ugalketa-osasuneko edo osasun ginekologikoko arazo kronikoak dituzte, eta, gainera, familiaren eta komunitatearen bazterketa jasan behar dute, sexu-abusuari loturiko estigma soziala dela-eta. Oro har, gatazkaren etapa guztietan bortxatzen dituzte emakumeak, eta, kasu gehienetan, gerraren ondorioztat baino ez dira hartzen, eta ez, giza eskubideen bortxaketatzat, askotan, inork ez baitie erreparatzen.

Indarkeria horri lotuta, teoria feministak munduko arazo politiko handietako bat feminizidioa dela uste du, emakumeen aurkako indarkeria egoera bati erreferentzia egiten diona, alegia, emakumeen aurkako gorroto erakustaldi legez, krimen horiek onartzen dituen egitura estatal eta judicial batek babesten duena. Bortxaketak prebenitu, zigortu eta konpontzeko nahiz zigorgabetasuna saihesteko ezer egiten ez duen eta emakumeen hilketak isilarazten dituen Estatuak praktika horiek onartzen ari da.

Gatazka armatuek joan-etorri derrigorrezkoak eragiten dituzte, eta, sarri askotan, familia desegiteko eta gizartea ezegonkortzeko gerra-estrategia gisa erabili ohi da. UNFPAk 2005ean gauzatu-tako txostenaren arabera, 35 milioi lagun daude errefuxiatu eta lekualdaturik, eta horien %80 emakumezkoak eta umeak dira. Horietako asko landa-gizarte tradizionaletatik datoz. Inguru

horietan genero-rolak oso zehaztuta daude, eta emakumeenganako bazterkeria ohiko zerbait gisa ikusten da. Derrigorrezko joan-etorriek emakumeak desabantailazko egoera batean egotea dakar-te, izan ere, etxeko erantzukizunei aurre egiteko beharrezkoak dituzten baliabideak eskuratzea mugatzen dizkiete, eta, ondorioz, emakumeek are txarrago sentitzen dira segurtasun ezagatik eta indarkeria fisiko eta emozionalagatik.

Emakumeen elkarte eta talde feministak bakearen katalizatzaile eta eraikitzaile izan daitezke; emakume hauek hainbat aldarrikapen eta esperientzia egiten dituzte bakearen alde eta indarkeriaren aurka; gatazka-uneetan eta gatazka ondokoetan mobilizatzen dira, eta, horregatik, hain zuzen, negoziazio-prozesuetan parte hartu behar dute, euren interesak agenda politikoetan kontuan har daitezten. Haatik, emakumeek funtsezko zeresana daukate prozesuetan, eta, askotan, ez dira aintzat hartzen gatazkek gainditu badira ere. Emakumeak, Bakea eta Segurtasunari buruz Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak onetsitako 1325. Ebazpenak emakumeenganako indarkeria mota oro errefusatzeko du. Aitzitik, euren interesen alde egiten du, eta emakumeek gatazka konpontzeko, bakea eraikitzeko eta munduko segurtasuna lortzeko prozesuen maila guztietan parte har dezaten aldarrikatzen du. Nazioarteko erakundeek hartutako konpromisoak gorabehera, gatazka armatuaren ondorioek ez dituzte genero-desberdintasunak aintzatesten kasu askotan.

Bake-prozesuetan, zenbait ekintzatarra daude mugaturik emakumeak: osasunaren oinarriko zainketak egin eta hezkuntza zerbitzuak eskaintzen dituzte, edota premiazko beharriaren horniduraz edo diru-sarrerak sortzeaz arduratzen dira. Gizonak arduratzen dira bakea mantentzeaz eta oso militariturik dago ataza hori. Hau da, gizonek prozesu horretan parte hartzen dutenean, kaleak eta mugak patruilatzen dituzte, kontrola mantentzeaz eta jendea "babesteaz" arduratzen dira, batez ere, emakumeak eta umeak; eta behin berriro, errepikatu egiten dira rolak, hots, emakumeak babestuak dira, eta gizonezkoak, berriz, babesleak. Genero-ekitatea aintzat hartzen duen bake iraunkorrak, eta egia-justizia-konponketa barne hartzen dituenak, emakumeak babesteaz gainera, erabakiak hartzeko prozesu-egituretan modu aktiboan parte hartu behar dute. Gauzak horrela, emakumeen eta gizonen arteko botere-harremanak gatazka armatuko testuinguruetan negoziatzeak erronka etengabea izaten jarraitzen du.

Testuinguru honetan, GGKEK gogoeta kritikoa egin behar dute beren esku-hartzeen ikuspegiaren gainean (gehienetan, epe laburrera begirakoak izaten dira) eta emakumeek epe luzera dituzten beharriari erantzuten hasi behar dira. Beharri horietako batzuk hauek dira: berdintasuneko ordezkari izatea erabakiak hartzeko prozesuetan eta lidergoko rolak betetzea gerraren osteko berreraikuntzan; era berean, salatu egin behar dira emakumeen giza eskubideak urratzen dituzten gobernu eta instituzioak.

Emakumeen partaidetza herritarra eta eragin politikoa

Herritartasun osoak eskubide eta betebeharrak franko dakar berekin, eta pertsona oroengana ezarri behar dira, sexua, arraza, klasea, endea, erlijioa edo sexu-aukera edozein dela. Alabaina, praktikan oso bestelakoa da egoera. Munduan antolatzeko aukeragun modua da herritartasuna, baita gure inguruan erabiltzen dugun boterea ere. Horrenbestez, genero ikuspegitik herritartasuna gogoan izan eta ulertzen bada, emakumeen eta gizonen bizimodua hobetu ditzaketen aldaketa-prozesuak negoziatzeko bidea ahalbidetu daiteke. Emakumeak orain gutxi jabetu dira euren eskubide eta betebeharrak politikoez. Alabaina, herritar gisa dituzten eskubideak ezin dituzte behar bezala gauzatu, sufritzen duten bazterkeriak etengabe zokoratzen baititu.

Nazioarteko lankidetzaren osatzen duten gobernu eta eragileek berdintasunean oinarritutako benetako demokrazia eraikitzeko ekimenak bultzatzeko ardura dute, emakumeen partaidetza aktiboa eta lidergoa barne hartuko dituztenak. Helburua ez da emakumeek botere-postuak betetzea

bakarrik, baita agenda politikoak eratzea ere, benetako genero-justizia lortze aldera. Berdintasunezko demokraziak emakumearen presentzia gizartean aintzat hartzen du. Baina ez hori bakarrik: Marcela Lagardek adierazten duenaren antzera, generoan oinarritutako benetako demokrazia egoteko, gizonezkoen jarrera aldatu behar da eta generoen arteko harreman demokratikoak sortu. Beraz, emakumezkoen eta gizonezkoen harreman berrietan oinarritu behar da herritartasuna. Hala, herritartasun horrek giza-eskubideekiko, garapen iraunkorrekiko eta mundu bidezkoagoa eta ekitatiboagoa eraikitzeko konpromisoa hartuko du.

Emakumeen parte-hartze herritarra gizarte eremura mugatzen da batik bat, izan ere, politika arloan gutxitan parte hartzen dute. Gaur egun, emakumeek modu aktiboan parte hartzen dute eta komunitateetako garapenerako eta babes sozialeko lanak, humanitarioak, hezkuntzazkoak eta osasunezkoak zuzentzen dituzte. Batzuetan, tokiko kanpaina politikoetan parte hartzen dute, baina oso gutxitan eskuratzen dituzte maila goreneko politika-karguak, dela tokiko mailan, maila nazionallean edo nazioartekoan. Pixkanaka-pixkanaka, emakumeen eskaerak agenda politikoetan jasotzen ari dira. Haatik, ez dago eskaerok lehenesteko edo praktikan jartzeko inolako asmorik.

Emakumeak bizitza politiko formaletik aldendurik egoteak demokraziak desitxuratu ditu, eta, oro har, euren presentziak sinbolikoa izaten segitzen du. Nazio Batuen Demokraziarako Fondoaren (UNDEF) arabera, mundu mailan, emakumeen ordezkartza politikoak %30ekoa izan behar da euren eskaerak inpaktu handia izan dezaten. Nolanahi ere, 40 herrialde baino gehiagotan, emakumeek parlamentuetan duten ordezkartza ez da %10era heltzen. Zenbait azterketaren arabera, politikan sartzen diren emakumezkoen kopuruak gora egiten duen heinean, aldatu egiten dira programa publikoak, ustelkeria desagertzen da eta gobernantzak hobera egiten du. Berdintasun politiko hori erdiesteko, hainbat herrialdek kuota-sistemak ezarri dituzte, emakumeek arlo horretan euren interesak defenda ditzaten.

Mugimendu feministari esker, emakumeek gero eta presentzia eta partaidetza handiagoa daukate politikan; mugimenduak hainbat aurrerapauso eman baditu ere (bozkatzeko eskubidea lortu, berdintasun formalari egindako ekarpena, ekintza positiboko mekanismoak abiatu, legeak aldarazi, desberdintasun historikoen aurka borrokatzeko erakundeak sortu, etab.), emaitzak nahiko eskaerak dira oraindik. Emakumeen elkarteek eta talde feministek gizartea aldatzearen alde lan egiten dute, herri-partaidetzaren eta eragin politikoaren bitartez. Beharrezkoa da azpimarratzea emakumeek eta euren elkarteek historian zehar izan duten zeresana, bai eta herrialdeen trantsizio eta demokratizazio prozesuetan horien lana eta ekarpenak ikusgai bihurtzea ere.

Emakumeen eragin politikoak, ekintza kolektiboa den aldetik, legitimatu egin behar da eta espazio ezberdinetatik itunak sinatu behar dira, hitzarmenak adostu eta partaidetza sustatu behar da. Era berean, gizarte zibilaren eta estatuaren arteko elkarrekintza etengabearen adierazgarri da; benetako demokrazia proposatzen du, politika gardenagoa sustatzeko eta estatuko instituzioen eta herritarren arteko botere-harremanak aldatzeko; hala, eredu demokratikoagoa lortuko da. Emakumeen elkarteek ahots propioa eta presentzia izan behar dute estatuko lurralde antolakuntzako negoziazio eta erabakiak hartzeko prozesu guztietan. Horretaz gain, bitartekaritza-mahaien bitartez, sortzen diren politika publikoak eta herritarren partaidetza-mekanismoak ebaluatu behar dituzte.

Ondorioak

Emakumeen giza-eskubideak garatzeko, pobreziarekin amaitzeko eta emakumezkoen eta gizonezkoen arteko botere-harremanen desberdintasunak gainditzeko, emakumei eskubide ekonomiko, sozial, kultural, zibil eta politikoak bermatu behar zaizkie, baita sexu-eskubide eta ugalketa-eskubideak ere. Horregatik guztiagatik, garrantzitsua da, oso, argitalpen honetan aurkezten diren gaiak

aztertzea eta sakontzea: *Emakumeen eskubide ekonomikoak; Generoa, gatazka armatuaren eragina eta bakearen eraikuntza; eta, Emakumeen herritartasun-partaidetza eta eragin politikoa.* Gaiok hausnarketa kritiko feminista sustatu nahi dute, eta gizartea nahiz politika aldatzeko landu beharreko esparru ezberdinak zehaztu, gizarte bidezkoago eta ekitatiboagoak lortzeko. Beharrezkoa da mundu osoko emakumeek bizi duten egoera identifikatzea. Garrantzitsua da, halaber, emakumeok aurre egin behar dieten arazoak ezagutzea, genero ikuspuntutik giza-garapenaren paradigmaten aplikazio praktikoa proposatzea ahalbidetzen duten ekimenak bultzatzeko.

Emakumeen mugimendu feministek giza-eskubideetan jarritako enfasi berezia estrategia ona izan da, gobernuei presioa egiteko eta aldarrikatzeko euren agenda aintzat har dezaten. Izan ere, azken horiek dira eskubideok betetzen direla bermatu behar dutenak, eta horietaz arduratu behar direnak. GGKEk eta emakumeen elkarte eta talde feministek (sistema aldatzeko eginkizun aktiboa dutela) sinergiak koordinatu eta hitzarmenak sinatu behar dituzte giza-eskubideen inguruan. Modu horretan, emakumeek garapenari etekina ateratzeko orduan topatzen dituzten oztopoak eta mugak gaindi ditzakete, eta baldintza eta aukera-berdintasun osoz euren eskubideak erabili. Garrantzitsua da GGKEk eta, oro har, lankidetzak eragileek erakunde horiek kontuan hartzea, emakumeen eskubideak defendatzerakoan tresna egokiak identifikatzeko, eta benetako genero-berdintasun eraginkorra jadesteko.

Etorkizunari begira, antolakuntza-modu eta estrategia berriak xehatu beharko dira esparru guztietan, gobernuek eta nazioarteko lankidetzak erantzukizunak eta konpromisoak hartu eta abiaraz ditzaten, genero-berdintasunaren alorrean aurrera egiteko; horretarako, emakumeen eskubideak berriro zehaztuko dira, egungo garapen ereduari segitu barik.

1. kapitulu

Emakumeen eskubide ekonomikoak



Ikuspegi feministak

Atal honetan, emakumeen eskubide ekonomikoen gaia landu nahi da, ikuspegi feminista batetik. Ekonomiari buruzko kontzeptu eta ikuspegi ezberdinak labur aztertzen dira, generoaren botere-harremanen ikuspegia aintzat hartuz. Egungo globalizazio ekonomikoan, emakumezkoek bazterkeria handia jasaten dute, etxeko produktibitatean, merkataritza-lanetan baita zaintza-lanetan ere, eta horrek euren bizitza kalitatean modu negatiboan eragiten die. Gisa horretan, ohiko teoriak berrikustea proposatzen da, eta emakumeak biztanleria aktibo gisa kontuan hartzea. Gainera, emakumeek ekonomia ez formalean duten parte-hartzearen gaineko ikerketa sakona egin behar da, izan ere, azterketa ekonomikotik at geratu izan dira beti, etxeko lanak nahiz zaintza-lanak emakumeen berezko atazatzat jo izan baitira. Oro har, emakumeak eztabaida ekonomikotik at geratu izan dira; horregatik, hain zuzen, ez dira aintzat hartu esku-hartze publikoa planifikatzeko orduan. Horrenbestez, beharrezkoa da GGKEek Latinoamerikako emakumeen elkarte, mugimendu eta talde feministen ekimenak bultzatzea, egungo sistema ekonomikoa aldatzea baitute helburu, euren eskubideak babeste aldera. Historian zehar, kritika ekonomikoek ez dituzte kontuan hartu emakumezkoen eta gizonezkoen arteko ezberdintasunak, eta horregatik, hain justu, ekonomia feministak bide berriak urratzea proposatzen du, lagun guztiek bizi-kalitatea eta giza-garapen hobea izan dezaten.

Ekonomia feminista: emakumeen eskubide ekonomiko, sozial eta politikoen aldeko apustua

Yolanda Jubeto

"Emakumeek mundu desberdina nahi dute, non generoan, kastan edo etnia jakin bateko kide izatean oinarritutako ekitate eza¹ desagertu egingo baita herrialde guztietatik eta herrialdeen arteko harremanetatik. Mundu desberdina nahi dute, non oinarritzko beharrianak asetzea oinarritzko eskubidea izango baita; non pobrezia eta indarkeria mota guztiak desagertu egingo baitira; non emakumeen ordaindu gabeko lana (komunitatea elikatzeko eta zaintzeko, eta komunitateari eusten dion sarea osatzeko) baloratu egingo baita, eta gizonen ere modu berdintzailean konpartituko baitute lan hori; non pertsona bakoitzak bere potentzial eta sormen osoa garatzeko aukera izango baitu; non emakumeen aurrerabidea gizaki guztien aurrerabide gisa aitortuko baita".

Noeleen Heyzer (UNIFEM, 2000)

Ekonomia genero-harremanen perspektibatik aztertzeke, zenbait ikuspegi erabil daitezke. Lerro hauetan, hasiera-hasieratik ikuspegi erakargarriena eta emankorra dela iruditzen zaiguna hartuko dugu, hau da, bere baitan harreman sozial eta ekonomikoaren ikuspegi feminista hartzen duena. Planteamendu horrek dio ekonomia funtsezko helburua bizitzaren iraunkortasuna bermatuko duten baldintza egokiak aztertzea dela, kolektibotasuneko emakume eta gizonen bizikaltatearen aldeko apustu argia eginez. Erronka horrek aldaketa erradikala dakar azterketa ekonomikoan, eta eraldatu egiten du diziplina hori, normalean androzentrikoak diren oinarritzko kasuetako batzuk aldatzean. Izan ere, bere nahia da "emakumeen zein gizonen errealitatea integratu eta aztertuko duen ekonomia eraikitzea".²

Ohiko teoria ekonomikorik gehienek, teoria heterodoxoek barne, albo batera uzten dituzte historikoki emakumeek egin dituzten jarduerak, eta, normalean, "ez ekonomikoa" denaren espazioan sartzen dituzte emakumeak. Emakumeak kontuan hartu izan diren aldi gutxietan ere, zilegitasu-

¹ Bat gatz Lourdes Beneriak (2005:64) zita horri buruz duen iritziarekin. Izan ere, bere ustez, esaldia luzatu egin zitekeen, bertan sartuz arraza, nazionalitate, erlijio eta orientazio sexuarekin oinarritutako faktoreak, besteak beste. Hala ere, oso argigarria eta inspiratzailea iruditu zaigu, oso apustu argia egiten du-eta emakumeen oinarritzko eskubideen alde.

² CARRASCO, C. (1999:12-13): *Mujeres y economía, nuevas perspectivas para viejos y nuevos problemas*. Icaria. Antrazyt, 147. zk.

na eman zaio dagoen bazterketari, hau da, ukitu androzentriko handia erabili izan da. Hori dela eta, ohiko ekonomiari egiten zaion kritika nagusienetako bat da planteamendu murriztaile eta baztertzaila duela oinarri³, bere jatorria ahazten du eta. Izan ere, bere jatorriaren arabera, ekonomia ("eikos-nomia") Grezia klasikoko etxeen kudeaketa eta administrazioa da.

Hori horrela, XVIII. mendearen amaieran, zientzia ekonomikoa aberastasunaren sorreraren ikerketa gisa hasi zen eratzten, eta, apurka-apurka, merkataritza-produkzio kapitalistan oinarrituz joan zen. Aldi berean, gizarteko oinarritzko instituzioak, bereziki familia, oinarritzko izate gisa utzi zituen, baina azterketa ekonomikotik kanpora. Jarduera ekonomikoaren ikuspegi horretatik abiatuta, "gizon ekonomikoa" izeneko agente ekonomiko nagusia eratu eta definitu da. Maskulinitasunaren estereotipoa da, eta, deskribapenaren arabera, gizon autonomoa da, egoista merkatuan eta altruista etxean. Gainera, erabakiak modu arrazionalen hartzen ditu, bere interesei emanez lehentasuna modu jarraituan, eta alde zuzenetik definitutako lehentasun eta gustuak ditu, denboran zehar egonkorrak direnak. Ekintzaren bat egiten duenean, bere erabilera pertsonala maximizatzen du, eta, normalean, bere testuinguru sozialetik isolatuta dago.

Gizakien portaera ekonomikoaren karikatura horrek ez du pertsonen arteko interdependentzia kontuan hartzen, eta ez ditu esanguratsutat hartzen etxeko zainketa, produkzio eta kudeaketa lanak, garapen pertsonal eta kolektiborako funtsezkoak diren arren. Teoria horien arabera, emakumeak senarrekiko menpetasun ekonomikoa duten emazteak eta amak dira. Beraz, etxeko lanean espezializatutako gizakitzat hartzen dira, lan horiek egiterakoan garatzen diren gaitasunak aztertu gabe. Ondorioz, esan daiteke merkatuan ez direla hain produktiboak, eta pertsonen zainketa emakumeek soilik egin beharreko lan "natural" gisa hartzen da. Hain zuzen ere, lan hori emakumeek egin behar dute, baina lanak duen garrantzia behar bezala baloratua izan gabe.

Ekonomia feministaren (EF) lehenengo elementu gisa ohiko teoria ekonomikoekiko kritika hartzen badugu, esan dezakegu zientzia ekonomikoa bezain historikoa dela. Hasiera-hasieratik, ekarpen feministak oso kritikoak izan dira teoria horien gabeziekin, batez ere lanaren, enpleguaren eta soldaten bazterketaren esparruan. Hala ere, joan den mendeko 70eko hamarkadara arte, ez zen sendotzen hasi⁴ ohiko teoriak kritikatzeko eta beraiei erantzuteko mugimendu antolatuek.

EFren osaketa teorikoaren oinarriak generoaren kategoriaren botere analitikotik abiatzen dira. Horrek berriaz egiten dio erreferentzia maskulinitasunaren eta feminitasunaren eraketa sozialari, gizartean ditugun itxaropenak eta jokatu beharreko rola baldintzatzen dituzten kategoria gisa. Era berean, emakumeek eta gizonen bizi dituzten egoerak lotzen ditu, harreman-konzeptu bat da eta. Ondorioz, ezin da emakumeen egoera ulertu eta aldatu, gizonena ere aldatu gabe. Ikuspegi horri jarraituz, "emakume eta gizonen arteko desberdintasunak sorrarazten dituzten prozesu eta instituzio sozialak aztertu daitezke, bai eta emakumei zelak kentzen zaizkien beraien lanaren etekinak, genero bien gaitasun eta portaeraren balorazio asimetrikoa, eta horrela sortzen diren baliabide eta botereetarako sarbideak ere"⁵.

³ GARDINER, Jean (1999): "Los padres fundadores" in Cristina Carrasco: *Mujeres y economía, nuevas perspectivas para viejos y nuevos problemas*. Icaria. Antrazyt, 147. zk.; eta Cristina Carrasco (2006): "La economía feminista: una apuesta por otra economía" in M^a Jesús Vara (koord.): *Estudios sobre género y economía*. Madril: Akal.

⁴ Prozesu horretan, 90eko hamarkadaren hasieran, Ekonomia Feministaren Nazioarteko Elkarte (IAFFE, *International Association For Feminist Economics*) eratu zen. 1995etik aurrera, elkarte hori *Feminist Economics* aldizkaria plazaratzen hasi zen, bertan jasoz mundu osoko (batez ere, mundu anglosaxoiko) ekonomista feministen eztabaidarik nagusienak eta gaur egungo ekarpenak.

⁵ MURGUIALDAY, Clara (2005:95): *Las mujeres en la cooperación para el desarrollo*. Euskal Lankidetzaren Publikoa. Presakuntza-eskuliburuak. Eusko Jaurlaritzaren Gobernua.

Beraz, azterketa ekonomiko hau gure errealitatean oinarritzen da, eta, bertan, gizarte hierarkizatuak agertzen zaizkigu, non balore, estereotipo eta tradizio multzo bat ikusten baita. Hain zuzen ere, ezaugarri horiek emakumeek jasaten dituzten egiturazko bazterketen oinarrian daude. Prozesu honetan, emakumeek mendez mende egin izan dituzten jardueren desbalorizazio sozialak eragin argia dauka (esate baterako, bizitzaren hasieratik egin izan dituzten zainketa lanak). Hori horrela, gizartearen egituraketan oinarritzakoak diren etxeko lanak eta zainketa lanak baztertu egin dira, ez-ekonomikotzat hartuak izan direlarik. Ondorioz, azterketa ekonomikotik ere baztertu izan dira. Aldi berean, jarduera ekonomikoaren eduki eta mugen pertzepzioak nabarmen baldintzatzen ditu politika publikoak; izan ere, esfera horretatik sistematikoki baztertu diren jarduerak ez dira kontuan hartuak izan esku-hartze publikoa planifikatzerakoan, kasu batzuetan komunitatearen bizitza ekonomikoaren funtsezko euskarriak diren arren.

Testuinguru horretan, feminismoak zientzia ekonomikoari egin dizkion ekarpen nagusiek diote maila teorikoan ezarritako muga faltsuak gainditu egin behar direla. Gauza bera gertatzen da emakumeek esparru sozioekonomikoan bizi duten bazterketa handiarekin (etxeko produktzioan, zainketetan edo merkataritzako lanean) eta esparru politikoan bizi dutenarekin (erabaki politikoak hartzeko prozesuetan duten partaidetza maila, gure bizi-baldintzetan eragin zuzena dutenak). Eta hori guztia, gizarteak ongizatearen sustapenerantz joan daitezen, maila indibidualean zein sozialean.

Prozesu honetan sendotu diren oinarritzko ekarpen feministen artean, eta funtsezko esparru pare bat nabarmentzekotan, lanaren kontzeptuari buruzko hausnarketak aipatuko ditugu, ongizate pertsonal eta sozialaren alde egiten duten eta normalean ekonomian erabiltzen diren jarduera eta enplegu kontzeptu murrizak gainditzen dituzten jarduera multzo gisa. Horrek merkatutik pasatzen ez diren eta, batez ere, unitate familiar eta komunitarioen esparruan egin izan diren erreproduktio sozialerako oinarritzko jarduerak hartzen ditu bere baitan. Hori horrela, oso garrantzitsua izan da etxeko unitatearen barne-ezaugarriak eta zereginak argitara ematea, sarritan emakume eta gizonen arteko gatazkak eta gizarte-harremanen erreproduktioak sorrarazten dituzten negoziatio prozesuak ezagutaraziz. Makroekonomiaren esparruan egindako ekarpenak ere aipatzeko modukoak dira. Izan ere, ekarpen horiek handitu egiten dute sortutako aberastasunaren kontzeptua eta Kontabilitate Nazionalean kontzeptu hori kalkulatzeko modua, makroekonomiak modu mugatu eta zeharrean neurtzen baitu gizarte baten aberastasuna.

Aldaketa kontzeptual horiek direla eta, berriro planteatu behar izan da sexuaren arabera banatutako estatistiken garrantzia, eta, horrela, aktiboen eta baliabideen (denbora barne) erabilera handia ere hartu izan da kontuan, horrek oraindik ere emakume eta gizonen arteko desberdintasun handiak islatzen baititu. Era berean, ekonomia feministak eskaintzen duen ikuspegiaren irekitasunari esker, merkatuko harremanei ematen zaien zentraltasuna gainditu egin daiteke, familian eta komunitatean sortzen diren giza harreman produktiboak merkatuan kokatuz, antolakuntza sozialaren eta pertsonen bizi-kalitatearen ardatz garrantzitsuak diren aldetik.

Subertsio horren ondorio politikoak izugarriak dira, gainditu egiten baita merkataritza-portaeraren patrioiak (ezaugarri androzentriko argikoak) onartu behar dituztenak emakumeak direla dioen ikuspegia. Bertan esaten da, era berean, eraldaketa horrek aldaketa sakonak ekarri behar dituela lan produktiboaren antolakuntza sozialean, bizitzaren iraunkortasuna eta kalitatea izan daitezen ekonomiaren azken helburuak. Ondorioz, horrek irabazi ekonomikoaren bilaketa gainditzen du, jarduera ekonomikoaren helburu nagusi gisa. Alabaina, ideia hori oso zabaldua dago gure gizarteetan, eta zaila da harreman justu, orekatu eta solidarioagoak izango dituen mundu bat imajinatzea. Bertan, jarduera ekonomikoaren lehentasunak bizi-kalitatearen defentsan oinarrituko dira, albo batean utziz etekin giza ongizatearen gainetik ekonomikoa lortzeko nahia.

Azkenik, feministek giza garapenaren paradigmatari egin dioten ekarpenen garrantziari buruzko hausnarketa pare bat egin nahi dugu, horrek aukera emango baitigu emakumeen eskubideen perspektiban sakontzeko, herrien garapenerako funtsezko elementua den aldetik.

“Giza garapena pertsonak dituzten aukerak zabaltzera garamatzen prozesua da. Hasieran, aukerak infinituak izan daitezke, eta denboran zehar aldatu egin daitezke. Baina, garapen maila guztietan, pertsonen oinarritzko hiru aukerak hauek dira: bizitza luze eta osasuntsua izatea, ezagutzak eskuratu ahal izatea eta bizi-maila duinaz gozatzeko baliabide nahikoak eskuratu ahal izatea. Funtsezko aukera horiek existitzen ez badira, beste aukera asko ere ezingo dira lortu. Baina giza garapena ez da hor amaitzen. Askatasun politiko, ekonomiko eta soziala dira jende askok estimatzen dituen beste aukeretako batzuk, eta gustuko aukeren artean daude sortzailea eta produktiboa izateko aukerak eta autoerrespetu pertsonalaz eta giza eskubideez gozatzeko aukerak ere”⁶. Hori horrela, “giza garapena ezinezko zerbait da, gizon eta emakumeen arteko berdintasunik ez badago. Emakumeek garapen prozesutik baztertuta egoten jarraitzen duten bitartean, prozesu horrek ahula eta desorekatua izaten jarraituko du. Giza garapen iraunkorrek garapen paradigma bat sortzea dakar”⁷.

Azken batean, emakumeen giza eskubideak bermatuko dituen gorputz teorikoa egin behar da. Eskubide horien artean leudeke aktibo eta baliabide ekonomikoak eskuratu eta kontrolatzeko gaitasuna, bai eta bere gorputzarekiko, harremanekiko eta jardueretik erabakiak hartzeko gaitasuna ere. Horrek gizonen erantzukizun partekatua eta sistema ekonomikoaren eraldaketa inplikatzeko du, non herritartasun ekonomikoa emakumeen eskaeren elementu eratzailea izatera helduko baita, beraien eskubideen defentsaren aldeko lanean.

⁶ PNUD (Nazio Batuen Garapenerako Programa) (1995): *Informe de Desarrollo Humano 1995*. New York: PNUD.

⁷ *Ibidem*, 16. orrialdea.



Herrialdearen egoera orokorra

Jarraian, El Salvadorko eta Peruko egoera azaltzen eta aztertzen da –eredu moduan hautatutako herriak dira–, baita emakumezkoen eskubideen bilakaera ere. Modu horretan, xehatzen dira, besteak beste, egoera politikoa, egoera sozio-ekonomikoa, politika ekonomiko eta sozial nagusiak, gizarte-mugimenduen zeresana eta, bereziki, emakumezkoen elkarte eta talde feministena, emakumezkoak diskriminatzen dituen errealitatea agertarazteko.

El Salvador

Beatriz de Paúl

Testuinguru politikoa

El Salvador amerikar kontinentearen erdialdean dago, iparraldean Guatemalarekin eta Hondurasekin muga egiten du, eta Nikaraguarekin golkoa partekatzen du. Hegoaldera joan ahala, Ozeano Bareko kostak daude herrialde osoan zehar. Gaur egun, 6 milioi biztanle ditu eta beste 3 milioi lagun munduan barna dabilta, batez ere, Estatu Batuetan.

El Salvador nekazaritza esportatzailea da berez, baina, orain, merkataritza eta zerbitzu sektoreak dira bere indargune, bereziki, turismoa. El Salvadorrek, gaur egun, herrialde garatuetatik datorren turismoa erakartzea du helburu, bai eta atzerrian dauden herrikideen dibisak eskuratzea ere.

1992an, indarrean zegoen gobernuaren eta erakunde gerrillarien artean (gaur egun, Nazio Askapenerako Farabundo Martí Frontea osatzen dutenak) Bake Akordioak sinatu baziren ere, badi-rudi oraindik ez dela gainditu gerra osteko garaia, izan ere, hura sorrarazi zuten kontraesan eta baldintza ugari dira gaur egun. Akordio horiek izan duten alde onenen artean, su-etenaz gainera, errepresio eta jazarpen politikoaren murrizketa da aipatzekoa, estatu terrorismoaren pareko baitzen garai hartan. Hala ere, oraindik gertatzen dira kutsu politikoa duten jazoera bortitz eta hilgarriak, eta azken bi urteetan, esaterako, 30 biolentzia eta hilketa kasu baino gehiago salatu dira, zio politikoa direla eta.

Gobernu ultraeskuindarraren erreprezio-asmoen adibide garbi bat Terrorismoaren Aurkako Legea ezartzea izan zen. Lege horri jarraiki, 2006ko uztailaren 6an, 14 lagun atxilotu eta auzitaratu zituzten modu bidegabean, izan ere, leporatzen zitzaizkien ekintzak ez ziren, inondik ere, oro har ezagutzen diren ekintza terroristen pareko.

Historiari begiratu bat ematen badiogu, antzemango dugu hamabost mila lagun baino gehiago desagertu direla eta beste horrenbeste erail dituztela, alde bien arteko gerrak eragindako 800 elbarriak ahanzi gabe. Baina, batez ere, ahazteko arrazoirik ez duten hogeita hamar mila familia baino gehiagok pairatutako nahigabea sumatuko dugu.

1992az geroztik, ARENA¹ alderdiak 4 gobernu izan ditu indarrean, eta bata bestearen atzetik, gainera. ARENAk xede politiko eta militarrik dituzten estrategia ekonomikoak bultzatu ditu, dolarizazioa, Panama Puebla Plana (PPP) eta Merkataritza Askeko Itunak (TLC), batez ere, Estatu Batuekin sinatutakoak. Estrategia guztiak merkatu askeko ekonomiaren ikuspegitik jorratuak izan dira.

¹ Aliantza Errepublikar Nazionalista (ARENA) 1981ean Roberto d'Aubuisson Arrieta militar maiorrak eratutako alderdi antikomunista da. D'Aubuisson Arrieta heriotz-eskuadroien sortzailea izan zen, eta Oscar Arnulfo Romero monsinore hil zutenean, bera izan zen haren hilketaren susmagarria.

Erabaki politiko horiek egungo egoera larria eragin izan dute, eta El Salvadorko familiek egoera horri aurre egin behar diote, batez ere, emakumeek, haiek baitira herria sostengatzen ari direnak. 10 familiatatik 6 daude emakumearen menpe, eta gelditzen diren gainerako 4 kasuetan, badakigu gizonezkoen menpe dagoela familia, baina horietatik, erdia, gutxienez, atzerrian dago eta urrutiko kontrolaz gauzatzen du bere egitekoa.

Aipatu beharreko beste fenomenoak eskualdearen konektibitate sarea da: errepide ikaragarri handiak, portu-guneak, aireportuak eta "segurtasun" base militarrek eraiki dira, PPP taxutze aldera. Alabaina, errealtatea oso bestelakoa da, eta lan horiek pertsonen trafiko ilegala, merkataritza xedeak dituzten ume eta nerabeen salerosketa nahiz trafikoa, indarkeria orokorrean areagotzea eta GID/HIESa kasuak handitzea ekarri dute.

Egungo egoera sozio-ekonomikoa

- Ekonomia, enplegua eta diru-sarrerak

Emakumeak dira modu formalean lan gutxien egiten dutenak, hainbat arrazoi direla eta: hezkuntza maila baxua, sexuaren araberako diskriminazioa, langabezia tasa altua, eta gizarte indarkeria ere, euren kontra dago. Beraz, emakumezkoak dira, oro har, ekonomiaren alde informalean daudenak, eta, ondorioz, ez zaie bermatzen osasun-zerbitzu, prestazio sozial ezta erretiro bermerik ere.


Emakumeek lansaio luzeak egiten dituzte, bai etxe barruan nahiz kanpoan, 43 eta 54 ordukoak, hurrenez hurren. Etxetik kanpo lan egiten dutenen %47k ez du legezko kontratu baten babesik, eta are gutxiago lan-baldintza duinena.² Gainera, emakumezkoak dira, halaber, bankuetako kredituak eskatzeko aukera txikiak dituztenak, ez baitute ondasunik bahi gisa uzteko, ezta lan finikorik ere, eta eskura ditzaketen kreditu bakanak GGKEek ematen dituzten kreditu txikiak dira. Ondorioz, mailegu-emaelek albait gehien esplotatzen dituzte, nahiz eta maileguak ordaintzeko orduan arduratsuenak emakumeak direla egiaztatu den.

Langabezia tasa:


Ekonomiaren parte diren emakume aktiboetatik, %3,9k ez du lan baldintza duin batzuk dituen enplegurik.

Soldata eta diru-sarrerak, batez beste:

Biztanleriaren %49 pobrezia lerroaren azpitik bizi da, eta %80 emakumezkoak dira.



² El Salvadorko emakumeen erakundea (ORMUSA) (2007): *Mujer y mercado laboral*. El Salvador: ORMUSA.



Nabarmentzekoa da, bestetik, erosteko ahalmen erreala behera egin duela. Lehen jendeak colon batekin erosten zuena, orain dolar batekin erosten du, baina bi moneten arteko aldea agerikoa da, izan ere, 8,75 colonek dolar amerikar 1 egiten dute, eta, ondorioz, %800eko aldeaz egongo ginateke berba egiten.

2007an, gehien kontsumitzen ziren elikagaien prezioak gora egin zuen: artoa, tortilla, babarruna, barazki eta fruitu nagusiak, esnea, pupusak eta tamalak, ogia, gari-irina, koipeak eta legamia, eta, bestetik, gasa, egurra, eta gasolina igo ziren. Gainera, etxebizitzaren prezioa %10 igo zen.

Estatistika eta Errolda Zuzendaritza Nagusiaren (DIGESTIC) arabera, 2006ko azaroaren eta 2007ko azaroaren artean, hiriko oinarrizko saskia US\$ 140,02 dolarretik US\$ 162,65 dolarrera pasa zen, hau da, %16,1 igo zen. Landa-eremuko oinarrizko saskiak, berriz, igoera handiagoa izan zuen denbora-tarte berean, eta US\$ 98,64 dolarretik US\$ 121,78 dolarrera pasa zen, hots, %23,4 igo zen. Merkatu saskiari dagokionez, US\$ 682,00 dolarretik US\$ 724,47 dolarrera pasa zen, %6,22, alegia. 2007 urterako, %4,5eko hazkundea aurreikusi zen, 2006koa baina zertxobait altuxeagoa, %4,2koa izan baitzen urte horretan. Inbertsio publikoak %2,4 egin zuen behera, eta inbertsio pribatua, aldiz, 2006koa baino txikiagoa izan zen. Gobernuaren kanpo eta barne zorra 7.055 milioi dolarrekoa zen, 2004. urteko zifra baino %16 handiagoa, hau da, Antonio Sacak³ bere agintaldia hasi zuen urtekoa baino handiagoa.

Mexiko, Txile eta Estatu Batuekin adostutako Merkatu Askeko Itunak (TLC) ez dira egokiak izan. Batetik, esportazioak ez dira ia handitu, ez dago enpresa berririk, ezta enplegu hoberik ere, eta prezioek behera egin beharrean, gora egiten segitzen dute. 2007. urtearen amaiera arte, erosketak edo inportazioak 8.005 milioi dolarrekoak ziren (%14 igo ziren) eta salmentak edo esportazioak, aldiz, apenas heltzen ziren 3.654 milioira (%6 igo ziren).⁴

Diru-bidalketak nabari murriztu izanak Estatu Batuetako krisiarekin zerikusi zuzena badu ere, 2008ko lehen sei hilabeteetan gorako joera egon zen, hots, 2007. urtekoekin alderatuz gero, %6,6 igo ziren. Egunero, 1.000 dolar inguru bidaltzen dituzte herrialdearen iparraldeko salvadortarrek, eta, ondorioz, milioi bi inguru lortzen da horiei esker. Bidalketek, guztira, BPGren %20 adierazten dute.⁵

- **Indarkeria**

Oro har, indarkeria da El Salvadorko biztanleak gehien arduratzen dituenak. 2008ko maiatzean, Polizia Nazional Zibileko (PNC) zuzendari ohi Francisco Rovirak hitzeman zuen hilketen egunero-

³ El Salvadorko Erreserben Banku Zentralaren Aldizkariak, 2007-2008.

⁴ *Ibidem*.

⁵ *Ibidem*.

ko batezbestekoa murriztuko zuela. Hau da, datu ofizialen arabera, egunean 8 edo 9 lagun hiltzen baziren, 4ko batezbeste latinoamerikarrera heltzea izango zen helburua. Hala ere, berak onartu zuenez, hasierako xede hura ez zen lortu, eta, ondorioz, kargutik kendu zuten.

Uztaileko lehen hamabostaldira arte, 1.741⁶ pertsona erail zituzten, hau da, 10 lagun egun bakoitzeko, gutxi gorabehera. Aurten, esaterako, PNCK hamaika mila lagun baino gehiago atxilotu ditu, eta erasoak, estortsioak, trafikoa, bahiketak praktikatzen dituzten talde eta sikarioen organizazioei, besteak beste, armak kendu dizkie. Alabaina, ekintza horiek gauzatu diren arren, segurtasunik gabeko giroa da nagusi, eta gaizkile-taldeak ere areagotu dira.

Emakumeen aurkako indarkeria, halaber, areagotu egin da azkenaldian, eta hainbat ikerketek ondoko errealitatea erakusten dute:⁷

- 6 emakumetatik 1 bortxatzen dute.
- 3 emakumetatik 1ek sexu abusua jasaten du.
- 10 emakumetatik 4 familia barneko biolentziaren biktima dira.
- 10 emakumetatik 3k jazarpen sexualeko egoerei aurre egiten diete.

Kronologikoki aztertzen badugu, 2002tik 2006ra bitarteko indarkeriaren kontra jarritako salaketek beheranzko joera agertzen dute. Ondorioz, agerian uzten da sistema judizialaren sinesgarritasun eskasa, bai eta indarkeria kasuak salatzeko oso gutxi egiten duen kultura dela ere:

I. koadroa. Emakumeen aurkako indarkeria-salaketekopurua (2002-2006)				
2002	2003	2004	2005	2006
4.560	4.338	3.765	2.978	2.142

Era berean, Lege Medikuntza Institutuak agertu du 2004 eta 2006. urteen artean jazo diren feminizidioak ia %225 areagotu direla, eta indarkeriaren kontra jartzen diren salaketek gorako joera ezberdina dute:

- 2004an, 260 emakume hil zituzten, eta horietatik 54 adingabeak ziren.
- 2006an, 437 emakume hil zituzten, %12,5 gehiago 2005ean egon ziren 390 hilketatik bortizekin alderatzen badugu.
- 2007ko urtarriletik ekainera arte, 168 emakume hil zituzten ezagutzen ez diren zio ezberdina direla eta. Urtea amaitzean, 470 hilketak kasu zenbatu ziren.
- Lege Medikuntzaren arabera, 2007an 1.794 bortxaketa egon ziren. Horietatik %70 adingabeak izan ziren, eta %90 emakumezkoak ziren.

• Emakumeen parte-hartze politikoa

Beste arazo aipagarri bat emakumeen parte-hartze politiko eta herritar eskasa da, izan ere, hautaketa prozesura mugatzen da. Hala ere, badirudi gero eta nabariagoa dela, baina eragile gisa beti, eta ez, protagonista gisa.⁸ Adibidez:

⁶ Iturria: El Salvadorko Polizia Nazional Zibila.

⁷ ORMUSA (2007): *Emakumeen aurkako indarkeriaren behatokia*. El Salvador.

⁸ PAÚL DE, Beatriz (2007): *2007ko estatistika eta prentsa bilduma*. El Salvador.

- Udal postuetan dauden emakumezkoen ehunekoa: %19,7.
- Postu exekutibo eta administratiboetan dauden emakumezkoen ehunekoa: %33,4.
- Postu profesional eta teknikoetan dauden emakumezkoen ehunekoa: %44,9.
- El Salvadorko 262 udalerrietatik, 22k soilik dute emakumezko alkatea, hau da, herrien %8k, gutxi gorabehera.
- Emakumezkoen kopurua Legebiltzarrean: 84 diputatuetatik, 14 diputatu dira emakumezko, %16, alegia.

• Hezkuntza

Milurtekoko Garapen Helburuako (ODMko) gomendioek hezkuntza eta osasun arloetan inbertsioa bikoiztea aholkatzen badute ere, berriki ofizialdu denez, gehiketa horiek eskaerarekin bat ez datozela adierazi da. Esaterako, osasun arloan, behar dena baino %30 gutxiago jasotzen da.

Landa inguruko familiek, behar bezala garatzeko dituzten muga naturalak direla eta, bizirautea dute helburu nagusi egunean-egunean, eta hausnarketarako guneak, maitasun uneak, elkarrekin egotekoak eta introspekziozkoak momentu berezietara mugatzen dira. Era berean, gurasoen rola bizitokia zein jatekoa eskaintzera mugatzen da, betiere, gizonezko eta emakumezkoen estereotipo tradizionalen ikuspegitik, eta, ondorioz, oso gutxi egiten dute norberaren hazkundera eta asmoak garatzeko. Gainera, jaso izan zuten hezkuntzak ere ez die laguntzen, ezta zuzeneko giroak eskaintzen dizkien baldintzek ere; adibidez, eskola batean umeak seigarren mailara arte baino ezin badu ikasi, ikasketekin jarraitu ahal izateko, familiak dirua behar du eta umeak distantzia handiak ibili, horrek berekin dakarren arrisku handiarekin. Nesken kasuan ez dago horretarako aukerarik.

Garrantzitsua da nabarmentzea, hala ere, hezkuntza formalean emakumezkoen matrikulazioa hobetzeko hainbat saio egin direla, eta gero eta emakume gehiagok egiten dituztela ikasketak unibertsitatean. Haatik, badira oraindik zenbait adierazle gabezia asko erakusten dutenak:

- Emakumezkoen alfabetatzea %80koa da, baina egunerokotasunean analfabetismoa are altuagoa da, hain zuzen, %35ekoa.
- Matrikulazioa %65ekoa da; horrenbestez, agerikoa da emakumezkoen beste %35ek ez duela hezkuntzarik jasotzen. Diagnostiko komunitarioek adierazten dutenez, egoera hori emateko arrazoen artean, zio ekonomikoa dago, baina, hala ere, jakin badakigu sendian bertan ere diskriminazioa dagoela, hezkuntzan inbertitu behar denean.

• Etxebizitza

554.820 familia inguruk ez du etxebizitza duinik, eta horrek esan gura du familien guztizkoaren %8k ez duela oinarrizko etxebizitzarik. Halaz ere, etxebizitza duen %93k ez du oinarrizko baldintzarik, eta asko zaborrez eta arrisku guneetan daude eraikita. Landa inguruan, familien %40-50 baliatzen da zerbitzuez, eta hiri inguruan, berriz, %10-20.⁹

• Amen heriotza-tasa¹⁰

Arazo honek adin eta gizarte klase guztiei eragiten die, baina zaurkortasun sozial eta ekonomikoek emakume pobreen egoera larriagotzen dute:

⁹ El Salvadorko Estatistika eta Errolda Zuzendaritza Nagusia.

¹⁰ ORMUSA (2007): *Op. Cit.*

- 172 emakume hiltzen dira, bizirik jaiotzen diren ehun mila laguneko.
- %60 landa inguruan jazotzen da.
- Kausa nagusiak: arazoak haurdunaldian eta abortua.
- Agintariek ez dute aurrerapausorik egin.
- Kezka sortu da, gorako joera ikusirik.
- Esku-hartze soziala¹¹

Herraldearen gastu soziala BPGren %7 eta %8koa da, eta Latinoamerikaren batezbestekoa, berriz, %13koa da, hots, 5 puntuko aldea dago.

Ekonomia eta gizarte politika nagusiak

- Terrorismoaren aurkako legea (LAT)

LATen bidez gauzatu nahi izan zen errepresioak ez zuen arrakastarik izan eta estrategikoki itxuragabetutako nahiz begiramen gutxiko gizarte-oposizioak bere egin zuen, laguntza emateko "Sare Solidarioa" izeneko gizarte-proiektu bat iragarri. Proiektu hori pobrezia-egoera larrian bizi ziren familiei 15 dolar amerikar ematean zetzan, jatekoa eros zezaten, hartara, familia horietako seme-alaben eskolatzeari bermatu zitekeen.

- Plan zorrotza

Gazteen delikuentziari aurre egiteko abiatu ziren programa sendoenak eta inbertsio handiena jaso zutenek gazteen eta ikasleen talde antolatuen kontrako jazarpenarekin zuten zerikusia. Horretarako, kontrolak egiten zituzten gune publikoetan, indarrez sartzen ziren etxeetan, eta harrapaketak zein kontrolak egiten zituzten ikastetxeetan. Plan horiei egotzen zaien kritika nagusienetako bat planen zigor izaera da, izan ere, ez omen zieten egoerei aurrea hartzen eta ez zuten atxilotuen errehabilitazioa bermatzen. Beste alde batetik, gazteen estigmatizazioa sustatzen zuten eta instituzionaltasunari uko egitea eragiten zuten.

Segurtasun programa horren porrot argiaren ondorioz, programak berak eragindako gizarte-kolpea konpontzera zuzenduriko hainbat saio gauzatu ziren, baita gobernuaren irudia hobetzera ere, batez ere, hauteskunde aurreko une bati ekingo zitzaizolako.

- Osasunerako Fondo Solidarioa (FOSALUD)

Krisi ekonomikoa zela eta, egoera lehengoratzeko estrategia baten barruan, eta neurri konpentsatzaile gisa, zenbait programa sortu ziren, besteak beste, FOSALUD. Egitasmo horrek behar-beharrezkoak ez ziren ondasunei zergak ezartzea zuen helburu, hala nola, alkoholari, tabakoari eta su-armei. Fondo honek, halaber, medikuntza-arreta bermatzea eta hura areagotzea du xede, instalazio berberak erabiliz eta ordutegiak bikoiztuz, 24 orduetan arreta ziurtatzeko. Alabaina, programa bat laguntza guztiez baliatzen da, eta besteak, berriz, ez du sendagairik ezta oinarritzko materialik ere.

¹¹ El Salvadorko Erreserben Banku Zentralaren Aldizkariak, 2007-2008.

- Sare solidarioa

Programa hau ere laguntza eskaintzeko bideratutako neurri konpentsatzaile ez iraunkorren estrategiaren barruan sartzen da. Programa honek pobrezia tasarik altuena duten udalerriak ditu aztergai, Morazán departamentua kasu, eta hilean bi aldiz, 30 dolar amerikar ematen dizkie familliei, umeen eskolaratzea eta haien osasun ona bermatzeko.

Erdietsitako lorpenak eta egungo erronkak, aurrera egin ahal izateko

Emakumeen mugimenduak eta emakumeen erakunde ezberdinek ikaragarri aurreratu dute gizartean, plataforma bera indartu egin da eta gero eta gehiago aldarrikatzen dituzte euren eskubideak. Mugimendua modu ezberdinean eta askotarikoan hazten ari da, adin guztietako emakumeak ari dira elkarteko kide egiten, eta, batzuetan, beren borrokari tinko eusteko, antzeko guneak sortzen dituzte. Ez dio axola modu aktiboan, presentzian edo sistematikoan parte hartzen duten; garrantzitsua da elkarteetan antolatzen ari direla, egiten duten saio ororen berri emanez, eta irabazitako gune horien ardura hartuz, dela erabakiak adosteko, antolatzeko edo mobilizatzeko.

Biztanleak, oro har, eboluzio horren parte ere badira, eta, batzuetan, ikuspuntuarekin bat datoz, baina beste batzuetan, berriz, ez. Hala ere, gaia jorratzen hasi dira, eta auzia aztertu ahala, gizonetako eta emakumezkoen arteko harremanen baldintzak aldatzeko beharra eta zentzua haien kabuz aurkitzeko gai izango dira.

Erakundeek, bestetik, modu ezberdinean heltzen diote gaiari, eta maila ezberdinetan. Haatik, guzti-guztiek genero harremanak berriz planteatzeko prozesuak abiaraztea beharrezko dakusate, hala, berdintasuna lortuko litzateke eta historian zehar emakumeak desabantaila egoeran egotea eragin duten desberdintasunak hautsiko liritezke.

Berebiziko garrantzia dauka, halaber, umeen lana egokitzea jotzen duten erakundeak hezkuntza formaleko egituretan esku hartzen ari direla nabarmentzea, konturatu baitira, genero ikuspegia haurtzarotik landu beharreko kontua dela. Horretarako, hezkuntza egituraren eta familien parte-hartzea beharrezkoa dela irizten diote, prozesu horien bermatzaile nagusiak direlako.

Prudencia Ayala Elkarte Feministak (CFPA) proposatu du gobernuak bete beharreko lehentasunen artean emakumeen eskubideak egotea: sozialak, ekonomikoak, politikoak, kulturalak eta sexualak. Bestetik, aldarrikapen plataforma batek Emakumearen aurkako Bereizkeria Guztiak Ezabatzeari buruzko Konbentzioa (CEDAW) adostutako hitzarmena betetzea eskatu du, bai eta bere borondatezko protokoloa berrestea ere. Eskaeren artean, besteak beste, honako hauek daude: alderdi politiko eta kargu publikoetan emakumezkoen gutxienezko parte-hartzea bermatzea, genero ikuspegiko aurrekontu publikoak adostea, emakumeek osasun zerbitzu hobea jasotzeko inbertsioa handitzea eta gardentasuna bermatzea. Adibide gisa Amatasun Ospitale Nazionala aipatuko dugu, ugaltze-arretan espezializaturik dagoen bakarra, izan ere, ez du baliabide egokirik ugaltzeko adinean dauden 1,5 milioi emakumez arduratzeko.

Sexu-eskubide eta ugaltze-eskubideen gaia ez da batere samurra izan El Salvadorko emakumeentzat, duela 6 urtez geroztik. Batetik, abortu terapeutikoa deuseztatzeak ekartzen duen atzerapenagatik, eta, bestetik, hura praktikatzaren ondorioz jasotzen den zigorreratik. Argi dago, beraz, erabaki bi horiek ez dutela aintzat hartu haurdun egoteak zer esan gura duen, eta emakumeen erabakitze gaitasunari eta gorputzaren autonomiari erasotzeaz gainera, emakumea kriminal gisa ikusarazten digute. Ildo beretik, jakin badakigu kartzelan hainbat emakume dagoela abortua praktikatzearatik.

Orain gutxi, abuztuan, hain zuzen, GIB/HIESaren Nazioarteko Konferentzian, El Salvadorko gobernuak, azkenean, sexu- eta ugaltze-osasunaren gaineko gidaliburua onetsi zuela jakinarazi zuen,

eta hezkuntza ertaineko curriculumean agertuko da berau. Erabaki horrek ez zuen Elizaren oniritzia izan, kritika zorrotza baizik, bereziki, Eliza katolikoarena, El Salvadorko gobernuko erabakietan esku-hartze handia baitu. Hala, ondoren egin zen azterketa sakon bat tarteko, instituzio horiek eta gizarteak berak sexuaren inguruan onartzen ez dituzten alderdi franko gidaliburutik ezabatu ziren. Gauzak horrela, El Salvadorko gazteek 11-12 urterekin izaten dituzte lehen sexu-harremanak, eta gero eta gehiago dira haurdun geratzen diren 14 urte baino gutxiagoko neskek.

Genero indarkeriak El Salvadorko familien arazo larrienetako bat izaten jarraitzen badu ere, aurre-rapauso adierazgarriak eman dira, izan ere, gero eta gehiago salatzen dira indarkeria kasuak, eta gizon-emakumeak kontzientzatu egin dira, harreman baketsuagoak eta negoziatzaileagoak lortzeko.

Ekonomiaren aldetik, emakumeei laguntzeko bideratu diren saioek ere familian giro bortitza duten emakumeak etxetik joatea ahalbidetu dute. Hala, emakumeok askatasuna berreskuratzen dute, inoren diru-laguntzaren menpe egon gabe eta haien emozio-egoera nabarmen hobetzen da.

Emakume feministek nahiz emakumezkoen eskubideak defendatzen dituztenek, elkarreentako kide izan edo ez, egindako lan honen guztiaren iraunkortasun-ikuspegia aintzat hartzen bada, azpimarratzekoa da gaia aztertzeko eta teoria zein genero ikuspegia jorratzeko agertutako gogoia, eremu profesionalean, teknikoan, politikoan eta publikoan. Gisa horretan, eremu jakin bakoitzean aditua den genero diplomatua bat jartzen hasi dira. Gaur egun, adibidez, lau genero diplomatua daude: politika publikoetan, tokiko garapenean, haurtzaroan eta nerabezaroan, eta herritarrentzako kontrolorlan. Hala ere, badira beste batzuk ere, baina ez daukagu horien berri.

Aipatzekoa da, era berean, toki mailan genero berdintasunak aurrera egiteko egin den ahalegin iraunkorra. Elkarre ezberdinek, batez ere, Las Méridasek, genero berdintasunaren eta ekitatearen aldeko politika publikoak instituzionalizatzea lortu dute. Hala, prozesuak abiarazteko eta baliabideak eskuratzeko konpromisoak hartu dituzte, genero ikuspegia aintzat hartzen duten aurrekontu publikoak gauzatzeko. Apika, emakumeei zuzenduriko inbertsio jakinak erdiestea izan daiteke estatuko laguntzak zuzen banatzeko ekarpen handienetako bat.

Lan horren guztiaren eragina maila eta esparru orotan ikusi da, eta, gaur egun, emakumeen elkarre aitzindariak badituzte zenbait aliatu, baita gizezkoen mugimendu baten laguntza ere. Oraindik hasiberria bada ere, bere gain hartu du, tinko eta modu solidarioan, gizarte hau aldatzeko erronka zaila, gu geu ere, egunero berau aldatzen saiatzen garen bezala.

Peru

Herrialdeko testuinguru politikoa

Leire López

Brasil eta Argentinaren ondoren, Peru azalera handieneko hirugarren herrialdea da Hego Amerikan, 1.285.215 km² ditu-eta. Biztanleen X. Errolda Nazionalaren arabera, guztira 26.152.265 lagun bizi dira bertan; %74,26 hirian bizi dira; %25,74, landa-ingurunean; %49,94 gizonak dira; eta %50,06, emakumeak. Lima da bertako hiriburua, eta biztanle gehien dituen gunea da, bertan 7.819.436 lagun bizi dira-eta. Biztanleen banaketa, gainera, sexuaren arabera banaketa nazionalarekin bat dator. Datu horien aurrean, herrialdean nortasun-agiririk ezaren arazoa nabarmendu behar da, eta, batez ere, emakumeengan du eragina. Geroxeago hitz egingo dugu horri buruz.

Kitxua eta aimara hizkuntza ofizialak dira, bai eta Amazonasko beste hizkuntza batzuk ere. Gobernuak adierazi duenez, 15 hizkuntza-enborrek bizirik dirautenez, 43 hizkuntza desberdin sortu dira. Gaur egungo konstituzioa 1993. urtekoa da, erregimen errepublikar, demokratiko eta soziala ezartzen du eta gobernu unitarioa, ordezkaria eta deszentralizatua da. Presidentea eta 120 ordezkari Kongresua bost urtean behin aukeratzen dira bozketa unibertsalaz. Peruren antolamendu politikoari dagokionez, 24 departamentutan dago banatuta (Amazonas, Ancash, Apurimac, Arequipa, Ayacucho, Cajamarca, Cusco, Huancavelica, Huanuco, Ica, Junin, La Libertad, Lambayeque, Lima-Provincias, Loreto, Madre de Dios, Moquegua, Pasco, Piura, Puno, San Martín, Tacna, Tumbes eta Ucayali). Horrez gain, Callaoko probintzia konstituzionala ere hartu behar da kontuan. Eskualde bakoitzean, eskualde-kontseilua dago, eta bertako kideak sufragio zuzenaz aukeratzen dira. Kideon kopurua aldatu egiten da eskualdeko biztanle-kopuruaren arabera, eta euren agintaldia lau urtekoa da. Osteko ataletan, emakumeek eremu horietan duten partaidetzaz hitz egingo dugu.

Gaur egun, baliabideak eta eskumenak transferitzeko prozesuak jarraitzen du abian, eta, hain zuzen ere, deszentralizazio-prozesu hori da estatua modernizatzeko esparruan gehien garatu dena.

Laburpen historikoa

Caral orain arte Andean aurkitutako hiri zaharrena da: duela 5.000 urte sortu zen (K.a.-ko 3000n, gutxi gorabehera). Harik eta aurkitu arte, Peruko lehen zibilizazioa Huanteren (Ancashen) finkatu zen K.a.-ko 1200-200ean. Paracas kultura (K.a.-ko 200 - K.o.-ko 600) Peruko hegoaldeko kostaldean sortu zen, eta, garai berean, Moche kultura garatu zen iparraldeko kostaldean. Peruko mendizerran, Tiahuanaco kultura (K.o.-ko 200) finkatu zen Collaoko eskualdean, Txileko eta Boliviako lurraldeak hartzen dituen eremuan, hain zuzen ere. Nasca kultura (K.a.-ko 300 - K.o.-ko

900) kostaldeko basamortuan finkatu zen, ordea. Wari kulturak (K.o.-ko 600) Andeetan zeukan eragina hedatu zuen Ayacucho lurraldean, eta Chimu kultura (K.o.-ko 700) Trujillon finkatu zen. Chachapoyas kulturak (K.o.-ko 800) eraikinak egin zituen iparraldeko oihaneko mendien goiko aldean.

Inken kultura (K.o.-ko 1200 - 1500) Hego Amerikako zibilizazio garrantzitsuena izan zen, eta Cusco sortu zuten, hiri sakratua eta Tahuantinsuyoko edo Inken Inperioko gune nagusia, alegia. Iparraldetik, gaur egungo Kolonbiaraino iritsi zen; eta hegoaldetik, Txilera eta Argentinara, Boliviako eta Ekuadorko lurraldeak oso-osorik hartuta.

1532an, Francisco Pizarroren armadak Atahualpa harrapatu zuen Cajamarcan. 1542an, ostera, Peruko Erregeordetza sortu zen, eta, XVII. mendera arte, Panamatik Suzko Lurrera zihoan lurraldea zeukan menpean. 1821ean, José de San Martínek herrialde independentea zela adierazi zuen, eta, 1824an, Simón Bolívarrek independentziako gerrak amaitu zituen.

1955ean, sufragiorako eskubidea lortu zuten, eta emakumeek Hauteskunde Erregistroan eman zuten izena, baina adinez nagusi ziren emakume guztiek ezin izan zuten 1979. urtera arte mugarik gabe bozkatu, urte horretan hartu zituztelako kontuan biztanle analfabetoak eta erkidego indigenak.

1968an, indar armatuek estatu-kolpea eman zuten, eta garai hartako Errepublikako presidentea zen Fernando Belaúnde kendu zuten kargutik. Diktadura militarren lehen urteetan, inspirazio sozialista nagusi izan zenez, petrolioia zein komunikabideak estatalizatu zituzten, eta nekazaritza eraldatu zuten. Ondoren, Francisco Morales Bermúdezek hartu zuen boterea, eta Batzar Eratzailerako deia egin zuen.

1980. urtean, Belaúnde hautetsi zuten berriro, eta, urte horietan, Sendero Luminosoren, Tupac Amaru Mugimendu Iraultzailearen (MRTAren) eta armadaren arteko indarkeria orkestratuak egin zuen eztanda. Alan Garcíaren gobernuaren ostean (1985-1990), 1990ean hautetsitako Alberto Fujimori presidentea kongresua itxi zuen 1992an, estatu-kolpea eman zuen eta gaur egungo konstituzioa aldarrikatu zuen. 2000. urtean, hauteskunde eztabaidagarrien ondoren, bigarren aldiz berriro hautetsi zutenean, hirugarren presidentetza utzi zuen azaroan eta Japoniara ihes egin zuen, Vladimiro Montesinos Inteligentziako aholkulariari giza eskubideen urraketa eta ustelkeria leporatu ostean. Valentín Paniaguak trantsiziorako behin-behineko gobernu eratu zuen. 2001eko uztailan, Alejandro Toledo Manriquek agintea hartu zuen bere gain, Errepublikako presidente konstituzionala izateko. 2006an, Alan García Pérez izan zen bere ondorengoa.

1980. urtetik 2000. urtera, Peruk bizi izan zuen indarkeria politikoaren ondorioz, erailketa, bahiketa, behartutako desagerpen, tortura, bidegabeko atxiloketa, krimen larri eta giza eskubideen urraketa asko gertatu ziren. Egiaren eta Adiskidantzaren Batzordearen (CVR) zenbatespenen arabera, 69.000 heriotza eta desagerpen baino gehiago jazo ziren, ekintza terroristen, gatazka armatuen, herrien suntsipenen eta sarraski kolektiboen ondorioz. Bere esanetan, 600.000 lagun baino gehiago kaltetu zutenak izan ziren, eta euren etxetik alde egin behar izan zuten ezinbestean. Hori dela-eta, barruko lekualdaketa asko gertatu ziren, eta eragin handia izan zuten jatorrizko gizarte-sareetan zein harrera-lekuetan.

Valentín Paniaguaren zuzendaritzapeko trantsizio-gobernuak Egiaren Batzordea sortu zuen 2001eko ekainaren 4an, eta Alejandro Toledok urte bereko irailaren 4an berretsi eta osatu egin zuen, aurretik Egiaren eta Adiskidantzaren Batzordea (CVR) izan zedin. Batzordeari, hain zuzen ere, 1980ko maiatzetik 2000ko azarora herrialdean gertatutako egitateak ikertzeko agindu zitoten.

2003an, CVRrek ikerketako emaitzak aurkeztu zituen jendaurrean. Nabarmendu egin behar da Txosteneko VI. liburukiko laugarren sekzioan (Krimenak eta giza eskubideen urraketak), 1. kapitulu-

luan, 1.5. idatz-zati osoak hitz egiten duela emakumeen aurkako indarkeria sexualari buruz. Horrez gain, VIII. liburukian, 2. kapituluaren (Indarkeriaren eragin bereizita), 2.1. idatz-zatiak indarkeriari eta genero-desberdintasunari buruz hitz egiten duela. Ikerketan adierazitakoaren arabera, Perun bizitako indarkeriak eragin desberdina izan zuen gizonetan eta emakumeetan, euren gizarte-posizioak eta genero-rolak desberdinak zirelako, gatazka armatuan izan zuten partaidetza baldintzatu zutelako eta ondorioak sexuen arabera izan zirelako. Era berean, emakumeen aurkako indarkeria sexualari dagokionez, orokorra bezain iraunkorra izan zela eta behin eta berriro gertatu zela adierazten da txostenean. Gainera, beste zenbait egintza ere jazo ziren; esate baterako, abortu behartuak, elkarketa behartua, mirabetza sexuala, esterilizazio behartua eta abar. Talde armatu guztiak egintza horien erantzuleak izan ziren arren, zigorgabetasuna lortu zuten.

Politika ekonomiko eta sozial nagusiak

Emakumeentzako lehen politika 1973. urtean egin zen Perun, Velasco Alvaradoren (1968-1975) gobernu militarrek bultzatutako hezkuntza-erreformaren esparruan, Emakumeak Birbaloratze Lantalde Teknikoa sortu zenean, Hezkuntzari buruzko Lege Orokorreko aginduetako bat bideratzeko asmoz, hau da, "emakumeak birbaloratzea eta ahalik eta aukera gehien eskaintzea erabateko garapen askeari begira". 1974an, Peruko Emakumeen Batzorde Nazionala (CONAMUP) eratu zen, autonomia zeukan eta Errepublikako Presidentetzaren menpean zegoen.

Zenbait gobernu-aldaketaren ondorioz, eremua horiek desegin egin ziren, harik eta 1983an Justizia Ministerioaren barruan Emakumeen Bulego Nazionala sortu zen arte. Izena aldatu arren, bere horretan iraun zuen, harik eta 1996an Emakumeen Sustapenerako eta Giza Garapenerako Ministerioa (PROMUDEH) sortu zen arte. Era guztietako ekintzak garatzen zituen: ongintza publikoa eta zoologikoa, besteak beste. Elikadura Sustatzeko Programa Nazionalak (PRONAAk) baliabide eta langile gehien zituen, eta, gaur egun ere, elikagaiak banatzen ditu auzo-jantokietan zein amen elkarrekin, emakumeen herri-erakundeek 80ko hamarkadan egituren egokitzapenerako politikei aurre egiteko neurri moduan antolatu zutena instituzionalizatzeko asmoz. Politika horiek kontinentean zeuden politika sozial eskasak suntsitzen zituzten. Ondoren, lidergo zein negoziaketaren eremuak izan ziren zenbait eragileren aurrean.

PROMUDEHk bete beharreko helburuak zabalak bezain asmo handikoak zirenez eta bertan era guztietako arloak lantzen zirenez, 1997an Errepublikako Aurrekontu Orokorreko baliabideen %1,3 jaso zituen, eta, eurentatik, %60 zegozkion PRONAAri.

1983an sortutako "Baso bete esne" udal-programa, Alan Garcíaren lehen agintaldiak (1985-1990) sustatutako amen elkarrekin eta emakumeek sukalde-jantoki herritarretan garatutako antolamendua kontuan hartuta, gaur egun 15.000 inguru jantoki omen daude herrialde osoan. 1995eko informazioz egindako txostenaren¹ arabera, urte horretan nazio-mailan 24.018 ama-elkartek, 42.447 "Baso bete esne" lantaldek eta 9.869 herri-jantokik 1.526.676 emakume elkartzen zituzten, eta ia-ia borondatezko 285 milioi ordu lan egiten zuten urtean, hau da, 154.683 lagunek urtero lanaldi osoan eta 1995ean zerbitzuetan ziharduten biztanle aktiboek %4k ia-ia garatutako lanaren baliokidea.

Bestetik, Salvador hiribilduko "Baso bete esne" lantaldeak aipatu behar ditugu. Beste ikerketa² baten arabera, 2001ean emakumeek 733.432 ordu ematen zituzten urtean programako jarduerak garatzeko. Lan hori gutxieneko bizi-soldatapean egongo balitz (2001eko abenduan, hileko 410 sol

¹ CUEVA, Hanny eta MILLÁN, Armando (2000): "Las Organizaciones Femeninas para la Alimentación y su relación con el sector gubernamental". In *Gizarte Ikerketarako koadernoak*, 16. zk. Lima: Gizarte Zientzien Saila. Peruko Unibertsitate Pontifiko Katolikoa.


² ANDÍA, Bethsabé eta BELTRÁN, Arlette (2002ko azaroa): "Análisis del Presupuesto Público con enfoque de género. Estudio de Caso para Villa El Salvador". UNIFEM. Helbide honetan kontsulta daiteke: www.presupuestoygenero.net/media/andia.pdf

berrikoa zen edo 120 dolar amerikarrekoa, 3,41 sol berriko trukaneurriaren arabera), zenbatekoa 1.969.776 sol berrikoa izango litzateke. Garai hartan, udalak 8.582.900 sol berriko transferentzia jasotzen zuen programa hori garatzeko. Beraz, emakumeen lan-ekarpena aurrekontuaren %22,95ekoa zen.

Zenbait emakume autoreren esanetan, kontraesana zen giza eskubideak urratzeagatik salaketak jaso zituen Fujimoriren gobernu autoritarioaren esparruan (1990-2000) Emakumeen Ministerioa eta Emakumeen Eskubideetarako Ordezkaritza sortzea Herriaren Defentsarako Bulegoan eta Kuotei buruzko Legea aldarrikatzea.

2002ko uztailean, PROMUDEH Emakumeen eta Giza Garapenaren Ministerio (MIMDES) bihurtu zen, eta bi ministrorde zituen: Emakumeen arlokoa eta Giza Garapenekoak. Lehenengoaren barruan, gainera, bi programa garrantzitsuenak zeuden: 2001ean sortutako Indarkeria Familiar eta Sexualaren aurkako Programa Nazionala eta Wawawasi, haur-sehaskak.

Ministerioaren menpean 2004an onartutako eta 2007an aldatutako MIMDESen egitura-organigramaren arabera, honako hauxe da argazkia:



Hona hemen Aukera Berdintasunerako Planeko 5 lerroak (2007-2010):

II. taula. Aukera Berdintasunerako Plana (2007-2010)	
LERROAK	HELBURU ESTRATEGIKOAK
1. Genero-berdintasuna instituzionalizatzea eta zeharkakotzea, hau da, emakume eta gizonen arteko aukera-berdintasuna politika publikoetan, plan nazionaletan eta estatuko jardueretan.	1.1. Estatuak genero-berdintasuna hartzen du kontuan politika publikoetan.
2. Gizartean, emakume eta gizonen arteko berdintasunerako balioak, jarduerak, jarrerak eta jokatibideak sustatzea, emakumeak ez baztertzeko.	2.1. Estatuak eta gizarte zibilak emakume eta gizonen arteko berdintasunerako jarduerak garatzen dituzte. 2.2. Bake-kulturaren eta indarkeriarik gabeko bizitzaren bidez, emakume eta gizonen arteko harremanak hobetzen dira.
3. Emakumeei eskubide sozial eta kulturalen erabateko erabilera bermatzea.	3.1. Emakumeek eta gizonak kalitateko zerbitzu sozial eta kulturalak eskuratzeko aukera berberak dituzte.
4. Emakumeei eskubide ekonomikoen erabateko erabilera bermatzea.	4.1. Emakumeak eta gizonak genero-berdintasunez laneratzen dira. 4.2. Aukera ekonomikoen berdintasuna bermatzen da, hirigune eta landa-inguruneetako emakume zein gizonen diru-sarrerak sortzeko eta hobetzeko.
5. Emakumeei eskubide zibil eta politikoen erabateko erabilera bermatzea eta boterera iristeko eta erabakiak hartzeko aukera berberak edukitzea.	5.1. Emakumeek eta gizonak bete-betean erabiltzen dituzte euren eskubide zibil eta politikoak zein herritartasun-eskubideak.

Hori dela-eta, inolako balioespenik egin gabe, Errepublikako 2007ko Aurrekontu Orokorren %2 esleitu zioten MIMDESi. Testuinguru horretan eta deszentralizazioaren esparruan, nabarmendu egin behar da eskualde edo udal gobernuetako emakumeen zenbait bulegok ministerioak berak baino aurrerapen handiagoak egin dituztela aukera-berdintasunaren arloan, berdintasun-plan zein ordenantza errealagoak dituztelako eta emakumeen mugimenduarekin adostasun handiagoa dutelako.

Nazioartean, honako arautegi hauek sinatu eta berretsi ditu Peruk, besteak beste:

- Emakumearen aurkako Bereizkeria Guztiak Ezabatzeari buruzko Konbentzioa (CEDAW), 1995ean berretsia. 2000ko abenduan, CEDAWen protokoloa sinatu zuen eta 2001ean berretsi egin zuen.
- Emakumeen aurkako Indarkeria Prebenitu, Zigortu eta Desagerrarazteko Konbentzioa Belen do Para, 1993. 1996an berretsia.
- Emakumeen Eskubide Politikoei buruzko Konbentzioa, 1975ean berretsia.
- Biztanleei eta Garapenari buruzko Nazioarteko Biltzarreko Ekintza Plana. Kairo, 1994.
- Beijingeko Ekintza Plataforma, Emakumeei buruzko Munduko IV. Biltzarra, 1995.
- Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna, 1978an onartua.

- Emakumeen Giza Eskubideak sustatzeko Amerika arteko Programa Genero Berdintasunerako, 2001ean onartua.

1997an, Udal Hauteskundeei buruzko Legeak ezarritakoaren arabera, zerrendetako kideen %25 gutxienez emakumeak edo gizonak izan behar ziren. 2001ean, ordea, Hauteskundeei buruzko Lege Organikoan adierazitakoa kontuan hartuta, kuota hori %30ekoa izango zen Kongresurako, eta, gutxienez, ordezkarien %15 jatorrizko erkidego eta herrietakoak izango ziren. 2002an, Eskualde Hauteskundeei buruzko Legean, horrelako neurria ezarri zen zerrendei dagokienez, bai eta 2003ko Alderdi Politikoen Legean ere.

Nazio-mailan nabarmendu beharrekoa:

- Erditze Bertikala Kultura arteko Egokitzapenez Atenditzeko Arau Teknikoa. Ministerioaren 2005eko 598-2005/MINSA Ebazpena.
- Gizon eta Emakumeen arteko Aukera Berdintasunerako Legea, 28983. legea, 2007ko martxoaren 16koa. Berdintasun-baldintzak sortzeko zuzentarau argiak ezartzen ditu hiru botereentzat eta zenbait sektoreentzat.
- 027-2007 Dekretu Gorena - PCM. Ministro Kontseiluaren Presidentetzaren Dekretu honetan, gobernu nazionalako erakundeek Derrigorrean Bete Beharreko Politika Nazionalak zeintzuk diren zehazten da: eskualde eta udal gobernuak. Hamaika politiketako bat emakume eta gizonen arteko aukera-berdintasunari buruzkoa da.

Lehendik arautegia zegoen arren, CEDAWeko Lantaldea kezkatuta zegoen Peruko Estatuari buruzko Aldian aldiko VI. Txostenaren inguruan (2007ko urtarrila), eta honako hauxe adierazi zuen: "Lantaldeak oso kontuan hartuko du Emakumeen eta Gizarte Garapenaren Ministerioa berregituratu eta Emakumeen Ministeriordea sortu dela. Hala ere, oso kezkatuta dago, balitekeelako emakumeen aurrerapenerako aparatu nazionalak erabakiak hartzeko behar besteko botererik edo konbentzioa zein genero-berdintasuna eraginkortasunez ezartzeko finantza eta giza baliabiderik ez edukitzea".³

Gaur egungo egoera sozio-ekonomikoa

PNUDen 2007-2008ko Giza Garapenari buruzko azken Txostenaren arabera (datuak 2005ekoak dira), Peru 87. postuan dago (0,773), Giza Garapenaren Indizea kontuan hartuta (giza garapen ertaineko herrialdeak). Honako datu hauek atera ditugu txosten horretatik:

III. taula. Generoaren arloko Garapen Indizea (GGI): 0,769, 76. postua			
	Emakumeak	Gizonak	Batezbestekoa
Bizi-itxaropena (urteak)	73,3	68,2	70,7
Helduen alfabetizazio-tasa (%)	82,5	93,7	87,9
Jasotako diru-sarrerak, gutxi gorabehera (US\$)	4.269	7.791	6.039

- Generoaren Sustapen Indizea (IPG): 0,636, 32. postua.
 - Parlamentuan eserlekuak dituzten emakumeak: %29,2.
 - Legegileak, goi-funtzionarioak eta zuzendariak diren emakumeak: %34.
 - Emakume profesionalak eta langile teknikoak: %46.

³ CEDAW/C/PER/CO/6. 2007ko otsailaren 2a.

- Gobernuan ministerio-mailako karguak dituzten emakumeak: %11,8.
- Osasun-langile bereziek atenditutako erditzeak:
 - %20 txiroena: %34.
 - %20 aberatsena: %100.
- Langabezia-tasa guztira: %11,4.
- Emakumeen langabezia-tasa (gizonen tasaren %): %143.
- Emakumeen jarduera ekonomikoaren tasa: %59,1.

Peruko Giza Garapenari buruzko Txostena (2006): "*Herritartasuna sustatzen duen deszentralizazioantz*" kontuan hartuta, 26.207.970 biztanle daude herrialdean. Departamentu, probintzia eta barruti mailako datuak aztertzen ditu, baina 2005eko txostenean gertatzen zen bezala, ez ditu sexuen arabera banatzen.

Estatistika Institutu Nazionalak (INEI) 2005ean egindako Peruko Biztanleen X. Errolda Nazionalaren eta Etxebizitzen V. Errolda Nazionalaren arabera, herrialdeak 26.152.265 biztanle ditu, eta, eurretatik, %49,94 gizonak dira; eta %50,06, emakumeak. Biztanle guztiak kontuan hartuta, gizonen %36,71 eta emakumeen %37,56 hirigunean bizi dira; eta gizonen %13,24 eta emakumeen %12,50, landa-ingurunean.

2004ko ENDES Etengabearen⁴ arabera, Peruko etxeen %22,7 emakumeek zuzentzen dituzte. Hiriguneetan, tasa hori %25,9koa da. 2004ko apirilera, biztanleen %52 txiroak ziren (%40,3 hirigunean; eta %73,6, landa-ingurunean). Ehuneko horretatik, %20,7 premia gorrian bizi ziren, eta %31,5 ez ziren muturreko txiroak. Txirotasuna landa-ingurunean da nagusi (%42,5), hirigunearen aldean (%8,9). Huancavelicako biztanleen %74,1 premia gorrian zeuden (INEI, 2005). Peruko 2005eko Giza Garapenari buruzko Txostenaren arabera, %58,9k baino ez dute elikagaien otzara baino handiagoa den diru-sarrera familiarra (hileko 114.00 sol per capita, 25 euro, gutxi gorabehera).

Herrialdeko analfabeto gehienak emakumeak dira, eta, batez ere, landa-inguruneetan bizi dira. Analfabetismo-tasa %13,13koa da (%5,16, gizonak; eta %7,97, emakumeak). Guztiak kontuan hartuta, %62,74 emakumeak dira.

2004ko ENDES Etengabearen arabera, ugalkortasun-tasa orokorra 2,4koa zen. Hirigunean, 2koa zen; eta landa-ingurunean, 3,6koa. Nolanahi ere, nahi izandakoa 1,5 seme-alabakoa zen. 15 urte-tik gorako emakumeen %68,3 (4.835.972) amak dira. Hiri-sektorean, %66koa da ehunekoa; eta landa-sektorean, %76koa. 2000ko inkestaren arabera, azken bost urteotan gertatutako jaiotzen herenak ia-ia (%31) nahi gabekoak ziren, hau da, gutxi gorabehera milioi bat neska-mutiko jaiotzen euren gurasoek nahi gabe. Horrez gain, seme-alaba gehiago eduki nahi ez zituen amen jaiotzak kontuan hartuz gero, azken bost urteotako jaiotzen %56 nahi gabekoak izango ziren.

Amen heriotza-tasa %18,3koa da, adin ugalkorrean dauden 100.000 emakumeren artean. Jaiotzen arabera adieraziz gero, zenbatespena 185 heriotzakoa da bizirik jaiotako 100.000 lagunekoa (ENDES, 2000). Beraz, Latinoamerikako eta munduko handienetakoa da. Abortua amen heriotza eragiten duen laugarren arrazoi nagusia da (%7). Edonola ere, azterlan ugariaren arabera,

⁴ Demografiari eta Familien Osasunari buruzko Inkesta. Etengabe egiten da 2003ko abendutik, eta familiak ditu helburu, 15 eta 49 urte arteko eta 5 urteko edo urte gutxiagoko neska-mutikoei lehentasuna emanda.

hemorragiek (%60) edo infekzioek (%13) eragindako heriotzen barruan abortuagatiko heriotza asko daude azpierregratuta. Horiek horrela, erregistroa egokia izango balitz, abortua lehen postuan egongo litzateke seguruenik.⁵

Delicia Ferradoren *El aborto clandestino en el Perú: hechos y cifras* liburua Flora Tristán Peruko Emakumeen Zentroaren web orrian aipatzen da, eta, bertan adierazitakoaren arabera, urtero 410.000 abortu klandestino egiten dira (2004). 2001. urtean, urteko 352.000koa zen zenbatekoa; eta 1994an, urteko 271.100 abortukoa. 2001. urterako, abortuen %54 kostaldean egin ziren (Liman, %28 egin ziren); abortuen %32, mendizerran; eta %14, oihanean. Peruko 2005eko Giza Garapenari buruzko Txostenaren arabera, nazio-mailan, biztanleen %40,4 baino ez dituzte osasun-arloko profesionalak atenditzen.

INEIren arabera, 2004ko apirilean, ekonomiari begira aktiboak ziren 10 urteko eta hortik gorako biztanleen %42,2 emakumeak ziren. Lan egiteko adina duten biztanleen jarduera-tasa %71,2koa da: emakumeei dagokienez, %61,3koa; eta gizonei dagokienez, %81,3koa. Hausturek bere horretan diraute hirigunean zein landa-ingurunean, lehenengo eremuan nabariagoak diren arren. Hirigunean, emakumeen partaidetza %56,2koa da; eta gizonena, %77,3koa. Landa-inguruneetan, ostera, emakumeena %72,6koa da; eta gizonena, %89,7koa. Ekonomiari begira aktiboak diren gizonen %63,1 behar bezala laneratuta daude (orduei zein diru-sarrerei dagokienez). Emakumeen artean, aldiz, zenbateko hori %43,5era jaisten da.

Hautaketa politikoko karguetan dauden emakumeei dagokienez, honako datu hauexek ditugu azken galdeketen arabera:

- Kongresua (2006-2011). Hautetsitako kongresukideen %29,1 emakumeak izan ziren.
- Eskualde-agintaritzak (2007-2011). %23,38 emakumeak dira. Hautetsitako 278 eskualde-agintarrietatik, 3 emakume presidenteorde aukeratu zituzten; eta 62, eskualde-kontseilari. Emakume bat bera ere ez zuten eskualde-presidente aukeratu.
- Probintziako agintaritzak (2007-2011). %23,75 emakumeak dira. Hautetsitako 1.912 probintzia-agintarrietatik, 4 emakume alkate aukeratu zituzten; eta 431, erregidore.
- Barrutiko agintaritzak (2007-2011). Emakumeek hautetsitako karguen %24,27 betetzen dituzte. Hautetsitako 10.146 barruti-agintarrietatik, 46 emakume alkate aukeratu zituzten; eta 2.416, erregidore.

Herrialdeko emakume letratu eta ez-indigenei botorako eskubidea eman zietenetik 53 igaro direnean, hautesle nazionalen %49,91 emakumeak dira. Eskubide hori, hain zuzen ere, 1979an unibertsalizatu zen herrialdean.

2004ko ENDES Etengabearen arabera, emakumeen %42k senarraren edo bikotekidearen indarkeria fisikoa jasan du noizbait. Mendizerran, zenbatekoa %47koa da; oihanean, %46koa; kostaldearen gainerakoan, %38; Lima metropolitarran, %37koa. Indarkeria jasan zuten emakumeen %13,3k erakunde bati eskatu zioten laguntza; eta %38,3k, ingurukoei. Laguntzarik eskatu ez zuten emakumeen ustez, "ez zen beharrezkoa" (%35,5), "lotsagarria zen" (%14,3) edo ez zekiten "nora joan" (%12,9).

Perun, adinez nagusi diren 890.600 biztanlek ez dute nortasun-agiri nazionalik, eta 313.500 neska, mutiko eta nerabek ez dute jaiotza-agiririk, Herriaren Defentsarako Bulegoak egindako 107.

⁵ OSASUN MINISTERIOA (2001). *Amen Heriotza Murrizteko Kontingentzia Plana*. Lima.

txostenaren arabera. Izan ere, indarkeriak iraun zuen bi hamarkadetan, Identifikazio eta Egoera Zibilaren Erregistro Nazionaleko 251 bulego suntsitu zituzten herrialde osoan.

Aurrera egiteko gaur egungo erronkak

Sexu eta ugalketa eskubideen defentsa mugimendu feministaren eta emakumeen mugimendua-
ren ardatz nagusietakoa da mundu zabalean. Peruk ere nazioan eta nazioartean arlo horretan
garatutako kanpainetan parte hartzen du. Dena dela, irailaren 28ko kanpainari eman dio lehen-
tasuna, Abortuaren Despenalizazioaren Eguna delako Latinoamerikan eta Kariben. Horrez gain,
arazo hori hiru dimentsiotatik hartzen da kontuan: osasun publikoaren, giza eskubideen eta
demokraziaren arloko arazoa da.

Ageri-agerikoa da MIMDESeko laguntza-programek eskubidedun subjektuak diren emakumeen
ikuspegi politikoa kontuan hartu behar dutela, generoa zeharkakotzeko politikak sustatu behar
dituztela eta horretarako aurrekontua esleitu behar dutela. Era berean, deszentralizazioaren espa-
rruan, eskualdeko eta tokian tokiko mekanismoak garatu behar dira, genero-berdintasunerako
politikak ezartzeko eta emakumeek maila horietan aurrera egiteko. Zentzu horretan, mugimendu
feministaren eta emakumeen mugimenduaren ustez, nazio-mailan dauden 82 gizarte-programak
ebalatu behar dira, harik eta 25eraino murriztu arte. Erreforma-prozesu horretan, Familia eta
Sexu arloko Indarkeriaren aurkako Programa Nazionalaren, Wawawasien –umeentzako sehasken–
eta Familien Ongizaterako Institutu Nazionalaren zati baten uztarketa dago, Emakumeen eta
Gizarte Garapenaren Ministerioko Gizarte Babeserako Zuzendaritza bakarraren menpean desager-
tuko direlako.⁶ Programaren barruan, Emakumeentzako Larrialdi Zentroak daude (CEM). Izan ere,
48 daude nazio-mailan, lege, psikologia eta gizarte arloko doako zerbitzu bereziak emateko. Era
berean, Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Plan Nazionala (2002-2007) eta 1997an Familia
Indarkeria Prebenitu eta Atenditzeko ezarritako Mahai Nazionala ere aipatu behar ditugu.

Hori dela-eta, oinarriko gizarte-erakundeak, emakumeen eta feministen GKEak, babes-etxe pribat-
tuak, Agentzien arteko Genero Mahaia (herrialdeko alderdi biko eta alderdi anitzeko nazioarteko
lankidetzak dago bertan) eta beste hamarnaka erakunde Indarkeriaren aurkako Programaren uztar-
ketaren aurka daude (Probintziako Udaletaranzko Deszentralizazioaren Ibilbide Orrian azaltzen
da). Euren jarreraren argudio moduan, legeria nazionala eta nazioarteko arauak erabili dituzte,
baina ez dute inolako erantzunik jaso.

Oraindik ere, nortasun-agiririk eza oso arazo larria da Perun, eta oztopo ekonomikoak, geografi-
koak, legalak eta sexistak ditu, txirotasun handieneko eremuetako landa-inguruneetako emaku-
meak direlako kaltetu nagusiak. Horrez gain, emakume horiek gatazka armatuaren biktimak ere
izan ziren. Nortasun-agiririk ez dutenez, ikusezinak dira estatuarentzat eta ez dute herritar
moduan dagozkien oinarriko eskubideak eskuratzetik. Gaur egun, Defentsa Bulegoak emakumeen
eta feministen erakundeekin lan egiten du, nortasun-agiria doan lortzeko kanpainetan, eta gaien
inplikaturako agintariei eskatzen die nortasun-agiria edukitzeko oztopoak ezabatzeke.

Adierazi dugunez, Peruk arautegi ugari ditu, eta nazioarteko konbentzio ugariekin bat egin du,
nahiz eta arau horiek guztiak betetzen ez dituen. Emakumeen eta/edo feministen erakundeek pre-
sio-tresna moduan erabiltzen dituzte arauok, lege-esparruaren benetako indarraldia zehazteko
eta estatuak hartutako konpromiso zein politiken jarraipena egiteko.

Hona hemen Peruko Emakumeen Mugimenduaren agendan dauden zenbait gai: estatistikak egi-
tea, emakumeek aurrekontuetan parte hartzea, euren agendak gastu publikoaren inbertsioan kon-

⁶ MIMDESen 005. Dekretu Gorena, 2007ko maiatzaren 5ekoa.

tuan hartzea, denboraren erabilerari buruzko inkestak egitea eta zainketak balioestea. Horrez gain, politiken gaur egungo transferentzia eta deszentralizazioa ere hartu behar dira kontuan. Prozesu horretan, gainera, emakumeek esperientzia luzea dute zaintzan zein kontrolean, euren eskubideen betearazpenaren jarraipena egiteko orduan.

Azkenik, ardatz eta erronka handia da CVR-ren gomendioen eta ordain-planen garapenaren jarraipena egitea, salatutako egitateen eta bildutako lekukotasunen zati bat herrialdeko gaur egungo presidentearen lehen agintaldian gertatu zirela kontuan hartuta, batik bat. Horrela, ez dira batzordeak berak erabilitako leloan eroriko: "Bere historia ahazten duen herrialdeak errepikatatu egingo du seguruenik".

Bibliografia

ANDÍA, Bethsabé eta BELTRÁN, Arlette (Noviembre 2002): "Análisis del presupuesto público con enfoque de género. Estudio de caso para Villa El Salvador". UNIFEM. Helbide honetan kontsulta daiteke: www.presupuestoygenero.net/media/andia.pdf

BARRIG, Maruja (2000): "Introducción: Cómo llegar a un puerto con el mapa equivocado" in *Las Apuestas Inconclusas. El Movimiento de Mujeres y la IV Conferencia Mundial de la Mujer*. Lima: Flora Tristán.

DE LA CRUZ, Carmen; BARRIG, Maruja; eta RODRÍGUEZ, Alicia (2008): *El Financiamiento para la Igualdad de Género y la nueva "Arquitectura de la Ayuda". Los casos de Guatemala y Perú*. Madril: Carolina Fundazioa.

EMAKUMEEN ETA GIZARTE GARAPENAREN MINISTERIOA. Helbide honetan kontsulta daiteke: www.mimdes.gob.pe

ESTADÍSTICA INSTITUTU NAZIONALA (INEI). Helbide honetan kontsulta daiteke: www.inei.gob.pe

FLORA TRISTÁN PERUKO EMAKUMEEN ZENTROA: Helbide honetan kontsulta daiteke: www.flora.org.pe


HAUTESKUNDEETAN PARTE HARTZEKO BULEGO NAZIONALA. Helbide honetan kontsulta daiteke: www.onpe.gob.pe/proyectomujer

MANUELA RAMOS MUGIMENDUA. Helbide honetan kontsulta daiteke: www.manuela.org.pe

NAZIO BATUEN PROGRAMA GARAPENERAKO (PNUD) (2007-2008): *PNUDen 2007-2008ko Giza Garapenari buruzko Txostena*. Helbide honetan kontsulta daiteke: www.undp.org

NAZIO BATUEN PROGRAMA GARAPENERAKO (PNUD) (2006): *Peruko 2006ko Giza Garapenari buruzko Txostena. Herritartasuna eskaintzen duen deszentralizaziorantz*. Helbide honetan kontsulta daiteke: www.pnud.org.pe

VARGAS, Virginia (2006): *El movimiento feminista en el horizonte democrático peruano (décadas 1980 -1990)*. Lima: Flora Tristán Peruko Emakumeen Zentroa.



Latinoamerikako emakumeen elkarrengandik eta elkarre feministengandik ikasiz

Ondoko atal honetan, kapitulu honetarako hautatu diren herrialdeetako erakunde feminista latinoamerikar garrantzitsu biren esperientziak aipatzen dira. Zehazki, ondoko praktika onak garatzen dira: "Genero ikuspegiko aurrekontuen azterketa: kontroloria ekintzak bideratzeko lanabesa, emakumeak aintzat hartuz", Las Méridasek (El Salvador) gauzatua, eta "Peruko landa-emakumearen autonomia eta jabeakuntza ekonomikorako estrategiak: erakunde feminista batetik konpartitzeko esperientziak", Flora Tristán Emakume Perutarren Zentroak (Peru) eginda. Ikaskuntza horien sistematizazioaren bitartez, horrelako ekimenak abiarazteko orduan aurkitutako oztopoak, errotrak eta eskuratutako lorpenak ezagutarazi nahi dira.

Genero ikuspegiko aurrekontuen azterketa: kontraloria ekintzak bideratzeko lanabesa, emakumeak aintzat hartuz

Movimiento de Mujeres "Mélida Anaya Montes"

Genero ikuspegiko aurrekontuak genero ekitatea lortzeko bidean

Emakumeek euren hiritartasuna sendotu dezaten, Las Mélicas elkarteak nazioko eta tokiko aurrekontu publiko ezberdinen azterketa egin du, genero ikuspegia kontuan hartuz. Azterlan horrek ondokoak haztatzen ditu: gobernu batek zein ekintzarako bideratzen dituen laguntzak, nortzuk izango diren laguntza horien onuradunak, gizon-emakumeen arteko genero ezberdintasunen hausturak konpontzeko balio ote duten, eta, aurrekontua egitean, laguntzok behar praktiko zein interes estrategikoei heltzen ote dieten.

Aurrekontuak aztertzea beharrezkotzat jo dugu, emakumeek jakin eta ikus dezaten Estatuak emakumeei bideratzen dizkien laguntzak zenbat eta zeintzuk diren. 1998an, Nazioaren Aurrekontu Orokorra genero ikuspegi batetik aztertzeari ekin genion estreinakoz. Saio garrantzitsua izan zen hura, xeheki ezagutu ahal izan genuelako El Salvadorko gobernuak zenbat fondo esleitzen dizkien gizarte-gastuko atal ezberdinei: hezkuntza, osasuna, birsortzea, etxebizitza eta El Salvadorko Emakumearen Garapenerako Institutuari (ISDEMU), besteak beste.

2001. urtean, Las Mélidasek guneak ireki genituen hainbat udaletan, eta horietan guztietan Genero Ekitaterako Udal Politikak bideratu dira gero, emakumeen baldintzak eta egoerak alda daitezzen, esaterako: diru-sarrerak, lana eta kredituak, oinarrizko zerbitzuak, hezkuntza eta birsortzea, herritarren eta politikaren parte-hartzea, biolentzia eta herri-segurtasuna eta sexu-osasuna eta ugaltze-osasuna.

Halarik ere, ekintzok ez badute aurrekontu egokirik, ezinezkoa da aurreratzea genero-berdintasunaren alorrean. Horregatik, hain zuzen, hurrengo urratsa politika horien ezarpena zuzentzea eta ebaluatzea izan da, emakumeen aldeko genero-politikak eta ekintza positiboak gauzatu diren udalerrietan genero ikuspegiko aurrekontu publikoen azterketak eginez.

El Salvadorren, tokian tokiko gobernuak funtsezko eginkizuna dute tokiko nahiz eskualdeko garapena sustatzen, lanak egiten eta komunitateari zerbitzuak ematen. Horretarako, ezinbestekoa dute urtero aurrekontua egitea.

Era berean, aurrekontua dela bide, udal gobernuek euren funtzioak behar bezala betetzeko bideratzen dituzten laguntzak nola lehenesten dituzten ikus daiteke, eta, funtzio horien artean, besteak beste, genero berdintasuna sustatzea dago. Helburu hori erdiesteko mekanismoak askotarikoak izan daitezke: instantzia espezializatuak sortzea edota sendotzea; gizon-emakumeen baldintzak modu berean hobetzeko programak ezartzea; ekintza zehatzak bideratzea herritarrek sentsibilizatzeko, berdintasunean oinarritutako gizarte errealitatea alda dadin, etab.

Las Mélidasek behar-beharrezkoa ikusi du El Salvadorko udal batzuekin batera lan egitea (Santa Tecla, Cojutepeque, San Rafael Cedros, Zacatecoluca eta San Salvador), hartara, tokiko gobernuek genero berdintasunaren alorrean aurrerapausorik egin duten aztertzeaz gainera, agintariei ildo horretatik jarraitzeko proposamen zehatzak egin diezaieke.

Genero ikuspegiko aurrekontua gauzatzearen esperientzia, Tecoluca udalerrian

Aurrekontuek genero ikuspegia aintzat har dezaten, Las Mélidas elkartetik kontraloria ekintzak bideratu ditugu El Salvadorko sei udalerritan: Cojuteque, San Rafael Cedros, San Salvador, Zacatecoluca, Tecoluca eta Santa Teclan.

• Tecolucako aurrekontuaren azterketa

Tecoluca San Vicente departamentuaren udalerrietako bat da, San Salvadorko ekialdean dagoena. DIGESTY¹ 2007ko IV. Biztanle erroldaren eta Etxebizitzako V.aren arabera, Tecolucak 23.893 bizilagun ditu, eta, horietatik, 11.558 dira gizonezko eta 12.335 emakumezko.

1992az geroztik asko hazi eta garatu da Tecoluca, eta, urte horretan bertan, hain justu, Bake Akordioak sinatu zituzten alde beligeranteek, hau da, FMLN² eta El Salvadorko gobernua. Biztanle asko soldadu ohiak dira, eta, beste asko, "kontrol guneetan" bizi izandakoak gerrilla urteetan, 80ko hamarkada aldera. Udal katastroaren arabera, Tecolucak 25 herrixka ditu eta 91 etxalde edo komunitate, 284.650 km² inguru ditu eta itsas mailatik 270 metrora dago.

San Vicenteko departamentuko udalerrri handiena da, eta El Salvadorko herririk handienetako bat ere bai. Urpean gelditzeko arrisku handia dauka, batez ere, Lempa ibaiaren behe ibilguan, eta lurrikarak jasatekoa ere bai. Udalak hurrengo 7 eremutan banatu du bere lana: sumendia, herria, erdialdea, Santa Cruz Porrillo, Iparraldea, San Nicolás eta kostaldea.

Udal aurrekontua genero ikuspegitik aztertzeko, hiru elementu beharrezko gertatu ziren: a) toki-ko emakume elkarteek udalbatzari presioa egitea; b) Las Mélidasen parte-hartzea, azterketa hau egin ahal izateko; eta c) Tecolucako alkatearen eta Udalaren borondate politikoa.

• Emakumeen toki-elkarteek Udalari egindako presioa

Tecolucako udalerrian, emakumeen erakunde eta talde franko dago, eta horien artean, besteak beste, ondokoak nabarmendu ditzakegu: "Olga Estela Moreno" Landa-Emakumeen Elkarte (ASMUR), Tecolucako Emakumeen Udal Erakundea (AMMT), Brisas de el Volcan komunitateko emakumeen herri-batzordea, José Ricardo Chávez auzoko emakumeen herri-batzordea, Flor de Fuego komunitateko emakumeen herri-batzordea, El Casino komunitateko emakumeen herri-batzordea eta Los Achotes komunitateko herri-batzordea.

¹ Estadística eta Errolda Zuzendaritza Nagusia. Ekonomia Ministerioa.

² Farabundo Martí Nazio Askapenerako Frontea.

Elkarteetan antolaturik egoteak estatus politikoa eman die emakumeei udalerrri barruan, eta Udalak, bada, errazago erantzun diezaieke haien premia eta beharrei. Elkarre horien presentziaren eta eragin politikoaren ondorioz, Udalak genero ikuspegiko aurrekontuak berraztertzea erabaki du.

Las Méridasek antolakuntza-prozesu eta prestakuntza feministako tailerrak sustatu ditu emakumeon artean, eta horietako asko Isis Dagmar Emakume Klinikara joan ohi dira, San Nicolás Lempan dagoena, Tecolucako udalerrian.

2007 eta 2008an, Las Méridasek eta emakumeen toki-erakundeek genero politika bat sustatu zuten Tecolucarako, non Genero Unitatearen prestakuntza jasotzen zen, hau da, genero politikaren jarraipena egiteko ardura duen udaletxeko instantziarena.

- **Las Méridasen esku-hartzea, azterketa hau egiteko**


Tecolucako Udalarekin eta bere alkatearekin harremanetan egon ondoren, lankidetzaz hitzarmen bat sinatu genuen, genero ikuspegi batetik udal aurrekontuaren azterketa zertzeko.

Honako hau izan zen Tecolucako aurrekontua aztertzeke segitu genuen metodologia:


1. 2005 eta 2006. urterako Udalaren diru-sarreraren eta irteeren ikuspegi orokor bat lortu genuen, eta urte bien arteko azterketa konparatibo bat ere bai.
2. Udalak urte horietarako izendatu zuen emakumeentzako Gastu Etiketatua identifikatu genuen.
3. Udal barruan aukera berdintasunak sustatzeko bideratutako diruaren zenbatekoa antzeman genuen.
4. Azkenik, Udalak finantzatutako programak berrikusi genituen, baliabideak are xehekiago erabiltzeko.

Ahalegin honetan, berebiziko garrantzia dauka emakumeentzako gastu etiketatua identifikatzea. Gobernu batek emakumeentzat onuragarri diren programa, proiektu eta ekintzei zuzenduriko laguntza-kopuruari deritzo emakumeentzako gastu etiketatua. Aipatu laguntzak ezin daitezke udalerriko beste sektore batzuekin erabili, izan ere, emakumeen behar eta eskaera zehatzei erantzuteko bideratzen dira.

2005ean, Tecolucako emakumeei zuzenduriko gastu etiketatua 5.714,28 amerikar dolarrekoa izan zen, hau da, aurrekontu osoaren %0,26. Diru-laguntza hori, hain zuzen, Emakumearen Etxea erai-ki zuten lur-eremua beren-beregi erosteko erabili zen.



2006an, emakumeei zuzenduriko aurrekontu etiketatua nabarmen hazi zen, hazkunde erreala izan ez bazen ere: 5.714,28 dolarretik 11.428,56 dolarrera pasa zen, Las Mélidasek egindako aurrekontuaren azterketaren arabera.



Aurrekontua aztertu ostean, honako hau gomendatu zitzaion Udalari:

- Genero ikuspegia aintzat hartzen duten proiektuak hautatzean lehentasun irizpideak ezartzea.
- Emakumeei zuzenduriko gastu etiketatua areagotzea, eta proiektuen onuradunak ikusgai egitea.
- Aurrekontuaren gaineko informazioa sexuaren eta adinaren arabera aurkeztea.
- Genero ikuspegia instituzionalizatzea, emakumeen premiak eta eskaerak betetzen dituen administrazio-instantzia bat sortuz, eta dagokion aurrekontua edukitzea.

Udalak hein batean soilik bete zituen gomendio horiek.

- Tecolucako alkatearen eta Udalaren borondate politikoa

Udal aurrekontuak eta aurrekontu nazionalak isileko kontuak dira eta izan dira. Ondorioz, bai tokian tokiko gobernuek bai nazio mailako gobernuek trabak jartzen dituzte aurrekontuen gaineko informazioa eskuratu nahi izanez gero, dela diru-sarrerena dela diru-irteerena. Tecolucako udal gobernuak herriarekin eta elkarteetan antolatutako emakumeekin elkarlanean aritzeko gogoia erakutsi du. Borondate politikoa eta gardentasuna erakutsi du, azken buruan, Las Mélidas bezalako emakume elkarte bati Udalaren aurrekontua ikuskatzen utzi dio.

Prozesu honetan, zenbait lorpen eta zailtasun nabarmendu dezakegu, baita ateratako ikasbiderik ere.

Lorpenak, zailtasunak eta ateratako ikasbideak

• Lorpenak

Emakumeen tokiko elkarteetan:

Emakumeak aldez aurretik antolaturik egoteak Udalean eragitea ahalbidetzen du, batez ere, haien premia eta interes estrategikoak kontuan har daitezzen.

- Emakumeek euren parte-hartzea sustatu dute prozesu honetan. Horretarako ikusgai egin dira eta ondoen datorkien emaitzez jabetu dira.
- Emakumeek Udalaren partaidetza-mekanismoetan parte hartu dute, "Udaleko Emakumeen Mahaia" delakoan, kasurako.

Udalean:

Udalak eman dituen urratsen artean, Udaleko Emakumeen Mahaia dago; egitasmo horren ardura emakumezko zinegotzi batek du, eta Udalean genero ekitatea sustatzeko ekintzak koordinatzen ditu. Halaber, 2005etik 2006ra, emakumeei zuzenduriko gastu etiketatua areagotu egin dela antzematen da. Beste alde batetik, Udalak, 2007 eta 2008. urteetan, Udaleko Genero Politika bat gauzatu du, Udal-egituraren barruan Genero Unitate bat sortzea aurreikusten duena.

Las Méldidasen:

- Eskarmentua irabazi dugu genero ikuspegiko udal aurrekontuak aztertu ondoren.
- Emakumeei zuzenduriko gastu etiketatua ikusaraztea lortu dugu, baita Udalaren barruan dauden genero-ezberdintasunak ere.
- Emakumeen Mahaiari aholkua eman diogu, Tecolucako genero politika gauzatu duenean.

• Zailtasunak

Genero ikuspegiko aurrekontu bat abian jartzeak hainbat zailtasun gainditzea dakar berarekin, esaterako, instituzioek jartzen dituzten trabak, buru-paradigmak eta funtzionario publikoen jarre-rak. Halere, esperientzia hau prozesu gisa baloratzen dugunez, eta udal gobernuari etorkizunean ere kontraloria ekintzak egingo dizkiogunez, zinez uste dugu azterlanaren gomendioen ildo bere-tik jarraitu dezakegula.

• Ateratako ikasbideak

Toki-gobernuak, emakumeen toki-elkar-teek eta emakumeen nazio-erakundeek hirukote bertute-tsua osatzen dutela uste dugu, Udalean genero ekitatea sustatzeko.

Toki-gobernua tokiko nahiz nazio mailako emakume elkarteekin harremanetan egon zenez, gene-ro ikuspegi batetik aztertu ahal izan genuen udal aurrekontua, eta ondoren, horren arabera gomendioak proposatu.

Emakumeen toki-erakundeak eragile dinamiko eta ahalt-suak dira prozesu honetan, izan ere, era-kunde batetik prozesu hori proposa dezaketen emakumeak egotea garrantzitsua da oso. Genero ikuspegiko aurrekontuak aztertu ondoren, Las Méldidasek igorritako irizpenak eskuartean duzun azterlan hau egitea ahalbidetu zuen, eta toki-gobernuei zein udalerriko emakumeei oso baliaga-rrri gertatzen zaie.

Peruko landa-inguruneko emakumeen autonomia eta jabeakuntza ekonomikorako estrategiak: erakunde feministatik partekatzekeo esperientziak

Centro de la Mujer Peruana Flora Tristán

Egunero-egunero, Luzmila eguna argitu baino lehen jaikitzen da, senarrarentzako eta lau seme-alabentzako janaria prestatzeko. Senarra etxalderantz doan bitartean, etxeke lanak egiten ditu eta eskolara doazen seme-alabez arduratzen da. Dena dela, bi urteko alaba bizkarrean darama oraindik, besoak eta eskuak lanerako prest eduki ahal izateko. Arratsaldean, seme-alabei jaten eman eta eskolako lanak egiten utzi ondoren, animaliez arduratzen da. Luzmilak ezin die seme-alabei etxerako lanak egiten lagundu, irakurtzen eta idazten ez dakielako. Ondoren, etxaldera doa eta nekazaritzako lanetan laguntzen du. Perun nortasun-agiririk ez duten ia-ia milioi eta erdi emakumeen antzera, landa-inguruneko biztanleen %50 baino gehiago egoera berean dago, zenbatespen moderatuen arabera. Luzmila landa-ingurunean bizi da, eta ez du giza eskubide gehienak erabiltzerik.

Luzmilarentzat eta Peruko landa-inguruneetako emakume askorentzat gurari lortezina da egunero-egunero bere bizitokia eta ereintzan edo uztan bere lantokia den lurraren jabea izatea. Hain zuzen ere, estatuak bermatzen ez dien giza eskubidea da. Horrela, bada, zenbait ondorio kaltegarri sortzen dira euren garapenean, eta egoera hori sortzen duten faktoreak plano formal eta kulturean alderantzikatu behar dira, gizarte eta genero desberdintasunaren hausturak ixteko, euren ondorioz Amazonasko, Andeetako eta kostaldeko emakumeek ez dutelako inolaz ere garatzerik.

Gaur egungo Perun, agintariak eta prentsa handiak lorpenak ospatzen dituzte, ekonomia nazionala eskualdeko egonkor eta itxaropentsuenetakoa delako, urteko batez besteko hazkuntza %5etik gorakoa dela kontuan hartuta. Nolanahi ere, ahots formal gutxik arakutzen dute biztanle-sektore askoren egoeran, nahiz eta txirotasunean edo txirotasun gorrian bizi eta oparialdi goraiapatutik kanpo egon. Kontraste horretan, hiri handietatik urrun bizi diren emakumeen errealitatea nabarmentzen da, Luzmilak bezala ekoizpen eta etxe arloko zereginak betetzen dituztelako betebeharez gainezka, baina eskubiderik ez dutelako eta herritar aktibotzat hartzen ez dituztelako. Estatuak, ordea, ez du ezer egiten eta oraindik ez du inolako eraldaketarik egin egoera hori goitik behera aldatzeko.

Hori dela-eta, gizarte zibileko erakundeek nabarmendu behar izan dute emakumeen menderakuntza alde batera utzi eta genero arteko aukera-berdintasuna sustatu beharra dagoela, euren

buru-estimua sendotzeko eta giza garapenerako bidea urratzeko. Ikuspegi horretatik, funtsezkoa izan da euren eskubide ekonomikoak onetsi eta erabiltzeko egindako lana.

Luzmilak, Josefinak, Hilariak eta Mariak nola hartu ahal izango dituzte euren bizitzari buruzko erabaki autonomoak, gure gizartean gizonen ahotsa entzutea nahikoa dela entzunda hazi badira, gizonak jabetzaren jabeak badira, nortasun-agiriak dituztenak badira, bidaiatzen dutenak badira, eskolara doazenak badira eta baliabideak eskuratu eta erabiltzeko aukera handienak dituztenak badira? Emakumeek ekoizpen, ugalketa eta zainketa arloko lanak egiten badituzte ere, inork ez du euren zeregina onesten, balioesten eta zenbatzen. Beraz, ia-ia ikusezina da, eta gizartearen berezko ezaugarritzat hartzen da. Horren ondorioz, non dago euren herritartasunaren erabilera?, nola zehaztu daitezke eskubideak euren bizimoduan?, nondik hasi?

Galdera asko eta erronka handiak, Flora Tristán Peruko Emakumeen Zentroak¹ bere gain hartutako berberak. Zentroa erakunde feminista da, eta, 1979. urteaz geroztik, Peruko emakumeen eskubideak sustatu eta defendatu egiten ditu. Nahiz eta hirigunean sortu, hasier-hasieratik oso-oso kontuan hartu zituen euren bizitzan bazterketa ugari jasaten dituztenen egoera eta generoagatiko, etniagatiko zein egoera ekonomiko, fisiko eta sozialagatiko bereizkeriak. Landa Garapenerako Programaren bidez (PDR), gizarte zibileko erakunde honek giza eskubideen eta garapenaren ikuspegi feministatik esku hartzeko erabakia hartu zuen, Peruko landa-ingurune emakumeen bizi-baldintzak hobetzeko. Horretarako, emakumeek ekoizpen, gizarte eta erakunde arloko baliabideak eta lurra eskuratzeko aukera izan behar dute berdintasun-baldintzetan, baldintza abantailatsuak eskaintzen dituzten kredituak lortzeko aukera izan behar dute eta teknologia, laguntza teknikoak zein elikadura-teknologia jarri behar da euren esku. Horrela, aldaketa esanguratsuak egin ahal izango dira herrialdeko landa-ingurune emakumeen bazterketa-egoeran.

Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak: bidezkoak ta beharrezkoak dira landa-ingurune emakumeentzat

Progresiboak direnez, eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak (EESK) bigarren mailan jartzen dira, hobeto balioesten dituzten beste batzuen aldean. Eskubide zibil eta politikoez ari gara, esaterako. Horrela, estatuek ezin dituzte adierazpen-askatasuna, sufragio unibertsala, iragaitza askea edo elkartegintza bermatzen dituzten eskubideak urratu. Edonola ere, jarrera erabat desberdina da honako eskubide hauetaz ari garenean: oinarritzko zerbitzuak, lan eta soldata duinak, kalitateko osasuna eta hezkuntza edo tradizio kulturalen errespetua. Halakoetan, oraindik ere, oso kontuan hartzen da nolako egoera ekonomikoa duen herrialdeak. Beraz, birbanatzeko politikarik ez dagoenez, ez dago biztanleen %50ek baino gehiagok jasaten dituzten desberdintasun itzelak ixterik. Biztanle horien zati handi bat, gainera, emakumeak dira, eta oraindik ere ez dute mineralen nazioarteko prezio handiaren, esportaziorako nekazaritzaren goraldiaren eta estatuko zein atzerriko inbertsio pribatuaren sustapenaren ondorioz sortutako hazkuntza ekonomikoaren jaia ospatu.

EESKek inolako salbuespenik gabe pertsona guztiei bermatzen dizkiete bizi-baldintza egokiak, ongizatea, garapena eta adierazpen kulturalen errespetua. Peruko emakume gehienek, ordea, ez dute eskubide horiek erabiltzerik, landa-ingurune txiroen %72,5en artean daude-eta. Amen heriotza-tasa handiena da herrialdeko eskualde horietan, emakume gehienak analfabetoak dira eta indarkeria gogorraren biktima nagusiak dira. Hala ere, estatuak ez ditu euren segurtasuna eta bizia bermatzen. Ekoizpen-baliabideak eskuratzeko aukera gutxi dituzte, lurreko lanaren ziklo osoan parte hartzen duten arren. Landa-ingurune emakume ekoizle txiki guztiak kontuan har-

¹ Erakunde feministak emakumeen garapenerako politika eta prozesuetan izan nahi du eragina, genero berdintasun eta justiziaren irizpideak eta emaitzak kontuan hartzeko eta euren herritartasuna sendotzeko.

tuta, %4,7k baino ez dute behar bezala erregistratutako jabetza-titulua. Asko eta asko familia-buruak diren arren, berdintasunezko soldatarik eta lan-onurarik gabeko zereginak garatu behar dituzte.

Arauzko planoan eta plano formalean aurrerapenak egin badira ere, eguneko eguneko errealitatearekiko haustura itzela da, eta, praktikan, EESK euren bizitzatik urrun daude. Emakumeentzat guraria besterik ez dira. Hori guztiori gutxi balitz bezala, eskubide horiek behin eta berriro urratzen dira, estatuaren edo sektore pribatuaren ekintzagatik eta/edo hutsegiteagatik. Urraketa hori are larriagoa da, salatzeko eta erantzukizunak eskatzeko mekanismo eta esparrurik ez dagoelako, zigorgabetasun-zikloak hausten ez dituztelako eta justizia zein ordainerako zikloak irekitzen ez dituztelako.

Lehen adierazi dugunez, emakumeek bete-betean parte hartzen dute nekazaritzako ekoizpenean eta etxean, baina ekarpen horren ahozko onespina ez da estatuko politiketan eraginkortasunez islatzen, estatuak ez dielako bermatzen euren garapenerako ezinbestekoak diren baliabide ekonomikoak eta produktiboak baldintza egokietan eskuratu ahal izango dituztela. Esate baterako, lurraren jabetza, ura, kreditua, eskubideak benetan erabiltzeko teknologia, jabekuntza ekonomikoa eta, horren ondorioz, erabateko herritartasuna.

Esparru horretan, PDRren bidez, 1988an Flora Tristán Zentroa lan eutsia egiten hasi zen, landa-ingurune emakumeak herrialdeko garapen-prozesuan sartzeko, Peruko gizartean zeuzkaten posizioa eta egoera hobetzen zituzten politika, programa eta proiektuetan euren premiak eta eskariak kontuan hartzean.

Horretarako, zenbait estrategia eta prozesu sustatu ditu, landa-ingurune emakumeentzako jabekuntza eta berdintasuna lortzeko eta giza eskubide ukaezinak diren eskubide ekonomikoak eskuratzeko eta aitortzeko. Alde horretatik, funtsezkoak zaintzan eta eskakizunean lan egiten du, emakume onuradunak ekindako bidearen protagonistak izan daitezen.

Agiri honek PDRk garatutako zenbait esperientziaren bidez partekatu eta islatu nahi du zeintzuk diren abian jarri ditugun erronkak, proposamen instituzionalak, jarduketa-estrategiak eta ekintzak, horren ondorioz landa-ingurune emakumeek baldintza hobetan eskuratu ahal izan dutelako teknologia, prestakuntza, laguntza tekniko, diru-sarrera, enplegu eta lurraren jabetzarako eskubidea. Horretarako, "funtsezkoa" den nortasun eta izenerako eskubidea sustatu eta leheneratu behar izan zen aldi berean eta alde zurretik.

Eremu honetan, landa-ingurune emakumeen EESK zaintzeko eta eskatzeko garatu ditugun ekintzak ere partekatu nahi ditugu. Horretarako, 2007ko urrian, auzitegi sinboliko etiko eta politikoa antolatu genuen, gure ingurune emakume eta feministen zenbait erakunderen laguntzaz eta koordinazioaz. Era berean, landa-ingurune emakumeen eskubide ekonomiko eta produktiboen inguruko hausnarketak, ikaskuntzak eta proposamenak ere aurkeztuko ditugu, autonomia-estrategiaren, jabekuntza ekonomikoaren eta herritartasunaren eraketaren adierazgarri direlako eurentzat.

Ardatz tematikoak eta programaren ikuspegia

Flora Tristán Peruko Emakumeen Zentroko Landa Garapenerako Programak (PDRk) erabateko herritartasuna eskuratzeko aukera eskaini nahi die landa-ingurune emakumeei. Horretarako, ukaezinak diren baliabide ekonomiko eta produktiboak eskuratu eta kontrolatu egin behar dituzte; esate baterako, lurra, ura, kreditua eta teknologia. Dena dela, horrek ez du esan nahi beste eskubide batzuk lortu behar ez dituztenik.

Ikuspegi horretatik, gure lana eta jarduketa euren artean egituratutako bi ardatz tematikotan daude oinarrituta: herritartasuna, landa-inguruneko emakumeen herritar-eskubidea onestea eta erabiltzea da helburua (nortasunerako eta partaidetza politikorako eskubideari lehentasuna emanda); eta baliabide ekonomiko eta produktiboak eskuratzeko aukera.

Horrela, gogor lan egiten dugu, herrialdeko landa-inguruneko emakumeek eskubide-kate moduan egituratutako zenbait baliabide ekonomiko eta produktibo eskuratu eta kontrolatu ditzaten (bal-dintza berberetan). Horretarako, funtsezkoa da eskubidedun subjektu moduan duten buru-estimua eta autojakintza handitzea, eskubideok euren gain hartzeko, barneratzeko, erabiltzeko eta defendatzeko.

Begirada integral horretatik, generoa, eskubideak eta kultura artekotasuna kontuan hartuta, sustatu, proposatu, eragin eta zaindu egingo dugu, landa-inguruneko emakumeek teknologia, pres-takuntza, laguntza teknikoa eta lurraren jabetza nahiz kontrola berdintasunez eskuratu ditzaten eta estatuak bultzatutako titulazio-programen onuradunak izan daitezen.

Horretarako, esku hartzeko zenbait estrategia garatu ditugu eta egituratutako ekintzak jarri ditugu abian (estatu zein eskualde mailan), itunpeko lana egiteko eta gizarte zibileko erakunde nahiz estatuko² instituzioekin itunak eratzeko. Prozesu horretan, gainera, proposamen eta zaintzarako rola hartu dugu geure gain.

Zenbait estrategia eta ekintza sakon aztertuko ditugu, landa-inguruneko emakumeek baliabide ekonomikoak eta produktiboak eta, batez ere, lurraren jabetza lortzea dutelako helburu, herritar moduan ditzuten eskubideen aldarrikapenaren esparruan. Lehenago, ordea, nabarmendu egin behar dugu gure proposamenaren abiapuntua Carmen Diana Deere eta Magdalena León doktore eta ikertzaile ospetsuen lanean kokatzen dela eta nazioarteko tresna juridikoetan nahiz munduko bileretako agirietan oinarritzen dela. Agiri horietan, hain zuzen ere, onartu egiten da oso garrantzitsua dela emakumeek baliabide produktiboak eskuratzeko. Horra hor Peruko estatuak sinatutako Bejingeko Emakumeen Munduko IV. Bilerako Ekintza Plataforma. Bertan adierazitakoaren arabera, emakumeen txirotasuna sustraitik desagerrarazteko, ez da nahikoa izango egoera hori arintzea, "partaidetza demokratikoa eta egitura ekonomikoen aldaketak sustatu beharko direlako, emakume guztiek baliabideak, aukerak eta zerbitzu publikoak eskuratzeko dituztela bermatzeko".

Nortasun-agiririk ez edukita ere, emakumeek lurraren jabetza eskuratzeko garatutako estrategiak eta ekintzak

Peru emakume lur-jabe gutxien dituen herrialdeetakoa denez, herrialdeko genero-kezken ezau-garri berezigarrietakoa da. Indarreko legeetan eta lur-titulaziorako abian jarritako programetan emakume perutarren aurkako bereizkeria-xedapenik azaltzen ez bada ere, praktikan zailtasun handiak dituzte baliabide hori eskuratzeko, faktore ideologiko kulturalengatik eta bereizkeriarako eskakizunen iraupenagatik, besteak beste. Horrez gain, teknikari eta funtzionario publikoek ez dute emakumeen egoera partikularra kontuan hartzen eta ezagutzen, jabetzari buruzko informazioa hartu eta erregistroa egitean.

Hori dela-eta, Lurrei buruzko Legea eztabaidatzea eta azken hamar urteotan Nekazaritza Ministerioko Lurren Titulaziorako Proiektu Bereziak (PETTek) sutatutako lurren titulaziorako programa handia betearaztea oso aukera aparta zen, landa-inguruneko emakumeek jabetza-eskubidea lortu zezaten.

² Horretarako, erakunde arteko hitzarmenak sinatu dituzte.

Esparru horretan, Flora Tristán Zentroak PDRren bidez bultzatzen du *“Lurren berdintasunezko titulazioaren alde”* kanpaina nazionala. Bertan, hain zuzen ere, zenbait ekintza eta estrategia jartzen dira abian, landa-inguruneke emakumeek lurren jabetza eta titulazio baldintza egokietan lortu ditzaten. Hona hemen, labur-labur, zeintzuk diren baldintza horiek:

- *MINAGeko PETTeko Lurren Titulaziorako kanpainaren jarraipena*

Nekazaritza Ministerioko (MINAGeko) PETTek³ garatutako Titulazio Programak Nekazaritzaren Eraldaketako milaka onuradunei tituluak ematea izan zuen helburu, inoiz euren egoera oso-osorik legezatu ez zutelako. Esparru horretan, I. Titulazio Kanpainak (PRTT1ek) milioi bat lur-titulu “onbideratu” zituen 1996tik 2000ra. Generoari begira proiektuak neutrala izan nahi zuenez, aukera paregabea zen, emakumeek lurrerako eskubidea erabili zezaten.

Titulazio Programa Handiko emaitzak, ordea, ez dira batere itxaropentsuak. I. kanpainan, ez zioten inolako lehentasunik eman familia-buruak diren emakumeen titulazioari⁴, kanpaina ez zen landa-inguruneen ezaugarrien eta berezitasunen arabera zabaldu, ez zituzten programa betearazi behar zuten MINAGeko funtzionarioak eta erregistratzaileak genero-arloan trebatu eta ez zituzten proiektu nazionalako onuradunei buruzko datuak sexuaren arabera bildu.

Gainera, emakumeek lur-jabetza eskuratzeko aukera berberak ez zituztela egiaztatu zenez, Flora Tristán Peruko Emakumeen Zentroak (CMPK) *“Lurren berdintasunezko titulazioaren alde”* kanpaina jarri zuen abian, hurrengo puntuan adierazten den bezala.

Ondoren, 2001. urtean, 2007ra arte luzatutako Lurren Titulaziorako II. Kanpaina (PRTR2) jarri zen abian, lehen etapan titulatu gabe utzitako onibar asko erregistratzeko. Horrez gain, landa-inguruneke 504 erkidego mugarritu eta titulatu zituzten, eta, euren artean, bederatzi erkidego nati-
bo zeuden, gutxienez.

Nolanahi ere, kanpaina horietako prozesuan, agerikoa da beste oztopo bat dagoela eta emakumeek lurren titulazioa eta jabetza eskuratzeko duten eskubidea mugatzen duela. Nortasun-agiririk ezaz ari gara. Egoera horren ondorioz, nortasun-agiririk gabeko emakumeek ez dute euren onibarrak banan-banan edo baterako jabetzan onbideratzeko eta erregistratzeko prozesuan jarraitzerik. Hori dela-eta, Nortasun Agiri Nazionalik (NANik) ez dutenez, emakumeentzat oztopo handia da lurren jabetza eta titulazioa erdiesteko orduan. Beraz, baztertuta geratzen dira, eta ez dute estatuak PETTen bidez sustatutako Lurren Titulaziorako Programan parte hartzerik.

Egoera horri aurre egiteko, Lurren Titulaziorako Kanpainaren jarraipena egiteko ekintzekin batera, 2003an Flora Tristán Zentroak *“Landa-inguruneke emakumeen herritar-eskubideen eta euren nortasun-eskubidearen alde”* proiektua jarri zuen abian, eta, esparru horretan, *“Emakume, zeure NAN atara, zure txanda- da-eta!”*⁵ kanpaina ere bai, iritzi publikoa eta emakumeak gabezia horien inguruan sentsibilizatzeko eta nortasun-agiriaren lorpenerako estrategia onenak bilatzeko.

Lan hori garatzeko, itun estrategikoak eratu eta lankidetzeta-hitzarmenak sinatu ziren estatuko zein gizarte zibileko erakundeekin. Horrela, honako arlo hauetako estrategia konbinatuak garatu genituen: sentsibilizazioa, gaitasunen prestakuntza, proposamen eta eragin politikoak eta zaintza.

³ BIDek (Garapenerako Banku Interamerikarra) finantzatutako proiektua, 21 milioi dolarreko maillekuari esker.

⁴ Bataz beste, landa-inguruneke familia-buruen %23 emakumeak dira.

⁵ Hasiere-hasieratik, landa-inguruneke emakumeen nortasun-agiririk ezaren arazoa eskubide ekonomiko, sozial, kultura eta politikoen urraketatzat hartu zen. Era berean, arazo nazionala, konplexua eta egiturazkoa zenez, itunpean aurre egin behar zaio, eskubideak, generoa eta kultura artekotasuna kontuan hartzen dituen estrategia egituratuaren arabera.

Proposamen eta eragin politikoetarako ekintzen artean, Administrazioako Izapideak Errazteko 28316. Legearen onarpena eta aldarrikapena sustatu genituen (Errepublikako Kongresuak eta gobernuak onartu eta aldarrikatu behar zuten), landa-inguruneko biztanleek eta, batez ere, emakumeek nortasun-eskubidea erabiltzeko aukera izan zezaten. Neurri horren ondorioz, ehunka eta milaka emakumek eta gizonek nortasun-agiririk gabeko egoera erregularizatu ahal izan zuten nazio-mailan. Nortasun eta Egoera Zibilaren Erregistro Nazionaleko (RENIECeko) datuen arabera, Legea ezarri baino urtebete lehenago agiriak zituzten biztanleen kopurua %200 baino gehiago handitu zen.

Emaitza horren ondorioz, PETTen txostenak kontuan hartuta, probintzia eta eskualde askotan egiaztatu egiten da emakumeak nortasun-agiririk gabeko egoera eta espedienteak erregularizatzen ari direla, onibarrak onbideratzeko eta lurra euren izenean jartzeko.

Emaitza onak egon arren, irismen luzeko prozesua dela uste dugu, emakumeek lurra jabetza eta beste eskubide ekonomiko eta produktibo batzuk eskuratzeko dituzten oztopoei aurre egin behar diegulako.

Horretarako, oso garrantzitsua izan da honako arlo hauetan ekintza eta estrategia egituratuak abian jartzea: sentsibilizazioa, sustapena, gaitasunen garapena, proposamen aurkezpena, zaintza eta eragin politikoa. Horrela, lurra jabetza eskuratzeko prozesua berdintasunezkoa izan behar da, landa-inguruneko emakumeek euren eskubideak diren justizia soziala, autonomia eta jabe-kuntza ekonomikoa lortu ditzaten.

- *"Lurren berdintasunezko titulazioaren alde"* kanpaina nazionala

Lehen adierazi dugunez, MINAGeko PETTek sustatutako Lurren Titulaziorako Programaren jarraipena egiteko ekintzen esparruan, *"Lurren berdintasunezko titulazioaren alde"* kanpaina nazionala sustatzea erabaki genuen. Gizarte zibileko erakundeak emakumeek lurra jabetza eta titulazioa eskuratzeko zeukatzen eskubidearen inguruan sentsibilizatzea eta organismo eskudunetan presioa egitea zen helburua, behar besteko mekanismoak eta arauak abian jarri ahal izateko.

Eragin politiko horren ondorioz, PETTek lurra jabetza sartu zuen arauetan. 2002. urtean, aurrerapen horrek eragin adierazgarria izan zuen, Nekazaritza Ministerioak (MINAGek) genero-berdintasuna *Perurako Nekazaritza Politikarako Jarraibideen* barruan sartu zuenean. Alde horretatik, lurren titulaziorako ekintzak ere proposatu zituen, aukera-berdintasunaren aldeko konpromisoak betetzeko.

- *Emakumeen nortasun eta herritartasunerako eskubidea*

Paruro Cuscoko eskualde inperialeko hamahiru probintzietakoa da. Bertan, proiektua eta kanpaina jarri genituen abian, emakumeek nortasun-agiria lortzeko eta lurren jabetzaren lorpenerako oztopoak gainditzeko.

Peruko emakume askoren bizimodua itsas mailatik 3.000 metrora baino gehiagotara garatzen da, Goi Andeetako paisaia zoragarrietan. Bertako biztanleek nekazaritza eta artzaintza dituzte bizibide, eta emakumeak oso-oso baztertuta bizi dira, nahiz eta apurka-apurka egoera hori zalantzan jartzen hasi diren. Gizonen, hau da, aitaren, nebaren edo bikotekidearen menpeko zereginak egiten ohituta daudenez, ez dute inolako motibaziorik eduki euren herritartasuna bete-betean erabiltzeko, historiari begira betidanik ukatu izan dietelako.

Paruroko erkidego gehienetako emakumeek ez dute nortasun-agiririk. Hainbatek, gainera, paper bat bera ere ez dute, ezta jaiotza-agiria ere, nortzuk diren egiaztatu ahal izateko. Peruko estatua-

rentzat ikusezinak dira, ez dira inon legez ageri, ez dira gizarte-programetako onuradunak eta, batez ere, ez dute euren oinarritzko eskubideak erabiltzerik. Egoera hori are larriagoa da honako arrazoi hauengatik: nortasun-agiria lortzeko izapideei buruzko informaziorik eza, kostu handiak, estatuaren isiltasuna, nagusi den matxismoaren ondorioz nortasun-eskubideari emandako balioespen eskasa eta estatuko burokraziaren tratu txarrak.

Flora Tristán Zentroaren jarduketari esker, hainbat eta hainbat emakume itzaletik irten ziren eta lehen urratsa eman zuten, beste eskubideen lorpenerako bidea urratzeko. Eskubide zibil nagusietakoa den Nortasun Agiri Nazionala (NAN) lortzea giltzarria da, beste eskubide batzuk lortzen joateko: lurren jabetza eta titulazioa euren izenean jartzea, eskubide ekonomiko garrantzitsuak eskuratzea eta autonomia, onespena, autobalioespena, erabakitzeko gaitasuna eta jabekuntza irabaztea. Hartara, euren herritartasuna erabili ahal izango dute bete-betean, mendeetako ahanzturak jipoitutako buru-estimua sendotzeko sentsibilizazio bero bezain egokiaren ondorioz.

Delfina Quispes prozesu horri eman zion hasiera. Izan ere, 26 urte eta lau seme-alaba zituela, bere NANA lortu ahal izan zuen, instituzio publikoekin eta gizarte zibileko erakundeekin batera egindako kanpainari esker. Orain, Delfina udalerriko sustapenezko lan-eskaintzetara aurkeztu ahal izango da, bere etxaldearen jabetza eta titulazioa kudeatu ahal izango ditu, kreditua bideratu ahal izango du, beste erkide batzuekin elkartu ahal izango da... Hau da, lehen ez zituen aukerak edukiko ditu. Bere bidea ez da batere erraza, baina orain badu nondik ibili, itzalen pabilioia utzitakoa. Eskubide zibilik eduki ezean, ez dago eskubide ekonomikoak eta sozialak zehazterik, eta, horiek indarrean ez badaude, ez dago lehenengoak bermatzerik. Giza eskubideen integritasuna eta interdependentzia argia eta garbi adierazten dira Flora Tristán Zentroaren esperientzia honetan.

Landa-inguruneko emakumeen teknologia-eskubidea, jabekuntza ekonomikorako estrategia moduan

Flora Tristán Zentroan jakin badakigu emakumeen jabekuntzarako estrategia guztietan funtsezkoa dela buru-estimua sendotzea. Eskubideak edukitzeko eskubidea sustatzeko orduan, alde zuzenetik hori egin behar bada, lehenetsun handiagoa eman behar diegu landa-inguruneko emakumeei, aurreko orrialdeetan azaldu ditugun arrazoiengatik. Peruko geografia anitza denez eta era guztietako baliabide naturalak daudenez, aukera ugari sortzen dira eta oso egokia izan litezke biztanleentzat, baina batez ere, emakumeentzat, betiere aukerak eta bitarteko egokiak badituzte. Diru-sarrera gutxiagoko eta aukera mugatuko emakumeek euren trebetasunak garatu eta gaitasunak sendotu behar dituzte, eskubide bat lortzeko eta, horren ondorioz, beste eskubide batzuk erdietsi ahal izateko.

Ikuspegi horretan, geure lan ardatza eta ikuspegi eutsita, emakumeen teknologietarako eskubidea ere sustatzen dugu, elikagaiak⁶ eraldatzeko eskubidea, batik bat. Izan ere, jabekuntza ekonomikorako estrategia da, landa-inguruneko emakumeek erabateko herritartasuna izan dezaten. Gainera, emakumeek euren erakunde bitartez txirotasunaren aurkako borrokan izan duten ekarpena onetsi eta balioetsi egiten du.

Proiektu eredugarria garatu genuen hiru eskualdetako udalerrietan: Junin, San Martín eta Cusco⁷, elikagaiak eraldatzen dituzten emakumeen zuzendaritzapeko mikroenpresak sortzeko eta abian jartzeko eta, horrela, arlo hauetarako eskubideak sustatzeko: informazioa, prestakuntza teknikoa, kreditua, diru-sarrera, merkatua eta teknologia egokiak.

⁶ Gai hau lantzeko erabilitako ikuspegi haratago doa, emakumeak ez dituelako elikagai-hornitzailetzat hartzen.

⁷ Lehenengoa Andeetako eta Amazonasko erdialdeko eskualdean dago kokatuta; bigarrena, oihanean; eta hirugarrena, Peruko Andeetako hegoaldean.

“Lehen, txakran lan egiten nuen peoi, bederatzietatik bostetara. Aldi berean, etxeko lanak egiten nituen, eta senarra zein seme-alabak atenditzen nituen. Orain, proiektuari esker, beste arlo batzuetan lan egin dezaket, neure dirua irabazten dut eta dirua zertan erabiliko dudana erabaki dezaket. Honako arlo hauetako prestakuntza jaso dut: merkaturaketa, bezeroei eman beharreko tratua, esnearen dentsitatearen kontrola eta pasteurizazioa. Pertsona moduan hazi nazi, seme-alaben hezkuntzan dut ekarpena, orain adoretsua naiz, neure ideiak defendatzen ditut eta neure erabakiak hartzen ditut”, esan du Junin eskualdeko Teolinda Huanucok.⁸ “Emakumeak eta Elikaduraren Teknologia” proiektuko onuradunetakoa izan da. Proiektua, hain zuzen ere, bi fasetan garatu da 1995etik 2001era, eta emakumeen zuzendaritzapean elikagaiak ekoizteko eta eraldatzeko landa-mikroenpresak sustatzea zuen helburu nagusi, elikaduraren segurtasunean eta toki-garapenean duten zeregina agerian jartzeko eta bultzatzeko.

Honako ardatz tematiko hauek landu ziren: elikaduraren segurtasuna, teknologia, kudeaketa, merkaturaketa, kreditua eta generoa. Generoa, hain zuzen ere, jarduketa osoaren zeharkako ikuspegia da: proposamenaren diseinua, jarraipena, tutoretza eta ebaluazioa. Ardatzak garatzeko, honako lerro estrategiko hauek egituratu ziren: elikaduraren teknologien arloko prestakuntza, trebakuntza eta laguntza teknikoak; enpresen kudeaketa eta merkaturaketa. Unibertsitate eta institutu teknologiko ospetsuetako teknikariek eta adituek, gainera, ikastaroak, tailer integralak, laguntza-ekintzak, jarraipena eta laguntza teknikoak eman zituzten bertan, sinatutako hitzarmenen esparruan. Ekintza horiek guztiek emakumeak eta euren unitate ekonomikoak garatzea eta indartzea zuten helburu, euren udalerrietako baliabideen eta aniztasunaren inguruan dituzten ezaugarri bereizgarriak eta aurreikuspenak kontuan hartuta.

Artisau-ekoizpenean eta familia-esparruak ekoizpen-unitateekin gainjartzeko dinamika nahasietan murgilduta zeudenez, emakumeek apurka-apurka ezagutu zuten informazio-dimentsio berria. Horretarako, trebakuntza eta prestakuntza teknikoak jaso zituzten, eta eskubidedun subjektuak zirela aitortu zieten. Hartara, euren murriztapen eta arazoez ohartu ziren, eta euren kezka jarri zituzten kolokan. Prozesu horretan, euren buru-estimua sendotu egin zenez, etorkizuneko garapen eta aurreikuspenei begira irekitako leihok berriak eraginkortasunez onartu zituzten.

Euren ekoizpena eta merkaturaketa hobetzeko teknikak erabiltzean eta bereganatzean, emakumeek segurtasun eta sendotasun handiagoa lortu zuten. Jarrera-aldaketa hori oso garrantzitsua izan zen landa-ingurunean emakumeen jabeakuntzarantzko estrategiari begira, eta gure helburu iraunkorra indartu zuen: euren herritar-eskubidearen erabilera areagotzea. “Orain, gehiago dakit eta pozik nago, nire familiaren sostengurako lana daukadalako. Seguru eta harro nago, nire enpresako makinak muntatu eta desmuntatu ditzakedalako. Izan ere, lana arintzen didate eta denbora aurrezten dut. Era berean, oso harro nago, seme-alabek interesa dutelako eta lagundu egiten didatelako. Senarrarekin ondo moldatzen naiz, berak ere asko laguntzen dit”, hausnartu du Imelda Pérezek, kakahuete-gurinareneko ekoizleak.⁹

Zenbait urte igaro dira jarduketa hau amaitu zenetik, eta proposamen honetan inplikaturako emakumeen goranzko jarduera eutsia da haren balioaren eta garrantziaren lekukotasun onena. Emakumeak liderrak dira, eta are segurtasun zein konfiantza handiagoaz erabakitzen dituzte euren ekintzailatza ekonomikoak, ekoizten ari dira, merkatu berrietan sartu dira eta eurentzako nahiz euren talde eta erkidegoetako beste emakume batzuentzako lana zein diru-sarrerak sortzen dituzte. Era berean, praktikan egiaztatu dute zeinen ekarpen garrantzitsua duten elikaduraren segurtasunean eta toki-garapenean, gizarte zibileko eta estatuko erakundeek euren esperientziak beste talde batzuei azaltzeko deitzen dietelako.

⁸ Gaztak eta jogurt naturala egiten ditu, eta proiektuan parte hartu du.

⁹ San Martin eskualdeko proiektuko onuraduna da, eta La Carmelita SAC nekazaritza industrialeko enpresakoa da.

Cuscoko Elizabeth Enríquez-en esanetan¹⁰, “behar-beharrezkoak dira prestakuntza pertsonal iraunkorra, ekoizpen-tekniken arloko prestakuntza, negozioaren kudeaketa eta merkaturatzeko estrategiak. Marmeladak eta jogurtak egiten ditut. Nire produktuak ekologikoak dira, produktu naturalez eta hautatutako frutez eginda daudelako. Orain, neure enplegua sortzen dut, eta ekarpenak nabariak egiten ditut etxeko ekonomian”. Elizabethek bere prozesuari buruz aipatzen dituen mailei erreparatuta, argi eta garbi dago landa-ingurune eta hiri inguruko emakumeen jabeakuntza ekonomikorako zilegizko ibilbidea dagoela eta emakumeak pertsona moduan elikatzen dituela eta euren eskualde zein erkidegoetako garapen-eragile protagonista eta herritar moduan indartzen dituela.

Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen eskagarritasuna: eratzen ari den prozesua

Peruko gizartean, era guztietako bereizkeriak eta hausturak daudenez, bere historia errepublikar osoan zehar konpondu ez den bidegabekeria soziala nabarmentzen da. Ageri-agerikoa da gobernuak ez dutela berdintasuna kontuan hartu, kontrastez eta desberdintasunez betetako errealitate honi aurre egiteko orduan. Aberastasuna eta boterea talde txiki pribilegiatuan pilatzen diren bitartean, gehiengo erraldoian txirotasunean bizi dira, erabakiak publikoak hartzeko esparruetatik kanpo.

Testuinguru horietan, badago EESKen zehaztapenari buruz hitz egiterik? Nola hitz egin euren buruz, emakumez ari garenean, hau da, kasu honetan bezala, lurralde nazionalako eskualdeko guztietako landa-ingurune emakumez ari garenean, ahulenak direla kontuan hartuta? Zer egin, estatuak zerbait egin dezan eta eskubide horien erabateko erabilerarako baldintzak bermatzeko nazioarteko itunak eta hitzarmenak bete ditzan?

Gizarte zibileko erakundeak galdera horiei erantzuten saiatu dira, herri-ekimen publikoen bitartez. Deigarri eta harrigarrienen artean, eskualdeko feministen erakundeek bultzatutako auzitegi etiko eta politikoak azpimarratu behar ditugu. Hain zuzen ere, emakumeen EESK behin eta berriro urratzen direla nabarmentzea eta salatzea eta estatuaren zein eragile pribatuen erantzukizuna agerian jartzea dute helburu nagusi. Auzitegiak zehaztu arte garatutako prozesuari esker, iritzi publikoa eta agintariak egoera horren inguruan sentibilizatu daitezke, eskubide horien urraketa esanguratsuek aurkeztuta eta biktimen euren lekukotasuna eskainita. Horrela, modu sinbolikoan eskuratzen dute sistema formalean ukatu dieten justizia. Auzitegikideek emandako epaien ibilbidean aurkeztutako kasuen jarraipenak bideak irekitzen ditu, onetsi gabeko eta urratutako EESK eskatzeko.

2007ko urrian, Peruko landa-ingurune emakumeen EESKren urraketa lau kasu adierazgarri aurkeztu ziren iritzi publikoaren aurrean, Flora Tristán Zentroaren Landa Garapenerako Programaren bitartez deitutako bederatzi instituzioen¹¹ borondateak egituratzeko eta uztartzeko egindako ahaleginaren ondorioz. Instituzio horiek, gainera, giza eskubideen eta, batez ere, emakume perutarren sustapenean eta defentsan lan egiten dute herrialdean, ikuspegi feminista kontuan hartuta.

Hona hemen bertan aurkeztutako kasuak: nortasun-agiririk eza, esterilizazio behartua, neskatilen bortxaketa sexuala eta barruko gatazka armatuan gertatutako indarkeria sexuala. Eremu horre-

¹⁰ Tikas elikadura-industrietako proiektuko parte-hartzailea da.

¹¹ Flora Tristán Peruko Emakumeen Zentroa, Emakumeen Eskubideen Defentsarako Azterlana (DEMUS), Milenia Radio, Aurora Vivar Elkarte, Legezko Defentsaren Institutua, Latinoamerikako eta Karibeko Lantaldea emakumeen Eskubideen Defentsarako (CLADEM), Genero eta Ekonomia Taldea, Herritarren Eskubidearen aldeko Aliantza eta Emakumeen Mugimendu Zabala-Sorrera Linea.

tan, gizarte zibileko zenbait sektoretako 300 lagunek baino gehiagok parte hartu zuten, emakume kaltetuek euren lekukotasuna eman zuten eta inplikaturako estatuko ordezkariak ere erantzuteko esparrua izan zuten. Prozesuaren amaieran, generoan aditua den María Jennie Dador Tozzini abokatuaren zuzendaritzapeko eta Lucinda Quispealaya buruzagi indigena eta nekazariaren zein Samuel Abad konstituzionalistaren kidetzapeko auzitegiak epaia eman zuten, eta zehatz-mehatz azaldu zuten zeintzuk ziren lau kasuetan urratutako eskubideak eta zer eskari egiten ziren estatuko sektore berezietan. Hain zuzen ere, honako hauxe adierazi zuten auzitegiak:

“Peruko estatuak ez ditu bere politika publikoetan kontuan hartu landa-inguruneetan bizi diren emakumeen eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen defentsa eta sustapena. Emakume horiek txi-roak dira, baztertuta bizi dira gizartearen eta indarkeria politikoaren biktimak dira, baina horrez gain, harreman patriarkalak betikotzen dituzten eredu kultural errotuak jasan behar dituzte.

Horrela, bada, estatuak ez ditu bere betebeharrak bete, biztanle-sektore handien eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen errespetua bermatzen ez duelako. Gainera, ageri-agerikoa da bereizkeriak herrialdeko gizarte-haustura sakontzen duela eta haustura hori are handiagoa dela indarkeria politikopon dauden landa-inguruneetan. Beraz, ezin izan da herritartasun inklusiboa eratu.

Hori dela-eta, estatuak egiturazko egoeraren eredutzat hartu beharko lituzke lau kasu hauek eta behar besteko neurriak hartu beharko lituzke ahalik eta lasterren, Peruko landa-inguruneen emakumeen eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak egia bihurtu daitezela”.

Epaia hori balio handiko agiria da, auzitegiak aurkeztutako lau kasuetan urratutako EESKren eska-garritasuneranzko ibilbidean, lehenengo eta behin edukien zabalkunde iraunkorra egiten duelako zenbait mailatan: estatuko botereetako agintariak, gizarte zibileko gremioak eta erakundeak eta herritarrak, oro har. Bigarren etapan, urratutako eskubideen erantzuletzat hartutako sektoreei honako hauxe lortzeko ekintzei buruzko informazioa emateko eskatzen die: emakumeei eragindako kalteak konpontzea, justizia eskuratzeko aukera dutela bermatzea eta kaltetutako eskubideak leheneratzea.

Balio handiko prozesua da landa-inguruneen emakumeen EESK eskatzen direlako, erakunde sustatzaileak sendotzen dituelako, euren gaitasunak garatzen dituelako, biktimei jabeak ematen dituelako eta eskubide horien indarraldiaren aldeko argudio-gaitasuna aberasten dituelako. Nazio-mailako bideak ixten badira, nazioarteko justiziaren esparruak garatzen dira, eskakizun-prozesua aurrera eramateko.

Partekatzen ditugun ikasbideak eta ikaskuntzak

28 urtez emakumeen giza eskubideen alde eta, batez ere, PDRren bidez landa-inguruneen emakume perutarren eskubideen alde egindako lana kontuan hartuta, baieztatu egin dezakegu geure proposamen-gaitasuna aberastu dugula, landa-inguruneen emakumeekin lan egiten duten eskualde-sareen emakume sustatzaileekin eta zailtasunen zein eskubide-urraketaren erdian aurrera egiteko borrokatzen diren landa-inguruneetako emakumeekin garatutako elkar-eraginari esker. Baieztatu egiten dugu emakumeek baldintza berberetan eskuratu eta kontrolatu behar dituztela baliabide produktiboak, euren buru-estimua sendotzeko eta, euren diru-sarrerak sortuta, jabeak zein autonomia lortzeko. Horrela, bete-betean erabili ahal izango dute euren herritartasuna.

Hona hemen, labur-labur, zeintzuk diren partekatu beharreko aberastasun nagusiak:

- Arlo ekonomikoak aukera asko eta asko eskaintzen dizkie landa-inguruneen emakumeei, boterea eta autonomia lortzeko orduan. Hori dela-eta, baliabide ekonomikoak, lana, lurraren

jabetza, kredituak eta teknologia edukitzea oinarritzko estrategia da, emakumeen garapena, autonomia eta jabetzaren erdiesteko.

- Zenbait printzipioak edo baldintzak landa-inguruneko emakumeen estrategiak bideratu behar dituzte, berdintasuneko garapena lortzeko, erabateko herritartasuna erabiltzeko, baldintza berberetan parte hartzeko eta autonomia ekonomikoa zein ongizatea erdiesteko. Alde horretatik, landa-inguruneko emakumeen autonomia ekonomikoa eskubide-katetzat hartutako baliabide produktiboen berdintasuneko lorpenean, erabileran eta kontrolean oinarritu behar da, eta funtsezkoa da emakumeek eurek eskubideok onestea.
- Emakumeen erakunde eta mugimenduentzat lehentasunezkoa izan behar da eskubide ekonomikoen eztabaida eta eskubide zibilekiko lotura lantzea.
- Ezinbestekoa da Peruko landa-inguruneko gizartean baliabide ekonomiko eta produktiboen lorpenean eta kontrolean dauden hierarkiak, desberdintasunak eta harreman patriarkalak aztertzea eta kolokan jartzea, presioa, proposamenak eta eragin politikoa egiteko, mekanismo demokratikoak eta birbanaketa ekonomikorako sistemak ezartzeko eta landa-inguruneko emakumeen premiak eta eskariak oinarritzko eskubidetzat hartzeko. Horren ondorioz, estrategia egingarria sortuko da, desberdintasun, bazterketa eta bidegabekeria ekonomiko eta soziala desagerrarazteko eta gizarte-bazterketa, desberdintasunak, bidegabekeria eta gaitasunen zein aukeren gabezia sustatzen dituen txirotasunari aurre egiteko.
- Landa-sektoreko emakumeen jabetzaren ekonomikoa, autonomia eta garapen iraunkorra erdiesteko, inbertitu eta esku hartu egin behar da, gaitasunak garatu eta sendotzeko eta epe ertain zein luzerako jarduketaren-estrategiak eta prozesuak sortzeko.

Adierazitako guztia kontuan hartuta, irismen luzeko prozesua jarri da abian, emakumeek luraren jabetza eta beste eskubide ekonomiko eta produktibo batzuk eskuratzeko dituzten oztopoak gainditu ahal izateko. Hona hemen gure proposamenen iraunkortasunerako funtsezko elementuak: agiri honetan garatutako estrategiak bateratzea; genero, eskubide eta kultura artekotasunaren arloko ikuspegiak jarduketaren ziklo osoan kontuan hartzea; eta protagonista moduan inplikatzeko dituen borroka dela egiaztatzea, justizia soziala, euren jabetzaren ekonomikoa eta herritartasuna egia bihurtu daitezten.

Latinoamerikako emakumeen elkarte eta elkarte feminista batzuen direktorioa

Nazioarteko lankidetzaren egungo egoerak aurkezten dituen erronkak aintzat hartzen badira, emakumeen eta, oro har, feministen sare, mugimendu eta elkarteek inoiz baino hobeto jardun behar dute erdietsitako lorpenak mantentzeko, baita presio egiten jarraitzeko ere, emakumeen eskubideak errealitate bihur daitezzen. Erakunde horiek funtsezko zeresana daukate gizarte-mugimenduetan, eta emakumeen herritartasun-maila lortzeko, eragile sozial eta politiko gisa aritzen dira. Era berean, gobernu ezberdinei kontuak emateko eskatzen diete.

Emakumeen sare eta erakundeek lan handia egin dute emakumeen desberdintasun egoerak eta mailak ikusarazteko, baita Estatuari erantzukizunak eskatzeko ere, nola tokiko mailan hala maila nazionalen. Gainera, nazioarteko eremu publikoetara zabaldu dituzte euren agendak, ahotsak eta aldarrikapen feministak, eskubideen berdintasuna lortzeko eta sistema patriarkala aldatzeko.

Gisa horretan, emakumeen elkarte horien antolakuntza-prozesuak indartzen segitzea beharrezkoa da, hartara, emakumeak izango baitira euren genero-interesen araberako politika diseinatu, sustatu, koordinatu eta gauzatuko dutenak. Helburuak, batez ere, baldintza sozial eta politikoei bide eman behar die; hala, emakumeek eskubide osoko herritar gisa, garapenerako eragile aktibo gisa, ahots propioa duten emakume gisa, eskubidedun herritar gisa eta horien aldeko borrokaren protagonista gisa aintzatestea lortu ahal izango dute. Eta prozesu horretan, emakumeen elkarten eta talde feministen lana sendotu beharra dago, izan ere, gizonen eta emakumeen arteko botere-desberdintasunak gainditu arte ez da justiziarik egongo, ezta garapen posiblerik ere, nazioarteko ordenan.

Eskuartean duzun kapitulu honetan, El Salvadorko eta Peruko zenbait emakumeren elkarte eta talde feminista jaso dira. Herrialde horiek biak hartu dira eredu gisa kapitulu osoan, emakumeen eskubide ekonomikoen auzia jorratzeko. Gisa horretan, erakunde horiek, garapenerako eragile diren aldetik, nazioarteko lankidetzaren esparruan ezagutzera emango dira, aintzat har daitezzen. Era berean, GGKEi animatu nahi diegu aipatutako erakundeekin batera sareak eta itunak sina ditzaten. Horrela, emakumeak eta euren interesak ikusgai egingo dituzten lan-ildoak garatuko dira nazioarteko garapen-eremuan.

Badakigu emakumeen eta talde feministen elkarte ugari dagoela Latinoamerikan, baita tinko lan egiten dutela ere, emakumeek eskubide ekonomikoak lor ditzaten. Alabaina, horietako bakan batzuk soilik aipatuko ditugu orain, beste asko egiten ari diren ahalegina eta lana ahantzi gabe.

El Salvador

XX. mendeko lehen hamarkadetatik egon izan dira emakumeen aldeko elkarteak El Salvadorren, eta bertan jazotako herri-mugimenduan parte hartu zuten. Baina 90eko hamarkadaz geroztik, emakumeen mugimendua are ikusgaiago egin zen, eta emakumeen eskakizun zehatzak aldarrikatzen hasi zen. El Salvadorko emakumeen parte-hartze sozialari, ekonomikoari eta politikoari eta emakumeen mugimenduaren ezaugarriei buruz berba egitean, arras garrantzitsua da kontuan hartzea gatazka osteko prozesuari irtenbideak bilatzeko eragile politiko gisa egin duten ekarpena, baita estatu demokratiko bat eratzekean ere.

ERAKUNDEAREN IZENA	“Flor de Piedra” Emakumeen Elkartea
HELBIDEA	9ª Calle Oriente nº 920. San Salvador ☎ (50 3) 22223951 ✉ flordep@netcomsa.com
HARREMANETARAKO PERTSONA	Silvia Vidal (Zuzendaria)
LANAREN ARDATZAK	<ul style="list-style-type: none">• Sexu-osasuna eta ugalketa-osasuna• Langile sexualen babesa

ERAKUNDEAREN IZENA	AMS-El Salvadorko Emakumeen Autodeterminaziorako Elkartea
HELBIDEA	33 Avenida Norte Residencial y Pasaje de Capóli casa nº 15. San Salvador ☎ (50 3) 2602590 ✉ a.m.s@saltel.net www.geocities.com/sihuat/ams.htm
HARREMANETARAKO PERTSONA	Yanira Argueta Martínez (Zuzendaria)
LANAREN ARDATZAK	<ul style="list-style-type: none">• Osasuna• Hezkuntza ez formala• Generoko indarkeria

ERAKUNDEAREN IZENA	CEF-Ikasketa Feministen Zentroa
HELBIDEA	Condominio Villas de San Francisco nº 1, Avenida Las Amapolas Apartamento 34. Colonia San Mateo. San Salvador ☎ (50 3) 2282592 ✉ flordep@netcomsa.com
HARREMANETARAKO PERTSONA	Mercedes Cañas (Zuzendaria)
LANAREN ARDATZAK	<ul style="list-style-type: none">• Ikerketa• Argitalpenak

ERAKUNDEAREN IZENA	CEMUJER- "Norma Virginia Guirola de Herrera" Emakumearen Ikerketa Institutua
HELBIDEA	Casa Morada. Colonia Médica Boulevard "Doctor Héctor Silva Romero" nº 144. San Salvador ☎ (50 3) 2242089 ✉ cemujer@integra.com.sv www.angelfire.com/ill/cemujer
HARREMANETARAKO PERTSONA	Alba Guirola (Zuzendaria)
LANAREN ARDATZAK	<ul style="list-style-type: none"> • Ikerketa • Berdintasunerako Hezkuntza • Eskubidearen erabilera alternatiboa • Komunikazio alternatiboa • Emakumeen osasun integrala • Emakumeenganako indarkeria

ERAKUNDEAREN IZENA	CFPA-Prudencia Ayala Erakunde Feminista
HELBIDEA	33 Avenida Norte pasaje y Residencial Decápolis nº 15. San Salvador ☎ (50 3) 22378708 ✉ cfpaelosalvador@gmail.com www.concertacionfeministaprudenciaayala.org
HARREMANETARAKO PERTSONA	Kelly Alvarado (Zuzendaria)
LANAREN ARDATZAK	<ul style="list-style-type: none"> • Sexu- eta ugalketa-eskubideak • Emakumeen eskubideak

ERAKUNDEAREN IZENA	CONAMUS-EI Salvadorko Emakumeen Koordinakunde Nazionala
HELBIDEA	Avenida Bernal Pj. Consturbe casa nº 2. San Salvador ☎ (50 3) 2262080 ✉ conamus@yahoo.com
HARREMANETARAKO PERTSONA	Isabel Payes (Zuzendaria)
LANAREN ARDATZAK	<ul style="list-style-type: none"> • Generoko indarkeria • Emakumeen eskubideak • Argitalpenak

ERAKUNDEAREN IZENA	IMU-Emakumeei buruzko Ikerketa, Trebakuntza eta Garapenerako Institutua
HELBIDEA	27 Avenida Norte nº 1141. San Salvador ☎ (50 3) 22260543 ✉ deysicheyne@telesal.net www.imu-elsalvador.org
HARREMANETARAKO PERTSONA	Deysi Elisabeth Cheyne (Zuzendaria)
LANAREN ARDATZAK	<ul style="list-style-type: none"> • Emakumeenganako indarkeria • Sexu- eta ugalketa-eskubideak • Emakumeen herritartasuna • Ekonomia solidario feminista

ERAKUNDEAREN IZENA	Las Dignas-Duintasunaren eta Bizitzaren aldeko Emakumeen Elkarte
HELBIDEA	Colonia Satélite. Avenida Bernal nº 16S. San Salvador ☎ (50 3) 22849550 ✉ info@lasdignas.org www.lasdignas.org
HARREMANETARAKO PERTSONA	Patricia Iraheta (Zuzendaria)
LANAREN ARDATZAK	<ul style="list-style-type: none"> • Emakumeenganako indarkeria • Emakumeen justizia ekonomikoa • Genero ekitaterako hezkuntza • Emakumeen proiektio politikoa

ERAKUNDEAREN IZENA	Las Mélidas-"Mélida Anaya Montes" Emakumeen Mugimendua
HELBIDEA	23 Calle Poniente. Calle y Avenida las Victorias 123 Urbanización Palomo nº 123. San Salvador ☎ (50 3) 22252511 ✉ melidas@integra.com.sv www.lasmelidas.org
HARREMANETARAKO PERTSONA	Sandra Guevara (Zuzendaria)
LANAREN ARDATZAK	<ul style="list-style-type: none"> • Emakumeei zuzenduriko ekimen ekonomikoak • Emakumeen partaidetza politikoa eta herritarra • Emakumeen lan-eskubideak • Sexu-eskubideak eta ugalketa-eskubideak

ERAKUNDEAREN IZENA	ORMUSA-Bakearen aldeko El Salvadorko Emakumeen Erakundea
HELBIDEA	Boulevard Universitario y Avenida A, Casa 235, Colonia San José. San Salvador ☎ (50 3) 226 2080 ✉ ormusa@ormusa.org www.observatoriolaboral.ormusa.org
HARREMANETARAKO PERTSONA	Jeannette Urquilla (Zuzendaria)
LANAREN ARDATZAK	<ul style="list-style-type: none"> • Emakumeenganako indarkeria • Sexu-osasuna eta ugalketa-osasuna • Ingurumena • Emakumeen lan-eskubideak

Peru

Perun, 70eko hamarkadaz geroztik hasi zen sortzen mugimendu feminista, eta egun, hainbat erakunde, zentro, emakumeen etxe eta abar daude. Elkarre horiek guztiek parte-hartze nabarmena dute herrialdearen esparru ekonomiko, sozial eta politikoan. Emakumeen erakundeek aurrerapauso nabarmena egin dute, emakumeen eskubideak babestu eta sustatu baitituzte. Gainera, mekanismo instituzionalak sortu dituzte, herrialdea bera emakumeen aldeko politiken abangoardian jarriz. Halaber, lidergo eta aintzatespen garrantzitsua lortu dute bai maila nazionalen bai nazioarteko mailan, eta hausnarketa feministari egindako ekarpenak kontinentearen elkarre orotan dira eztabaidagai.

ERAKUNDEAREN IZENA	Aurora Viva Elkarrea
HELBIDEA	Calle José Bazzocchi 345. Urbanización Santa Catalina. La Victoria. Lima ☎ (51 1) 4710794 ✉ aurora@telefonica.net.pe
HARREMANETARAKO PERTSONA	Ana María Díaz Gálvez (Zuzendaria)
LANAREN ARDATZAK	<ul style="list-style-type: none">• Emakume langileen eskubideak• Mugimendu sindikaletan emakumearen parte-hartzea sustatzea

ERAKUNDEAREN IZENA	CENDOC-MUJER Emakumei buruzko Dokumentazio Zentroa
HELBIDEA	Avenida La Mar 170. Miraflores. Lima ☎ (51 1) 2429206 ✉ cendocmujer@amauta.rcp.net.pe www.cendoc-mujer.org.pe
HARREMANETARAKO PERTSONA	Gladys Cámere (Zuzendaria)
LANAREN ARDATZAK	<ul style="list-style-type: none">• Genero-informazio eta material espezializatuaren sistematizazioa eta zabalkundea

ERAKUNDEAREN IZENA	Flora Tristan Emakume Perutararren Zentroa
HELBIDEA	Parque Hernán Velarde n° 42. Lima ☎ (51 1) 4332765 ✉ postmast@flora.org.pe www.flora.org.pe
HARREMANETARAKO PERTSONA	Blanca Fernández (Zuzendaria)
LANAREN ARDATZAK	<ul style="list-style-type: none"> • Emakumeen eskubideak • Sexu-eskubideak eta osasun prestakuntza • Landa-garapena • Partaidetza politikoa

ERAKUNDEAREN IZENA	CLADEM-Emakumeen eskubideak defendatzeko Latinoamerikako eta Karibeko Batzordea
HELBIDEA	Juan Pablo Fernandini 1550, Pueblo Libre. Lima ☎ (51 1) 4238840 ✉ clademperu@cladem.org www.cladem.org
HARREMANETARAKO PERTSONA	Patricia Zanabria (Zuzendaria)
LANAREN ARDATZAK	<ul style="list-style-type: none"> • DESC • Herritarren partaidetza • Sexu-eskubideak eta ugalketa-eskubideak • Biolentziarik gabeko bizitza

ERAKUNDEAREN IZENA	Irratiko Kolektibo Feminista-Milenia Radio
HELBIDEA	Avenida Arnaldo Márquez 1944 Jesús María. Lima ☎ (51 1) 4612222 ✉ milenia@radiomilenia.com.pe www.radiomilenia.com.pe
HARREMANETARAKO PERTSONA	Mariela Jara (Zuzendaria)
LANAREN ARDATZAK	<ul style="list-style-type: none"> • enero-ekitatea garatzeko komunikazioa • Kultura

ERAKUNDEAREN IZENA	CONAMOVIDI-Bizitza eta Garapen Integralerako Antolatutako Emakumeen Konfederazio Nazionala
HELBIDEA	Jr. Daniel Olaechea 175 Jesús María. Lima ☎ (51 1) 3853144 ✉ conamovidi@yahoo.es
HARREMANETARAKO PERTSONA	Relinda Sosa (Zuzendaria)
LANAREN ARDATZAK	<ul style="list-style-type: none"> • Emakumearen jabeakuntza • Emakumea lan-munduan sartzea • Garapena eta trebakuntza

ERAKUNDEAREN IZENA	DEMUS-Emakumearen Defentsa eta Eskubideetarako Ikerketak
HELBIDEA	Jr. Caracas 2624 Jesús María. Lima ☎ (51 1) 4638515 ✉ demus@demus.org.pe www.demus.org.pe
HARREMANETARAKO PERTSONA	María Ysabel Cedano (Zuzendaria)
LANAREN ARDATZAK	<ul style="list-style-type: none"> • Emakumeen eskubideak • Sexu-eskubideak eta ugalketa-eskubideak • Emakumeenganako indarkeria

ERAKUNDEAREN IZENA	Genero eta Ekonomia Taldea
HELBIDEA	Almirante Guisse 1149 Jesús María. Lima ☎ (51 1) 2658540 ✉ mujecon@terra.com.pe
HARREMANETARAKO PERTSONA	Rosa Guillén (Zuzendaria)
LANAREN ARDATZAK	<ul style="list-style-type: none"> • Garapen ekonomikoa

ERAKUNDEAREN IZENA	Manuela Ramos Mugimendua
HELBIDEA	Sede Central. Avenida Juan Pablo Fernandini 1550. Pueblo Libre. Lima ☎ (51 1) 4238840 ✉ postmast@manuela.org.pe www.manuela.org.pe
HARREMANETARAKO PERTSONA	Gina Yáñez de la Borda (Zuzendaria)
LANAREN ARDATZAK	<ul style="list-style-type: none"> • Emakumeenganako indarkeria • Eskubide ekonomikoak • Eskubide politikoak eta herritartasuna • Sexu-eskubideak eta ugalketa-eskubideak

ERAKUNDEAREN IZENA	El Pozo Mugimendua
HELBIDEA	Jr. República de Portugal 492. Breña. Lima ☎ (51 1) 4235852 ✉ creapozo@terra.com.pe www.movimientoelpozo.org
HARREMANETARAKO PERTSONA	Tammy Quintanilla Zapata (Zuzendaria)
LANAREN ARDATZAK	<ul style="list-style-type: none"> • Prostituzioan sartuta dauden emakumeen jabeakuntza • Sexu-eskubideak eta ugalketa-eskubideak • Sexu bidezko gaixotasunen prebentzioa eta arreta



Kanpainak

Politika ekonomiko neoliberalak eta patriarkatuak emakumezkoen eskubide ekonomikoak mehatxatzen segitzen dute, eskubideok emakumezkoen jabekuntza lortzeko funtsezko oinarriak badira ere.

Korrante feministek aldarrikatzen dute emakumeek esparru sozioekonomikoan bizi duten bazterketa handia gainditu egin behar dela (etxeko produkzioan, zaintza-lanetan eta merkataritza-lanetan), gizarteak ongizatearen sustapenerantz joan daitezen, maila indibidualean zein kolektiboan. Hala, emakumeak politika ekonomikoaren zentroan kokatuko dituzten garapenerako ekimenak sustatuko dira.

Honako atal honetan, lau kanpaina eredu azaltzen dira, instituzio publiko nahiz pribatuetan eragiteko, baita gizarte zibilean ere. Kanpaina horien xedea da egoeraren garrantziaz ohartaraztea eta neurriak abiaraztea, emakumeak eta euren agendak prozesu ekonomiko nazionaletan eta nazioartekoetan aintzat hartzeko.

Ondoren aurkezten diren kanpainak hurrengoak dira:

- Landa-emakumeen herritartasun-eskubideen aldeko kanpaina.
- Bidezko merkataritza: nire eskubideak ez dira negoziatzen.
- Indarkeria ekonomikoak eragiten zaitu, hura salatzea zure eskubidea da.
- Emakume etorkinak. Emakume eskubidedunak.

LANDA-EMAKUMEEN HERRITARTASUN-ESKUBIDEEN ALDEKO KANPAINA	
Oinarrizko datuak	
Izenburua	Landa-emakumeen herritartasun-eskubideen aldeko kanpaina: emakumea, atera zure NANA, zeure txanda da orain!
Esperientzia garatzen duten erakundeak	Flora Tristán Emakume perutararren Zentroa.
Lurralde eremua	Peru (Herrialdeko sei eskualdetako pobrezia egoeran dauden 15 probintzia).
Burutzeko epea	2003-2004.
Hizkuntza	Gaztelania.
Esteka	www.flora.org.pe/dnimujeres.htm
Harremanetarako	postmast@flora.org.pe
Ekintzen laburpena	
Kanpainaren deskribapena	<p>2003an, Flora Tristán Emakume perutararren Zentroko Nekazaritza-Garapenerako Programak emakume nekazarien dokumentazio ezaren arazoari aurre hartzeko erronka hartu zuen, ikusi zuelako egoera hori zela-eta emakume askok ezin zutela ondasunen eta euren lurren titulazioa lortu, ezta beste eskubide zibil, ekonomiko, politiko edo sozialak ere. Arazo hori Nekazaritza Ministerioaren Lurren Titulazioaren Egitasmo Bereziak (PETT) ere agerian utzi zuen, lehenago bultzatutako lurren titulaziorako bi kanpainetan.</p> <p>Egoera horren aurrean, Flora Tristánek "Nekazaritza-guneetako emakumeen hiritar eskubideen aldeko kanpaina" hasi zuen, Emakumea, atera zure NANA, zeure txanda da orain! lelopean, tokiko eta nazio mailako iritzi publikoa herrialdeko gune pobreenetako emakumeen hiritar eskubideei buruz eta berezko nortasun agiririk ez izatean eskubideok erabiltzeko dituzten arazoei buruz sentsibilizatzeko asmoz.</p> <p>Hasiera batean hiru herrialdeetako (Arequipa, Cajamarca eta Piura) sei probintzian ardatzu zituen bere ekintzak, eta 2004an parte-hartzea Cusco, Huancavelica eta Puno eskualdeetako sei probintzia gehiagotara zabaldu zen; kanporatze eta marginazio handiko gune pobreak.</p> <p>Hasiera batetik instituzioak artikulatutako lana eta adostutakoa bultzatu zituen, eta, horretarako, kanpainaren ardatza zen leku bakoitzean pertsonak, erakunde zibilek eta instituzio publikoek parte hartzea lortu zuen. Halaber, elkarrekin artikulatutako estrategien inguruan ekintzak txertatu zituen: sentsibilizazioa, gaikuntza, proposamena eta eragin politikoa.</p>

Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> • Herri eta eskualdeko agintariak eta agintari politikoak sentsibilizatzea nekazaritza-guneetako emakumeen dokumentazio ezaren arazoari buruz eta horrek beraien eskubide zibil, ekonomiko, politiko eta sozialak lortu eta erabiltzeko daukan eraginari buruz. • Nekazaritza-guneetako emakumeen dokumentazio ezaren arazoa ikusaraztea, euren eskubideak urratu eta ukitzen dituen arazo gisa. • Baliabide gutxi daukaten nekazaritza-guneetako emakumeek dokumentazioaren katean jasan behar dituzten oztopo eta mugei buruz sentsibilizatzea.
Parte hartzen duten aktoreak	Erakunde sozialak, garapenerako erakundeak eta giza eskubideen babeserakoak, nekazaritza-guneetako emakumeekin lan egiteko sareak, Genero Mahaiak, Pobreziaren Kontrako Borrokarako Hitzarmen Mahaiak, Herriaren Defentsa, Nekazarien Errondak, Federazioak, Alkatzak eta Nortasunaren Erregistro Nazionaleko Eskualdeko Buruzagitzak (RENIEC).
Ikusleria xedea	<ul style="list-style-type: none"> • Toki eta nazio mailako gizarte zibila: eragina jasaten duen biztanleria, emakumeak, Oinarrizko Giza Erakundeak (OSB) eta garapenerako erakundeak bereziki. • Agintari politikoak. • Iritzi-liderrak. • Giza komunikabideak: idatzizkoak, irratikoak eta telebistakoak. • Errepublikako Biltzarkideak.
Garapena	
Garatutako ekintzak	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte zibileko eta Estatuko ordezkariak osatuta, kanpainako sei eskualde-tako batzordeen antolaketa. • Informaziorako eta sentsibilizaziorako eskualde mailako jardunaldiak, funtzionario eta agintariekin. • Dokumentazio gabeko emakumeekin eta Oinarrizko Giza Erakundeetako (OSB) emakumezko liderrekin tailerrak. • Plaza eta leku publikoetan informazio-kioskoak ezartzea. • Informazioa lortzea, 15 probintziatako dokumentazio gabeko emakume eta gizonei 10.000 elkarrizketa eginda, arazoaren tamaina ikusteko eta aurkeztutako legegintza ekimenak eta proposamenak oinarritzeko. • Informazio eta sentsibilizazio ekintzak politikan erabakiak hartzen dituztenekin: <ul style="list-style-type: none"> • Laneko gosariak biltzarkideekin. • Arazoaren aurkezpen grafikoarekin panelen erakusketa Errepublikako Kongresuan 15 eguneko iraupenarekin. • Biltzarkideentzako informaziodun karpetak egitea. • Errepublikako Kongresuan prentsurrekoak. • Gizarte zibileko agente eta aktoreen artikulazioa eta mobilizazioa: memorialak egitea eta aurkeztea, eta herrialdeko eskualde guztietako biltzarkideei gutunak bidaltzea.

	<ul style="list-style-type: none"> • Komunikabideetan hedapena eta presentzia, karpeta, informazio material, prentsaurreko, irratiko, telebistako eta idatzizko elkarrizketekin, horrela erantzun eta jarrera positiboa lortu da Lima eta probintzietako komunikabideen bitartez. • Idatzizko, irratiko eta telebistako materialak egitea: afixak, triptikoak, bideoak eta irratiko iragarki eta saioak gaztelaniaz, kitxuaz eta aimaraz. • Prentsaurrekoak ardatzak diren eskualde eta guneeetan. • Nortasun Agiri Nazionalaren (NAN) izapidean Libreta Militarra (LM) derrigorrezko eskakizun gisa desagerrarazteko lege ekimena egitea eta aurkeztea –Errepublikako Kongresuaren Estatuko Deszentralizaziorako eta Modernizaziorako Batzordearen aurrean–.
Ezarrিতako ikuspegi eta metodologiak	<ul style="list-style-type: none"> • Metodologia parte-hartzailea ezartzea. • Genero, Eskubide eta Interkulturalitate ikuspegi artikulatuen garapena.
Lorpenak eta emaitzak	
Alde sendoak edota aukerak	<ul style="list-style-type: none"> • Flora Tristánen esperientzia nekazaritza-garapenaren eta generoaren gaian, baita promozioaren, gaikuntzaren eta proposamen eta eragin politikoarenean ere. • Deialdiak egiteko gaitasuna, sinesgarritasuna eta erakundearekiko konfiantza ezarrিতako estrategia sortzaile berriagatik eta prozesuan lortutako emaitzengatik. • Zuzenean lortutako datuek eta informazioak eta tokiko aktore batzuen partaidetzak herrialdeko nekazaritza-guneetako dokumentazio ezaren arazoaren garrantzia uzten dute agerian, emakumeena gehienbat, datu eta zifra ofizialik egon ez arren. • NAN lortzeko Libreta Militarra derrigorrezko eskakizun gisa desagerrarazten duen 28316 Legearen onarpena. Horrek izapideak erraztea ekarri du eta, beraz, 20.000 lagun baino gehiagoren dokumentazio zuzena izugarri erraztea, nekazaritza-gune txiroenetako eta esku-hartze guneetako gizon eta emakumeen artean; lan hori bertan egindako errolden eta lekualdaketen bitartez egin da, (RENIEC) Nortasun Erregistro Nazionalarekin batera. • Herrialdeko sei eskualdetako nekazaritza-guneetako dokumentazio gabeko biztanleriaren profilarrekin eta ezaugarriekin osatutako oinarritzko lerroa izatea, 10.000 dokumentazio gabeko emakumeri eta gizoni egindako inkestetan oinarrituta. • Estatuarekin eta gizarte-zibilarekin erakundearteko hitzarmenak eratzea, dokumentazio ezaren arazoari oso-osorik aurre egiteko. • Kanpainarako osoko estrategia izatea, metodologia parte-hartzailean eta praktikoa oinarrituta, eskualde mailan eta maila zentralean adostu eta koordinatutako lanean oinarritutako parte-hartze eredu gisa. • Eskualde eta nazio mailako komunikabideen arreta, interes eta erantzuna lortu izana, baita iritzi-liderrena ere, nekazaritza-guneetako dokumentazio gabeko emakumeen egoeraren aurrean.

<p>Alde ahulak edota oztopoak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Administrazio, geografia, ekonomia eta kulturarekin lotutako oztopoen presentzia, baita nekazaritza-guneetan nagusi den genero eta matxismoarena ere. • Nekazaritza-guneetako dokumentazio ezaren benetako eraginari buruzko informazio eza, baita eskubideak lortu eta gauzatzeko sasoian horrek daukan eraginari buruzkoarena ere. • Identitate eta hiritartasun gaiei buruzko politika publikoaren falta. • NANari buruzko herri-kulturaren falta. • Identitatea eta dokumentazioa izateko eskubidearen gaiarekin lotuta emakumeek gizonarekiko daukaten esanekotasun eta mendekotasun sentimendua.
<p>Alde berriztatzaileak</p>	<p>Eskubideen, generoaren eta kulturartekotasunaren ikuspegiak ezartzea, gizarte zibilaren eta Estatuaren arteko osoko estrategiadun hitzarmenean eta aliantzan oinarrituta, herrialdeko dokumentazio ezaren arazoari heldu ahal izateko.</p> <p>Nekazaritza-guneetako dokumentazio ezaren arazoa pobrezia eta eskubideen urraketa, kanporatze eta marginazio adierazle gisa agerian uztea.</p> <p>Arazoaren trataera osotasun noziotik eta gizarte zibilaren eta Estatuaren arteko ahaleginen adostasunetik ikustea.</p>
<p>Eragina</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Kanpainaren garapenak aldaketa kualitatibo eta kuantitatibo garrantzitsuak erraztu ditu herrialdean. Alde batetik, zuzenean eta zeharka zerikusia duten lagunengan eta erakundeetan; eta, bestetik, nekazaritza-guneetako, jatorrizko eta amazonietako komunitateetako emakume eta gizonezkoen hiritartasunaren eraikuntzan. • 28316 Legearen onarpena; erregistroaren eta identifikazio nazionalaren sistema hobetu da horrela, eta horrek izapideen sinplifikazio administratiboa ekarri du. Ondorioz, herrialde barruko eta kanpoko Peruko lagunek nortasun agiria lortzea erraztu da. • Hiritarren gizarte-partaidetza sendotu egin da zeharka, eta lagun dokumentatuen kopurua gero eta handiagoa da. Gizarteko Oinarritzko Erakundeetan (OSB) euren nortasun juridikoa erregularizatu, formalizatu eta lortzeko aukera hasi egin da. • Sektore publikoan, nekazaritza-guneetako emakumeen dokumentazio ezaren arazoari heltzeko erak eta lanak eragin positiboa jasan dute. • Identitatearen eta Estatu Zibilaren Erregistro Nazionalak (RENIEC) indokumentazioari buruzko ikuspegi berria gehitu du, emakumeena gehienbat. • Udalerrri mailan, Jaiotza-agiriak doan izateko Udal ordenantzak egin dituzte eta izapideak azkartu egin dira. • Gizarte zibilean, garapeneko erakundeek arazoari buruzko interesa erakutsi dute eta identitate eta izena izateko eskubideari buruzko arazoak gehitu dituzte euren lerro eta egitasmoetan. Gainera, Hiritarren eskubideei buruzko Aliantza (ADC) sortu da, 23 erakunde biltzen dituen instantzia. • Herriaren Defentsa Bulegoak identitatea eta izena izateko eskubidearen gaia gehitu du bere lan ildoetan.
<p>Iraunkortasuna</p>	<p>Dokumentazio ezaren arazoari aurre egitea helburu komun gisa hartuta, erakundeak hasieratik gaitasunen balorazioen eta esperientzien arabera tokiko, eskualdeko eta nazio-mailako lanaren alde egin zuen heinean, ekintzen jarraikortasunerako interesa eta konpromisoa ezarri ziren. Gaur egun, Estatuko eta gizarte-zibileko erakundeek RENIECen 2005-2009 Dokumentazio Plan Nazioalean identifikatutako biztanleria ahulak identitatea eta izena izateko eskubidera bideratutako ekintzak gehitu dituzte.</p>

<p>Ikasitako ikasgaiak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Egindako lanak irakatsi zigunez, indokumentazioaren arazoak, identifikazio agirien faltaz gain, zera ere hartzen zuen: nekazaritza-guneetako emakumeak hiritar eta Nortasun Agiri Nazionalaren (NAN) bidezko eramale sentitzeko gaitasunak sortzeko beharra. • Ikerketa gakoa da proposamenak oinarritzeko, baita hiritarren zainketa eta presio ekintzetarako ere. • Esperientziak erakusten digunez, Estatuak dokumentuak ematearen bidez hiritartasuna onartzea ez da nahikoa; zuzenbide-estatuaren presentzia eskatzen da: hiritarren partaidetza aktiboa eta zaintzailea bermatzeko, betebeharrak eta eskubideetan oinarrituta eta genero eta interkulturalitate terminoak biltzeko.
<p>Ebaluazioa</p>	<p>Emakumeen hiritar eskubideak bultzatzen dituen erakunde feminista gisa, kanpainaren bultzada eta garapenarekin zera lortu dugu:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Nekazaritza-guneetako emakumeen dokumentazio ezaren arazoa euren eskubideen eraso eta urraketa gisa eztabaida publikoan jartzea eta ezagutzari gehitzea. Lehenago arazo hori ez zen aipatu eta are gutxiago aintzat hartu ere egiten herrialdean. • Nekazaritza-guneetako biztanleria txiroaren aldeko ekintzak deitu, itundu eta artikulatzea, Estatu eta gizarte zibileko erakundeekin batera egindako lanean oinarritutako ekintza eta estrategia multzoa baliozkotu eta egiaztatzeaz gain. • Erakunde herrialde osoko mailan erakunde aitzindaria eta gaian erreferente gisa identifikatzea. Horren ondorioz zera lortu dugu: Estatuaren eta gizarte zibilaren konpromisoa eta partaidetza lortzea nekazaritza-guneetako emakumeen hiritar eskubideen gauzatze osoa ziurtatzera bideratutako ekimenetan.

BIDEZKO MERKATARITZA: NIRE ESKUBIDEAK EZ DIRA NEGOZIATZEN	
Oinarrizko datuak	
Izenburua	Bidezko merkataritza: nire eskubideak ez dira negoziatzen.
Esperientzia garatzen duten erakundeak	Afrolider, Aprodic, Asomujer eta Lana, Emakumearen Etxea, Cemci, Langileen Biltzar Unitarioa (CUT), Emakumea eta Bizi-Kalitatea Elkartea, Legelarien Kolonbiako Batzordea (CCJ), Fredoniako Auzo Batzordea, Kolonbiako Langileen Konfederazioa (CTC), Elkarte Afrokolonbiarren Nazio Batzarra, Cactus Korporazioa, Centro Convivamos Korporazioa, Combos Heziketa Korporazioa, Región Korporazioa, Sisma Mujer Korporazioa, Vamos Mujer Korporazioa, CUT Antioquia, CUT Bolívar Batzorde Eragilea, Sindikatuen Eskola Nazionala (ENS), Emakume Langilearen Arloa, Funsarep, Gaztaro Etxea, Ordezko Legezko Zerbitzuen Institutu Latinoamerikarra (ILSA), Gaikuntzarako Herri Institutua (IPC). Emakume Sortzaileak, Oxfam Internacional (OI), Emakumearen Jabekuntzarako Sarea, Decide Mujer Sarea, Genero eta Merkataritzako Nazioarteko Sarea, Emakume Afrokolonbiarren Sare Nazionala-Kambiri, Sintrahicobol Bolivarreko haurtzaro etxeetako langileen Sindikatua, Kolonbiako unibertsitateko langile eta enplegatu publikoen Sindikatua, Sintraunicol-seccional Cartagena, Emakumeen Epaimahai Nazioanala eta DESC, Uneb Banketxeetako Beharginen Batasuna, La Salleko Unibertsitatea, Filosofia eta Letren Fakultatea, Sintracihobi, seccional Bello Antioquia, Bertako Kabildoa Chikariwa-Antioquia, Sintrainagro-Urabáko Emakumeen Saila, emakume afro-ondorengoen Sarea, eta Medellin Iparmendebaldeko Emakumeen batasunak.
Lurralde eremua	Kolonia.
Burutzeko epea	2004tik 2010era.
Hizkuntza	Gaztelania.
Esteka	www.enlazandoalternativas.org/spip.php?article147
Harremanetarako	misderechosnosenegocian@gmail.com
Ekintzen laburpena	
Kanpainaren deskribapena	<p>Ekonomiaren globalizazioarekin artikulatzen den agenda nazionala garatu du kanpainak, emakumeen lan-eskubideen inguruan, eta zera utzi du agerian: lan erreforma herria atzerriko inbertsiorako erakargarriago egitera bideratuta egon da, eskubideak malgututa eta murriztuta, eta horrek eragin negatiboa izan du emakume langileengan.</p> <p>Agenda nazionala laneko malgutasunaren berezko gaiak jorratzera bideratuta egon da, gehienetan denbora nahikoa kotizatu ez duten emakumeen erretiro-pentsioetan horrek daukan ondorioa adibidez, edo gizarte segurantzaren estaldura eskasa eta lan- eta familia-bizitzaren arteko adiskidetasunaren eskubideak.</p> <p>Kanpainan zehar sortutako ekintzak kanpainak nazio eta nazioarte mailan gauzatu dituen eragin eta lobby ekintzei artikulatu zaizkie, lan-malgutasuna eta Estatu Batuekin negoziatutako Merkataritza Askearen Itunaren (TLC)</p>

	<p>arteko harreman estua erakusteko. Helburua izan da merkataritza akordio horiek emakumeen bizi baldintzetan izandako eraginak erakustea.</p> <p>Agerian utzi dituen argudioak erabili ditu kanpainak, TLC edo edozein merkataritza akordio adibidez, eta pobrezia eta bortizkerian sakondu eta emakumeengan modu berezian eragingo du. Elikagaien segurtasuna, osasuna eta enplegua bezalako gaiak heldu die kanpainak bereziki, emakumeentzako eskubide estrategikoak eta oinarrikoak direlako.</p> <p>4 estrategia definitu dira helburuak garatzea lortzeko: ekintza juridiko eta politikoak; gizartearen mobilizazioa eta iritziz publikoari zabaltzea; ikerketa eta antolamendua indartzea.</p>
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> • Emakumeek eta euren erakundeek prozesu sozialetan duten protagonismoa sustatzea, merkataritza akordioei eta Elkarrekin Akordioei (AdA) aurre egiteko, modu horretan euren agendetan gehitzea eragiteko. • TLC eta Europar Batasunaren eta Nazioen Andeetako Komunitatearen (UE-CAN) AdA eskubide sozial, ekonomiko eta kulturaletan izango dituen ondorioen gaineko eztabaida publikoan emakumeen ikuspuntua eranstea sustatzea. • Estatu Batuetako Kongresuak TLC onartzea atzeratzeko edota geldiarazteko aliatuekin eragin ekintzak aurreratzea. • Emakumeak, TLC eta AdAren agendaren diseinua eta adostasuna sustatzea, merkataritza akordio eta integrazio ereduaren aurrean ekintzak garatzen dituzten nazio eta eskualdeko gobernuen aurrean, erakunde eta sare mixto eta emakumeen eragin eta elkarrizketa ekintzak garatzeko. • TLC eta AdA eragiten duten edo haiekin lan egiten duten giza eskubideen, garapenaren eta sindikatuak emakumeen nazio erakundeekin eta sareekin ekintzak koordinatzea.
Parte hartzen duten aktoreak	Giza eskubideen, garapenaren eta emakumeen erakundeak eta erakunde sindikalak.
Ikusleria xedea	Estatu Batuekin TLCren inguruan eta Europar Batasunarekin AdArenekin ekintzak garatzen dituzten arlo formaleko eta informaleko emakume langileak, gobernuak, komunikabideak, gizarte erakundeak, erakunde sindikalak, ikasleak, sare nazionalak eta nazioartekoak.
Garapena	
Garatutako ekintzak	Gaikuntza (tailerrak, tokiko mintegiak, nazionalak eta nazioartekoak); mobilizazio sozialak eta zabalkundeak (martxak eta kontzentrazioak, kontzertuak famatuekin, sinatutako 15.000 postalak); ikerketak; TLC eta lan-erreformaren ekintza politiko eta juridikoak; TLC ez onartzeko Estatu Batuetako Kongresura eragin ibilaldiak; Kolonbiako biltzarkide eta presidentetzarako hautagaiekin eztabaidak; eta TLCren konstituzio-kontrakotasun eskaera.
Ezarritako ikuspegi eta metodologiak	Giza eskubideen ikuspegiarekin eta era berezian emakumeen eskubideekin egiten du lan kanpainak. Kanpainaren metodologiak konstruktibismoan, herri-hezkuntzan, eta kanpainetako berezko advocacy eta komunikazio estrategietan daude oinarrituta.

Lorpenak eta emaitzak	
Alde sendoak edota aukerak	<ul style="list-style-type: none"> • Emakumeak ageriko bihurtzea, pobrezia gainditzeko aktore sozial gako gisa. • Emakumeen eskubideen inguruko agenda nazionala eta nazioartekoa artikulatzea. • Kanpaina inguru nazionalan eta nazioartekoan identifikatzeko argudio eta ebidentziak eraikitzea. • Emakumeek Kolonbian duten egoera errealaren gehitzearen ondorioz antolamendua sendotzea. • Kolonbiarekiko TLC ez onartzeko eta kongresuak TLC onartzeko ala ez hiru hilabete ezartzen zituen Legea aldatzeko AEBetako kongresistek kontuan izandako ebidentziak ekarri zituen kanpainak. • Emakumeen eskubideen inguruan aliantza eraikitzea lortu da eta erakunde mistoek hartzen dute parte bertan. • Erakundeen aurreko esperientzia eta ezagutza erabiltzen ditu kanpaina sendotzeko.
Alde ahulak edota oztupoak	<ul style="list-style-type: none"> • Emakumeen lan eskubideen ikuspegia oso publiko murriztuarengana heltzen da; hori dela eta, famatuekin egindako lana gehitu da, eragin handiagoa lortzeko. • Kanpaina garatzeko baliabide eta giza talde murriztuen baliagarritasuna.
Alde berriztatzaileak	<ul style="list-style-type: none"> • Mezuak transmititzeko pertsona famatu nazionalen eta eskualdekoen uztardura. • Kanpainarako irudi egoki eta berriztatzailearen eraikuntza. • Zifra eta ebidentzietan oinarritutako analisisien zabalkundea. • Proposamen zehatzak. • Emakumeen eskubideen inguruko lana, sindikatu eta erakunde mistoen partaidetza eraginkorrenekin.
Eragina	<p>Kanpainak Estatu Batuetan TLCren onarpenaren blokeoan lagundu du bere eraginarekin.</p> <p>TLC arrisku gisa jorratzen duen gaia gobernuaren agendatik kanpo kokatu da eta mota horretako tratatuek emakumearen eskubideetan eta bizitzan izango lukeen eragin negatiboa jarri da agerian.</p>
Iraunkortasuna	<p>Emakumeen lan eskubideen gaia eta merkataritza askearekin daukaten harremana kanpainaren erakunde batzuetan sendotu egin da eta beste batzuetan lotu, horrela, erakundeetan eta kanpainaren koordinazioan jarrera politikoa sortu da; horrek ahalbidetuko duena zera da: egitasmo hau egokia izateaz gain, gizarte zibileko erakundeentzako apostu politiko gako gisa irautea.</p>
Ikasitako ikasgaiak	<ul style="list-style-type: none"> • Interesatzen zaigun gaia kokatzen den testuinguruetan berehalako erreakzioaren beharra. • Parte hartzen dutenek bildutako giza potentzialtasunak eta eskarmentuak aprobetxatzea. • Transmititu ahal izateko mezuak lantzea. • Emakumeen artean kanpainak eraikitzea. • Baliabideen erabilera eta kanpainak garatzeko trebetasunen garapena.

Ebaluazioa	Kolonbia eta beste herrialde batzuetan TLCri aurre egiteko garatzen diren eztabaida eta ekintzetan emakumeak eta euren agendak txertatzea lortu du kanpainak. Arlo publikora modu desberdinean heltzeko trebetasunak garatzea eta ezagutzak eskuratzea lortu dute emakumeek: kanpainak landuz. Estrategien konbinazioa gakoa izan da erakunde bakoitzaren ezagutza gehitu eta partekatze eta ekintza sendo eta nahikoa prestatuak garatzeko.
------------	--

INDARKERIA EKONOMIKOAK ERAGITEN ZAITU, HURA SALATZEA ZURE ESKUBIDEA DA	
Oinarrizko datuak	
Izenburua	Indarkeria ekonomikoak eragiten zaitu, hura salatzea zure eskubidea da.
Esperientzia garatzen duten erakundeak	Sexuaren Langileen Duintasunaren aldeko "Flor de Piedra" Emakumeen Elkarte, eta Emakumei buruzko Garapenaren, Gaikuntzaren eta Ikerketaren Institutua (IMU).
Lurralde eremua	El Salvador.
Burutzeko epea	2008ko abuztuaren 15etik azaroaren 15era.
Hizkuntza	Gaztelania.
Esteka	www.mujeresprotagonistas.blogspot.com
Harremanetarako	imu.comunicaciones@gmail.com
Ekintzen laburpena	
Kanpainaren deskribapena	<p>Kanpainak bilatzen duena da bortizkeria ekonomikoaren gaia emakumeengana bideratzea El Salvadorren eta mezu labur eta zuzenen bitartez eta ekintza sortzaileen bidez begi bistako eragina sortzea.</p> <p>Sei ardatz tematikoren inguruan egituratzen da: emakumeek egiten duten zaintza lanaren ikusezintasuna, bizitzaren kostu handia, soldatetan dagoen genero zuloa eta El Salvadorreko emakumeek etxebizitza duina, osasuna eta lurra ezin eskuratu izatea.</p>
Helburuak	El Salvadorreko emakumeak honetaz kontzientziatzen direla ziurtatzea: euren eskubide ekonomikoak urratu egiten direla eta urraketa hori desagertarazi ahal eta behar den bortizkeria mota dela.

Parte hartzen duten aktoreak	Sexuaren Langileen Duintasunaren aldeko Emakumeen Elkarte "Flor de Piedra", Emakumearen Garapenaren, Gaikuntzaren eta Ikerketaren Institutua (IMU); Progressio eta Europar Batasunaren garapenerako erakundea.
Ikusleria xedea	Emakumeek osatzen dute ikusleria xedea, indarkeria ekonomikoaren eraginpean dauden emakumeek gehienbat: nekazaritza-guneetako emakumeek, sexuaren langile diren emakumeek, sektore informalean lan egiten duten emakumeek eta baliabide ekonomiko urriak dituztenek. Hau da, El Salvadorreko emakumezko biztanleriaren %83k.
Garapena	
Garatutako ekintzak	<ul style="list-style-type: none"> • Kartelak, triptikoak, autobus geltokietan iragarkiak, autobusen ibilbide nagusietako atzealdeetan iragarkiak eta kanpainaren mezu nagusiekin publizitate hesiak diseinatu dira. • Kanpainako arlo tematikoen arteko bi kontuan hartuta telebistarako iragarkia egin da: "zure soldata justua ez izatea indarkeria ekonomikoa da" eta "zure etxeko lana ez aitortzea edo ez partekatzea indarkeria ekonomikoa da". • Bestalde, irrati kanpaina artikulatu da herrialdeko irrati komertzial eta komunitario garrantzitsuetan, eta hauexek ekoiztu dira: irrati iragarki bi, antzerki sozial bat eta indarkeria ekonomikoaren gaiari buruzko bost saio berezi. Egitasmoan parte hartzen duten emakumeek egin dituzte oso-oso. • Herri mailako Udal Foroak antolatu dira, herrialdeko nekazaritza-guneetan indarkeria ekonomikoaren gaia kokatzeko asmoz, eta prentsaurreak eta ekitaldi publikoak San Salvador hirian, kanpaina ezagutarazteko asmoz. • Kanpainaren gaiari buruzko dokumentala ari dira ekoizten, El Salvadorreko nekazaritza-guneko emakume baten eta sexuaren langile baten bizitzaren istorioan oinarrituta. • Progresio garapenerako erakundearen borondatezko lankide bik, Adriana Ospinak eta Gloria María Araquek, ikerketa bat egin dute: "Emakumeenganako bortizkeria ekonomikoa El Salvadorren: ezkutuko arazo sozial batenganako hurbilketak", eta kanpaina osorako euskarri teoriko gisa balio izan du.
Ezarrirako ikuspegi eta metodologiak	<p>"Nazio Topaketan" antolaketaren ondorioz, elkarte bietako 260 emakumeek gai komuna aukeratu zuten kanpainarako: bortizkeria ekonomikoa.</p> <p>Une horretatik aurrera, emakume horien talde adierazgarri batek "Eragin Batzorde Nazionala" eratu zuen. Hilean birritan biltzen den batzorde horixe izan da kanpainako mezu eta goiburu nagusiak diseinatu, eratu eta baliozkotzat jo dituenak.</p> <p>Batzorde hori eratzen duten emakumeek beraiek indarkeria ekonomikoari buruzko bost irratsaio produzitu dituzte eta herrialdeko irrati komunitario guztietan igortzen dira. Horrez gain, komunikabideetako saio eta prentsaurreko batzuetan hartu dute parte kanpainaren bozeramaile gisa.</p>

Lorpenak eta emaitzak	
Alde sendoak edota aukerak	<ul style="list-style-type: none"> • Hauxe da nazio mailan El Salvadorren emakumeenganako indarkeria ekonomikoaren kontra bultzatu den lehenengo kanpaina, eta herrialde hori igarotzen ari den krisialdi ekonomiko larriarekin bat dator. • Alde sendo nagusietariko bat da egitasmoa eratzen duten erakunde bietako emakumeek izan duten protagonismoa: eurak izan dira kanpainako mezu nagusiak eratu dituztenak eta bozeramaileak. • Euskarri teoriko sendoa dago, egitasmoaren barruan garatu den ikerketa, Progressio erakundeko bi borondatezko lankidek egindakoa. • El Salvadorreko erakunde zibil askoren laguntza izan denez, kanpainak planteatutako sei ardatz tematikoen inguruko mahai-ingurua hasi da sortzen. • Komunikabideen aldetik ere irekitzea egon da, izan ere, indarkeria ekonomikoaren gaiari buruz eztabaidatzeko elkarrizketa gunek utzi dituzte lehenengo aldiz.
Alde ahulak edota oztupoak	<ul style="list-style-type: none"> • El Salvadorreko gizarteak tratatu txar fisikoak, sexu erasoak edo bortxaketak emakumearenganako indarkeria mota argi gisa antzematen ditu. Ez da gauza bera gertatzen indarkeria ekonomikoarekin; horren formak guztiz oharkabean pasatzen dira. Prozesu horien naturalizazioak indarkeria mota hori eremu pribatuko gai eskusibotzat jotzera bultzatzen gaitu. • Emakume eta gizon askoren ustez, emakumeek egindako zainketa lan guztia eta lurra, osasuna edo etxebizitza lortu ezin izana "emakumeen arazoa baino" ez da oraindik ere. • Beste alde batetik, herrialde horretako nekazaritza-guneetako biztanleriaren zati handi batek komunikabideetara heltzeko edo argindarra lortzeko arazoak izateak kanpainaren hedapena zaildu du.
Alde berriztatzaileak	<p>Kanpaina horren alde berriztatzaileenetarikoa da itxuraz errealitate desberdinak dituzten emakumeak biltzea: nekazaritza-guneetako emakumeak eta sexuaren langileak diren emakumeak. Hala ere, hiritar aske eta esku-bidedun subjektu gisa garatzen uzten ez dieten oztopo eta erronka berberei egin behar diete aurre emakume horiek.</p> <p>Publizitate kanpaina hutsean geratu ez den komunikazio estrategia osoa artikulatu da eta komunikazioaren tresna batzuekin osatu da, jendaurreko ekitaldien antolaketa, kabildoak eta foroak, dokumental baten ekoizpena, ikerketa bat egitea eta komunikabideetako saio eta kanal batzuetan parte hartzea.</p>
Eragina	<p>Kanpainaren benetako eragina ezin izan da neurtu oraindik.</p> <p>El Salvadorreko erakunde misto batzuetan kanpainako gai garrantzitsuenen inguruko mahai-ingurua sortu da eta herrialdeko komunikabide askok eman dute berorren berri.</p>
Iraunkortasuna	<p>Kanpaina horretatik abiatuta, berau garatu zuten bi entitateek zera bilatzen dute beste erakunde batzuen babesarekin: indarkeria ekonomikoaren gaia kokatzea El Salvadorren eta zerikusia duten aktore nagusi biek gaiari buruzko iritzia eman eta berau konpontzeko aukera bat edo batzuk ematea.</p>

Ikasitako ikasgaiak	<ul style="list-style-type: none"> • Komunikabideetako kanpainak sentsibilizazio eragin handia daukate biztaleriarengan. • Nekazaritza-komunitate batzuetara heltzeak dakarren zailtasuna kontuan izan behar da.
Ebaluazioa	Ez da ebaluazio txostenik egin.

EMAKUME ETORKINAK. EMAKUME ESKUBIDEDUNAK	
Oinarrizko datuak	
Izenburua	Emakume etorkinak. Emakume eskubidedunak.
Esperientzia garatzen duten erakundeak	Marcosur Artikulazio Feminista eta Oxfam.
Lurralde eremua	Latinoamerika.
Burutzeko epea	2007-2008.
Hizkuntza	Gaztelania, portugaleria eta ingelesa.
Esteka	www.mujeresdelsur.org.uy/index_e.htm
Harremanetarako	afm@mujeresdelsur.org.uy
Ekintzen laburpena	
Kanpainaren deskribapena	Eskualdeko herrialdeetako edo kontinentez kanpoko etxe pribatuetan neskametz-lana egiten duten emakume migrari latinoamerikarren egoeraren berri eman eta sentsibilizatzea.
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> • Migrari latinoamerikarren lan eta enplegu baldintzak agerian uztea, eskualdeko herrialdeetan edo nazioartean, etxe-zerbitzuko langileenak gehienbat. • Emakumeen erakundeen eta feministenen, eta eskualdeko erabakiguneen agendetan gai horiek ezartzea.
Parte hartzen duten aktoreak	Marcosur Artikulazio Feminista, Oxfam eta emakumeen erakundeak.
Ikusleria xedea	<ul style="list-style-type: none"> • Eskualde-mailan erabakitzeke boterea duten pertsonak. • Emakumeen erakundeak eta feministenak.

Garapena	
Garatutako ekintzak	<ul style="list-style-type: none"> • 9 gaikako animazioen bidezko kanpaina birtuala, non emakume migrari batzuek bizi duten errealitatea islatzen den. • Kanpainaren hedapena helbide elektronikoan datu-base baten bidez. • 4 minutuko iraupena duen DVDa diseinatu eta egitea.
Ezarritako ikuspegi eta metodologiak	Kanpainaren hedapena egiten da ikus-entzunezko baliabideen bitartez.
Lorpenak eta emaitzak	
Alde sendoak edota aukerak	Internet plataformaren bitartez bidalitako informazio birtualaren erabilerak komunikabide masibo gisa eskaintzen duen ahalmena.
Alde ahulak edota oztopoak	Gehienbat internetez bidalitako kanpaina denez, ez dakigu zehatz-mehatz zenbat hartzaile heldu zaion kanpaina.
Alde berriztatzaileak	<ul style="list-style-type: none"> • Kanpaina birtualaren diseinua. • Animazioen diseinua. • Posta elektronikoan bidezko zabalkunde estrategia.
Eragina	Kanpainaren originaltasunari esker, xede gisa definitutako ikusleria gainditu egin zen.
Iraunkortasuna	Etorkizunean kanpainarako funtsak lortzearen ala ez lortzearen mende dago.
Ikasitako ikasgaiak	Ikus-entzunezko ekoizpenek hedapen handia dute.
Ebaluazioa	Ez da ebaluazio txostenik egin.



Bibliografia

Jarraian, zenbait iturri bibliografiko interesgarri gomendatzen zaizkizue. Iturriok iparraldeko nahiz hegoaldeko egoera aintzat hartzen dute, emakumeen eskubide ekonomikoen gainean sakondu ahal izateko:

- BENERÍA, Lourdes (2005): *Género, Desarrollo y Globalización: por una ciencia económica para todas las personas*. Barcelona: Hacer.
- CARRASCO, Cristina; eta VV. AA. (2001): *Mujeres y Economía: nuevas perspectivas para viejos y nuevos problemas*. Barcelona: Icaria.
- FERNÁNDEZ, Blanca eta VILLANUEVA, Elena (koordinatzaileak) (2002): *Microempresarias rurales. Construcción de futuro con seguridad alimentaria*. Peru: Flora Tristán.
- GENERO ETA EKONOMIA TALDEA (2005): *Tratado de libre comercio, ¿Una oportunidad? o una amenaza para las MYPES*. Peru: GET.
- LAS DIGNAS (2003): *Calidad de vida de las trabajadoras de las maquilas*. El Salvador: Las Dignas.
- LAS MÉLIDAS (2003): *Capacitación empresarial con enfoque de género*. El Salvador: Eusko Jauriaritza eta Mugen Gainetik.
- LEÓN, Irene (2005): *Mujeres en resistencia. Experiencias, visiones y propuestas*. Ecuador: ALAI, FEDAEPS-Ecuador.
- LEÓN T., Magdalena (2001): *Mujeres y trabajo: cambios impostergables*. Brasil: Veraz Comunicação.
- LÓPEZ, Cecilia; ESPINO, Alma; TODARO, Rosalía; eta SANCHÍS, Norma (2006): *América Latina un Debate Pendiente: aportes a la economía y a la política con una visión de género*. Uruguai: REPEM, DAW, IFC eta Heinrich Böll Fundazioa.
- NUSSBAUM, Martha (2002): *Las mujeres y el desarrollo humano*. Barcelona: Herder.

2. Kapituluia

Generoa, gatazka armatuaren eragina
eta bakearen eraikuntza



Ikuspegi feministak

Atal honek gatazka armatuak emakumeengan duen eragina aztertzen du, baita emakumeek bakea eraikitzeko egindako ekarpena ere, betiere, ikuspegi feminista aintzat hartuz. Gatazka armatua hainbat korrante feministatik aztertzen da, eta emakumea bakearekin eta gizona gerrarekin lotzen duen mitoa eztabaidagai bihurtzen da. Egungo sistema patriarkalak egiturazko indarkeria, segurtasun-gabezia eta mehatxua sorrarazten ditu emakumezkoen eskubideengan. Gainera, aipatutako indarkeria hori areagotu egiten da gatazka armatuko egoeretan. Bakea eraikitzeko, emakumeen elkarte eta talde feminista ezberdinek sortutako eta kudeatutako hainbat ekimen daude, eta aintzat hartu beharreko eginkizun eraldatzailea adierazten dute.

Emakumeei eta gatazka armatuari buruzko eduki politiko feministak

Pilar Palacio

“Emakumeak ez dira konformatzen gerrari begira egotearekin eta biktimen alde negar egitearekin; gainera, ekimenak eta ekintzak egiten dituzte, subjektu politiko autonomo gisa. Emakume eta bake mugimenduko aktibistek populazio zibilaren beharrianetan oinarritutako bakea lortu nahi dute, eta ez armaden beharrianetan oinarritutakoa. Uko egiten diete pertsonak eta natura hiltzen dituzten botere militarri eta armen produkzioari, uko egiten diete genero, arraza edo etnien arabera nagusitasunari. Horren ordez, elkarbizitzarako eta desberdintasunen aintzatespenerako harremanak sortzen dituzte, eta elkarren arteko babesa, interdependentzia eta naturarekiko errespetua bilatzen dute. Gainera, populazio zibilaren beharrianen arabera garapena lortu nahi dute, eta ez elite zibil eta militarren beharrianen arabera.”¹

Beltzeko Emakumeak (Belgrad, 1996ko maiatzaren 21a)

Gatazka armatuaren gaia sarritan agertzen da eztabaida feministetan; hori horrela, feminismoaren barruko zenbait korronteren arabera, gerraren fenomenoak kultura patriarkalaren adierazpen gorenak dira. Hala ere, Mugimendu Feministek osatzen duten joeren abaniko zabalean oso jarrera desberdinak suma daitezke fenomeno horri aurre egitean, eta ideologoak eta aktoreak aurrez aurre jartzen dira, denboraren eta espazioaren arabera. Hori horrela, gerrari buruzko eztabaida feministak emakumeen esperientzia aberasgarri eta gai irekiz betetako ondare interesgarria utzi digu.

XIX. mendearen erdialdean eta XX. mende osoan, gizarte zientzien garapenarekiko modu paraleloan, diziplina askotako jakintzak hasi ziren aplikatzen gerraren benetako sustraiei buruzko galdera irekiari erantzun nahian, gerra zelan saihestu daitezkeen jakiteko.

Generoko ikerketek, diziplina asko hartzen dituzten esparru epistemologikoak diren aldetik, berriz ere ekiten diete gai horiei, adibidez Margaret Mead edo Pierre Bourdieuren ekarpenetatik abiatuta, gizarteek rol sexualen inguruan sortu dituzten eraikuntza soziokulturalak aipatuz. Horretan oinarritzen dira *sexu* kategoriaz ezaugarri biologikoak soilak finkatzen dutela dioten Teoria

¹ BELTZEKO EMAKUMEAK, *Bota dezagun militarismoa gure bizitzetatik*, Emakumeek Bakearen Alde egiten dituzten Ekintzen Nazioarteko Eguneko (maiatzaren 24) komunikatua. Belgrad, 1996ko maiatzaren 21a.

Feministak, gizon eta emakumeen arteko dikotomia klasikoa sortuz.² Herrien herentzia kulturalak portaera, balio eta desiren multzo bat finkatu du sexu biologiko bakoitzarentzat, eta, modu horretan, generoko ikerketek *genero* gisa identifikatzen dutena sortu da, izan maskulinoa zein femeniinoa. Era berean, generoaren oinarriak generoko estereotipoak dira, horiek sorrarazten baitute gizona eta emakumea kultura bakoitzaren barruan sozialki definitzen duen imaginario kolektiboa, eta bata bestearen kontrako edo osagarri gisa agertzen dira. Generoari buruzko lehenengo pentsalarien arabera, rol sexualak edo gizon eta emakumeen arabera portaera eta jardueren definizioak eraikuntza soziokulturalaren azken kate-maila dira, eta ideologo feministek gure gizartearen egitura patriarkalari egozten diote hori.

Gatazka armatuetan, sexu-rolen arteko dinamikak aldatu egiten dira, eta indarkeria armatuko testuinguruari egokitzeko joera dute. Bake-garaian³ ere emakumeen eta gizonen sexu-rolak bereizita daude, baina indarkeria armatuko egoeretan rol horiek aldatu egiten dira. Alde batetik, egoera erradikalizatzen da. Izan ere, gerrak gizonei borrokalari eta herriaren babesle gisa ei dagokien rola berresten du. Bestalde, emakumeek rol asko bereganatu behar izaten dituzte. Familia eta komunitatea zaintzeaz eta haiei eusteaz gain, sarritan, gizonak gerrara joateko bertan behera utzi dituzten lanak egin behar dituzte. Gatazka armatua pizten denean, bada, emakume gehienak soldatapeko lanak egiten hasten dira, gizonak armadan sartu direlako eta, ondorioz, ekoizpen-postuak libre geratu direlako. Fenomeno garrantzitsu horrek aukera ematen die emakumeei rol berriak esperimentatzeko eta beren buruarenganako konfiantza handiagoa izateko. Aldaketa hori, bada, genero-kontzientzia garatzeko hazia izango da. Hala eta guztiz ere, feministek gatazka emakumeak askatzeko balio duela dioten hipotesia kritikatzeko dute. Teoria feminista batzuen arabera, jabeakuntza testuinguru patriarkal peto-peto batean (gerra kasu) lortzeak epe laburrera eta luzera dituen ondorioak berrikusi beharko litateke. Izan ere, gatazka armatuetan goresen diren balioak maskulinitasunari lotutakoak dira. Horren harira, gizarteak maskulinitasunari eusten dioten lanei aitortzen die balioa. Ondorioz, gerraren makinerian parte hartzen duten emakumeei, bai ekonomiari eusten dietenei bai soldaduei beraiei laguntzen dietenei, gizarteak osagarritasunaren ikuspegitik aitortzen die balioa, hau da, printzipio maskulinoak berresteko egiten duten ekarpenaren ikuspegitik. Izan ere, printzipio horiek dira gizarteak modu argian aintzatesten dituenak.

Halaber, emakumeek testuinguru armatuetan jokatu behar duten beste roletako bat komunitatearen identitatea eta ohorea gordetzeko erantzukizunari lotuta dago (gehienetan, diskurtso abertzaleak zipriztinduta dago). Emakumeei dagokie balio abertzaleak zabaltzea eta gordetzea, politikan modu aktiboan parte hartuz, bai eta ohorea gordetzea ere, sexu-dimentsio sinbolikoaren bidez (ez dugu ahaztu behar emakumeek gerra-garaian jasaten duten sexu-indarkeriak osagai hori duela).

Mugimendu feministek indarkeria armatua aztertzeke azken urteetan baliatu duten ikuspegi kritikoaren harira, sistema patriarkalak berak inposatzen duen egiturazko indarkerian sakondu da. Izan ere, gatazka armatua sistema patriarkalaren isla peto-petoa da eta gerra patriarkatuaren dinamika bortitzenak agerian uzten dituen mikrokosmos gisa jo da.⁴ Aldarrikapen feministak beti

² Gaur egun, pentsamendu feministaren esparru berriek, Queer Teoriek adibidez, konstruktio sozial gisa ere hartzen dute *sexu* kategoria, determinismo biologikoa zalantzan jarriz eta, ondorioz, gizon-emakume biologikoen ideia tradizionaletik harago ere identitateak sorrarazteko aukera emanez.

³ "Bake-garaia" kontzeptua aztertzea komeni da. Izan ere, bakearen eta gatazken arloa ikertzen dutenen arabera, bakeak "bakea justiziarekin" edo "bake positiboa" izan beharko lituzke ardatz. Aitzitik, gaur egun nagusi den gizarte-eredua "bake-egoeratik" nahiko urrun dago, zuzeneko indarkeria-zantzurik ikusten ez bada ere, kulturari eta egiturari lotutako gatazka izan badirelako.

⁴ Testuinguru armatuetako indarkeriaren lengoia sinbolikoa deskodetzeko egin den lana ulertzeko, ezinbestekoak dira Beltzez Jantzitako Emakumeen Gerraren Aurkako Nazioarteko Sarearen ekarpenak. Sare horri buruzko informazio orokorra helbide honetan ikus daiteke: www.womeninblack.org. Bestela, Belgradeko taldearen webgunea kontsulta daiteke: <http://wib.matriz.net>. Belgradekoa talderik aktiboena da mobilizazioak egiteari eta materialak argitaratzeari dagokionez.

kokatu dira gizarteak inposatutako eta sistema patriarkalak indartutako rol-gatazkaren erdian. Horiek horrela, nahiko erraza da loturak aurkitzea pentsamendu feministaren eta historian zehar gatazka armatuari buruz garatu diren ikuspegi sozio-ekonomikoen artean. Harreman horren adibide da, esaterako, feminismoa eta antimilitarismoa bat etortzen direla "menderatze", "botere" edo "kontrol" ideiak definitzerakoan.⁵

Gerrak etengabe gertatu dira gizakien historian zehar. Dena den, haien formak eta helburuak aldatuz joan dira eta, gaur egun, gerra moderno gisa ezagutzen ditugunak sortu dira. Teknifikatzeak armei eta estrategiaren ikuspegiari eragin die. Egungo gerretako helburu estrategikoa herritarrek dira. Ondorioz, biktima zibilen kopurua ezinbestean hazi da⁶, eta biktima horietako asko emakumezkoak dira. Orain gutxira arte, emakumeak gerrako harrapakinak ziren garai-leentzat. Aitzitik, gerra modernoetan atake espezifikoek xede dira, emakumeei nazio-identitatea eta familiaren moralak gordetzeko zeregina egozten dien logika nazionalistari jarraituz. Hain zuzen ere, gizarte-ehun komunitario garrantzitsu hori puskatzea da indarkeria armatuaren funtsezko xedeetako bat. Ehun hori, neurri handi batean, patriarkatuak emakumeei inposatzen dien rolaen ondorioz sortu da eta, berez, bizikidetzaren eta indarkeriaren kontrolaren oinarria da.

Gerrari buruzko pentsamendu feministak kritikatzeko duen beste alderdietako bat emakumeak bakeari eta gizonetakoak gerrari lotzen dituen mitoa da. Egiak, rola banatzeko sistema sortzeaz arduratzen den egitura patriarkalak zereginak bereizten ditu emakumeen eta gizonen artean. Hala, bada, gizonen esparru publikoari eta ekoizpenari lotutako lanak egin izan dituzte tradizionalki, eta zainketari eta bizia iraunarazteari lotutakoak, berriz, emakumeei egokitu zaizkie. Bi mundu horien arteko haustura da gizarte-gatazkek indarkeria eragin dezaten ahalbidetu duen funtsezko arrazoi bat. Izan ere, indarkeria pizten da berdintasunik gabeko egoerak daudenean edo bilatzen direnean edo kontrajarriak omen diren interesak daudenean eta hitzaren bidez negoziatzen ez direnean. Hitz batean, bestea gizaki gisa ikusten ez denean, baizik eta norberaren helburuak lortzeko oztopo gisa. Ildo horretan, etxeko bizimoduaren logika, oro har, aurkako moduan garatu da historian zehar. Etxeko giro tradizionalaren alderdi afektiboa emakumeek kontrolatu izan dute, eta han bizikidetzako balioak indartu eta baketsuago gisa definitu ohi ditugun beste jokabide-kode batzuk finkatu dira. Gizonen eta emakumeen arteko rola bereizketari hori espazio bereiztuetan ere islatu da. Fenomeno hori, bada, funtsezkoa izan da emakumeak bakearen ideiatik gizonak baino hurbilago daudela dioen ideia zabaltzeko. Hala eta guztiz ere, ezin da pentsatu bake-eragile izateko joera hori emakumeen berezko ezaugarria denik. Izan ere, gatazkek indarkeriaren bidez konpontzeko joera gizakiaren berezko ezaugarria dela esatea moduko izango litzateke.⁷

Diskurtsoan aurrera eginez, garrantzitsua da emakumeak gatazketan biktima/kaltegile harremanetik harago daudela ikustea. Lehenik, teoria feministaren gerrari buruzko kontra berreraikitzea emakumeen beren esperientziaren ondorio zuzena dela ulertu behar da. Oroimen historikoa berreskuratzea funtsezkoa izan da sistema patriarkalak berak nahita baztertzen edo alboratzen dituen dinamikak bistaratzeko eta emakumeen hainbat rol deskubritzeko. Rol horiek, hain zuzen,

⁵ MUJERES ANTIMILITARISTAS/MOC Paraguay (2004ko Abuztua): *Antimilitarismo y Ferminismo: el cuestionamiento a la cultura patriarcal de la dominación*. Helbide honetan kontsulta daiteke: www.mujeresenred.net/news/article.php?id_article=49

⁶ MARTÍN BERISTAIN, Carlos (1999): *Reconstruir el tejido social. Un enfoque crítico de la ayuda humanitaria*. Barzelona: Icaria.

⁷ UNESCOren Konferentzia Nagusiak hogeita bosgarren bilera egin zuen Parisen 1989ko azaroaren 16an. Han, Sevillako Manifestuaren bigarren proposamenean, honako hau adierazi zen: "Zientifikoki ezin da esan gerra edo bestelako jokabide bortitzak gizakiaren geneetan programatuta daudunik". Helbide honetan kontsulta daiteke: www.unesco.org/cpp/sp/declaraciones/sevilla.htm

maskulino/femenino binomio zaharkitu eta gaindiezinetik oso urrun daude. Emakumeek eragile gisa jarduten dute gatazka armatuak dauden tokietan. Horren isla dira, gaur egun, indarkeriaren aurka eta bakearen alde engaiatuta dauden emakume-taldeek kontaketa ugariak.

Bigarrenik, ekintzarako aukera horren ondorio gisa, talde feministek gerra-makineria berriz pentsatzeko, dinamika patriarkalak identifikatzeko, oker izendatutako "bake garaietako" eguneroko bizitzan sartzen diren militarismo-zantzuak antzemateko, munduko gatazken artean paralelismoak ezartzeko edo prebenitzeko helburuarekin, gizarte-gatazkek kudeatzeko modu txarra salatzen duten ahalmena nabarmendu behar da. Lan horri esker eta emakumeen esperientzia kolektiboa oinarri hartuta, gaur egun, gatazka armatuaren eta patriarkatuaren arteko harreman argiei buruzko erreferentzia teoriko sendoa dugu. Esperientzia horiek, bada, gogorazten digute gerrak botere-sistemari eusten dion egitura hierarkikoa eta militarista legitimatzeko ere balio duela. Halaber, gizarte-aitorpena ematen die tradizionalki maskulinoetatik jo diren alderdiei, eta femeninoetatik jotzen dena, berriz, bigarren mailan uzten du. Izan ere, gerrak hainbat, forma, espazio eta denbora baditu ere, indarkeria armatuaren izaera unibertsalak muga guztiak gainditzen ditu (emakumeen mugimenduak ideia hori aprobetxatu du eta elkartasun-sareak eraiki ditu lurreko toki guztietako emakumeen artean).

Hirugarrenik, emakumeek gatazka-garaietan eta gatazken ondorengo aldietan bizi dituzten esperientzien kontaketa emakume-mugimenduen aldaketa-ahalmenenaren adibide argia dira. Emakumeen ahalmen kritikoa eta aldaketak eragiteko gaitasuna agerian uzten duten ekimen ugari daude, bai antolatutako bai bat-batean sortutakoak. Aipatu dugu dagoeneko patriarkatuak utzi dien tokitik, hau da, zeregin publikoetatik kanpo, emakumeek bizitzari eta giza harremanei buruzko ikuspegi askotarikoa garatzen asmatu dutela, biziaren zainketari eta giza iraupenari lotutako berezko balio-sistema sortuz etxeko giroan.

Herentzia historiko horretan oinarrituta, emakume-talde askoren kontzientzia bakezalea sortu da, eta gerra-giroak ezarritako zatiketak gainditu eta begirada kritikoa garatzen lagundu die, berezko ahotsa eta metodoak lagun. Emakume-talde horietan, funtsezko elementuetako bat larrialdietako auto-antolakuntza da. Gatazken ondoren, talde egonkorra sortu ohi da. Talde horrek agenda politiko aski ongi finkatua du, emakumeek taldean definitzen duten bake-ideia zabal bat oinarri. Talde horietako askok indarkeria armatuaren izugarrikeriak salatzen dituzte, bai eta su-etenaren ondoren bere horretan mantentzen diren zeharkako beste indarkeria-mota batzuk ere. Izan ere, indarkeria-mota horiek generoaren arloan berdintasunik ez duen gizarte bati eusten laguntzen diote. Emakume-taldek lantzen duten funtsezko gaietako bat giza eskubideak berriz definitzea eta babestea da. Bereziki, emakumeen eskubideak giza eskubide unibertsalen barruan sartzearen alde lan egiten dute. Dena den, harago doaz, eta egiaren, justiziaren eta gerrako kalte-ordainen aldeko lan garrantzitsua egiten dute, lan hori bake iraunkorra eta gizarte-adostasuna erdiesteko bidea dela ulertuta.



Herrialdearen egoera orokorra

Jarraian, Kolonbiako eta Guatemalako errealitatea azaltzen da, emakumeak lurralde hauetan duen egoera aintzat hartuz. Egoera politikoa, egoera sozio-ekonomikoa, politika ekonomiko eta sozial nagusiak, gizarte-mugimenduen zeresana eta, bereziki, emakumezkoen elkarte eta talde feministena xehatzen dira, gatazka armatuko egoeretan eta gatazka ondokoetan emakumeak baztertzen eta menpean jartzen dituen egoera ezagutze aldera.

Kolonia

Laura Rangel

Herrialdeko testuinguru politikoa

Gaur egungo Kolonia

Kolonia Espainiako kolonia izan zen 1810. urtera arte. Mende horretan, hain zuzen ere, oinarri instituzionalak ezarri ziren 1828ko, 1863ko eta 1886ko konstituzioetan. 1886koa, gainera, XX. mendera arte egon zen indarrean, harik eta 1991ko Konstituzio Politikoak herrialdeko instituzioak berriro zituen arte. Hona hemen berrikuntza nagusiak: estatuaren eta eliza katolikoaren arteko harremanen banaketa formala, lehen konstituzionalak ez ziren zenbait giza eskubideren onarpena, Zuzenbide Estatu Sozialaren zehaztapena, gobernuaren ahalmenen muga salbuespen-egoeretan edo setio-egoeran, Herriaren Defentsa Bulegoaren sorrera eta herritarren partaidetzarako mekanismoen sorrera, besteak beste.

Konstituzio horretan, emakumeen eskubideak azaltzen dira oro har, 13. artikuluan berdintasunerako eskubidea aipatzen baita; 40. artikuluan, emakumeek administrazio publikoko erabaki-mailetan izan beharreko partaidetza egokia; 42. artikuluan, familia; eta 43. artikuluan, gizon eta emakumeen berdintasuna eta emakume haurdunen zein emakume familia-buruen babes. Era berean, 93. artikuluan ezartzen da Kolonbiak berretsitako giza eskubideen nazioarteko itunak oinarrizko irizpideak izango direla, arau legalak eta konstituzionalak interpretatzeko orduan. Gutun politikoaren interpretazioan agintaritzaren gorenaren Gorte Konstituzionalak arau konstituzionalen irismena garatu du jurisprudenzien bitartez.¹

Gaur egun, arauzko aurrerapenak gertatu arren, mundu zabaleko gatazka armatu antzinakoenetako bizi du herrialdeak. Barruko lekualdaketa behartuak eragindako krisi humanitarioaren ondorioz, mundu-mailako bigarren hondamendi humanitarioa jazo da herrialdean. Kolonbian, oso arriskutsua da jarduera sindikala garatzea, mugimenduetako kideek heriotza-mehatuak eta erasoak jasan dituztelako. Datu horiek Kolonbiako demokraziaren ezegonkortasunaren adie-

¹ C-667-06. epaia: emakumeak babes bereziko subjektu konstituzionalak dira, eta, neurri horretan, botere publiko osoak eta eragile juridikoek emakumeen eskubide orokor zein bereziak babestu behar dituzte. Zenbait kasutan, gortek emakumeen eskubide hauei eman die lehentasuna: emakume haurdunak kargura itzultzeko eskubidea, emakume haurdunen babesik ezaren egiztapena, emakume haurdunen lan-egonkortasunaren babes, emakume haurdunen bereizkeriarik eza, emakume familia-buruen aldeko ekintza positiboak, emakume nerabeen autonomia ezkontza goiztiarraren aurrean, emakume haurdunentzako soldaten ordainketa egokia, emakume haurdunen hezkuntza-eskubidea, elbarri fisikoak diren emakume familia-buruen berdintasunerako eskubidea, berdintasunerako eskubidea, nortasuna askatasunez garatzeko eskubidea, sexu-berdintasunerako eskubidea, emakumeen eskubidea botere publikoko erabaki-mailetan parte hartzeko eta emakume familia-buruen aldeko onurak.

razgarri dira. Gainera, ageri-agerikoa da emakumeen eskubideak teorian ezartzen direla, baina ez praktikan.

Egindako bidea

XX. mendeko lehen hamarkadetatik, emakumeak borroka esanguratsua garatzen ari ziren, eskubide zibil, politiko eta lan-arlokoetan berdintasuna lortzeko asmoz. 1932ko 28. Legean, ondasunen administrazio askea onartu zen; bigarren hezkuntzarako eta unibertsitate hezkuntzarako eskubidea, 1933ko 1972. Dekretuan; eta kargu publikoak betetzeko eskubidea, 1936ko 1. Legegintza Egin-tzan (eraldaketa konstituzionalean). Sufragiorako eskubidea, ordea, 1954ko 3. Legegintza Egintzan onetsi zen, baina 1957ra arte emakume kolonbiarrek ez zuten eskubide hori lehen aldiz erabili.

"Kolonbiako emakumeek Zeelanda Berrikoek baino 64 urte geroago parte hartu zuten hauteskundeetan, Zeelanda Berriko emakumeek 1893an lortu baitzuten bozkatzeko eskubidea; Australian, 1901ean; Finlandian, 1906an; SESBn, 1918an; AEBetan, 1920an; eta Latinoamerikan: Ekuadorren, 1929an; Brasilen eta Uruguain, 1932an; Kuban, 1934an; Dominikar Errepublikan, 1942an; Jamaikan, 1944an; Mexikon, 1953an; Hondurasen, Perun eta Nikaraguan, 1955ean; eta Kolonbian, 1957an."²

Hona hemen emakumeentzako beste arau-aurrerapen batzuk: 1970eko 1260. Dekretua, senarraren abizena ezkontza-abizen moduan erabiltzeko betebeharra ezeztatu zuena; 1985eko 113. Legea, emakume bikotekide iraunkorra kontuan hartu eta pentsio-onuradun egin zuena, legezko formalitateen arabera ezkontuta egon ez arren; 1993ko 82. Legea, emakume familia-buruak babestekoa; 1996ko 294. Legea, familia barruko indarkeria prebenitu, konpondu eta zigortzekoa; 2000ko 599. Legea edo Kuoten Legea, emakumeek botere publikoko adar eta organoetan eduki beharreko partaidetza arautzekoa; eta Landa Inguruneko Emakumeei buruzko 731. Legea, besteak beste.

Kolonbiako estatuak Emakumearen aurkako Bereizkeria Guztiak Ezabatzeari buruzko Konbentzioa (CEDAW) berretsi zuen 1981eko 51. Legearen bitartez, bai eta bere protokolo fakultatiboa ere 2007an. 1996ko 248. Legearen bidez, Emakumeen aurkako Indarkeria Prebenitu, Zigortu eta Desagerrarazteko Amerika Arteko Konbentzioa berretsi zuen.

Herraldeak emakumeen lan-eskubideei buruzko LANeko (Lanaren Nazioarteko Erakundeko) nazioarteko hitzarmenak ere berretsi ditu; esate baterako, 1962ko 54. Legearen bidez ordainsarrien berdintasunari buruz onartutako 100. hitzarmena.

Emakumeek Plangintza Kontseilu Nazionalaren bitartez parte hartzen dute politika publikoaren plangintzan, bertan emakume ordezkaria dago eta. Dena dela, ez dago inolako prozesu ireki eta demokratikorik, emakumeek euren ordezkaria izendatzeaz gain, adostutako lerro politikoak zehaztu diezazkioten.

Emakumeen eskubideak lantzeko eta genero-ikuspegia politika publikoan zeharkatzeko instituzionaltasun nazional bereziak muga handiak ditu, Emakumeen Berdintasunerako Presidentetzako Kontseilaritza delako eta aurrekontu-autonomiarik ez duelako. Hori dela eta, nazioarteko lankidetzaren eraginpean dago, garapen-plan nazionalean ez du partaidetza-maila adierazgarririk eta agenda nazionaleko eranskina balitz bezala garatzen du emakumeentzako politika.

² PELÁEZ MEJÍA, Margarita María: *Derechos políticos y ciudadanía de las mujeres en Colombia: cincuenta años del voto femenino*. Helbide honetan kontsulta daiteke: <http://webs.uvigo.es/pmayobre>

Abortuari dagokionez, oraindik ere Zigor Kodeko 124. artikulua araberak delitua bada ere, Gorte Konstituzionalak hiru justifikazio-kausal onartu zituen 2006ko maiatzaren 10eko 355. epaiaren bidez: haurdunaldia bortxaketaren edo intzestuaren ondorioa denean, emakumearen bizitza edo osasuna (fisikoa edo mentala) arriskuan dagoenean edo malformazio fetalaren ondorioz umetokirik kanpo bizitzerik ez dagoenean.

Era berean, nabarmendu behar da Kolonbiako emakumeentzat oso garrantzitsua dela Nazio Batuetako Segurtasun Kontseiluak 2000. urtean emakumeek bakean eta demokrazian izan behar duten partaidetzari buruz emandako 1325. ebazpena, berrogeita hamarretik gora urtetik hona Kolonbian barne-gatazka bizi dutela eta adin guztietako emakumeak biktima isilak eta isilaraziak izan direla kontuan hartuta.

Ekintzarako erakundeak

XX. mendearen hasieratik, emakumeen mugimendua bizi-bizia izan da Kolonbian, eskubide zibil eta politikoen arloan zein sexu eta ugalketa osasunaren eta familia barruko indarkeriaren arloan. Horrela, bada, zenbait erakunde daude: Emakumeen Etxea edo Sisma Mujer, bai eta sareak ere: Erabakitze Eskubidearen aldeko Emakume Katolikoak, emakumeen Sare Nazionala edo Sareen Elkargunea. 20ko eta 30eko hamarkadetan, emakumeek zeresan berezia eduki zuten Kolonbiako mugimendu sindikalean.

Zenbait urtetatik hona, gizarte-mugimenduetan duten partaidetza ere sendotu dute emakumeen erakunde bereziekin, ANMUCICekin, esaterako, nekazarien zein indigenen mugimenduari dagokionez. Bestetik, mugimendu sindikalean ere parte hartu dute CUT-Langileen Batasun Zentraleko Emakume Sailarekin. Horrez gain, erkidegoko ama ere antolatu dira, hau da, 7 urtera arteko neska-mutikoak zaintzen dituzten emakumeak. Izan ere, borrokatu egin dira, Estatuak eurek egingako lana lantzat hartu dezan eta lan-eskubideak aitortu diezazkieten.

Orain dela gutxi eta gero eta indar handiagoz, emakumeek euren jarrerak egituratu dituzte beste gai batzuetan: eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak (Emakumeen eta EESKen Auzitegia), herrialdeko indarkeria soziopolitikoari begira (Ibilbide Baketsua, Emakumeen Ekimena Bakearen Alde, Bakea Eratzen duten Emakume Eragileak eta Emakumeak eta Gatazka Armatua Mahaia...).

Duela zenbait urtetatik hona, emakumeek ahalegin adierazgarriak egin dituzte, gai ekonomikoetara hurbiltzeko, Emakumeak eta Ekonomia Mahaiaren esperientzian, Emakumeen arteko Herri Hezkuntzarako Sarean (REPEN) egiaztatu den bezala. Azken urteotan, gainera, nazioarteko merkataritzaren ingurunean dituzten lan-eskubideak jorratu dituzte, batez ere, "Justiziadun merkataritza: nire eskubideak ez dira negoziatzen" kanpainaren bitartez.

Era berean, emakumeek ahalegin handiak egin dituzte eskualdeetan. Bertan, gizarte-erakundeak gai berezien inguruan egituratu dira, tokian tokiko eta eskualdeko errealitateak kontuan hartuta. Adibidez, Cartagenan, alkatetzarako hauteskunde-eztabaidan, emakume-erakundeek agenda eratu zuten, eta, orain, aukeratutako emakume alkatearekin dute eztabaidagai.

Nolanahi ere, emakumeak eta euren erakundeak giltzarri dituen dinamika sozial horretan, emakumeen partaidetzarako oztopo berriak daude: Álvaro Uribe Vélez presidentetzaren eta bere segurtasun demokratikorako politikaren ondorioz Kolonbian areagotu den polarizazio politikoa (izan ere, giro zakarra sortu da eta giza eskubideen aldeko erakundeak zein jarduerak estigmatizatu dituzte) eta ekintza armatuen gorakada. Kolonbian, emakumeen partaidetzarako ohiko oztopoak ez ezik, emakumeen biziaren eta osotasun pertsonalaren aurkako arriskuak eta mehatxuak ere badaude.

Gaur egungo egoera sozio-ekonomikoa

Estatistikak eta ziurgabetasuna

Kolonbiako gaur egungo errealitate sozial eta ekonomikoaren eta, batez ere, emakumeen errealitatearen diagnostikoa egiteko, nabarmendu behar da oso zaila izan dela, gaur egungo gobernuak aldaketak egin dituelako Estatistikako Sail Administrazio Nazionalak (DANEK) erabiltzen duen herrialdeko sistema estatistikoan. Izan ere, zenbait akademikok adierazi dutenez, gobernuaren kudeaketako emaitza-adierazleak hobetu nahi ditu txirotasunaren murrizketan eta, batez ere, langabeziaren neurketa bezalako gai estrategikoetan.³

Kolonbiako biztanle guztien %52,2 emakumeak dira. Hona hemen Kolonbiari buruzko zenbait datu, PNUDeK 2007-2008ko Giza Garapenari buruz argitaratu duen Txostena kontuan hartuta.⁴

- 177 herrialderen artean, 2005ean, Kolonbia 75. postuan zegoen giza garapen handienetik txikienerako sailkapenean, eta giza garapen ertaineko herrialdeen taldean dago.
- Datuak eskaintzen dituzten 177 herrialderen artean, Kolonbia 66. postuan dago genero-arloko garapen handienetik txikinerako sailkapenean.
- Emakumeek abantailak dituzte osasun eta hezkuntza arloko adierazleetan: jaiotzean, emakumeen bizi-itzaropena 76 urtekoa da; eta gizonena, 68,7 urtekoa. Emakumeen alfabetizazio-tasa, ordea, %92,9koa da; eta gizonena, %92,8koa. Bestetik, lehen, bigarren eta hirugarren hezkuntzako matrikulazio-tasa konbinatua %77koa da emakumeen artean; eta %74koa, gizonen artean.
- Hori horrela izanik ere, emakumeek desabantailak dituzte, diru-sarrerak sortzeko aukerei dagokienez: emakumeek jasotako diru-sarreraren zenbatespena 5.680 \$-ekoa da; eta gizonena, 8.966 \$-ekoa.

Kolonbiako emakumeen eskubide politikoak eta herritartasuna ez dira erabatekoak. Emakumeen ordezkariak %15etik beherakoa da herri-aukeraketako postuetan, eta 2006ko azken hauteskundeetako joerak beheranzkoak izan dira. Senatuan, 2006ko hauteskundeetan, %7,8 lortu da; eta Ordezkarien Ganberan, %12.⁵

2007ko urriaren 28ko hauteskundeetako emaitzen arabera, lurralde nazional osoan udal-alkateztetarako hautagai aurkeztu ziren 4.691 lagunetatik %12 baino ez ziren emakumeak, eta, eurentatik, 99 baino ez zituzten aukeratu. Udal-kontzejuetan, ordea, 2007an aurreko epealdian baino emakume hautagai gehiago aurkeztu zirenez, emakume zinegotzien ehunekoa %13,34tik %14,49ra igo zen. Edonola ere, emakume hautagaietatik azkenean hautetsitako emakumeetara dagoen aldea handiagoa da aurreko epealdian: 2003an, %16,52; eta 2007an, %14,75.

Departamentu-mailan, 2003an emakume-hautagaitza gehiago aurkeztu ziren arren, 2007an emakume gehiago hautetsi zituzten. 2003ko %13,96 2007ko %18,32ra igo zenez, emakumeen partai-

³ Libardo Sarmientok adierazi duenez, "metodologia berriak onartu egiten du lana aurkitzen ez duten pertsonak eta bilaketaz nekatuta dauden edo etsi egiten duten pertsonak langabetuak izatetik ez-aktiboak izatera igarotzen direla. Hori gertatzean, langabezia-tasa murriztu egiten da. Bestetik, gaur egun ez da beharrezkoa familiaren negozioan ordainsaririk gabe astean 15 ordu baino gehiago lan egitea, langiletzat hartzeko. Orain, nahikoa da gutxienez ordu-bete lan egitea langabetuztat ez hartzeko". 2005-2006ko proiektu hegemoniko balantzea eta aurreikuspenak. Propaganda eta gezur ofizialak.

⁴ PNUD (2007-2008): *Informe de Desarrollo Humano*. Helbide honetan kontsulta daiteke: <http://hdr.undp.org/en/humandev>

⁵ EMAKUMEEN BERDINTASUNERAKO PRESIDENTETZAKO KONTSEILARITZA (2004ko Maiatza-Abuztua): "Participación Política de las Mujeres en Colombia". 1. berripapera. Kolonbia: Genero Gaien Behatokia.

detzak hobera egin zuen eskualde-mailan. 2007an, 32 departamentuak kontuan hartuta, 17tako partaidetza-maila %15 eta %45 artekoa da. Gobernazioetarako, 153 hautagaitzatatik 13 baino ez ziren emakumeak izan (%8), eta, azkenean, bat baino ez zuten hautetsi, Kordobakoa, alegia.⁶

Horrez gain, emakumeen ordezkartza %50ekoa da profesionalen eta teknikarien lan-indarrean. Hala ere, goi-funtzionarioen, zuzendarien eta parlamentarien %38 baino ez dira.⁷

Emakumeak eta lana

2007ko lehen hiruhilekoan:⁸

- Partaidetza-tasa orokorra %71,6koa izan zen gizonentzat; eta %45,7koa, emakumeentzat.
- Emakumeak lan egiteko adina duten biztanleen %52,9 dira.
- Emakumeak ekonomiari begira aktiboak diren biztanleen %41,7 dira.
- Emakumeak ekonomiari begira ez-aktiboak diren biztanleen %68,2 dira, eta etxeko ogibideak (%62,5), ikasketak (%25,7) eta beste jarduera batzuk (%11,7) dituzte bizibide. %31,8 gizon ez-aktiboak dira, eta etxeko ogibideak (%10,4), ikasketak (%52,0) eta beste jarduera batzuk (%37,6) dituzte bizibide.
- Gizonen okupazio-tasa %65,6koa izan zen; eta emakumeena, %39,2koa.
- Emakumeen langabezia-tasa %14,2koa izan zen; eta gizonena, %8,3koa.
- Auzo eta gizarte zerbitzuen eta zerbitzu pertsonalen adarra emakumeen enplegu-iturri nagusia da, guztizko nazionalean %34,9k dihardute-eta bertan. Bigarren adarra, ostera, merkataritza, hotel eta jatetxeena da (%30,3).

Soldata-hausturari buruzko azken datuen arabera, %14,28koa denez⁹, oso larria da, emakumeen etxe-buruzagitza hazi egin delako, 1997-2003ko epealdian %25,8tik %30,9ra igotzean.¹⁰

PNUDeko zein DANeko datuek argi eta garbi egiaztatzen dute emakumeek desabantaila-baldintza argietan parte hartzen dutela ekonomian.

Emakumeak eta gatazka

Barruko gatazka armatuaren ondorioz emakumeek bizi dituzten ondorioak larri-larriak dira, eta larregizko eragina dute euren artean, euren bizi-kalitatearen kalterako direlako eta herritartasuna adierazpen guztietan erabiltzeko gaitasuna murrizten dietelako.

⁶ AECID (2008): *Estrategia de Igualdad de Género de la Cooperación Española en Colombia*. Helbide honetan kontsulta daiteke: www.aecid.es/03coop/3coop_sect/3stragen/estrategia_genero.pdf

⁷ LARA, Silvia (2006): *Las Metas del Milenio y la Igualdad de Género. El caso de Colombia*. Santiago, Txile: CEPAL, Emakume eta Genero Unitatea.

⁸ Sexuen araberako lan-merkatua. Etxeetan egindako inkesta integratu handia. Hiruhileko mugigarria, 2007ko azarora-2008ko urtarrila. Prentsa-aldizkaria. DANE.

⁹ DANE-PNUD (2004ko Martxoa): *La perspectiva de género: una aproximación desde las estadísticas del DANE*. Bogota.

¹⁰ EMAKUMEEN BERDINTASUNERAKO PRESIDENTETZAKO KONTSEILARITZA (2005): *Una mirada de género a la Encuesta de Calidad de Vida 2003: jefatura de hogar y seguridad social en Colombia*. Bogota: PNUD koadernoak, Emakumeen Berdintasunerako Kontseilaritza.

Biztanleen %75 lekualdaketa behartuen biktimak dira (3 milioi lagun, gutxi gorabehera), eta, euren artean, emakumeak eta umeak nabarmentzen dira. "PMAREN eta OPSREN esanetan¹¹, lekualdatutako emakumeen %55 adin emankorrean daude, haurdunen %60k anemia dute eta haurdunen %23ren pisua eskasa da".¹²

2006ko uztailetik 2007ko ekainera, Kolonbiako Juristen Batzordeak erregistratu duenez, gutxienez 127 emakume hil edo desagertu dira indarkeria soziopolitikoaren ondorioz, hau da, emakume bat hiru egunean behin.¹³

2005eko 975. Legean edo Justizia eta Bake Legean zehaztutako mekanismoen bidez, lurrak lehenertzeko edo desagertutako senideak non dauden jakiteko orduan, gutxienez 15 lagun hil zituzten (euren artean, euren eskubideak defendatzen zituzten lau emakume) eta, gutxienez, beste horrenbeste mehatxatu zituzten, Ordain eta Adiskidantza Batzorde Nazionalaren arabera.¹⁴

Politika ekonomiko eta sozial nagusiak

Kolonbiako egiturak egokitzeko politikak hezkuntza eta osasun arloko zerbitzuak ematen zituzten enpresen eta sistemaren pribatizazioan adierazi ziren. 80ko eta 90eko hamarkadetakoa arau-garapenaren ondorioz, giza eskubideen gozamina bermatzeko zerbitzuen atentzio zuzena ziurtatzeko zeukan azpiegitura kendu zioten Estatuari.

90eko hamarkadako eta 2002ko lan-eraldaketek lan-eskubideak ahuldu dituzte, lanpostuak sortzeko aitzakiapean. Era berean, inbertsio atzerritarra erakarri dute eta nazioarteko merkatuetara egokitu dira. Horren ondorioz, emakumeek baldintzek txarrera egin dutenean lortu dute partaidetza handiagoa lan-merkatuan. Horrez gain, Kolonbian milaka sindikalista erail eta desagerrarazi dituen indarkeria soziopolitikoak bere horretan dirauenez, emakumeek politikan parte hartzeko eta antolatzeko dituzten gaitasunak murriztu dira. Beraz, Cecilia Lópezek adierazten duenez, "gaur egun zainketaren ekonomiatzat hartutako ohiko zereginak alde batera utzi gabe, emakumeek esparru publikoa inbaditu dute, eta, euren bi arloetan, oreka makroekonomikoak lehenetsi dituzten politika ekonomikoen eraginpean daude. Azken instantziako gizarte-zerbitzuak ematen dituztenez, Latinoamerikako emakumeen soldatarik gabeko lana gero eta handiagoa da, gastu publikoa gutxitu den neurrian. Aldi berean, merkatu-ekonomian sartu direnean, lan-merkatua ezegonkortzen duten politikei aurre egin behar izan diete".¹⁵

Kolonbiako zenbait politika publiko emakumeentzakoak dira, eta Emakumeen berdintasunerako Presidentetzako Kontseilaritzaren zuzendaritzapean daude. Sintomatikoa da politika orokorretan generoaren ikuspegia ez agertzea. Dena dela, batzuetan, azken lan-erreformako lan-politikan, hau da, 2002ko 789. Legean bezala, emakumeen enplegua handitzeko helburua proposatu zuten. Arauaren eraginkortasunaren ebaluazioetan, ordea, ez zuten alderdi hori kontuan hartu.

¹¹ Elikagaien Munduko Programa - Osasunerako Erakunde Panamerikarra, Europako Batzordearen laguntzaz (2006ko Urtarrila) *Estado nutricional, de alimentación y condiciones de salud de la población desplazada por la violencia en seis subregiones del país*.

¹² RAMÍREZ, María Eugenia; laguntzaileak: Olga Lucía Pérez, Esther Pardo, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko abokatu-laguntzailea eta Emakumeen eta EESKEN Auzitegi Nazionalaren prozesuarekin lotutako emakumeak eta erakundeak (2007ko Urria): *Informe derechos económicos, sociales y culturales de las mujeres en Colombia*. Bogota.

¹³ EMAKUMEAK ETA GATAZKA ARMATUA LAN MAHAIA (2007ko Abendua): *VII Informe sobre violencia sociopolítica contra mujeres, jóvenes y niñas en Colombia*. Bogota.

¹⁴ *Ibidem*.

¹⁵ LOPEZ MONTAÑO, Cecilia (2004ko Ekaina): *Globalización, pobreza y las metas del milenio desde la perspectiva de género. Futuros aldizkaria*, 14. zk., 2006. IV. liburukia. Mexiko. Helbide honetan kontsulta daiteke: www.revisafuturos.info

Merkataritza-politikari dagokionez, Estatu Batuekin negoziatutako eta orain arte sinatu besterik egin ez den Merkataritza Askeko Itunean (TLC), ez ziren emakumeen errealitatea, eskubideak eta interesak kontuan hartu. Beste hainbeste gertatzen da Nazioen Erkidego Andetarraren eta Europar Batasunaren arteko elkarketa-hitzarmenarekin. Nahiz eta generoa elkarrizketa publikoko zutabeko gaitzat hartu, sakonean, hitzarmenaren kontzeptuan, ez dago emakumeen bereizkeria eta txirotasuna gainditzeko inolako asmo berezirik.

Beste batzuetan, informazio-emaielen programetan bezala: soldadu nekazariak (nekazaritzako gizonak armadarekin lotzeko programa) edo ekintzako familiak (segurtasun demokratikorako politikako kideak), argi eta garbi adierazi da bertan egindako balioespenean ez dituztela gatazka armatuaren biktimatzat hartzen eta euren zeregina familia-testuinguruko zainketa eta ugalketa dela. Izan ere, emakumeentzako karga gehiago sortzen dituzte, Estatuak gatazka handieneko eremuetan kokatutako biztanle txiroei ematen dien diru-laguntza zuzenak administratzen dituztelako. Horren ondorioz, askotan, emakumeak jartzen dituzte arriskuan, eragile armatuen artean tentsio handiak sortzen direlako.¹⁶

Oro har, honako hauxe esan daiteke: "Uribe presidentearen lehen administrazioan, 2002-2006an, kontseilaritzak «Bakea eta Garapena Eratzen dituzten Emakumeak» politika garatu zuen, honako 8 arlo estrategiko hauek lantzeko: lana eta garapena; hezkuntza eta kultura; osasuna eta sexu zein ugalketa arloko osasuna; emakumeen aurkako indarkeria; partaidetza politikoa; landa-inguruneke emakumeak; komunikazioa; eta finkapen instituzionala. Hona hemen politika horri buruz nabarmendu daitezkeen kritika nagusiak: inbertsioan zein emakume onuradunen kopuruan izan duen eragin txikia, ekintza horien desegituraketa gobernuak bultzatutako politika orokorraren ondorioz eta emakumeek gizartean duten zereginaren inguruko ohiko rol eta/edo pertzepzio sozialak indartzen dituzten ekintzen garapena. Partaidetza politikoaren arloan dugu horren adibidea, departamentu eta udalerrietako «lehen damek» emakumeentzat sustatutako erkidego-kontseiluak egin direlako, emakumeen arazoak jorratzeko. Politika horien ondorioz, emakumeen aurrerapenerako mekanismoetan lortutako aurrerakuntzak desinstituzionalizatu egiten dira, eta egoera orokorretako emakumeen arazoak nahiz agenda nazionalean eragin handiagoa duten ekintza politikoetarako aukerak isolatzen dituzte".¹⁷

Lorpenak eta aurrera egiteko gaur egungo erronkak

Emakumeek eta euren erakundeek aurrerakuntza handiak erdietsi dituzte, eta, gehienetan, dagokien testuinguru historikoan aztertu daitezke. CEDAWek zehaztutako betebeharrak eta giza eskubideen babeserako sistema osoa emakumeen ikuspegitik betetzeko eskakizunerako eragin-estrategiaren ondorioz, erabaki bereziak hartu dira eta ondorio juridikoak izan dituzte Kolonbiako Estatuan.

CEDAWen aberastasuna euskarri juridikoa izan daiteke emakumeen agenda politikorako. Horretarako, herrialdeko sistema juridiko, politiko, ekonomiko, sozial eta kulturaleko desberdintasunak eta bereizkeriak aitortu behar dira, egoera hori guztia gainditzeko erronka emakumeen iraultza izango delako ia-ia eta oraindik egin gabe dagoelako.

Emakumeen agenda aberasteko, emakumeek jabetze hedatua izan beharko dute emakumeen zein oinarrietako emakumeen antolakuntza-adierazpenetan, politika makroekonomikoaren arloan,

¹⁶ Azterketa xeheak ikusi daitezke in Claudia Mejía eta Lina María Céspedes Báez (2007ko Otsaila): *Planear la visibilización de las mujeres y sus derechos en Retos del Plan de Desarrollo 2006-2010*. Bogota: Plangintza Kontseilu Nazionala.

¹⁷ RAMÍREZ, María Eugenia, *Op. Cit.*

arlo horretan eraginik eduki nahi badute. Aitzitik, emakumeek politika sozialaren edo konpentsazioen zatiak baino ez ditugu geure eraginpean edukiko, eta ez dugu inolako eraginik izango bereizkeria zein txirotasuna sortzen dituzten egiturazko arazoetan.

Beste erronka bat ere badugu, hau da, barruko gatazkarekin zerikusia duten gaietan ahots indartsua izatea eta desadostasun politikoak bideratzea, polarizazio-testuinguruan garatzean Kolonbiako emakumeen gizarte-mugimenduak duen eragina murriztu egin delako.

2004ko martxoan Bogotan abian jarritako "Justiziadun merkataritza: nire eskubideak ez dira negoziatzen" kanpainaren agiriak emakumeen eta euren erakundeen protagonismoa ziurtatu nahi du prozesu sozial eta politikoetan. Horrela, merkataritza-hitzarmenei aurre egin ahal izango diete, eta euren agendak, eskubideak, oinarrizko premiak eta premia estrategikoak kontuan hartzen direla bermatu ahal izango da. Batez ere, kanpainak agerian jarri ditu nazioarteko merkataritzak emakumeen lan-eskubideetan izan dituen eraginak, eta argudioak zein nabaritasunak garatu ditu Kolonbiaren eta Estatu Batuen arteko TLCK emakumeentzat izango dituen ondorioen inguruan. Horretarako, iritzi publikoa mobilizatu eta sentsibilizatzeko estrategiak erabili ditu eta erakundeak, ikerketak eta ekintza politikoak zein juridikoak sendotu ditu.

Guatemala

Nadia Ruiz

Guatemalako testuinguru politikoa

Guatemalako gaur egungo lurraldean herri maia bizi izan zen 1524. urtera arte, hau da, Pedro de Alvarado konkistatzaile espainiarra iritsi zen arte. Une hartan, zibilizazio maia ahulduta zegoen, barne-gatazkak zeudelako eta baliabide naturalak larregi ustiatu zituztelako¹. Horrela, kolonizazioa hasi zen, eta ondorio kaltegarriak sortu ziren bertako herrien artean. Izan ere, emakumeen egoerak txarrera egin zuen, inbaditzaile espainiarren pertzepzio patriarkal eta arrazistaren ondorioz, eurentzat beheragoko mailako izakiak eta objektu sexualak zirelako. Hori guztiori dela eta, "bitxiak lapurtzea bezain ohikoa izan zen emakumeak bahitzea eta bortxatzea".²

Kolonian, legezkoa zen elite kreolak indigenei lurrak kentzea eta jabetzea, esklaboak edukitzea, bortxazko lanak egitea eta kultura zein erlijio arrotzak inposatzea. Sistema horren ondorioz, emakume indigenek lehen gaueko eskubidea jasan behar izan zuten, eta espainiarren bortxaketen edo ohaidetzaren ondorioz jaiotako seme-alabak kendu zizkieten.³ Arlo militarrean nagusi zirenez eta euren estatua kolonialista bezain arrazista zenez, konkistatzaileek herri maia kontrolpean edukitzea lortu zuten. Hala ere, indigenak sarritan matxinatu ziren epealdi kolonialean zehar. Independentzia-guraria areagotu egin zen elite kreolen artean, harik eta 1821ean lortu egin zuten arte. Bertan, hain zuzen ere, oso esanguratsua izan zen ospe handiko María Dolores Bedoyak parte hartzea. Independentziaren ostean, Espainiako kapitalak alde egin zuenean, Ingalaterrakoa zein Alemaniakoa etorri ziren.⁴ Kafea esportaziorako lehen produktua izan zenez, auzo-lurrak galdu egin ziren eta emakume indigenei bizibide nagusia kendu zieten. Konstituzioan indigenak legearen aurrean berdinak zirela adierazi arren, eskubide gutxiago eta betebeharrak gehiago zituzten (esate baterako, finka handietan 150 egun lan egin behar zuten urtean, inolako soldatarik jaso gabe). XIX. mendearan amaieran, AEBetako enpresa asko eta asko sartu ziren, eta, euren artean, United Fruit Company (UFC)⁵ izan zen nagusi.

¹ AAPG (Asociació d'Amistat amb el Poble de Guatemala) (2005): *Guatemala a grandes trazos* monografikoa: 1. dossier. Guatemala: historia, herri-mugimendua eta bake-hitzarmenak.

² JOCÓN, M^a Estela (2005): *Fortalecimiento de la participación política de las mujeres mayas*. Guatemala: Iera ediciones.

³ *Ibidem*.

⁴ AAPG (2005), *Op. Cit.*

⁵ *Ibidem*.

XX. mendearen hasieran, Estrada Cabrera diktadorea kargutik kentzeko matxinatu ondoren eta tarte labur batean diktadura militarrik gabe egon ondoren, 1921ean hiriko elite kreoleko emakumeen taldeak, "Gabriela Mistral Sozietateak", emakumeen sufragioa proposatu zuen Kongresuan, eta boto bakar batengatik ez zuen aurrera egin⁷. 1925ean, emakume langileek lehen greba egin zuten, "La Moderna" izeneko kafe-etxalde alemaniarrean. Grebaren ebazpena emakume langileen aldekoa izan zen.⁶

Diktadorek eragindako zapalkuntzaren eta desberdintasun sozio-ekonomikoaren ondorioz, 1944ko urriko iraultza gertatu eta "Guatemalako udaberri demokratikoa" hasi zen⁸, Juan José Arévaloren eta Jacobo Arbenz-en presidentetzapean. Lehen damen (presidenteen emazteen) zeregina nabarmendu zen, ongintzako jardueraz arduratzen zirelako. Dena dela, neurri batzuk emakume langileen hoberako izan ziren; esate baterako, haurtzaindegiak eta eskolako jantokiak. Gizartea demokratizatzeko borondate politikoa egon zen: indigenen bortxazko lana eta auzolanen desjabetza debekatu ziren; hainbat alderdi (euren artean, komunista) eta sindikatu legeztatzen ziren; langile, nekazari eta indigenen erakundeak sortu ziren; nekazaritza eraginkortasunez eraldatu zen; Lanaren Kodea onartu zen; izatezko ezkontza onetsi zen...⁹ Emakumeei zenbait eskubide aitortu zizkieten, Herritarren aldeko Emakumeen Batasuna bezalako erakundeei esker. 1945ean, emakumeen sufragioa onartu zen¹⁰, modu partzialean izan bazen ere: gutxiengoa ziren emakume alfabetatuentzat baino ez. Gizonen aldean, botoa hautazkoa zen eta, ez, derrigorrezkoa. Horrez gain, gizon alfabetatugabeek bozkatu egiten zuten, ezkutuan egiten ez bazuten ere. 1965era arte, emakume guztiek ez zuten bozkatzeko eskubiderik izan.

Emakumeen partaidetza oso aktiboa izan zen hamarkada horretan zehar: diktadoreari muzin egiteko manifestaldietan (poliziak María Chinchilla maistra hil zuen bertan), Maiatzaren 1eko ekitaldietan, Guatemalako Gizarte Segurantzako Institutuaren irekieran eta Guatemalako Emakumeen Aliantza bezalako alderdi zein erakundeen sorreran. Aliantzak, hain zuzen ere, emakumeentzako eskubide ekonomiko, sozial eta politikoa aldarrikatu zituen: emakume nekazarietako lurra eta kreditua, emakume langileen lan-babesa, emakume merkatari txikiak laguntzak eta etxeko andreetzako bizi-kostuaren jaitsiera. Horrez gain, 1947an, Emakume Demokratikoen Amerika arteko I. Biltzarra egin zen Guatemalan.¹¹ Nolanahi ere, bidezkoa da esatea aurrerapen horiek emakume indigena eta landa-inguruneko emakumeentzat baino onuragarriak izan zirela emakume mestizo eta hiriko emakumeentzat.

1954. urtean, AEBek "betiereko tiranotasunaren herrialdeko"¹² udaberri demokratikoari eman zion amaiera, Inteligentzia Agentzia Zentralaren (CIA) eta jarduketa militarren bitartez. Eraso komunista gertatu zela esanda, Arbenz kargutik bota eta Castillo Armas koronela jarri zuen gobernuan. Kontrairaultzak aurreko gizarte-neurriak desegin zituen eta gizarteko arlo guztiak militarizatu

⁶ CASAÛS ARZÚ, Marta E. (2001): "Las redes teosóficas de mujeres en Guatemala: la Sociedad Gabriela Mistral, 1920-1940" in *Revista Complutense de Historia de América*, 27:219-255.

⁷ CARRILLO, Ana L. (1991): "Indias y ladinas. Los ásperos caminos de las mujeres en Guatemala" in *Nueva Sociedad*, 111: 109-118.

⁸ CASTELLANOS HOWELL, Álvaro (2007): "Primavera Democrática: ¿Una gloriosa victoria?". Guatemala: El Periódico: iritzia. Helbide honetan kontsulta daiteke: www.elperiodico.com.gt/es/20071207/opinion/46417

⁹ RODRIGUEZ DE ITA, Guadalupe (2001): *Participación política de las mujeres en la primavera democrática guatemalteca (1944-1954)*. Mexiko: José María Luis Mora doktorea Ikerketa Institutua.

¹⁰ MONTENEGRO, Nineth (2002): "El desafío de la participación política de la mujer en Guatemala" kasuaren azterketa. Argitaratzaileak: Méndez-Montalvo, M. eta Ballington, J. *Mujeres en el parlamento: más allá de los números*. Eskuliburuen seriea. Stockholm, Suedia: IDEA (Institute for Democracy and Electoral Assistance).

¹¹ RODRIGUEZ (2001), *Op. Cit.*

¹² ALBIZURES, M.A. (2006): "Muere un coronel de la primavera: Primavera en el país de la eterna tiranía". Guatemala: El Periódico: iritzia.

zituen. Horrez gain, militarrek harreman estu-estua zuten nekazaritzako eta esportazioko sektoreekin eta kupula politikoeekin. "Komunismoaren aurkako gurutzada" instituzionalizatu zen, eta gobernuak izu sistematikoa erabili zuen, matxinatuen aurka borrokatzeko eta gizartea kontrolatzeko. Orduz geroztiko gobernuak militarrek izan ziren, iruzurrezko hauteskundeetan edo estatu-kolpeen bidez.¹³

60ko hamarkadan, lehen talde gerrillariak eratu ziren, desberdintasun sozio-ekonomikoaren eta estatuak eragindako indarkeriaren ondorioz. Hasiera batean, matxinatutako militar gazteak eta hiriko unibertsitario ezkertiarrek izan ziren taldekideak, baina apurka-apurka, emakumeak, indigenak eta lan-ingurune biztanleak ere sartu ziren. Hori dela eta, gizarte-mailen arteko desberdintasunak ez ezik, desberdintasun etnikoak eta genero-desberdintasunak ere izan zituzten eztabaidagai. Estatuaren indarkeriaren goraldia 1979tik 1984ra gertatu zen (Lucas Garcíaren eta Ríos Montt-en gobernuetan), sarraski, desagertu behartu eta genozidiotzat hartu daitezkeen giza eskubideen urradura gehienak sasoi horretan garatu zirelako. Horren adierazgarri, 1981ean Espainiako Enbaxada erre zuten. Matxinatuen aurkako politikan, "suntsitutako lurra" zen nagusi. Bestetik, etxalde eredugarriak eta garapen-poloak (lekualdatutako biztanleentzako nolabaiteko kontzentrazio-eremuak), bai eta autobabes zibilerako patruilak ere (armadak behartuta gerrillaren aurka borrokatu behar ziren biztanle zibil armatuak). Nabarmendu behar da neurri horiek herri indigena akabatzea zutela helburu, gerrilla komunistaren aurkako borrokaren aitzakiarean. Bost mendeko menderakuntzan zehar euren nortasunari eusteko indarra eman zien multzo kulturala suntsitu nahi zuten, kontrola lortzeko orduan eragozpenak sortzen zituzten eta.¹⁴

Testuinguru horretan, era guztietako erakunde herri-mugimendu beligerantea sortu zen: giza eskubideak (GGEE), nekazariak, sindikatuak, emakumeak, ikasleak, indigenak eta gatazkapean bizi zirenak. 1978an, Nekazarien Batasunaren Batzordea (CUC) sortu zen; 1984an, Elkarrekiko Laguntzarako Taldea (GAM); 1988an, Guatemalako Emakume Alargunen Koordinakunde Nazionala (CONAVIGUA); Guatemalako Lekualdatuen Kontseilu Nazionala (CONDEG); Errefuxiatuen Batzorde Iraunkorrak (CCPP); Erresistentziako Biztanleen Erkidegoak (CPR); Mamá Maquim (Emakume Errefuxiatuen Erakundea); Somos Muchas Taldea; Runujel Junam Erkidego Etnikoen Kontseilua (CERJ)...¹⁵ Era berean, emakumeak eta indigenak gizarte-borrokan parte hartzen hasi ziren; esate baterako, Nineth Montenegro, GAMen; edo Rosalina Tuyuc, CONAVIGUAN. 1987. urtean, herri-erakunde nagusiak Sindikatu eta Herri Ekintzaren Batasunean elkartu ziren (UASP), eta, 1994. urtetik aurrera, bete-betean parte hartu zuen Gizarte Zibilaren Batzarrean, hau da, Guatemalako Batasun Iraultzaile Nazionalak (gerrillak) eta gobernuak negoziaketetan hitzartutako organoan. Negoziaketa horien ondorioz, gainera, Bake Irmo eta Iraunkorrerako Hitzarmenak sinatu ziren 1996ko abenduan, eta barne-gatazka armatuari eman zioten "amaiera".¹⁶

Hona hemen gerra "ixtean" agertu ziren zenbakiak: 200.000 hildako, 50.000 desagertu, milioi bat barne-lekualdatu eta 100.000 errefuxiatu, Mexikon baino ez. Biktimen %80 mailak izan ziren, eta gerrako armatzat erabilitako indarkeria sexualak milaka emakumeri egin zien kalte.¹⁷ 1996ko bakearen ondorioz, gai garrantzitsuei buruzko erabakiak sartu ziren indarrean: nekazaritzaren egoera, landa-garapena, deszentralizazioa, gizarte-zerbitzuak, herri indigenen nortasuna eta

¹³ AAPG (2005), *Op. Cit.*

¹⁴ *Ibidem.*

¹⁵ *Ibidem.*

¹⁶ *Ibidem.*

¹⁷ ODHAG (Guatemalako Artzapezpikutzaren Bulegoa Giza Eskubideetarako) (1998): *Guatemala Nunca Más: Recuperación de la Memoria Histórica*. Donostia: hirugarren prentsa.

eskubideak, justizia-sistemaren eraldaketa, herritarren segurtasuna, egoera fiskala, eraldaketa militarra, estatuko inteligentzia-sistemen aldaketa, hauteskudeen eta alderdi politikoen erreforma, gizarte zibilaren partaidetza politikoa, emakumeen eskubideak, lekualdatuen, errefuxiatuen eta deserrotuen erabateko integrazioa...¹⁸ Guatemala etnia, kultura eta hizkuntza anitzeko herrialdea zela aitortu zen, Nazio Batuen Misioa sortu zen Guatemalarako (MINUGUA) eta GGEEen Urradurak Argitzeko Batzordea eratu zen. Batzordeak 1999an aurkeztutako txostenaren arabera, indarkeriaren %97 armadak garatu zuen; eta %3, gerrillak. Gainera, Lucas Garciaren eta Rios Montten gobernuak genozidak zirela salatu zuen. Guatemalako Apezpikuen Batzarrak Gerardi monsinorea aukeratu zuen, Adiskidantzarako Batzorde Nazioanalean parte hartzeko. Edonola ere, Oroimen Historikoaren Berreskurapenari buruzko Elizbarruti arteko Proiektuko (REMHI) emaitzak aurkeztu eta bi egunera, inguruabar arraroetan hil zuten 1998ko apirilaren 24an.

Bake Hitzarmenak sinatzean, Guatemalako gatazkaren arrazoiak eta indigenen zein emakumeen bazterketa agerian geratu baziren ere, gobernu "demokratiko" batek ere ez ditu kontuan hartu bere programa politikoetan, eta jarraipenik ere ez diete eman. Aitzitik, neurri neoliberalak bultzatu dituzte. Zenbait aldaketa alde batera utzita (hezkuntza elebiduna, herritarrek parte hartzeko legeak, indigenen zein emakumeen eskubideak babestu eta sustatzeko erakunde publikoen sorrera...), 36 urteko barne-gatazka armatua eragin zuten arrazoiek bere horretan dira. Are gehiago, gertakari berriek egoera larriagotu dute: zerbitzu publikoen pribatizazioa, landa-inguruetik hirirako eta Iparraldeko herrialdeetarako migrazioa, gizarte-erakundeekin zerikusia dutenen jazarpena eta hilketa, armen, drogen eta pertsonen legez kanpoko trafikoa, atzerriko konpainiek ustiatutako baliabide naturalak, umeen lana, delinkuentziaren eta herritarren segurtasunik ezaren gorakada, hondamendi naturalek eragindako galera pertsonal eta materialak (2005eko Stan ekaitz tropikala, esaterako), langabezia edo emakumeen aurkako muturreko indarkeriaren gorakada, adierazpide gorenaren feminizazioa izanda.

Gaur egungo egoera sozio-ekonomikoa

Guatemala biztanle-kopuru handiena duen herrialdea da Erdialdeko Amerikako istmoan: 13 milioi bizilagun.¹⁹ Indigenen ehunekoa kontsultatutako iturriaren arabera aldatzen da, baina, gutxi gorabehera, %55 ingurukoa da (Latinoamerikako handienetakoa). %45, ordea, mestizoak edo ladinoak dira. Indigena gehienak maiak diren arren, herri gutxiengodunak ere badaude: garifunak (Karibeko kostaldean bizi dira, eta Afrikako esklaboen ondorengoak dira) eta xinkak (maia ez den herri amerindiarra da). Maien artean, gainera, 21 hizkuntza-erkidego edo talde etniko daude, eta ugariak k'iche', mam, kaqchikel eta q'eqchi' dira. Hizkuntza ofiziala espainiera izan arren (indigenen erdientzat ia-ia ez da ama hizkuntza²⁰), beste 23 hizkuntza nazionalak ere lortu dute aitorten ofiziala (21 hizkuntza maiak, garifuna eta xinka). Gehiengodunen erlijioa katolikoa da (%60), baina erlijio "kostunbrista" ere badago, hau da, maien espiritualtasunarekin eta mundu-ikuskerarekin lotutakoa. Nolanahi ere, XX. mendeko bigarren zatitik aurrera, gero eta sekta eta eliza ebanjeliko gehiago daude, eta, batez ere, indigenen zein landa-inguruneko biztanleen artean hedatu dira. Gizarte-erakunde ugariaren esanetan, AEBek eta zenbait oligarkia nahiz sektore militar nazionalak babestutako behe-intentsitateko gerra-estrategia da, biztanleak banatzen eta kontrolatzen jarraitzeko.

¹⁸ AAPG (2005), *Op. Cit.*

¹⁹ RIVADENEIRA, Luis (2001): *Guatemala: población y desarrollo. Un diagnóstico sociodemográfico*, Centro Latinoamericano y Caribeño de Demografía (CELADE). Santiago, Txile: CEPALeko Biztanleria Atala eta CELADEko Biztanleria eta Garapen Arloa.

²⁰ PNUD (Nazio Batuen Garapenerako Programa) (2005): *Diversidad étnico-cultural y desarrollo humano: La ciudadanía en un Estado plural*. Giza Garapenari buruzko Txosten Nazionala 2005. Guatemala: PNUD.

Biztanle-kopuruaren hazkuntza-tasak behera egin badu ere, handia da oraindik, Guatemalako ugalkortasun-tasa Latinoamerikako handiena delako: 4,2 seme-alaba emakume bakoitzeko.²¹ Nerabeen ugalkortasuna gizarte-arazoa da, eta oso eragin handia du emakume indigenen eta landa-ingurunearen artean. Guatemalako biztanleak gazte-gazteak dira: biztanleen %44 14 urtetik beherakoak dira, eta %75ek ez ditu oraindik 34 urte bete.²² Bestetik, herrialde hau eskualdeko gainerako herrialdeak ez bezalako da, landa-ingurunekeo biztanleen kopurua handia delako oraindik: gaur egun, Guatemalan, jende gehiago bizi da landa-ingurunean hiri-guneetan baino.²³

Gobernuak hezkuntzan eta osasunean egindako gastu soziala Latinoamerikako txikienetakoa da.²⁴ Zenbait adierazle dira horren adierazgarri: nazio-mailan, analfabetismoa %36koa da; emakumeen artean, %51koa; eta indigena gehien dituzten eremuetan, %90ekoa, emakumeen artean, batik bat.²⁵ Landa-ingurunean, umeen %81 ez dira eskolara joaten; eta hirian, %51. Neskatilen %17k baino ez dute lehen hezkuntza amaitzen. Landa-ingurunean, ordea, neskatilen %66k eskola uzten dute hirugarren maila amaitu baino lehen.²⁶ Osasun-adierazleei dagokienez, 5 urtetik beherako umeen erdiek desnutrizioa dute.²⁷ Horrez gain, jaiotzako bizi-itxaropena kontinenteko txikiena da Haitiren eta Boliviaren ostean: 66,7 urtekoa, gizonentzat; eta 73,8 urtekoa, emakumeentzat.²⁸

Baliabideen banaketa historiko bidegabea munduko desberdinetakoena denez, biztanleen %60,9 txirotasun dira (euren diru-sarrerak elikagaien oinarritzko otzararen kostuaren bikoitza baino txikiagoak dira), %28,8 behar gorri-gorrian bizi dira (euren diru-sarrerak oinarritzko otzararen kostua baino txikiagoak dira). Landa-ingurunean, ehuneko horiek %68 eta %37,6 dira, hurrenez hurren. Biztanleen kintil txiroenak diru-sarrera nazionalen %2,1 jasotzen dituzte; eta kintil aberatsenak, %63. Txirotasuna zenbait faktoreren arabera banatzen da: etnia, generoa, landa-ingurunea/hiria eta hezkuntza-maila. Beraz, batez ere, emakumeak, indigenak eta landa-ingurunekeoak dira txiroenak. Behar gorri-gorrian dauden etxeen %93,2 landa-ingurunean daude.

Lurra banatzeko egitura ez da lar aldatu azken hamarkadotan, eta, oraindik ere, gutxiren eskuetan dago: ustiategi txikien %94,1ek luraren %18,6 dauka; eta ustiategi handien %1,5ek, luraren %62,5. Horrela, Guatemalako gizartearen polarizazio sozio-ekonomikoa indartzen da, bertako biztanle gehientzat lurra eskuratzea ezinbestekoa delako euren elikaduraren subiranotasuna bermatzeko eta luraren banaketa bidegabea txirotasunaren arrazoi nagusia delako. Lurra honelaxe banatzen da sexuaren arabera: %93,6 gizonena da (%70 ez dira indigenak eta %23,6 indigenak dira); eta %6,5 baino ez da emakumeena. Finka handiei dagokienez, are ehuneko handiagoak daude indigenak ez diren gizonen eskuetan (%81,3); ondoren, indigenak daude (%13,6); eta azkenik, emakumeak (%5,1). Etnien arabera ere, luraren banaketa oso desberdina da: batez beste, indigenak ez direnek indigenek baino lur gehiago dute, hiru bider gehiago, hain zuzen ere. 1979. urteaz geroztik, landa-ingurunekeo biztanleek lurra galdu dituzte (gehienak indigenak dira): %65ek euren lurra zeukaten, %12k errentan zuten eta gainerako %23 lurrik gabeko nekazariak ziren. Gaur egun, etxeen %52k dute lurra, %19k errentan daukate eta %29k ez dute lurrik, hau

²¹ CEPAL (Nazio Batuetako Ekonomia Batzordea Latinoamerikarako eta Kariberako) (2006): *Anuario estadístico de América Latina y el Caribe, 2006*: gizarte-estatistikak.

²² *Ibidem*.

²³ RIVADENEIRA (2001), *Op. Cit.*

²⁴ OMS (Osasunaren Munduko Erakundea) (2006): *Estrategia de Cooperación*. Laburpena. Guatemala.

²⁵ PNUD (2005), *Op. Cit.*

²⁶ MONTENEGRO (2002), *Op. Cit.*

²⁷ OMS (2006), *Op. Cit.*

²⁸ CEPAL (2006), *Op. Cit.*

da, landa-inguruneko biztanleen herenak ia-ia. Lurrik gabeko etxeetan, emakume-buruzagitzaren ehunekoak hirukoitza da lurra dutenen edo errentan dutenen aldean, hau da, emakumeen ardurapean dauden familiek lurra eskuratzeko aukera gutxiago dituzte.²⁹ Hona hemen arrazoiak: gizartean sustraitutako eredu patriarkal kulturalak (herentziak jasotzeko genero-desberdintasuna, gizonen ezkontzan dituzten pribilegioak...) eta gobernuen nahiz merkatuak betiketutako egitura-desberdintasuna. Izan ere, ez dute emakumeen partaidetza lurra banatzeko programetan kontuan hartu edo ez diete emakumeei erosten utzi.

Guatemalako Latinoamerikako bederatzigarren ekonomia handiena den arren, zerga-ordainketa-gatiko diru-sarrerara txikiak jasotzen ditu: Barne Produktu Gordinaren (BPG) %8 ingurukoa. Erdialdeko Amerikarako batezbestekoa, ostera, %17koa da; eta Latinoamerikakoa, %23koa.³⁰ Bertako diru-sarreraren iturri nagusia nekazaritzako produktuen ustiapena da (batez ere, kafea eta labore bakarreko gainerako produktuak: bananondoa eta azukrea); eta, ondoren, industria, merkataritza, zerbitzu-sektorea eta turismoa. Edonola ere, azken urteotako joeraren arabera, betiko nekazaritzaren garrantziak behera egin du, eta zerbitzuak, turismoa eta ezohiko produktuen esportazioa areagotu dira (oihalak, izkirak, loreak, haragia, kardamomoa...). Guatemalako BPG etengabe hazi den arren, txirotasuna ez da gutxitu. Landa-inguruneko langabezia-tasak handiak dira, eta, bertan, nekazaritza da bizibide nagusia. Hirian, ordea, enplegu informalak gero eta garrantzi handiagoa du, baina emakumeentzat eta familia ardurapean duten emakumeentzat, batik bat. Izan ere, Guatemalako familia guztien %20 dira horrelakoak.³¹ Batez beste, emakumeek gizonen baino diru-sarrerara gutxiago sortzen dituzte urtean, erdia, alegia, soldatapeko lan emankorrerako arduraldia txikiagoa baita emakumeen artean, ugalketan nahiz etxean ordaindu gabeko eta estatuak kontabilizatu gabeko lana garatzean. Horrez gain, gizonen eta emakumeen soldatak desberdinak dira, lan berbera egin arren; emakumeek gizonen soldataren %50-%80 kobratzen dute, prestakuntza-mailaren eta sektorearen arabera.³² Umeen lana oso hedatuta dago Guatemalan. Sustrai kulturalak eta egiturazkoak ditu. Zenbatespenen arabera, milioi bat umek soldatarik jaso gabe lan egiten dute oso-oso baldintza desagokietan.³³ Nazioarteko migrazioari buruzko datu zehatzik ez dagoen arren, gutxi gorabehera urtean 90.000 lagunek (gehienak gizon gazteak dira) alde egiten dute herrialdetik, AEBetan, Kanadan eta Mexikon lan-iturri hobeak bilatu nahian. Diru-sorten bidalketa NPGren %9,5 da³⁴, eta kafearen esportazioak sortutako diru-sarrerak gainditzen ditu.

Oinarrizko zerbitzuen estaldura ere ez da nahikoa: biztanleen %75ek baino ez dute edateko ura (%90ek, hiri-gunean; eta %60k, landa-ingurunean). Bestetik, biztanleen %47k baino ez dituzte saneamendu-sistemak (%77k, hiri-gunean; eta %17k, landa-ingurunean).³⁵ Kaltetu nagusiak, beraz, landa-inguruneko emakumeak eta umeak dira, eta denbora asko eman behar dute ura garraiatzen, euren osasuna arriskuan jarrita eta eskolara joan gabe. Herrialdeko 329 udalerrietatik, 15ek baino ez dute prozesuren bat ezartzen ur grisean. Gainerakoek, aldiz inolako tratamendurik gabe isurtzen dituzte euren efluenteak. Zenbatespenen arabera, uraren %40 baino gutxiago dago desinfektatuta hiri-guneetan; eta %15 baino gutxiago, landa-ingurunean. Hori dela eta, gaixotasun hidrikoak heriotza-arrazoi nagusien artean daude nazio-mailan.

²⁹ PNUD (2005), *Op. Cit.*

³⁰ CEPAL (2006), *Op. Cit.*

³¹ PNUD (2005), *Op. Cit.*

³² *Ibidem.*

³³ PREAL (Latinoamerikako eta Karibeko Hezkuntzaren Eraldaketa Sustatzeko Programa) (2006): *Opciones educativas para la niñez trabajadora*. Guatemala: PREAL.

³⁴ OIM (Migrazioetarako Nazioarteko Erakundea) (2005): "Cuadernos de Trabajo sobre Migración", 23. koaderno, Diru-sortei buruzko inkesta 2006, Osasun eta hezkuntza arloko inbertsioa.

³⁵ OMS (2006), *Op. Cit.*

Gaur egungo garapen-ereduak txirotasun ikaragarria sorrarazten du, eta, gainera, betikotu egiten da, ingurumenaren hondamendiaren ondorioz. Lurzoruen emankortasunaren galera, baso-galera, higadura eta ur-iturrien kutsadura ingurumen-arazo nagusiak dira. Era berean, Guatemala petrolio-tokiak eta petrolio-ustiapena dituen herrialde bakarra da Erdialdeko Amerikan. Meatzaritzak eta, batez ere, atari zabaleko urre-ustiapenak gora egitean, kalte ikaragarriak sortu dira gizartean zein ingurunean. Generoari dagokionez, Guatemalako Generoagatiko Haustura Globalaren Indize txarrrena dauka Latinoamerika osoan, Munduko Ekonomia Foroak adierazi duenez, 128 herrialderen artean 106. postuan baitago. Azken 6 urteotan, 2.000 emakume hil dituzte eta bertan erabilitako indarkeria izugarria izan da. Hori guztiori feminizidiotzat hartu dute giza eskubideen (GGEE) eta emakumeen erakunde askok.

Politika ekonomiko eta sozial nagusiak

Guatemalako gizarte-politikan, trantsizio demokratikoa izan da ezaugarri bereizgarriena, eta, horren arabera, emakumeak eta indigenak dira egoera txarragoan bizi diren taldeak. Gertaera garrantzitsuenak Bake Hitzarmenak sinatzea izan zen (1996). Zeharkako genero-ikuspegia duten arren eta 11 hitzarmenetan emakumeen egoera era berezian jorratzen ez den arren, aurrerapen handiak egin dituzte: Biztanleak Berriro Finkatzeko Hitzarmenean, gobernuak emakumeen aurkako bazterketari aurre egingo dio, lurra, etxebizitza eta kredituak lortzeko orduan, eta genero-ikuspegia hartuko du kontuan politika nazional guztietan. Herri Indigenen Nortasunari buruzko Hitzarmenean, emakume indigenen bazterketa hirukoitza onesten da: emakumeak, indigenak eta txirotasunak dira. Alderdi Sozio-ekonomikoei buruzko Hitzarmenean, emakumeek garapenean parte hartzea ezinbestekoa dela adierazten da, onetsi egiten da euren ekarpena gutxietsi egin dela gizartean eta eskubideen berdintasun eraginkorra aldarrikatzen da. Estatuaren hilkortasunaren aurka borrokatuko da, osasunerako aurrekontuaren %50en bitartez. Azkenik, Botere Zibilarri buruzko Hitzarmenean, gobernuak eskubideei buruzko hezkuntza-programak zabalduko ditu eta herritarren partaidetza sustatuko du hirian zein landa-ingurunean.

Beraz, Bake Hitzarmenak oso ekimen garrantzitsua dira gizarte-politikari dagokionez, nahiz eta, lehen adierazi dugunez, gobernu batek ere jarraipenik eman ez dion. Horren ondorioz, gizarte-erloto legeak egin dira, eta herritarren zein, batez ere, emakumeen partaidetza sustatu dute. Esate baterako, Udal Kodea (2002), zeinaren arabera, familiari, emakumeei eta umeei buruzko batzordea ezarri behar baita udal-kontseilu bakoitzean; Landa eta Hiri Garapenerako Kontseiluei buruzko Legea, Garapenerako Arlokako eta Estatuako Kontseiluan emakumeen partaidetza bultzatzeko; eta Gizarte Garapenera buruzko Legea (2001), zeinaren arabera kontzeptu garrantzitsuak hartzen baitira kontuan: amatasun eta aitatasun arduratsuak, seme-alaben kopurua eta euren arteko urteak aukeratzeko eskubidea, ugalketarako osasuna eta familia-plangintza edo haurdunaldi osasungarria. Horrez gain, gizarte-arazo berriak daudela onartzen du: nazioarteko migrazioa eta arrisku naturaleko eremuetako biztanleak. Estatuaren betebeharren artean, nabarmendu behar da informazio estatistikoa sexuen arabera banatu behar duela eta genero zein etnia arloko estereotipoen aurka borrokatu behar dela gizarte-komunikaziorako mezuetan. Lege horretan, emakumeen osasuna ugalkortasunera mugatzen da, eta ezkontzaren legeko oinarrian eraturako familia gizarteko oinarritzko unitatea dela nabaritzen da, baina, aldi berean, onartu egiten da izatezko bikoteek eta aita nahiz ama ezkongabeek eskubide berberak dituztela familia-gune moduan.

2001. urtean, 1995eko gizarte Garapenera buruzko Goi Bileran lortutako konpromisoen ondorioz, Guatemalako Errepublikak Txirotasuna Murrizteko Estrategia (ERP) jarri zuen abian. Honako printzipio hauek zituen: landa-inguruneari lehentasuna ematea, kudeaketa publikoa sendotzea, deszentralizatzea eta herritarren partaidetza sustatzea. Ardatz egituratzaileak bidezko hazkuntza ekonomikoa eta kapital pertsonal zein fisikoko inbertsioa dira. Hona hemen zeharkako gaiak: kultura aniztasuna, genero-berdintasuna eta hondamendi naturalen aurreko ahuleziaren murrizketa.

Nolanahi ere, estatuak txirotasunaren aurka hartu dituen neurrietan, ez da inolako elkarriketarik, azterketarik eta eztabaidarik egon txirotasuna sortu eta berregiten dutenen eta kaltetuen artean. Hainbat gizarte-erakunderen ustez, gainera, ez dute herri indigenen eta emakumeen ikuspegia kontuan hartu.

Arlo ekonomikoari dagokionez, nazioaren bilakaeran liberalizazio eta irekiera komertziala izan dira nagusi, Erdialdeko Amerikako gainerako herrialdeetan bezala. Prozesua 60ko hamarkadan hasi zen, Erdialdeko Amerikako Integrazio Ekonomikorako Itun Orokorra sinatzean. Guatemalako, hain zuzen ere, 1961. urtean izenpetu zuen.³⁶ 80ko eta 90eko hamarkadetako kanpo-zorren krisitik aurrera, Washingtingo Adostasunaren babespean, Latinoamerikako herrialde askok Egitura Egokitzeko Programak (PAE) ezarri zituzten, egonkortasun makroekonomikoa lortzeko asmoz. Bertan, merkatuak aberastasuna banatzen zuen, gastu publikoa murriztu zen zerga-defizitari aurre egiteko, ondasunak eta zerbitzuak desregularizatu ziren, finantza-merkatua liberalizatu zen, interes-tasak eta trukaneurriak malgutu ziren, estatuko enpresak pribatizatu ziren, lan-arauak malgutu ziren eta nazioarteko merkataritza askerako zergak murriztu ziren. Zenbait ikerketaren arabera, PAEen ondorioz, gizarte-talde ahulenak baztertu egin zituzten eta behar gorrian geratu ziren: landa-ingurunekeo biztanleak, langileak, emakumeak eta adinekoak. Izan ere, programa horiek ez zituzten herrialdeen ezaugarri bereizgarriak kontuan hartu eta, are gutxiago, biztanle-talde horien premia bereziak.³⁷

Guatemalan, PAEak Álvaro Arzú-ren gobernuan hasi ziren (1996-2000), eta Portilloren (2000-2004) zein Bergerren (2004-2008) gobernuetan jarraitu zuten. 1997an, estatuko telefonia-enpresa (GUATEL) saldu zen, eta, 1998an, energia elektrikoarena (EEGSA), bai eta bere banaketa-enpresa ere (INDE). Hurrengo urteetan, Guatemalako itsas portuen, posten eta trenbideen emakidak gartu ziren. Gaur egun, Guatemalako Gizarte Segurantzaren Institutuaren, Turismo Institutuaren eta zenbait aire-terminalen emakidak egingo dira. Guztira, Arzúren gobernuak 56 erakunde publiko saldu edo emakidan eman nahi izan zituen.³⁸ Osasun eta hezkuntza arloko zerbitzuak ere pribatizatu egin dituzte, baina apurka-apurka eta zeharka, deszentralizazioaren eta autokudeaketaren aitzakiapean, eta nolabaiteko izaera "soziala" eman diete. 2002an, onartu egin zen osasunaren aldeko patronatuek eta elkarteek Osasun Publikoaren Ministerioko zerbitzuetan parte hartzea. Erakunde horietako kideak enpresa-taldeak eta fundazioetako ordezkariak baino ez dira, eta, bertan, ezin da ministerioko langilerik egon. Epealdi horretan, biztanleen atentzioaren kalitateak hobera egin zuen arren, laborategietako analisiak, erradiografiak, kirurgiak eta azterketa bereziak ordaindu behar ziren. Hori dela eta, aurrerantzean ez ziren doakoak izan eta euren estaldurak txarrera egin zuen. Horren ondorioz, Guatemalako emakumeek eta, batez ere, landa-ingurunekeo emakumeek (gehienak indigenak dira) osasun-zerbitzuak eskuratzeko aukera gutxiago dituzte, oso-oso diru-sarrerara gutxi edukitzean ez dutelako osasun-gastuetan inbertitserik. Bestetik, lan-zama handiagoa dute, etxean gaixoak zaindu behar dituztelako, osasun-zentroetara joateko aukerarik ez edukitzean. "Hezkuntzaren kudeaketarako eta finantziatorako eredu berria" ezartzeko, gobernuak *Visión Educación* agiria sortu zuen, "hezkuntzako eragileen eskumenak zehazteko: familiako gurasoak, maisuak, establezimenduetako zuzendariak, departamentuetako zuzendariak eta alkateak".³⁹ Abian jartzeko, Hezkuntzaren Garapenerako Autokudeaketa Programa Nazionala (PRONADE) eta hezkuntza-lantaldeak (COEDUCAS) sortu ziren. Lantaldekideak familiako gurasoak

³⁶ RENZI, M^a Rosa eta FAUNÉ, M^a Angélica (2004): *Perfil de género de la economía del istmo centroamericano (1990-2002): consideraciones y reflexiones desde las mujeres*. Managua: PNUD.

³⁷ *Ibidem*.

³⁸ BPC (Chiquimulako Liburutegi Pribatua, Guatemala) (2006): *Investigación y Desarrollo para los Estudiantes de la Región*. Guatemala: Pribatizazioen Monografia.

³⁹ MINEDUC (Guatemalako Hezkuntza Ministerioa) (2005): artikulua: "Visión Educación presenta propuesta al país". Helbide honetan kontsulta daiteke: www.mineduc.gob.gt/articulos_2005/julio/8/noticia8.htm

ziren, eta ikastetxe bakoitza kudeatzen zuten. Edonola ere, emakumeak gutxitan dira lantalde horietako zuzendaritza-batzordeetako kideak, eta generoaren arabera ohiko zereginetan baino ez dihardute: eskolako jantokiak. Jantokiek, hain zuzen ere, umeen nutrizioa hobetzea dute helburu, baina soldatapekoa ez den emakume-lanekuz dabilta funts-funtsean. Beraz, Guatemalako PAEek ez zieten emakumeen premiei aurre egin, eta, horren ordez, soldatarik gabeko lan-zama handitu zuten emakumeen artean. Aldi berean, emakumeen eskubideak gutxietsi zituzten, garestiak izatean zerbitzuak eskuratzeko aukera gutxiago zituztelako. Horrela, zerbitzuok esparru publikoan sortzen zituzten kostuak esparru pribatura eraman ziren, emakumeen lana edozertara egokitzen zelako eta emakumeak soldatapeko eta soldatarik gabeko lan emankorraz eta ugalketaz arduratzen zirelako familian zein erkidegoan.

PAEen bidez hasitako politika ekonomikoa bultzatzean, politika horren inguruko zenbait negoziaketa garatu dira; esate baterako, Merkataritza Askeko Ituna (MAI) sinatu zen AEBekin. Guatemalan, 2003an negoziatu zuten, eta noiz berretsiko zain daude. Bestetik, Europar Batasuneko herrialdeekin Elkartzeko Hitzarmenak (AdA) sinatu ziren, eta, gaur egun, berrikusten ari dira. Horrez gain, Panaman Bizi Plana ezarri zuten (PPP), Erdialdeko Amerika mundu-mailako garapen-poloa izan dadin. Horretarako, Iparraldeko Zeharkako Tarte (FTN) eraiki zuten, eta presak eraiki zituzten, energia elektrikoaren sorkuntzan inbertitzeko. PPPren arabera egoera geoekonomiko berriak lotura estua dauka Barnebidetako Biologiko Mesoamerikarrarekin (CBM), eta kapital naturala Babestutako Eremuen Sistemaren barruan berrantolatzea du helburu.⁴⁰ Gobernuak neurri horiek guztiak herritarrei ezer galdetu gabe hartu dituztenez, gatazkak sortu dira, sindikatuak, gizarterakundeak eta nekazarien elkarteak aurka daude eta nazioarteko konpromisoak urratu dira. Esate baterako, Lanaren Nazioarteko Erakundeko (LANE) 169. hitzarmena. Horren arabera, Guatemalako gobernuak herri indigenen iritzia hartu behar du kontuan, euren lurraldeetan ezarri eta euren bizimoduan eragina duten garapen-politikak sortzeko orduan.

Amaitzeko, nabarmendu behar da Guatemalako legeria sozialak apurka-apurka hartu dituela kontuan betidanik baztertuta egon diren biztanle-taldeak (emakumeak eta indigenak, adibidez) eta, teoriarik, behintzat, euren eskubideak hobera egin dutela. Dena dela, politika ekonomiko neoliberalak ezartzean, euren bizi-kalitateak ez du hobera egin. Nahiz eta hainbat emakume laneratu, emakumeen lan-indarra baldintza txarrenak eskaintzen dituzten lanetako jardueretan baino ez da areagotu. Horra hor %70eko emakume-lanekua erabiltzen duen makiletako ehungintza eta ezo-hiko nekazaritza-produktuen uzta (sarritan umeekin batera lan egiten dute). Gainerako jardueretan, generoaren arabera lan-bereizkeria sakondu eta estali egin da.⁴¹ Bestetik, tamalgarria izan da elikaduraren segurtasuna galtzea, eskualdeko bilakaera ekonomikoaren arabera nekazaritzaren, basogintzaren, ehizaren eta arrantzaren pisu erlatiboa murriztu egin delako. Izan ere, ohiko esportazio-produktuen bizitasuna txikia izan da (kafea, azukre-kanabera, bananondoa eta haragia, batez ere), eta, horrez gain, oinarritzako garau gutxiago ekoizten dira. Inportazioek elikadura-defizita konpentsatu badute ere, ez dute oso-osorik estali. Nahiz eta nekazaritzako ekoizpena handitu, ez da biztanle-kopuruaren arabera hazi.⁴²

Lorpenak eta aurrera egiteko gaur egungo erronkak

Guatemalako estatuak ezinbesteko lehen urratsa eman du nazioarteko eta nazioarteko konpromiso garrantzitsuak bere gain hartzean, emakumeen eskubideak errespetatzeko eta bermatzeko. Nazioartean, Emakumearen aurkako Bereizkeria Guztiak Ezabatzeari buruzko Konbentzioa

⁴⁰ RENZI (2004), *Op. Cit.*

⁴¹ *Ibidem.*

⁴² *Ibidem.*

(CEDAW) sinatu zuen 2001. urtean; eta Emakumeen aurkako Indarkeria Prebenitu, Zigortu eta Desagerrarazteko Amerika arteko Konbentzioa, hau da, Belem do Parako Konbentzioa, 1995. urtean, emakumeen erakundeen eragin politikoari erantzuna emateko asmoz. Bertan, onartu egiten da emakumeen aurkako indarkeria bereizkeria-adierazpena dela eta historiari begira emakumeen zein gizonen artean desberdinak izan diren botere-harremanetan oinarrituta dagoela. Konbentzioa berretsi zuenean, Guatemalako estatuak behar bezala jardungo zuela adierazi zuen, indarkeria hori prebenitzeko eta erantzuteko. Batez ere, estatuak indarkeria-ekintzen egileak iker-tu, prozesatu eta zigortu behar ditu, etxean gertatu edo estatuko eragileek garatu arren.⁴³

Genero-berdintasunaren aurrerapen instituzionalaren adierazgarri, horretarako egitura estatalak sortu dira: Emakumeen Bulego Nazionala (1981ean sortua), Emakume Indigenak Defendatzeko Bulegoa (1999), Emakumeen Foroa (1997), Emakumeen Presidentetzako Idazkaritza (SEPREM) edo Familia barruko Indarkeriaren Prebentziorako Koordinakunde Nazionala (biak 2000. urtean sortu zituzten). Nazio-mailan, zenbait lege-tresna daude: Emakumeak Duindu eta Sustatzeko Legea (1999an onartua); Familia barruko Indarkeria Prebenitu, Zigortu eta Desagerrarazteko Legea (1996), Guatemalako genero-indarkeriaren arloan dituen nazioarteko betebeharrak zehazten dira bertan; Gizarte Garapenari buruzko Legea, aurreko atalean aipatu dugu; Guatemalako Emakumeak Sustatu eta Garatzeko Politika Nazionala (2008-2023); eta Aukera Berdintasunerako Plana (2001-2006). Azken biak sortzeko, gizarte zibilari egin diete galdeketa. Nolanahi ere, oraindik genero-ikuspegia hartu behar da kontuan politiketako arlo guztietan eta estatuak hartutako erabaki guztietan. Era berean, behar besteko baliabide pertsonal eta ekonomikoak esleitu behar dira, iraunkorrak izan daitezten. Horrez gain, emakumeen eskubideei buruzko politikak koordinatu behar dira, eta erantzukizunak zehaztu behar dira, estatuko eragileek berdintasunaren eta ez-bazterketaren arloko betebeharrak betetzen ez dituztenean.⁴⁴

Emakumezkoen gizarte zibilari dagokionez, emakume ikertzaile asko bat datoz Guatemalako emakumeen lorpen handienetakoa emakume indigenek erdietsitako jabekuntza izan dela baieztatzean. Generoaren eta etnien arloan oraindik haustura asko dauden arren, nazioko bizimoduan garapen-bidean dagoen subjektu politikoak dira emakume maiak, historiari begira nolako bereizkeria jasan duten kontuan hartuta. Guatemalako Emakumeak Sustatu eta Garatzeko Politika Nazionalan egindako azken berrikuspenean, erakundeek ekarpen handiak egin dituzte, indigenak ez diren emakumeen (hau da, emakume landino edo mestizoen) ekarpenetatik ondo bereizten dira eta emakumeok bizi duten errealitatea utzi dute agerian (gehienak landa-ingurunean bizi dira).

Edonola ere, antolatutako emakumeek tresna guztiak zehaztu eta jabekuntza-prozesu guztiak abian jarri dituzten arren, oraindik genero-desberdintasun handia dago herrialdean. Beharbada, emakumeen mugimenduak adierazitakoaren arabera, lege-xedapen anakronikoen iraunkortasuna da erronka handienetakoa, genero-bereizkeria sorrarazten dutelako. Hori dela eta, euren erreforma juridikoa egin beharko litzateke ahalik eta lasterren.⁴⁵

Zigor Kodeko 200. artikulua araberako, esaterako, bortxaketetan eta zenbait delitu sexualetan ez dago ekintza penala aurrera eramaterik, delitugilea biktimarekin ezkondata badago. 179. eta 180. artikuluetan, ordea, "zintzotasunaren abusua" beharrezko elementua da, zenbait delitu sexual frogatzeko. Hori dela eta, ohikoa da biktimak esandakoa zalantzan jartzea edo biktima bera erruduntzat hartzea, delitugilearen zigorra bermatu beharrean. 79-97 Dekretua kontuan hartuta,

⁴³ CIDH (Giza Eskubideen Amerika arteko Batzordea) (2003): "Informes de País, Justicia e Inclusión Social: los desafíos de la democracia en Guatemala", V. kapitulu: emakumeen egoera.

⁴⁴ *Ibidem*.

⁴⁵ *Ibidem*.

bortxaketa ekintza publikoko delitua da, eta, aldi berean, kaltetutakoaren ekintzaren arabera da. Beraz, ezinbestekoa da biktimak salaketa jartzea, prozesua garatu ahal izateko.

Kode Zibileko 89. eta 299. artikuluetan, generoan oinarritutako bereizketak egiten dituzte, ezkontzaren baimena arautzen dutelako eta, aitarene adostasunaz, neskontzako eta mutilentzako gutxieneko ezkontza-adina 14 urtekoa eta 16 urtekoa delako, hurrenez hurren. Horrez gain, bertan xedatutakoaren arabera, ezkontza edo elkarketa desegin ondoren, emakumeek 300 egun itxaron behar dute, berriro ezkontzeko edo elkartzeko. Azkenik, adingabeen tutoretza arautzen duen artikuluen arabera, honako hauxe da lehentasunezko hurrenkera: aitaldeko aitona, amaldeko aitona, aitaldeko amona eta amaldeko amona. Lan Kodeko artikulua batzuetan, emakumeen eta adingabeen lana modu berean tratatzen dute. 147. artikuluan adierazten denez, "emakumeen eta adingabeen lana euren adinaren, baldintza edo egoera fisikoen eta garapen intelektual edo moralaren arabera izan behar da".

Guatemalako estatuak ez du oraindik beste konpromiso garrantzitsu bat bete, ez baitu familia barruko indarkeriaren eta jazarpen sexualaren tipifikazio penalik egin. Gainera, jazarpen sexualak astungarriak ditu emakume indigenen aurkakoa bada (Bake Hitzarmenetako Herri Indigenen Nortasunari buruzko Hitzarmenaren arabera). Nazioko eta nazioarteko emakumeen eta giza eskubideen erakunde ugari behin eta berriro eskatu dute xedapen horiek indarrak gabe uzteko edo legegintzako erreforma egiteko, generoagatiko bereizkeria sustatzen dutelako. Bestetik, lehentasunezkoa da beharrezko legeak berroneste eta parlamentu-mailan gai horretan dagoen atzerapenari aurre egitea. Erronka handia da, *de jure* bereizkeria nazioarteko konpromisoen urraketa larria delako eta Guatemalako estatuak onartu egiten duelako. Berdintasun formalak errealitatean bereizkeria desagertu egingo dela bermatzen ez duen arren, aitortuz gero, eraldaketak egin daitezke gizarte-bizimoduan eta eskubidearen agintea eskatu daiteke.⁴⁶

Emakumeen partaidetza politiko txikiari aurre egitea ere bada Guatemalako oraindik garatu gabe duen beste zeregin bat. Kargu publikoetarako emakume hautagaiez edo emakume hautesleez ari gara, Latinoamerikako maila txikienetakoa duelako arlo horretan⁴⁷: aurreko legegintzan, 14 ministroetatik, 3 baino ez ziren emakumeak; gaur egun, Kongresuko 158 diputatuetatik, 20 baino ez dira emakumeak; eta tokian-tokian, 6 emakume alkate baino ez daude, 326 gizon alkateren aldean. Guatemalako alderdi politikoetako idazkaritza nagusi bat ere ez dago emakumeen ardurapean. Dena dela, nabarmendu behar da 2007ko hauteskundeetan gobernurako bi emakume hautagai egon zirela: Rigoberta Menchú, presidentetzarako; eta Walda Barrios, presidenteordetzarako.

Emakume hautesleen partaidetza oso txikia da, estereotipo historikoak eta bereizkeria oso finkatuta daudelako eta nortasun-agiri ofizialik edo hauteskunde-eroldarik ez dagoelako. Izan ere, hauteskundeetan bozkatzeko adina duten emakumeen %30 ez daude erregistratuta, indigenen eta landa-ingurune erkidegoetan, batik bat. Alderdi politikoetan oso ordezkaritza txikia dute, emakumeen eta gizonen berdintasunezko partaidetza sustatzeko arauzko bermerik ez dagoelako. Antolatutako emakumeek lehentasuna eman badiote ere eta baieztapen-ekintzarako neurri bereziak ezartzeko eskatu badute ere, Kongresuak ez du aurrera egiteko neurririk hartu. Emakumeen erakunde asko oso kezkatuta daude Udako Kodeko 72. artikuluetatik, horren arabera emakumeek nortasun juridikoa eduki behar dutelako sei hileko epean, garapen-kontseiluetako mailetan parte hartu nahi badute. Hori egin beharrean, erraztasun handiagoak eman beharko lizkiekete egiaztagiri hori bideratzen duten abokatutza-zerbitzuak kontratatuzko baliabiderik ez duten toki-erakundeak.⁴⁸

⁴⁶ *Ibidem*.

⁴⁷ MONTENEGRO (2002), *Op. Cit.*

⁴⁸ CIDH (2003), *Op. Cit.*

Hirugarrenez, erronka handia da emakumeen aurkako indarkeria-maila ikaragarriak murriztea. Egoera horrek, hain zuzen ere, lotura estu-estua dauka justizia eskuratzeko zailtasunekin, emakumeek oztopo itzelak gainditu behar dituztelako egoera hori salatzen. Ezarri beharreko legeriak ez ditu delituak behar den moduan tipifikatzen edo zigortzen, langile judizialek ez dakite edo ez dute ulertzen zeintzuk diren estatuak arlo horretan dituen nazioko eta nazioarteko betebeharrak eta, horrez gain, oso ohikoa da langile judizialek eta polizia emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko neurri judizialak ez ezartzea, delitugileak behar bezala prozesatu eta zigortu ahal izateko. Izan ere, ez dute behar besteko gaitasun teknikorik eta erabakitasunik, frogak biltzeko eta prozedurak zein zigorrak aurrera eramateko. Era berean, oso-oso kontuan hartu behar da Guatemalako gizartean sexismoa dela nagusi. Halaber, baldintzatzaile sozio-kulturalak ere badaude: emakumeen menpetasuna, etxeko bertako eta kanpoko lan-zama, hezkuntza-maila txikia, menpetasun ekonomikoa eta euren eskubide zein baliabide estataleki buruzko informaziorik eza. Faktore horien ondorioz, zigorgabetasun ikaragarria sortzen da, eta, gehienetan, salaketak artxi-batu egiten dira eta erasotzaileak zigorrik gabe geratzen dira. Horren adierazgarri, gero eta emakume-hilketa gehiago geratzen dira ikertu gabe.⁴⁹ Emakumeen aurkako itzelezko indarkeriaren ondorioz, azken urteotan emakumeen erakundeek feminizidioa delitutzat hartzeko eskatu dute Kongresuan. Eskari horrek, gainera, erantzuna eduki berri du, 2008ko apirilean Feminizidioari buruzko Legea onartu baita.

Guatemalako emakumeen eskubideetan aurrera egiteko, oso erronka handia da emakumeek eta, batez ere, emakume indigenek hezkuntza (unibertsitatekoa, batik bat) eta osasuna bezalako oinarritzko zerbitzuak eskuratzeko aukera edukitzea. Izan ere, asko eta asko ez dituzte euren ama hizkuntzan atenditzen. Era berean, larria baino larriagoa da amen artean ematen den heriotzatasua, Amerikako handienetakoa baita: 153 hildako, 100.000 jaiotzako.⁵⁰ Soldata-desberdintasuna ere emakumeen aurkako beste bidegabekeria bat da, eta oso-oso sustraituta dago herrialdean, emakumeen oinarritzko eskubide ekonomikoen kalterako.

Hori guztiori dela eta, Guatemalako estatuak bere gain hartutako konpromiso positiboan (1996ko Bake Hitzarmenak oinarritzat hartuta) eta abian jartzeko hartutako neurri eskasen artean alde handi-handia dagoela esan daiteke ondorio moduan.⁵¹

Bibliografia

- ASOCIACIÓN D'AMISTAT AMB EL POBLE DE GUATEMALA (AAPG) (2005): *Guatemala a grandes trazos* monografikoa: 1. dosierra. Guatemala: historia, herri-mugimendua eta bake-hitzarmenak.
- ALBIZURES, M.A. (2006): Muere un coronel de la primavera: "Primavera en el país de la eterna tiranía". Guatemala: El Periódico: iritzia. Helbide honetan kontsulta daiteke: www.elperiodico.com.gt/es/20061102/opinion/33535
- BPC (Chiquimulako Liburutegi Pribatua, Guatemala) (2006): *Investigación y Desarrollo para los Estudiantes de la Región*. Guatemala: Privatizazioen Monografia.
- CARRILLO, Ana L. (1991): "Indias y ladinas. Los ásperos caminos de las mujeres en Guatemala" in *Nueva Sociedad*, 111: 109-118.
- CASAÚS ARZÚ, Marta E. (2001): "Las redes teosóficas de mujeres en Guatemala: la Sociedad Gabriela Mistral, 1920-1940" in *Revista Complutense de Historia de América*, 27:219-255.

⁴⁹ *Ibidem*.


⁵⁰ OMS (2006), *Op. Cit.*

⁵¹ CIDH (2003), *Op. Cit.*

- CASTELLANOS HOWELL, Álvaro (2007): "Primavera Democrática: ¿Una gloriosa victoria?". Guatemala: El Periódico: iritzia. Helbide honetan kontsulta daiteke: www.elperiodico.com.gt/es/20071207/opinion/46417
- CEDAW (Emakumearen aurkako Bereizkeria Guztiak Ezabatzeari buruzko Konbentzioa) (2004): *Examen de los informes presentados por los Estados partes con arreglo al artículo 18 de la Convención sobre la Eliminación de Todas las Formas de Discriminación contra la Mujer*. Estatu kideen seigarren txostena. Guatemala.
- CEPAL (Nazio Batuetako Ekonomia Batzordea Latinoamerikarako eta Kariberako) (2006): *Anuario estadístico de América Latina y el Caribe, 2006*. Gizarte-estatistikak.
- CIDH (Giza Eskubideen Amerika arteko Batzordea) (2003): "Informes de País, Justicia e Inclusión Social: los desafíos de la democracia en Guatemala", V. kapitulua: emakumeen egoera.
- GUATEMALAKO ERREPUBLIKAKO GOBERNUA (2001). *Estrategia de reducción de la pobreza: el camino de la paz*.
- GUATEMALAKO ERREPUBLIKA GOBERNUA (2006): *Informe de cumplimiento y aplicación de la Convención sobre la Eliminación de todas las Formas de Discriminación Contra la Mujer (CEDAW)*.
- JOCÓN, M^a Estela (2005): *Fortalecimiento de la participación política de las mujeres mayas*. Guatemala: Iera ediciones.
- MINEDUC (Guatemalako Hezkuntza Ministerioa) (2005): artikulua: "Visión Educación presenta propuesta al país". Helbide honetan kontsulta daiteke: www.mineduc.gob.gt/articulos_2005/julio/8/noticia8.htm
- MONTENEGRO, Nineth (2002): "El desafío de la participación política de la mujer en Guatemala" kasuaren azterketa. Argitaratzaileak: Mendez-Montalvo, M. eta Ballington, J. *Mujeres en el parlamento: más allá de los números*. Eskuliburuen seriea. Stockholm, Suedia: IDEA (Institute for Democracy and Electoral Assistance).
- MONZÓN, Ana S. (2003): *Y sin embargo se mueven... desde el Movimiento de Mujeres a la construcción de agendas en Guatemala (1985-2003)*. Guatemala: San Carlos Unibertsitatea.
- ODHAG (Guatemalako Artzapezpikutzaren Bulegoa Giza Eskubideetarako) (1998): *Guatemala Nunca Más: Recuperación de la Memoria Histórica*. Donostia: Hirugarren prentsa.
- OIM (Migrazioetarako Nazioarteko Erakundea) (2005): "Cuadernos de Trabajo sobre Migración", 23. koaderno, Diru-sortei buruzko inkesta 2006, Osasun eta hezkuntza arloko inbertsioa.
- OMS (Osasunaren Munduko Erakundea) (2006): *Estrategia de Cooperación*: Guatemala.
- PNUD (Nazio Batuen Programa Garapenerako) (2005): *Diversidad étnico-cultural y desarrollo humano: La ciudadanía en un Estado plural*. Giza Garapenari buruzko Txosten Nazionala 2005, Guatemala (2002). Giza Garapenari buruzko Txosten Nazionala, Guatemala: giza garapena, emakumeak eta osasuna.
- PREAL (Latinoamerikako eta Karibeko Hezkuntzaren Eraldaketa Sustatzeko Programa) (2006): *Opciones educativas para la niñez trabajadora*. Guatemala: PREAL.
- RELEA, Francesc (2005): *Crímenes en Centroamérica: La violencia diezma a las mujeres en Guatemala*. Guatemala: El País.
- RENZI, M^a Rosa eta FAUNE, M^a Angelica (2004): *Perfil de género de la economía del istmo centroamericano (1990-2002): consideraciones y reflexiones desde las mujeres*. Managua: PNUD.

RIVADENEIRA, Luis (2001): *Guatemala: población y desarrollo. Un diagnóstico sociodemográfico, Centro Latinoamericano y Caribeño de Demografía (CELADE)*. Santiago, Txile: CEPALeko Biztanleria Atala eta CELADEko Biztanleria eta Garapen Arloa.

RODRÍGUEZ DE ITA, Guadalupe (2001): *Participación política de las mujeres en la primavera democrática guatemalteca (1944-1954)*. Mexiko: José María Luis Mora doktorea Ikerketa Institutua.



Latinoamerikako emakumeen elkartengandik eta elkarte feministengandik ikasiz

Aurreko kapituluaren antzera, Kolonbiako eta Guatemalako erakundeen esperientzia bi nabarmentzen dira: "Egia, justizia eta kalte-ordaina, Kolonbiako emakume biktimenzako egin beharreko agenda", Kolonbiako Landa-emakumeen eta Emakume Indigenen Elkartearen esperientzia da, Sisma Mujerrek (Kolonbia) egina; eta "Emakumeen aurpegia Kolonbiako gatazka armatuan eta gatazka armatuaren ondoren", Giza Eskubideen Legezko Ekintzen Zentroak gauzatua. Praktika horien sistematizazioak sor daitezkeen bestelako ekimenetarako balio du.

Egia, justizia eta kalte-ordaina, Kolonbiako emakume biktimei zor zaien agenda. Kolonbiako Emakume Nekazari eta Indigenen Elkartearen esperientzia

Sisma Mujer

“Erakundea kontrolatzen edo ezabatzen ahalegindu dira, lekualdaketaren, desagerpenaren edo torturaren bidez, honako honegatiko zigorra izango balitz bezala: jabekuntza, emakume askoren lidergo politikoa, erakusten hasi garen elkartasun-ekintza ahaltsua eta lekualdatutako emakumeak eta familiak bertan behera ez uztea.”

Leonora Castaño Cano, Kolonbiako Emakume Nekazari eta Indigenen Elkarteko Nazionaleko (ANMUCIC) buruzagia. Erbestean dago gaur egun.

Kolonbiako gerran, munduko beste askotan bezala, gizonak izan ohi dira ezabapen fisikoa jasaten dutenak. Emakumeak, ordea, bizirik dirautenak izan ohi dira. Edonola ere, herrialdean, beste askotan bezala, emakumeen gorputzak gerra-lurraldeak direnez, eragile aurkariak bertan ere borrokatzen dira. Era berean, emakumeak eta euren erakundeak zigortzen dituzte, bititza zaintzen ausartzeagatik. Hain zuzen ere, euren suntsipena da gerraren arrazoia.

Latinoamerikako giza eskubideak babesteko organismo gorenak emakumeek gatazka armatuaren esparruan jasaten dituzten ondorioei buruzko txostena aurkeztu du. Izan ere, lehenengo eta behin, onartu egin du gerlariak ez diren biztanle zibilak gogor zigortu dituztela barruko gerrak iraun duen 40 urteetan, baina batez ere “arriku handienari aurre egin behar dieten taldeak; esate baterako, emakumeak, neska-mutilak, herri indigenak, erkidego afrokolonbiarrak eta euren eskubideak babesten dituzten lider sozialak eta erakundeak”.¹

Txostenean adierazten denez, emakumeen aurkako indarkeria gerra-estrategia moduan erabili dute lurraldeak eta erkidegoak kontrolatzeko ahaleginean, eta emakumeen aurkako lau indarkeria-adierazpide nagusi daude arlo horretan. Lehenengoaren helburua etsaiak zauritzea denez, eragile armatuek etsaien familia-gune urratu nahi dute, haien erkidegoak beldurtu nahi dituzte eta biktimei gizatasuna kendu nahi diete indarkeria fisiko, psikologiko eta sexualaren

¹ Giza Eskubideen Amerika arteko Batzordea (CIDH) (2006): *Las mujeres frente a la violencia y la discriminación derivadas del conflicto armado en Colombia*. Helbide honetan kontsulta daiteke: www.cidh.org/women/Colombi06sp/resumen.htm

bidez. Izan ere, emakumeak zigortzen dituzte, bando aurkarietako gizonekin, benetan edo ustez, senidetasuna edo harreman afektiboak dituztelako edo jarduera politikoetan parte hartzen dutelako. Emakumeei zein gizonei eraso egiten badiete ere, emakumeak era partikular bezain gogorrean dira indarkeria sexualaren biktimak. Bigarrenaren helburua haien lur, familia-sare eta erkidegoetatik ateratzea denez, aurkariak derrigorrean lekualdatu behar dira. Horren ondorioz, aldaketa itzelak gertatzen dira roletan, familiak eta erkidegoak desegituratu egiten dira eta eragin handia du hiri-ingurune berrietan. Hirugarrenaren bidez, emakumeak behartzen dituzte kontrol sozialerako arauak eta jokabide-kodeak betetzera. Hori dela-eta, genero-estereotipo tradizionalak berregiten dituzte, eta indarkeria sexuala erabiltzen dute, ohartarazteko eta zigortzeko. Azkenik, kasu askotan, indarkeria sexuala erabili ez ezik, derri-gorrez edo borondatez errekrutatzen dituzte.

Giza Eskubideen Amerika arteko Batzordeak onartu egiten du gerlarien lurralde-kontrolari begira oso oztopo handia dela herrialdeko emakumeen erakundeek garatutako lan garrantzitsua. Horrez gain, emakumeen eskubideak ere babesten dituztenez, indarkeriaren eta lekualdaketa-arriskupean daude etengabe. Indarkeria-adierazpen horiek guztiek eragin handiagoa dute emakume nekazari, indigena eta afrokolonbiarren artean, Kolonbiako gizartean historian zehar ohikoak izan diren era guztietako bereizkerien ondorioz. Txostenaren arabera, Kolonbiako estatuaren erantzuna ez da nahikoa, ez dakielako zeintzuk diren gatazkako emakume biktimen eta etnia gutxitueta-ko emakumeen ezaugarriak eta berezitasunak.²

Kolonbiako Emakume Nekazari eta Indigenen Elkarte Nazionalak (ANMUCICek) gerrak emakumeen artean eragindako larregizko ondorioen adibideak eskaintzen ditu. Historiari begira, Kolonbiako emakumeen erakunde garrantzitsuenetakoa izan da, bai eta landa-inguruneko handiena ere. Laurogeiko hamarkadaren hasieran sortu zenetik, erakundeak emakumeen eskubideak txertatu zituen nekazaritza-sektoreko politika publikoetan nahiz nekazarien mugimenduko agendan.

Laurogeita hamarrek hamarkadaren hasieratik, estatuko sektore handien babespean geografia nazionallean hedatutako paramilitarismoak biztanle zibilak izutzea erabili zuen gerrako estrategia moduan. Herrialde osoan zehar, gizartearen eta erkidegoen erakundeak eta, batez ere, nekazarien erakundeak suntsitzen ahalegindu zen, gerrillarentzat *arrainak behar duen ura* zirelakoan.

ANMUCICen ibilbidearen lehen hamarkadan, 80ko hamarkadaren erdialdetik 90eko hamarkadara, landa-inguruneko emakumeentzako aldarrikapen handiak lortu zituen; besteak beste, nekazaritza eraldatzeko legeetan neurri egokiak ezartzea, erakundeak eserlekua edukitzea nekazariei lurra esleitzen zizkien organismoen instantzia gorenean eta tokian tokiko zein estatuko administrazioen baliabideak jasotzea emakume nekazarietako diru-sarrerak sortzeko. Bere bigarren hamarkadan, landa-inguruneko emakumeen aldeko gremio-aldarrikapenei emandako lehentasuna alde batera utzi eta bizitzak salbatzen, umezurtzak zaintzen eta bizirik irauteko euren lurretatik ihesi zihozten emakume lekualdatuak eta euren familiak babesten hasi zen.

Nahiz eta emakumeen bizitzan zeregin hori berria ez zen, eragile armatuak eta, batez ere, paramilitarrak zeregin berri horren ondorioz hasi ziren erakundea zigortzen, eurentzat oztopoa zelako familia, erkidego eta gizarte arloko sarea hausteko orduan. Erakundeko kideen aurkako erasoak orokortu ziren, eta emakumeak eta euren familiak izutu zituzten. Hain zuzen ere, argi eta garbi adierazi nahi zieten paramilitarrek heriotza-zigorpean jarritako edo lurretatik ihes egitera behartutako pertsonak zaintzen ausartzeagatik zigortzen zituztela.

² *Ibidem.*

Etiketrik nekazarien erakundera, erakunde mistotik emakumeen erakundera: arrazoiak, oztopoak eta poztasunak³

ANMUCIC beti nabarmendu da nekazarien batasuna lortzeko ahalegin gehien egiten zituen erakundea izateagatik. Hain zuzen ere, nekazari antolatuen eta nekazaritza-sektoreko erakundeen harremanak zaintzen zituen etengabe. Mugimendu osoak ANMUCICen lana onetsi zuen eta Nekazarien Kontseilu Nazionaleko koordinatzaile izendatu zuen. Nekazarien aliantza horren bitartez, nekazaritza eraldatzeko proposamena egin zuen, Kolonbiako nekazariak garai horretarako zituzten itxaropenak kontuan hartuta. Errepublikako Kongresuak azkenean onartutako arautegian, ordea, ez ziren bere proposamenak bete-betean agertu, nahiz eta zenbait elementu garrantzitsu azaldu; esate baterako, nekazariak partaidetza handiagoa izatea lurra esleitzeko prozesuetan eta landa-erakundeentzako prestakuntza-fondoa onartzea. Emakumeen eskubideei dagokienez, ahulezia sozial edo ekonomikoan bizi eta familia-buruak ziren emakumeei lurra lehenetsunez esleitu behar zizkieten derrigorrean. Era berean, jabetzaren titularitatea baterakoa izan behar zen, bikotekiderik egonez gero.-

“Legea ez zen ontzat hartu, lurren merkatua zehaztu zuen legetzat hartu zutelako eta, ez, nekazari zein emakumeentzako justizia-legetzat. Nahiz eta lorpenak handiak izan, ez ziren modu positiboan ebaluatu, eraldaketek irekiera ekonomikoa eta eredu neoliberala sustraitzen zituztelako funtsean.”

Leonora Castaño Cano

Aurreko hamarkadetan hasitako batasun-proposamenak egitean landa-ingurunekeo gizarte zibilak abian jarritako borroka 80ko hamarkadan sendotu zen, ANMUCICek Nekazarien Kontseilu Nazionalean garatutako zuzendaritzapean. Nolanahi ere, emakumeen erakundeak ez zuen beti sinergiaritasun bera eduki nekazarien mugimenduan bertan. Bere sorreran eragin handia izan zuten emakumeek antolatzekeo gainditu behar dituzten larregizko oztopek: bikotekideak, familiak, erkidegoak eta era guztietako adierazitako ordena patriarkala; esate baterako, eragile armatuen eta, batez ere, paramilitarren eraso ankerra.

Erakundearen historia azaltzeko, sortzaileak izan ziren hezur-haragizko emakumeen historiak azaldu behar dira, erabat lotuta daudelako. Hori dela-eta, erakundeko bi sortzaile eta bi buruzagi garrantzitsuren ahotsak entzungo ditugu ondoren. Gaur egun, erbestean daudela esan beharra dago.

Leonora Castaño Cano, ANMUCICeko sortzaileetako bat, 14 seme-alabako familian jaio zen herrialdeko mendebaldean. Gurasoen irakasbideen bitartez ikasi zuen nekazarien borrokatik, eta jaiotako eskualdean bertan eman zion hasiera bere antolaketa-prozesuari, Erabiltzaile Nekazarien Elkarte Nazionalaren bitartez -ANUC-, Sincelejo linea. Hain zuzen ere, 70eko hamarkadaren amaierarako zegoen nekazari-elkarte handiena zen. Oso goiz, emakumeen erakundeak sendotzeko eskatu ziotenez, erakundeko emakumeen idazkaria izan zen nazio-mailan. 80ko hamarkadaren hasieran, erakundeko gainerako militanteei bezala, emakumeen aldeko lanak geldiarazteko eta erakundeko beste lan batzuei lehenetsuna emateko agindu zioten. Hain zuzen ere, erakundeak lehenetsun horiei aurre egiteko erabili behar zuen nazioartean emakumeentzat kudeatutako baliabideak. Beharbada, bertan piztu zitzaion emakumeentzako autonomia lortzeko guraria, hau da, bere proiektu politikoaren ezaugarri bereizgarria. Ez zuen erakundeko zuzendaritzaren aurka

³ Akapitea egiteko, gaur egun erbestean dauden ANMUCICeko bi buruzagi gorenari egin zizkieten elkarrizketak. Testuan bertan, euren ahotsak bat egingo dute, harik eta gerrak banatu arte euren historiak lotuta egon ziren bezala. Oraindik ere, noiz elkartuko zain daude.

egin, eta diziplina handiz bete zuen agindutakoa. Garai hartarako, lidergo nabaria zuen, emakumeentzako lurrak hartzeko edo berreskuratzeko prozesuak zuzentzean erakutsitako gaitasunagatik. "Amak eman zidan babes guztiari esker, inoiz ez nuen amore eman baldintza txarrenetan ere". Agintariei aurre egiteko, emakumeek haurdun zeunden plantak egiten zituzten, eurekiko tratua hobea izan zedin. Era berean, emakumeek elkartasun-prozesuak sustatzen zituzten inguruko jendearekin, maisu-maistrekin, sindikatuekin eta kooperatibekin. Horrela, gehienak emakumeak ziren nekazarietako elikagaiak eta babesak bermatu ziren, landa-ingurunekeo lurrak hartzeko orduan. Euretako bat, gainera, matxinatu armatuek infiltratu zuten, eta errepresio ofizial ankerrak aurkitu zuten.

80ko hamarkadaren erdialderako, Leonora erakundetik kanpo zegoen, emakumeentzako erakunde sortu nahi zuelako. Hasieratik, nekazarien mugimendu osoak gogogabetu egin zuen, Nekazaritza Ministerioko funtzionarioen laguntzaz. Funtzionarioek, hain zuzen ere, nekazarien buruzagien kezkekin bat egin zuten, nekazarien batasunari eta familiari begira ANMUCIC *arriskutsua* izan zitekeela konturatzean. Arrazoi osoz zeuden kezkatuta, nekazarien erakunde mistotik emakume askok alde egiten bazuten, askatasuna eta autonomia eskatzen zituen indar sozialaren gaineko kontrol gutxiago edukiko zutelako. Era berean, honako hauxe zen "familia-batasunaren" inguruan zituzten kezken oinarria: erakunde sortu berriko emakume buruzagiek landa-ingurunekeo jabekuntzaren alde eta euren eskubideen erabateko erabileraren alde egindako ahalegina. Arlo horretan, gainera, familiako botere-harremanak ziren oztopo nagusietakoa. Nekazarien mugimenduak era guztietako argudioak eta taktikak erabili zituen, erakundearen hazkuntza eragozteko. Jarrera horiek ministerioko zenbait bulegotan eduki zuten oihartzuna, erakundeak modu juridikoan onetsiko ez zirela mehatxu zieten-eta. Nekazarien buruzagiek ez zuten kontuan hartu emakumeek ere babes instituzionalak zituztela, erakundearen sorrera juridikoa bermatzeko. ANMUCIC herrialdeko geografia fisiko eta politikotik hedatu zen, eta, 1989. urterako, 135 emakume zinegotzi, 3 emakume alkate eta 2 emakume diputatu zituzten 23 departamentutan. 1990etik 1994ra, 27 departamentutan zeuden, eta, 1997an, 90.000 emakume afiliatu zituzten. Apurka-apurka, nekazarien buruzagiek onartu egin zuten emakumeen ikuspegiaren bozera-mailleak zirela, landa-ingurunekeo gizarte zibil antolatua adostasuna bilatzen zutela etengabe eta nekazarien batasuna zaintzen zutela. Hori dela-eta, eurenganako konfiantza eta sinesgarritasuna areagotu egin ziren, eta ANMUCIC aukeratu zuten, Nekazarien Kontseilu Nazionalako koordinazio nagusiaz arduratzeko.

Herrialdeko beste muturrean, ekialdean, beste emakume nekazari bat, María Emma Prada, bere erkidegoko dinamikan zegoen murgilduta, azpiegitura fisikoa, elektrifikazioa, akueduktua, bideak, etxebizitzak lortzeko. Bertan, emakumeek janaria prestatzen zuten auzo-jardunaldietan. Era berean, diru-laguntza erdiesten zuten erkidegoan egindako zozketen bidez, eta gizonek ebatzi eta bete-arazten zituzten baliabideen kontabilitatea eramaten zuten.

"Oso gustuko nuen Auzo Ekintzarako Batzarretara joatea. Ona zen, inoiz ez zituztelako emakumeak presidente aukeratzen, gizonak baizik. Gizonek, hain zuzen ere, bazuten bulegoetara joateko astirik, dirua hobeto kudeatzen zuten eta eraikuntzez zekiten (...) Zertarako izan nahi genuen presidente, gizonek zeregin hori hobeto garatzen bazuten?"

María Emma Prada, ANMUCICeko buruzagia. Erbestean dago gaur egun.

ANMUCIC (1991) bere eskualdean eratu zen garairako, sorrera-bilerara gonbidatu eta presidente-orde aukeratu zuten.

"Hasieran, egia esan, ez nuen benetako genero-kontzientziarik eduki. Nire bizitzan ez nuen matxismorik jasaten eta, jasan jasaten banuen, ez nuen sentitzen. Atseginez onartzen ote dugu, azkenean? Seguruenik, emakume askok ez diogu gertatutakoari erreparatzen, harik eta beste

emakume batzuekin "hitz egiten" dugun arte (...). Bat-batean, gizon eta emakumeen erabaki "bateratuak" menderakuntza-tranpa bihurtzen dira. Emakume guztiok elektrifikazioa lortzeko lan egiten genuen, bileretara joaten ginen, jarduerak antolatzen genituen, politikarientzako janaria prestatzen genuen. Zerbitzatu, zerbitzatu, zerbitzatu egiten genuen, baina azkenean, gizonek, senarrek, hartzen zituzten erabakiak gizon politikari, gizon alkate eta gizon diputatuekin. Obrak ere gizonek irekitzen zituzten, emakumeok zerbitzatu, zerbitzatu eta zerbitzatu egin behar genuelako eta, horren ondorioz, oso lanpetuta geundelako (...). Erakunde mistoetan egoenez gero, emakumeok bagenekien gure lidergoaren indarra, gure sormena eta intelektueltasuna inoiz benetan onetsiko ez zituztela. Inoiz ez genuen argi eta garbi jakingo zer nahi genuen, gainerakoek zer nahi duten pentsatzen egongo ginelako beti".

María Emma Prada

Hasiera batean, euren eragin-ekintzan, ANMUCICeko bi emakume liderrek funtzionarioen aita-jarrerei aurre egin behar izan zieten. Izan ere, euren bitartekaritzapean jarri nahi izan zituzten emakumeak, euren irudimenean argi eta garbi zeukatelako emakume haien nekazari-jatorriak erabat mugatzen zituela solaserako zituzten gaitasunak. Bestetik, ANMUCIC hauteskunde-botina eta kapital politikoa zela ikusten hasi ziren politikariak. Azkenean, eurak oztopo handia ziren erakundea sendotzeko orduan, nahikoa onak ez zirela eta prozesua zuzentzeko bezain ondo idazten ez zekitela uste zutelako. Horrez gain, euren ustez, beste emakume batzuk zeuden eta, batez ere, beste gizon batzuk, euren kideak, zeuden, eta, bizitza publikoan urte gehiago zeramatzatenez, bazekiten nola egin behar ziren gauzak. Zenbait udalerritan, modu literalean, "senarrek ileetatik atera zituzten emazteak eta bilera haiek emakume arlosteentzat zirela esaten zieten". Oro har, euren ahaleginean laguntzen zieten artean ere, galdera hau zegoen airean: "Zer lortu nahi dute?". Beste batzuetan, oster, iseka egiten zieten emakumeak elkartu egiten zirela ikustean edo euren alde zeuden funtzionarioek "mesede sexualen" truke laguntzen zirela esaten zieten. Askotan, babes handiena ematen zietenak ziren interesatuenak, garai hartan emakumeei lehentasuna ematen hasitako nazioarteko lankidetzako baliabideak eskuratu nahi zituztelako. Nolanahi ere, elkartasunari eta emakumeen arteko sare zainduari esker, ANMUCIC lurralde nazional osoan zehar hedatu zen:

1984an erakundea modu formalean eratu ondoren, hasieratik zehaztutako antolamendu-egitura behetik gora eraturako barne-demokrazian oinarrituta zegoen. Instantzia gorena batzarra edo kongresu nazionala zen. Udal eta departamentu mailako ordezkartzen batuketa zen, eta Batzorde Nazionala aukeratzen zen bertan. Emakume indigenek eta afrondorengoek euren prozesu berezia garatu zuten erakundearen barruan eta oso desberdina izan zen. Lehenengoei dagokienez, euren eskariari erantzuteko asmoz, ANMUCIC *Babeslekuak* izeneko administrazio-unitate indigenekin hasi zen lanean. Emakume indigenen oinarritzko kideak aurka bazeuden ere, jarrera hori are nabariagoa izan zen buruzagi indigenen artean, erkidego indigenak antolatzeko eskubide eskusiboa zutela zioten-eta. Berrito ere, gizarte-mugimenduak zuzentzen zituzten gizonenak izan ziren eraso handienak, emakume indigenek ez zutelako euren elkarte askatasunez erabakitzerik.

Ondoren, emakume beltzek bat egin zuten ANMUCICekin. Lehenengo aldiz, ez zieten erakunde mistoetako buruzagiei aurre egin behar izan. Erkidego beltzei eta prozesu afrondorengoei dagokienez, ordea, babesa erabatekoa izan zen. Etnia horietako ordezkariak erakundean sartu zirenetik (1987), Batzorde Nazionaleko ordezkartza indigena, afrondorengoa eta nekazaria berdintasunezkoa izan zen. Euren familiek, nekazari zein indigenen buruzagiek eta emakumeek eurek sortutako oztopo ugariari aurre egiteaz gain, zenbait urte geroago oztopoetan oztopo agertu zen, gerra larriagotu egin zelako.

Hona hemen ANMUCICen sorreraren helburuak: nekazaritza-sektorearen instituzionaltasunean aldaketak sortzea; Kongresuan, gobernu nazionalan eta toki-gobernuetan emakume nekazarien

eskubideen alde egitea; eta emakumeentzat duintasun handiagoko bizitza bilatzea. Bete-beteen parte hartu zuten Konstituzio Politikoaren prestaketan eta Nekazaritza Sektoreko Emakumeentzako Politikaren (1991), Nekazaritza Eraldatzeko Legearen eta Landa Inguruneko Goi Bilera Sozialeko Landa Inguruneko Kontratu Sozialaren (1996) diseinuan eta ezarpenean. Lege, politika eta itun bakoitzean, ANMUCICek, genero-ikuspegiaren bidez, eragin handia zeukan sinatutako hitzarmenetan. Balantzea, ordea, ez zen zeharo positiboa izan:

“90eko hamarkadan, politikaz politika ibili ginen eta politika onak izan ziren, baina abian jartze-ko orduan, formula berrien asmakizunak ziren, pribatizazio-prozesua zegoelako, politika paperean geratzen zelako eta politikak nekazaritzako elikagaien sektoreko erakundeekin zuelako zerikusia, entitateak likidatzen hasi zirenean”.

Leonora Castaño Cano

Hori dela-eta, politikan zuzenean esku hartzeko erabakia hartu zuten, eta Errepublikako Kongresurako hauteskundeetan parte hartu zuten. Erakundeeko presidentea eskualde-zerrenda bateko bigarren lerroan agertu zen. Emaitzak ez ziren onak izan, ANMUCIC sendotzean omen zuten indarra hauteskunde-illusioa baino ez zelako izan. ANMUCICeko emakumeek esperientzia horretatik ikasi zuten alde handia dagoela hauteskunde-prozesuen eta prozesu sozialean artean. Era berean, ulertu egin zuten prozesu sozialen ustez politikak ukitzen duen guztia zapuztu egiten dela. Hori dela-eta, ez zuten nahi bere presidenteak politikarik egitea.

Bizitza zaintzeagatik, banan-banan eta taldean torturatu eta hil zituzten

Kolonbiako historiako azken bost hamarkadotan, herrialdean gatazka armatua izan da nagusi. Dena dela, paramilitarismoak gora egin zuzenean larriagotu zen herrialdeko gizarte zibilarren indar antolatua desagerrarazteko saialdia. Gerrillekin zituzten lurralde-gatazken ondorioz, biztanle nekazariak eragile armatu horien biktima nagusiak izan ziren, eta izua hedatu zuten Kolonbiako landa-ingurune osoan zehar. Bataila-eremuetan ez ezik, emakume eta gizon kolonbiar guztien eguneroko bizimoduan, euren erakundeetan, euren pentsaeran, euren hitzetan ere egon da gerra. Landa-ingurunean, eragile armatuak urteetan eta urteetan finkatu dira lurraldeari begira hegemonizatuta dituzten eskualdeetan. Hegemonia hori lehian jarri eta berria ezarri nahi duten eragileei aurre egitean, gizarte zibilar ankerkeriaz eraso egiten diote, suntsitu nahi duten armadak biztanle zibilei esker dirauela uste dutelako. Euren lurraldeak lehian ez daudenean, biztanle zibilek eurekin bizitzen ikasten du, ez du aukeraterik.

“Inguruabarrak kontuan hartuta, ez zen erraza eskualde bateko emakume guztien arteko bizikidetza zorientzua lortzea. (...) Departamentuko emakume liderrok iritsi ginenean, emakumeak banderatoak eta guzti irten ziren kalera, harrera benetan ikusgarria izan zen. Emakume adinekoak, helduak, gazteak eta eskolaumeak ere bazeuden bertan, gure zain. Eskualdeko ANMUCICen ereserkia abesten zuten, eta papertxo berde, hori eta zuriak astintzen zituzten. Elkar agurtu eta ezagutu genuen eta elkertasuna adierazi genion elkarri, baina arazo sakona zegoen: eskualdean finkatutako talde armatuen aldekoak ziren. Itogarria zen (...) Talde haien alde egote-ko arrazoiak ez ziren politikoak, genero-arlokoak baizik: emakume asko eta asko talde armatu batean edo bestean zeuden neska-mutilen amak ziren.”

María Emma Prada

Gerra garatzen deneko leku urrunetan ez ezik, herrietako eguneroko bizimoduan ere garatzen da dinamika militarra, eta biztanle zibilen afektua nahiz sexualitatea arautzen ditu. Leku askotan, nahiz eta erakundeetan antolatuta egon, emakumeak konbentzitu zituzten gerrilla epailea zela esanda. Hau da, gerrillak familien errealitatean esku hartzen zuen, eta, bitartekaria zenez, emaku-

meak txarto tratatzen zituzten gizonei, larregi edaten zuten gizonei eta familiaren baliabideak desbideratzen zituzten gizonei eskatzen zien aldatzeko. Eragile armatuek estatuaren baliabideen helburua ebazten zuten eta baliabideez jabetzen ziren. Gerrillak estatua ordezkatu zuen herrialdeko eremu askotan. Ekialdeko eskualdean (testu honetan hitz egiten duten buruzagietako bat bertakoa zen), urte askotan herritarren bizitza kontrolatu zuten erabat, eta emakumeen bileretara ere joaten ziren. Erakundearen bilera batean, 40 gizon eta 2 emakume batzartu ziren, eta gizonen erdiak ANMUCIC hura zer zen jakin behar zuten gerrillariak ziren. Gainerakoak, ordea, senarrak ziren, eta, harik eta erakundeak zer nahi zuen jakin arte, ez zieten emazteei bertara joaten uzten. Gizonek zuzendutako kooperatiba handia zegoen, eta emakumeek ez zuten partaidetza eta antolamendu maila handirik. Gizonak, senarrak eta gerrillariak beldur ziren, emakumeen balizko erakundeak haiengan zuten kontrola kendu ahal ziela uste zutelako. ANMUCIC eratzeko bilera egin eta zenbait egunetara, armadak leku hura bonbardatu zuen. Bilera sustatu zuen emakume liderra desagertu egin zen, eta bonbek bere senarra akabatu zuten. Ez zen bonbardaketa bakarra izan. Beste bi alditan gertatu zen, emakumeak batzartuta zeudenean. Ezkutatu egiten ziren, negar egiten zuten eta euren familia babestera irteten ziren. ANMUCICeko eskualde-buruzagia ahoz eta idatziz gaitzetsi zuen armadaren eraso. Bere kideek babestu egin behar izan zuten, harik eta bi egun geroago eskualdetik irtetea lortu zuen arte. "Halakoak gertatzen zirenean, hauxe pentsatzen nuen nik: ni eskualdetik irteten naiz, baina emakumeak hementxe geratzen dira, babesik gabe, arriskupean".

ANMUCICek agerpena zeukan eta matxinatu armatuen kontrolpean zeuden lekuetan, emakumeak presionatzen zituzten, euren zereginari buruzko informazioa eman diezaieten, baina batez ere, erakundeak baliabideak erabiltzen zituenean. Batzuetan, gainera, presionatu egiten zituzten, baliabide horien zati bat eman diezaieten. Matxinatuen komandanteek emakume buruzagiei deitzen zieten kontuen berri emateko, eta erakundeako emakume kideek kritikatu egiten zituzten deiarri erantzuten bazioten. Matxinatuei eraso egiteko paramilitarismoa sortu eta hedatu egin zenean, are gehiago presionatu zituzten ANMUCICeko emakumeak. Paramilitarrak emakumeen erakundeak kontrolatzen saiatu zirenez, gerrilla are kontrol handiagoa lortzen ahalegindu zen. Armadak biztanle eta erakundeen bizitza ere kontrolatzen zuen erkidegoetako brigaden bitartez. Paramilitarrek emakumeon mugimenduak filmatzen zituzten, eta gerrillariak zirela zioten. Emakumeen arteko mesfidantza sortu zen. Gerrillaren eta, ondoren, paramilitarren aldekoak zirela leporatzen zioten elkarri. Emakumeek politikari tradizioaletatik hurbilago egon nahi zuten, egoera hartatik babesteko. Den-dena susmagarria zen: norekin hitz egiten zuten, nor agurtzen zuten, norekin ezkondu ziren. Herri eta eskualde bakoitzean eta eskualdeen artean, gerra emakumeek euren erakundearekin egindako lana hondatzen hasi zen. "Emakumeen elkartean egonez gero, markatuta zeunden eta beldurgarria zen benetan".

Emakumeak eragile armatu guztien aurrean neutraltasunerako eskubidea zutela aldarrikatzen hasi ziren. Segurtasun-kooperatiba pribatuak, hau da, legalitatetik talde paramilitarrak babesten zituzten erakundeak sortu zirenean, emakumeak gizon horiek zer egingo ote zuten beldur ziren, eta, laster, paramilitarrekin lotuta zeudela salatzen hasi ziren. "Emakume salatzaileen izenik aipatu gabe, paramilitarrak eta segurtasun-kooperatiba pribatuak gauza bera zirela salatzen hasi ginenean, bi emakume erail eta desagertu bat geneukan herrialdeko ekialdean". Departamentuko emakume diruzaina herrialdeko iparraldean desagertu zen. 20 egunen ostean, euren salaketak zentzurik ez zuela esan zieten. Urteak joan, urteak etorri, hobi komun batean aurkitu zuten bere gorpua. 1987an, emakume bat hil zuten ekialdean. Haurdun zegoela, sabela ireki zioten eta herriko plazan utzi zuten, emakumei euren zeregina bertan behera utzi behar zutela adierazteko. Departamentu bereko beste udalerrri batean zegoen erretenean, emakumeen bileratik alaba txikiarekin irteten zen emakume liderra hil zuten.

Herrialdeko ekialdeko egoera larriagotu egin zenez, nekazarien ibilaldiak antolatu ziren 1998. urtean. Bertan, emakumeek ere parte hartu zuten, eta eskualdeko arazoak konpontzea zuten hel-

buru. Ibilaldi horiek geraldari armatutzat hartu zituzten, eta estatuko agenteek filmatu egin zituzten. Bi alditan, erakundeko emakume liderrak mehatxatu zituzten, geraldia bertan behera uzteko. Partaidetza horrek eskualdeko zenbait lekutan izan zuen eragina, baieztatu egiten zelako ANMUCIC tokian tokiko gerrilla baten adierazpide politikoa zela. Horren ondorioz, zenbait eskualdetako emakumeentzako arriskua areagotu egin zen. Erakundeak onespena eta ospea zituen inguruan, hezkuntza eta etxebizitza arloko prozesuak bultzatu zituelako. "Eskualde honetan, inguruan gobernatzen zuen sektore armatuak bermatu eta babesten zituen proiektuak. Estatuak ez zuen inolako zeresanik". Matxinatu armatuak eurak ziren estatua. 1999an, paramilitarismoa ankerkeriaz sartu zen eskualdean, eta auzo-buruzagi asko eta asko hil zituen. Hori dela-eta, jendeak alboko herrialdera ihes egin zuen. Ihes egin zuten guztiak, ordea, ez ziren amaieraraino iritsi. Zenbait, euren artean ANMUCICeko emakume lider garrantzitsuak, programa ofizialen esparruan itzuli ziren, paramilitarrekin itzulera negoziatu ondoren. María Emmaren hazkuntza-emeak emakumeei lagundu zien ihes egiten. Mutilaren, Emmaren eta beste bi emakume liderren lidergoa oso nabaria zenez, mehatxatu egin zituzten. Batak Kolonbiatik kanpo ihes egin zuen, eta bestea bere proiektuetara erretiratu zen. Gizon buruzagiaren etxean sartu ziren, matxinatuen propagandaren bila, eta ANMUCIC babesten ez jarraitzeko esan zioten. Hiru urte geroago, hil egin zuten. Erakundeko zenbait emakume kide ere paramilitarrekin lurraldea ankerkeriaz lehiatzen zuten gerrillaren biktimak izan ziren. Hain zuzen ere, bi emakume hil zituzten, jateko bila zebiltzan paramilitarrei elikagaiak saltzeagatik:

"Gure emakumeek nolatan ez diete salduko eskatzen duten pertsona armatuei? Nola jakin talde armatuak direla, guztiek berdin jantzi eta hizkuntza bera hitz egiten badute?"

María Emma Prada

Paramilitarismoa heltzean, jende ugari lekualdatu behar izan zen. Garai hartan, María Emma ANMUCICeko presidente nazionala zen, eta elkartasun-prozesua bultzatu zuen, derrigorrezko migrazioaren emakume biktimak atenditzeko.

Emma herrialdetik ez irteteko beste aukera batzuk bilatu arren, ezinezkoa izan zen ekiditea, babesleku bihurtu zuen Kolonbiako leku urrunera iritsi zirelako mehatxuak. Hil ez zezaten, beste herrialde batean babesa bilatu behar izan zuen lehen buruzagi nazionala izan zen erakundean. Edonola ere, "paramilitarren eraso fisikoa eta psikologikoa da". Zenbait urte geroago, 2001ean, paramilitarrek Emmaren erkidegoko jendea bildu zuten, Emmak etxebizitza-proiektuetarako dirua hartu, Europara ihes egin eta oso ondo bizi zela esateko. Emma ezagutzen zutenek ez zuten inolako zalantzarik, baina beste pertsona batzuek bai, ordea. Emma ordezkatu zuen emakume liderra hiru hilabete geroago hil zuten senarrarekin batera, eta 2 seme zein 2 alaba utzi zituzten umezurtz. "Emakumeen elkarteak isilarazi zuten. Kide bati deitu nion zer gertatu zen azaldu ziezadan, eta haxe esan zidan: edonon zaudela ere, zaude lasai. Ez iezadazu esan non zauden eta ez deitu. Egunen batean, elkar besarkatuko dugu berriro. Eseki egin zuen". Hilabete geroago, ANMUCICeko presidentea eta haren senarra hil zituzten herrialdeko beste eskualde batean. Handik bi hilabetera, beste eskualde bateko emakume diruzainari moztu zioten burua. 1999. urtearen amaieran eta 2000. urtearen hasieran, emakume buruzagi guztiak zeuden mehatxupean, 3 hilabeteen 3 emakume hil zituzten eta emakume asko zeuden lekualdatuta. Mezua berbera zen beti: behin eta berriro min egingo zieten, herrialdeko ekialdeko emakumeak babesten jarraitzen bazuten. Eskualdeko gizon alkateetako batek ere arriskuan zeudela esan zien, paramilitarismoaren kontrola erabatekoa zelako. Erakunde osoak emakume lekualdatuak babestu zituen, eta eraildako emakumeen umezurtzak atenditu zituzten. Eraildako edo lekualdatutako emakumeen lanari eutsi zion, eta euren heriotza eragin zuten garapen-proiektuak zaindu zituzten, askotan alferrikakoa izan arren, etxalde integral batean gertatu zen bezala. Senarrarekin batera hil zuten emakumeetako batek etxalde hori sustatu zuen, baina paramilitarrek lapurtu egin zuten. Leonorak mehatxupean jarraitzen zuen. Gainera, erakundeko buruzagitza nazionala hartu zuen berriro, María

Emma erbesteratu egin behar izan zenean. Paramilitarismoa landa-inguruneko erakundeetan infiltratu zen, eta zenbait buruzagirekin kooptatu zuen. ANMUCIC bera ere ez zen kanpoan geratu. Gizon horietako bat paramilitarismoaren zerbitzura dago orain, eta erakundeko eskualde-presidente baten senarra zen. Emaztearen bitartez, erakundea hegemonizatzen eta buruzagi nazionalak presionatzen saiatu ziren, buruzagi paramilitar gorenarekin batzartu zitezten. Emakumeek, ordea, muzin egin zieten. Dinamika berri horren ondorioz, euren lana itxi behar izan zuten eurekin lan egiten zuten 27 departamentutako zenbait lekutan. Aurrerantzean, 24 departamentutan baino ezin ziren egon. Euren beldurra areagotu egin zen, euren bizia ez ezik, euren seme-alabena eta senarrarena ere bazegoelako arriskuan. Hego-ekialdeko beste eskualde batean, ANMUCICeko emakume fiskalaren semea hil zuten, egiten zuen lanagatik zigortzeko. Iparraldean, erakundeko beste emakume kide baten 17 urteko alaba bortxatu eta hil egin zuten. Mendebaldean, armada-ko ustezko kideek erakundeko beste emakume kide baten alaba bortxatu eta hil egin zuten. Gainera, etxea erre zioten eta presionatu egin zuten, eskualdetik alde egin zezan. Paramilitarren beste bloke bat zegoen iristear. Eskualde horretan bertan, emakumeek diru-sarrerak sortzeko abian jarritako proiektua suntsitu zuten, eta tokian tokiko zein eskualdeko emakume liderrak mehatxatu zituzten. Emakume horiek, gainera, desagertutako, eraildako, lekualdatutako eta ondoren Nazio Batuetako agentzia batek babestutako emakume kideen seme-alabak zaindu zituzten.

Emakumeek lana eteten zuten, baina batez ere, beste estrategia batzuk bilatzen zituzten, komunikatzen eta batzartzen jarraitu ahal izateko, elizetan, esate baterako. 2001. urterako, kautelazko neurriak (babes-neurriak) eskatu ziren Giza Eskubideen Amerika arteko Batzordean, harrezkero laguntzen dien giza eskubideen erakunde nazional baten bitartez. Amerika arteko organismoaren erantzuna azkarra izan zen, gainera. Kolonbiako gobernuak, ostera, sei hilabete geroago bete zituen. Orduz geroztik, "antolamendua sendotzeko sustatzaileak izatetik emakumeen giza eskubideen defendatzaileak eta laguntzaile humanitarioak izatera igaro gara". Gaur egun ere, elkartasunaren arloan lan egiten jarraitzen du, bizitza eta eragile armatuek oraindik suntsitu nahi duten gizarte-sarea zaintzen, hain zuzen ere. Zeregin berri horretarako, giza eskubideen eta emakumeen erakundeen laguntza jaso zuten beti. Izan ere, "izuari aurre egiten lagundu ziguten lehenengoak izan ziren", eta eurekin euren aliantza sendotzen hasi ziren, gatazka armatuak emakumeen bizitzan nolako ondorioak zituen nazioarteko eta Amerika arteko giza eskubideen organismoen aurrean salatzen (NBE eta CIDH). Era berean, paramilitarrek erabilitako era guztietako indarkeria sexuala dokumentatzen hasi ziren: bortxaketa, neskatilek eta neska gazteek herrialdeko iparraldean horretarako zeuzkaten kanpalekuetan jasandako esklabotza sexuala eta lekualdaketa emakumeengan sortutako ondorioak. ANMUCICi dagokionez, une hartan 600 ziren herrialdeko ekialdean. Euren aliantza ezin zen hain sendoa izan nekazaritza-mugimenduekin, mugimendu hori ere gerraren eta paramilitarismoaren gogorkeriapean zegoen-eta. ANMUCICek erakunde horietako emakumeak ere babestu zituzten, elkarte mistoek gizon buruzagien segurtasun-neurriak ematen zitelako lehentasuna. Askotan, gizonak ere zaindu zituzten, erakundeetan lan hori eskuzabaltasunez egiteko prest zeudenean. ANMUCICeko emakumeentzat lehentasunezkoa zen bizitza zaintzea.

2003. urtearen erdialdean, herrialdeko erdialdeko eskualdeko bi emakume lider desagertu ziren, eta euretako bat ez dute oraindik aurkitu. "Bere alabak hilobiz hilobi doaz, amaren gorpua berreskuratzeko, behintzat". Beste emakumeak, eskualdeko buruzagi garrantzitsuenak, tortura larriak eta bortxaketa sexuala jasan zituen. Torturatzen zuten bitartean, emakume presidente nazionalak itauntzen zioten, behin eta berriro esaten zioten erakundeko emakumeak gerrillariak zirela, hori guztiori berak egiten zuen lanagatik gertatzen zitzaiola eta etxeko andreak izan behar zirela berriro, azken batean horixe bera zelako haien zeregina. Salatzen bazituen, familia mehatxupean jarri zuelako esan zioten, eta argi eta garbi adierazi zioten ANMUCICeko emakumeek esan behar zirela edozeini gauza bera gertatuko zitzaiola, erakundearen lanari eutsiz gero. Gero, beste emakume

lider batzuk bahitu zituzten, erakundearen eta bertako presidentearen informazioa bilatu nahian. Torturatutako departamentu-buruzagia mehatxatzen jarraitu zuten, eta, azkenean, herrialdetik alde egin behar izan zuenez, erbesteratu zen bigarrena izan zen. Bere burua eta bere familia salbatu nahi izanez gero, ez zuen beste irtenbiderik. Mezuak gero eta hurbilagoak izan ziren Leonorarentzat, eta, azkenean, herrialdetik alde egin behar izan zuen.

Zergatik ANMUCIC?⁴

Ankerkeriaz zigortu zituzten emakumeek eragile armatuen, indar publikoaren edo legezko eragile armatuen aurrean neutraltasunerako eskubidea zutela aldarrikatzeagatik eta paramilitarismoa eredu berria ezartzeko beharrezko proiektu militarista moduan ezartzean sortutako ondorioak salatzeagatik. Hala ere, 2003. urtea izan zen ankerrena. Aurka egiteagatik, nekazariei laguntzeagatik eta, batez ere, eragile armatuek erasotako emakumeak babesteagatik zigortu zituzten.

“Nire ustez, mezuak argiak zirela ebaluatu genuen eta, biktimen eskubideak bermatzeko eta babesteko lan solidarioa garatzean, gizarte-sarea zehar suntsitzeko oztopo bihurtu ginela. Izan ere, traba egiten genien, autoritarismoarekin, militarizazioarekin, erkidegoen kontrolarekin eta matxinadarik gabeko megaproiektuen sorrera eta ezarpenarekin zerikusia ez zuen guztia garbitzea zutelako helburu. Orduan, ANMUCIC egunero kalean zegoen erakundea ez bazen ere, gizarte-mugimendua, gizarte-sarea desagerrarazteko asmo eta aukerei aurre egiteko oztopoa izan zen: afrondorengoen mugimendu indigenaren eskualde handiak hutsik uztea, eredu ekonomiko neoliberala ezartzea eta herrialdea militarizatzea. 2003. urtean, argi zegoen zein zen helburua: euren emakumeak eta alabak erbesteratuta, desagerrarazita, lekualdatuta eta era sexualean erasota, gizarte zibila sarraskitzea (...).”

Leonora Castaño Cano

Indarkeria sexuala, gerrako arma

ANMUCICek herrialdeko ekialdeko erdialdeko eskualde batean zegoen ezarrira, eta bertako neskatilak 9 urte zituztenetik ziren paramilitarrek inposatutako prostituzioaren eta derrigorrezko esklabotzaren biktimak. Herri bateko apaizak krimen horri buruz hitz egitea debekatu zien, hobe zutela zaintzea esan zieten eta antolatzeke egiten zituzten ahaleginak kritikatzeko zituen. Haren ohartarazpenaren ondoren, “bizirik irten ginen, baina izua sentitu genuen”. Politikariek erakundea sustatzen zuen emakume liderra markatu zuten, eta herritik lekualdatu zuten. ANMUCICek matxinadako eragileak ere kritikatzeko zituen, emakumeen gorputzak gerrako botin moduan erabiltzen zituztelako. Eurekin bat egiten zuten emakumeek abortatu egin behar izaten zuten, haurdun geratuz gero. Gainera, informazioa behar zutenekin harreman sexualak edukitzeko eskatzen zieten. Gerrillak euren mugimenduak kontrolatzen zituen, paramilitarrek antolatzea debekatzen zieten eta erakundeetako emakume liderrak erail edo “zortetik izanez gero, lekualdatu egiten zituzten”. Gerrillak emakumeak lekualdatzen zituen, armadako kideekin harreman afektiboak zituztenean. Paramilitarrek emakume buruzagiak hiltzen zituzten, eta bizirik zirauen mugimendua kooptatzen zuten euren interesen zerbitzurako. Horiek horrela, ANMUCICen eraginpeko bi departamentu kontrolatu zituzten. 2002ko abenduan, paramilitarrek liskarrak etengo zituztela ustez adierazi ondoren, erakundearen aurkako eraso gogorrenari ekin zioten.

Indarkeria sexualari dagokionez, emakume askok ez zuten beldur, lotsa edo familiaren balizko gaitzespenagatik salatu. Gaur egun ere, oraindik salatu ez duten emakumeak daude. Prozesuetan

⁴ Hitzek hitz azaltzen ez den iritzia elkarrizketatutako emakumeetako batena da.

laguntzen dietenek herrialdeko ekialdeko erkidego indigena bateko emakumeak konbentzitu behar izan zituzten salaketak aurkezteko.

“Askotan, emakumeen beste eraso batzuen ostean salatzen den azkena da bortxaketa sexuala. Emakumeek lotsa sentitzen dute, bortxatu egin dituztelako. Patriarkatuak gogor lan egin du, emakumeak salatzen ausartu daitezen. Nekazarien erkidegoetan, ordea, zailagoa da salatzea”.

Leonora Castaño Cano

Erakundeko buruzagiak adierazten duenez, egitateak gertatu eta urtebetera edo bi urtera izaten zuten krimen sexualen berri, biktimei hitz egitea debekatzen zitelako edo gizarteak gaitzetsi eta gizonak iseka egingo ote zieten beldur zirelako. Horren adierazgarri, herrialdeko ekialdeko apaiz batek emakumeei gertatutakoa euren errua zela esaten zien.

Lekualdaketa eta babeslekua

Leonorak baieztatzen duenez, lekualdaketa eta babeslekuaren ondorioak desberdinak dira gizon eta emakumeentzat.

“Emakumeok erraztasun handiagoz aurre egiten diegu zailtasun horiei. Emakumeok familia osoaren eta senarren depresio-krisien pentzura egon behar gara. Egoera hori desabantailatsua da gizonentzat, lehengo boterea eta eragina galtzen dituztela sentitzen dutelako. Emakumeok ez gara sendatzen, baina etapa horiek gainditzeko ditugu familiaren arduragatik, familia mantentzeko erantzukizunagatik”.

Leonora Castaño Cano

Bestetik, giza eskubideak babestea euren bizi-proiektuetakoa izan denean, ezin izango dute inoiz egindakoa ahaztu. Gizonek, ordea, ahaztu egingo dute, galdutakoa berreskuratzeko besteko baliabide ekonomikoak aurkitzen badituzte. Emakumeek berreskuratzeko itxaropena jartzen dute laguntzarako sare sozial berrietan, antolamendu-prozesu berrietan eta lekualdaketa nahiz babeslekua sorrarazi zituzten bezalako arazo berrietan. “Arlo ekonomikoaren balantzaren aldean, honek balio handiagoa du”. Lurra galtzea esperientzia gogorra da gizon zein emakumeentzat. Emakumeentzat:

“Historiari begira baztertuta egon direlako. Eskualdean bizikidetzaren harreman sozialak galtzean sortzen dira galera horiek. Landa-ingurunean, hain zuzen ere, bigarren familia dira azkenean. Jarrera hori emakumeek lantzen dute gehiago, emakumeek lurrarekiko atxikimendua zaintzen dute gehiago. Gizonek, ordea, lurra saldu nahi dute (...)”.

Leonora Castaño Cano

Biktimentzako kalte-ordaina, emakumeentzako kalte-ordaina

Emakumeen artean, aldeak daude banan-banako kalte-ordainerako ametsetan. Dena dela, euren begiradek berriro bat egiten dute kalte-ordain kolektiboari buruz hitz egitean.

“Behin, haserre bizian nengoen eta kalte-ordaina ekonomikoa baino ez zela izan behar pentsatu nuen, baina ez da horrela. Pertsona moduan kalte-ordainik emango balidate ANMUCIC osoa kontuan hartuko ez balute, merezi ez duela sentituko nuke. Izan ere, gutako bakoitza “sendatzeko”, elkartu gintuen eta ahots, bihotz eta sen bakar bihurtu gintuen gizarte-sarea berreskuratu behar da. Horrelaxe, hau da, gure emakumeen laurogeita hamar mila bihotzez betetako bihotz handi horren bidez bakarrik hasi ahal izango gara bakea bilatzen, gorrotoa ezabatzen, barkamenera

garamatzen bidea urratsez urrats neurtzen... Horrela bakarrik sentituko dugu jasandako kalteak arindu egiten direla, hainbesterako oinazea baretzen dela... Gure erakundea herrialdeko txokotxo bakoitzean berreskuratzen badugu, gure Kolonbia ere apurka-apurka sendatu ahal izango da (...)."

María Emma Prada

Susperraldian pentsatzean, biktimek jasandako kaltea hartu behar da kontuan:

"Emakumeei euren bizitzako atal bat, familia-ingurunea, gizarte-ingurune moduan sendotu dutena, emakumeen eta euren erkidegoen bizimodu duina kentzen badiete, eragin argia izango du emakumeengan. Gainera, honako galdera honi erantzun beharko diogu: zertarako balio dut nik? Eskualdeetan bizi-proiektua eta itxaropena utzita, Bogotara iritsi ziren emakumeak eta herrialde-tik irten ziren emakumeak. Emakume moduan sendotzeko orduan lurralde horrek izan duen esanahiak edo susperraldi ekonomikoaren irismenak ez du berez gauza handirik esaten. Kalte-ordain ekonomikoa jasota, gizon kideek galdutakoa berreskuratzea dutela sentitzen dute. Emakumeok, ordea, beste era batera adierazten dugu, behintzat. Emakumeon artean ohikoa da eskubideen urraketei buruz hitz egitea (indarkeria sexualaz izan ezik). Gizonek gaineratik azaltzen dituzte egitateak; eta guk, ordea, xehetasunez. Familian eta eragile armatuaren indarrak suntsitutako proiektu sozial eta bateratuetan daukan eraginari buruz hitz egiten dugu. Guretzat, oinarrizko premiei aurre egiteko moduko baliabide ekonomikoen bermetik haratago doa zoriontasunaren eraketa. Oso-osoa garrantzitsua da gure afektibotasunari begira, gauza asko hondatu zitzaizkigulako eta horrek guztiak badu zerikusirik eskatzen dugun berreskurapen integralarekin".

Leonora Castaño Cano

Leonorak susperraldi psikoafektiboa eskaintzen duen justizia modu integralean ulertzen du, bere senideen heriotzaren aurrean eta gizarte-sarearen galeren aurrean. Beste emakume batzuekin partekatutako orduak, emakume guztiak bilduta zeuden lekura inolako babesik gabe iristean ematen zieten segurtasuna, azaldu behar zuten guztia entzuteko hartzen zuten denbora eta elkartasunaren adierazpena ekonomikoa ez beste arlo batzuetan. "Psikologoak izan gabe, bide hori egiten genuen". Nolanahi ere, erantzuna ez zen bera gizonen artean. Onartu egiten dute eurentzat ez zela gauza bera gizon kidea edo emakume kidea galtzea, emakume kideek denbora gehiago behar izan dutelako jabeakuntza lortzeko eta lidergoaren eraketarako oztopoei aurre egiteko. Hona hemen kalte-ordainaren inguruan duen itxaropen, gurari eta eskaeraren laburpena:

"Maila pertsonalean, nire bizilekua zen ingurunearekiko harremanaz gozatu nahi nuke, nire bigarren familia zela sentitzen nuen. Beste erakunde batzuekin garatutako lanaz gozatu nahi nuke, gizartearentzat erabilgarria izan nahi nuke eta emakumeen lidergorako zein herritartasunerako lana garatu nahi nuke. Niretzat horixe bera da galera handiena. Estatuak edozein emakume liderrari edo niri neuri bermatu beharko digu emakumeen gizarte-proiektua zentzuz garatu dezakegula, gure bizitza osoan zehar horixe izango delako gure zeregin nagusia. Paramilitarrek eragin duten hain oinaze handia aitortu beharko dute, erakundeari kalte egin diotenei jendaurrean aitortu beharko dute egindakoa eta kalte-ordainerako neurriak hartu beharko dira, suntsitutako gizarte-sarea eta emakumeak berreskuratzea ahal izateko. Ez da nahikoa izango neurri ekonomikoak hartzea, gure bizitzako zeregina zen lana garatzeko aukera eman beharko digutelako. Izan ere, zoriotsu egiten gintuen eta gizartean balioa geneukala sentiarazten zigun. Azken batean, gizarte eta bizi proiektua aurrera eramateko konpromisoaren alde lan egiteko tresna zen emakumeontzat".

Leonora Castaño Cano

Emakumeen aurpegia, Guatemalako gatazka armatuan zehar eta ondoren

Centro para la Acción Legal en Derechos Humanos

Barruko gatazka armatuaren aurrekariak

Guatemalak 36 urte iraun zuen barruko gatazka armatua bizi izan zuen (1960-1996). Epe horretan, Estatuak gizarte zibilaren eta, batez ere, herri maiaren giza eskubideak larriki urratu zituen.

Barruko gatazka armatuak hainbat eta hainbat biktima eta izua utzi zituen, 200.000 eta 250.000 biktima artean, hain zuzen ere. Harik eta biktimen erregistro nazionala egin arte, Argiketa Historikorako Batzordearen (CEH) datuak ditugu, eta modu ofizialean erregistratuta eta onartuta daude. CEHren arabera¹, zein sexutakoak ziren jakiteko aukera eman zuten biktimen %62tik, %25 emakumeak ziren. Beraz, gatazka armatuko lau biktimatik bat emakumea zen.

Matxinatuen aurkako politikak erkidego osoak suntsitu zituen, erail egin zuen eta honako pertsona hauek desagerrarazi zituen: intelektualak, artistak, profesional akademikoak, abokatuak, apaiak eta mojak, sindikalistak, langileak, nekazariak, ikasleak, erkidegoetako liderrak, katekistak eta "komunistatzat" hartutako edonor. Lur hondatuaren politika abian jartzean, eragin zuzena eduki zuen maien artean. CEHren esanetan, Guatemalak herri horren aurkako genozidioa garatu zuen, politika hori abian jarri zuenean.

Emakumeen aurkako indarkeria sexuala barruko gatazka armatuan zehar²

"... patruilariak musika jarri zuten eta dantzatzera behartu zituzten emakumeak. Emakumeek ez zuten dantzan egin nahi, baina behartu egin zituzten, indarkeriaren eta heriotzaren mehatxupean. Xococeko patruilari batek 14 urteko neskatila harrapatu zuen... mendira eramane eta bortxatu

¹ CEH (Argiketa Historikorako Batzordea) (1999): *Informe Guatemala: Memoria del Silencio*, II., III. eta IV. liburukiak. Guatemala: CEH.

² CALDHren agiriaren arabera egindakoa (2006): *La violencia sexual contra las mujeres en el conflicto armado: un crimen silenciado*. Guatemala: CALDH.

egin zuen. Handik gutxira, itzuli egin ziren, eta neskatila negarrez, zikin eta jipoituta zegoen... Beste soldadu batzuek emakumeak mendira eraman eta bortxatu egin zituzten...".

Río Negroko sarraskiko lekuko zuzena.

Oso-oso garrantzitsua da emakumeek barruko gatazka armatuan zer bizi izan zuten azaltzea. Emakumeen aurkako indarkeriak zenbait ezaugarri izan zituen: beheragoko mailakoak direlakoan, gizonak emakumeei erakutsi nahi dizkieten boterea, nagusitasuna eta kontrola.

Indarkeria sexuala emakumeen aurka erabilitako lehen arma izan zen barruko gatazka armatuan. CEHren arabera, indarkeria sexualen %99 emakume zein neskatilen aurkakoak izan ziren. Euren artean, %89 emakume indigenen aurkakoak izan ziren. Beraz, agerikoa da arrazakeria eta bereizkeria ere oso nabariak izan zirela emakumeen kontrako zapalkuntza-sistemetan.

Hona hemen gatazkan gertutako zenbait indarkeria-adierazpide: emakume asko eta askoren jendaurreko indarkeria sexuala, hau da, euren senideen eta erkidego osoaren aurrean (sarraskien betearazpenaren esparruan, heriotzak amaiera ziren); armadak edo poliziak atxilotutako eta euren zentroetan giltzapetutako emakumeen aurkako jendaurreko indarkeria sexual anitza eta jarraitua; torturatutako eta bortxatutako emakumeen sexu-organoen mozketa; mutilaziodun eta/edo bortxaketa-arrastodun gorpuen jendaurreko erakustaldia; eta gatibualdi, esplotazio eta mirabetza sexuala. Horren ondorioz, haurdunaldiak eta elkarketa behartuak sortu ziren sarritan.

CEHren txosten berean adierazten denez, emakumeen aurkako indarkeria sexuala nola antolatu eta garatu irakasten zuten entrenamendu militarrean bertan, hau da, estrategiatzat hartzen zuten. Hori dela eta, batzuetan goi-agintariak menpekoei agintzen zieten herrixkako emakume guztiak bortxatzeko. Mekanismo hori etsaien aurkako iraina eta mendekua zen. Ekintza horiek basakeria eta ankerkeria itzelaz garatu zituztenez, ageri-agerikoa da emakumeen bizitza eta gorputza erabat gutxien zituztela eta biktimek tratu ezin laidogarriagoa jaso zutela. Emakumeen aurkako gorroto-krimenak izan ziren eta oraindik ere badira.

Horren guztiorren erantzule zuzena Guatemalako Estatu bera da, bihozgabekeria horiek armadak eta matxinatuen aurkako politika sortu eta betearazten zuten estatu-aparatuek antolatu, ezagutu eta agintzen baitzituzten. Kanpaina-planetan armadak bortxaketak soldaduen "errakuntza" izan zirela onartu arren, armadaren operazioetan behin eta berriro gertatzen ziren ekintzak direla dio CEHK.

Indarkeria sexuala besteak, hau da, "etsaiak" menderatzeko tresna izan zen, eta, horretarako, garaituaren ondasunak hartu eta suntsitu egiten zituzten. Testuinguru horretan, emakumea gauzatzat hartzen dutenez, garaileak indarkeria sexuala darabil, emakumeen gorputzaren nahiz sexualitatearen gaineko boterea eta kontrola duela erakusteko. Izan ere, gerrako ospil bihurtzen du. Horrez gain, emakumeek euren erkidegoan bertan bortxaketaren estigma eraman behar zuten, isilik geratu ziren eta geratzen dira krimen horren aurrean. Sarritan, gainera, bortxatzaileekin bizi behar dira euren erkidegoetan (patruilari ohiak, soldaduak edo komisionatu militarrek).

CEHK hauxe esan zuen ondorio moduan: "indarkeria sexuala Estatuko eragileek matxinatuen aurkako estrategiaren esparruan oro har eta behin eta berriro garatutako jarduera izan zen. Hain zuzen ere, benetako izu-arma izan zen, eta giza eskubideak zein Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa larriki urratu zituzten".³

³ CEH (1999): *Memoria del Silencio, Las violaciones de los Derechos Humanos y los hechos de violencia*, III. liburukia. Guatemala: CEH.

Emakumeen aurkako indarkeria sexualak ez ezik, beste era bateko egoerek ere atentatu zuten emakumeen osotasunaren aurka; esate baterako, exekuzio arbitrarioak, desagerpen behartuak, tortura eta zenbait tratu anker.

Gaur egun, gatazka armatuetan gertatutako indarkeria sexualaz hitz egiten denean, beldur eta oinaze handia sortzen dira. Zauriak zabalik daude oraindik, Estatuak ez duelako ezertxo ere egin, biktimak atenditzeko eta eragindako kalte ikaragarria justiziaren bidez konpontzeko. Emakumeek ez dute gertatutakoa ahaztu, erkidegoak bizitakoa gogorarazten die eta eurentzat lotsagarri bezain mingarria da inork ordainduko ez duen krimenaren biktimak izatea.

Gaur egun ere, gatazka armatuetan horrelako indarkeria ematen denez, izuak bere horretan dirau, bai eta gatazka sorrarazi eta oraindik konpondu ez den txirotasunaren ondorioz garatutako indarkeriak ere. Gaur egungo indarkeria-mailak dira horren adierazgarri, baina, batez ere, emakumeen aurkakoak. 2000. urtetik 2008ko maiatzera arte, 3.820⁴ emakume inguru hil dituzte. Bestela esanda, zigorgabetasuna ez da hautsi eta estatuko segurtasunaz arduratutako instituzioak ez dira demokratizatu. Gertatutakoa berriro ez errepikatzeko bermea urratu egin da, egia onartu eta sakon aztertu ez delako, justiziarik eta aldaketarik egon ez delako eta gatazka armatuak gizarte-jokabidean eragindako ondorioak atenditu ez direlako. Nahitaez, Guatemalan jazotzen den guztiak iraganarekin du zerikusia, ez baita ezer itxi eta konpondu.

Genozidioagatiko justiziaren bide luzea

Giza Eskubideetako Lege Ekintzarako Zentroa (CALDH) irabazi asmorik gabeko elkarte da, eta, oroimen historikoaren jakitun, giza eskubide integralen⁵ erabilera sustatu eta defendatzen du, gizon eta emakumeak bazterketapean eta zapalkuntzapean daudenean etnia, hizkuntza eta kultura anitzeko zuzenbide-estatu demokratikoa eraikitzeko prozesuan.

Erakunde kontraparteak eta mugimenduak sendotzen ditu, eta, bertan, azterketak, proposamenak zein egituraketak egin eta ondorioak ateratzen ditu honako gai hauen inguruan: justizia eskuratzeko aukera, zigorgabetasunaren aurkako borroka, globalizazioa eta eskubide ekonomiko, sozial eta kulturaletan duen eragina, bazterketa, arrazakeria eta bereizkeria.

Bere ardatz tematikoek honako hauen aurkako borroka dute helburu: arrazakeria, bereizkeria, bazterketa, neoliberalismoa, globalizazioa eta eskubide ekonomiko, sozial eta kulturaletan duen eragina, zigorgabetasuna eta justizia eskuratzeko aukera.

Horretarako, berarekin lan egiten duten kontraparteen antolakuntza sendotzen du (gazteak, emakumeak, indigenak eta justiziaren alde borrokatzen diren biktimak). Era berean, lege, teknika eta politika arloko aholkularitza eta laguntza eskaintzen dizkie, eta Estatuan eragiten ahalegintzen da, tokian-tokian, departamentu mailan eta maila nazionalean. Horrez gain, bultzatutako prozesuak eta jorratutako gaiak ikertu eta sistematizatu egiten ditu, eta bere taldeak indartzen ditu.

Bere apustu nagusien artean, Guatemalako genozidioa aitortu dezaten lortu nahi du, berriro errepikatuko ez dela bermatzeko. Gogor lan egiten du, genozidioagatiko justizia-eskaria agenda publiko nazionalean kontuan hartu dezaten eta genozidio-delituaren inguruko aurrekari juridiko, politiko eta sozialak ezarri daitezen. Buru-belarri lan egiten du, egia argitzeko eta herrialdeko oroimen historikoa berreskuratzeko.

⁴ Hildakoen kopurua Polizia Nazional Zibilaren txostenetan, komunikabideetan eta emakumeen erakundeetako erregistroetan azaldutakoa da.

⁵ Honako hauexek dira giza eskubide integralak: eskubide politiko, zibil, ekonomiko, sozial, kultural eta ingurumeneko guztiak kontuan hartzen dituzten eskubide indibidual eta kolektiboak.

CALDHk lege-arloko aholkularitza ematen dio Justizia eta Adiskidantzarako Elkarteari (AJRi). Izan ere, 2000. eta 2001. urteetan, Romeo Lucas García (1981 eta 1982) eta José Efraín Ríos Montt (1982 eta 1983) goi-agintari militarren aurkako demandak aurkeztu zituzten, barruko gatazka armatuak iraundako urteetan herri maiaren aurkako genozidio-delitu egiteagatik.

Salaketak Guatemalako justizia-sisteman aurkeztu zirenetik 7 urte baino gehiago igaro ondoren, ezer gutxi aurreratu da kasuotan; oraindik ez dute erantzule bat ere atxilotu eta agintariek ez dute inolako borondate politikorik kasuok aurrera eramateko. Edonola ere, zenbait urrats eman dira, agiri militarrek desklasifikatzean genozidioaren frogabide moduan erabili ahal izango direlako. Era berean, adierazi behar da genozidioa eta delitu ankerrak leporatu dizkieten militarren aurkako harrapaketa-aginduak eman direla nazioartean, Estatu Espainoleko Entzutegi Nazionalen aurkeztutako auziaren barruan.

CALDH lege-aholkularia denez, laguntza teknikoa, legala eta politikoa eman dio AJRi urte hauetan. Elkartea sendotzea "funtsezkoa" izan da, kasuari jarraipena emateko. Prozesu hori garatzeko, bertako kideen prestakuntza eta trebakuntzarako prozesuak jarri dira abian honako arlo hauetan: giza eskubideak, herri indigenen eskubideak eta eragina. Aholkularitza teknikoaren barruan, Amerika arteko Sistemaren eta Guatemalako Justizia Sistemaren funtzionamendua daude. Era berean, sarrasketan bizirik iraun zutenei eta lekukoei lagundu die lekukotasuna eman aurretik, bitartean eta ondoren. Alde horretatik, laguntza psikosoziala eman dio elkarteari, beste erakunde batzuekin koordinatuta.

Emakumeak eta justiziaren bilaketa

Atal honetan, CALDHk barruko gatazka armatuko emakume biktimekin garatzen duen lanaren zenbait esperientzia azalduko ditugu. Guzti-guztiak erakundearentzako irakasbideak izan dira, eta gaur egun abian daude. Modu berean, beste esparru batzuen esperientziak ere partekatuko ditugu, euren helburua indarkeria sexualaren emakume biktimeentzako justizia bilatzea delako. Estatuak atenditzen ez dituzenez, ekimen horiek emakumeen premia handiei aurre egiteko nahi-koak ez diren arren, balio handia dute, jarraipenerako lerroak ematen dituztelako eta esperientzia handiak uzten dituztelako.

CALDHk AJRi sendotzeko eskainitako laguntza eta erakundearen zeharkako ardatzak kontuan hartuta, 2005. urtetik aurrera elkarteko emakumeak atenditzeko, indartzeko eta laguntzeko prozesua hasi zen. Emakume gehienak maiak ziren, eta erkidego soziolinguistikoetako 5 erkidegotakoak ziren: Ixil, kaqchikel, Q'eqchí, Achí, Q'anjobal eta Chuj.

Zenbat eta gaitasun gehiago eduki elkarreak, orduan eta atentzio bereziagoa eskaini behar zitzaien emakume kideei, lekuko zuzenak izan nahiz biktimeen senideak izan. Modu berean, emakumeek eurek adierazi zuten, gonekin bat egin behar zuten justiziaren alde borrokatzeko.

Emakume-taldeak sortu ziren erkidegoka edo eskualdeka. Eurekin emetasunaren autoezagutza landu zuten, batez ere. Oso gogoan eduki behar da emakume parte-hartzaile gehienek gerra bera sufritu zutela zuzenean eta, horren ondorioz, buru-estimua eskasa, izua, ikara eta euren kabuz adierazteko eta balioetsita sentitzeko zenbait emozio zituztela. Batzuk indarkeria sexualaren biktimak izan ziren gatazkan zehar, eta bortxaketaren amesgaiztoa gorde dute isilpean.

Prozesuan, bizipen-metodologian oinarritutako tailerrak egiten dira, emakumeen errealitatea eta ezaugarriak kontuan hartuta (helduak eta gazteak, gehienak maiak dira). Horrez gain, norbera eta erkidegoa bera ezagutzeko dinamikak eta jokoak egiten dira, bai eta gai hauen inguruko ulermena eta sentsibilizazioa sustatzeko dinamika eta metodologiak ere: giza eskubideak eta

emakumeen zein herri indigenen eskubide bereziak. Prozesu horretan, garrantzi handia ematen zaio ikuspegi etnikoari, elementu egituratzailea da eta.

Emakume-taldeari emakume maia batek lagundu dienez, are gehiago ireki dira euren erkidegoetan bizitako egoeraz hitz egitean. AJRko kideak emakume maiak direnez, prozesuaren onerako izan zen, emakumeak identifikatu egiten zirelako eta, talde batean, hizkuntza berean hitz egiten zutelako.

Emakumeek gero eta segurtasun eta partaidetza handiagoa izan zuten erabakiak hartzeko eremuetan, AJR elkartean zein euren erkidegoetan bertan. Beraz, euren eskariak eraman ahal izan zituzten zenbait esparrutara. Ageri-agerikoa da hazkuntza politikoa izan dutela beste esparru batzuetan parte hartzen hastean, justiziar buruzko hitzaldiak eman dituztela komunikabideetan eta segurtasun handiagoa dutela orain. Gainera, justizia eskatzeko, antolatu eta parte hartu egin behar dutela sentitzen dute.

Prozesuan, nabarmendu zen gero eta gehiagotan hitz egin behar zutela euren eguneroko bizitzako gai buruz: emakumeen aurkako indarkeria, indarkeria sexuala, iraganaren ondorioz sortutako indarkeria sexuala eta gatazka armatuan zehar bizitakoa, baina lege-arlokoa ez beste ikuspegi batetik. Orduan, epealdi historiko horretan jasandako indarkeria sexualari buruz hitz egin nahi izan zuten.

Une horretan, gaia aztertzen hasi ziren, eta argitalpen hau kaleratu zen: *La violencia sexual contra las mujeres en el conflicto armado: un crimen silenciado*.⁶ Lan horretan, emakume indigenek barruko gatazka armatuan zehar jasandako muturreko indarkeria-egoerak jarri ziren agerian. Horrez gain, emakumeen aurkako indarkeriaren arrazoiak eta ondorioak aztertu ziren sakonago. Modu berean, hainbat urtetan isildutako eta ezkutatutako errealitatea salatu zuen, gatazkan gertatutako giza eskubideen beste urraketa batzuen aldean garrantzia kendu ziotelako.

Argitalpenean, indarkeriaren karakterizazioa egiten da, AJR elkarteko emakume kideen lekukotasuna aztertu ondoren. Azterketa horretan, egokia iruditu zitzairen arrazakeria eta genozidioa terminoetara hurbilketa kontzeptuala egitea, gatazka-etapan elementu egituratzaileak ziren eta. Era berean, emakumeen aurkako indarkeriaren kontzeptua ere aztertu zen sakonago, eta indarkeriaren izaera sexuala nahiz indarkeria sexuala nabarmendu ziren.

Ikerketak lau kategoria erabili zituen, gatazka armatuko indarkeria sexuala aztertzeko: a) arrazakeria emakume indigenen gorputzaren bidez gauzatzea: irudi sinbolikoak; b) indarkeria sexuala nagusitasunaren eta boterearen adierazgarri izatea: azpikeria eta basakeria; c) indarkeria sexualako egintzetan erabilitako "modus operandia" ikertzea; eta d) indarkeria sexualeko egintzen erantzukizuna norena zen zehaztea.

Esan beharra dugu orain dela gutxira arte emakumeen eta/edo giza eskubideen erakundeak izan direla bete-betean lan egiten hasi direnak, egitate horiek atenditzeko, agerian jartzeko eta salatzeko. Autolaguntzarako taldeak eratu dira krimen hori jasan zuten emakumeentzat. CALDHk eta erakunde-talde txiki batek ardatz hori sustatu dute, eta argi eta garbi esan beharra dago jazarpena, xaxaketak eta mehatxuak jasan dituztela horren ondorioz.

Zentzu horretan, Ikaskuntza Bateratuen eta Ekintza Psikosozialaren Taldeak (ECAP) eta Guatemalako Emakumeen Batasun Nazionalak (UNAMG) osatutako Emakume Aldaketa-eragileen Partzuergoak egindako lana aipatu behar dugu. Hain zuzen ere, prozesu integrala garatzen dute,

⁶ CALDH (2006), *Op. Cit.*

Guatemalako gatazka armatuan indarkeria sexualaren biktimak izan diren emakumeen jabekuntza eta generoaren araberrako justizia lortzeko. Zenbait lan-ardatz jorratzen dituzte, emakumeek euren bizitza, erkidegoa eta herrialdea eraldatzean izan behar duten zeregin nagusia sendotu edo berreskuratu dezaten.

Amaitzeko, gatazka-egoeretako indarkeria sexuala lantzean kontuan hartu beharreko zenbait ideia azalduko ditugu. Gatazka armatuei edo gerra-egoerei buruz hitz egitean, berriro diogu funtsezkoa dela emakumeek testuinguru horietan bizi duten egoera kontuan hartzea. Guatemalan, esaterako, jakin badakigu zer egin ugari dagoela oraindik, baina egindako ahalegin eskasak oso lagungarriak izan dira, zenbait eratako erakundeak gaiaz eztabaidatzen hasi daitezten.


Emakume indigenak indarkeria sexualaren biktimen zerbitzurako arloetan trebatu behar dira, hizkuntza, kideza etnikoaren zentzua, konfiantza eta mundu-ikuskeraren ulermena erabakigarriak izan daitezkeelako, indarkeria sexuala atenditzeko edo aztertzeke orduan.

Euren artean osagarriak izanda euren espezialitateak nahastu ditzaketen erakundeak elkartzen badira, askoz emaitza hobekak lortu daitezke gai hau jorratu eta atenditzeko orduan. Era berean, emakumeak ageri-agerian egon behar dira honako prozesu hauetan guztietan: gorpuak hobitiki ateratzeko ekimenak, kereilak, aitorpenak, lekukotasunak eta barruko gatazka armatuarekin zerikusia duten beste ekintza batzuk.

Horretarako, funtsezkoa da emakumeak jasandako indarkeria sexuala salatu baino lehen, bitartean eta ondoren atenditzea eta erkidegoan bertan laguntzea, sarritan euren ingurune hurbilenak biktima bihurtzen dituelako berriro.

Premiazkoa da emakumeek gatazka armatuetan jasandako indarkeria sexualaren inguruko aurrerari juridikoak ezartzea eta kasuak aurkezteko behar besteko baldintzak sortzea. Horretarako, honako arlo hauetan adituak diren talde teknikoak eratu behar dira: ikerketa, legeria nazionala eta unibertsala, psikologia, hizkuntzalaritza eta kasuak aurkeztean, garatzean eta aurrera eramatean lagungarriak izan daitezkeen beste adar batzuk.

Salaketa publikoak balioa du une oro. Behin eta berriro salatu behar da indarkeria sexuala gatazka armatuan isildutako krimena izan zela. Gai horri buruz hitz egin beharra dago, eta erantzukizun politikoa egotzi behar zaie delitugileei, hau da, Guatemalako indar armatuei eta autobabes zibilerako patruilariari. Estatuari indarkeria sexuala jasan zuten milaka emakumerentzako justizia eskatu behar zaio behin eta berriro, gatazkako biktimak dira eta.



Latinoamerikako emakumeen elkarte eta elkarte feminista batzuen direktorioa

Emakumeen elkarteek eragile sozial eta politiko gisa egiten duten lana funtsezkoa da, gatazka armatuak genero-harremanetan eragiten dituen ondorio negatiboak murrizteko, eta bakearen eraikuntza sustatzeko. Emakumeen mugimenduak aukera ezberdinak proposatzen eta sustatzen ditu, gerraren eta indarkeriaren erabilera etengabearen ondorioz sortzen den egoerari irtenbideak aurkitzeko.

Gisa horretan, erakunde horiekin lan egiten jarrai dezaten bultzatu behar dugu, izan ere, emakumeek zeresan aktiboa eta protagonista izan behar dute prozesuetan. Horretarako, euren alde egin behar da, eskubideen gaineko berbaldiaren "objektutzat" jo ez daitezen, eta bai, aldiz, gobernu ezberdinen aurrean euren eskubideak eskatzen eta azaltzen dituzten subjektutzat jotzeko.

Eskuartean duzun kapitulu honetan, Kolonbiako eta Guatemalako emakumeen zenbait elkarte eta talde feministaren izenak jaso dira. Herrialde horiek adibide gisa hautatu dira kapitulu osoan, gatazka armatuak emakumeengan duen eraginaren eta bakea eraikitzearen auziak jorrazteko. Gisa horretan, erakunde horiek, garapenerako eragile diren aldetik, nazioarteko lankidetzaren esparruan ezagutzera eman nahi dira, aintzat har daitezten. Era berean, GGKEak animatu nahi ditugu aipatutako erakundeekin batera sareak eta itunak sina ditzaten. Horrela, emakumeak eta euren interesak ikusgai egingo dituzten lan-ildoak garatuko dira nazioarteko garapen-eremuan.

Badakigu emakumeen eta talde feministen elkarte ugari dagoela Latinoamerikan, baita tinko lan egiten dutela ere, gatazka armatuak genero-harremanetan eragiten dituen ondorio negatiboak murriztu daitezten, eta bakearen eraikuntza lor dadin. Alabaina, horietako bakan batzuk soilik aipatuko ditugu orain, beste asko egiten ari diren ahalegina eta lana ahantzi gabe.

Kolonia

Kolonbian, emakumeen mugimendua XX. mendearen hasieran sortu zen, boto-eskubidearen aldeko borrokarekin batera. Ordutik hona, pentsamendu feministarekin erlazioatutako emakumeen elkarteak sortzen hasi ziren, sexu-eskubideak nahiz ugalketa-eskubideak, emakumeen eskubide politikoak eta hezkuntza, besteak beste, jorratearren. 90eko hamarkadan, gerra larriagotzearen ondorioz, emakumeek proposatutako bakearen aldeko ekimenak egin ziren, eta antolakuntza-dinamika berriak gauzatu ziren, batez ere, baserrietako emakumeek eta mugimendu sindikalak gauzatutakoak, gatazka armatuak zuzen-zuzenean eragin baitzien. Emakumeen mugimenduaren barnean, hiru elkarte mota bereiz ditzakegu: lehenengoak emakumearen mugimendua zertan datzan azaltzen du; bigarrenak hausnarketa akademikoari heltzen dio; eta hirugarrenak emakumearen ordezkarietaz eta ekintza politikoaz hitz egiten du.

ERAKUNDEAREN IZENA	ANMUCIC-Koloniako Landa-emakume Indigenen eta Beltzen Elkarte Nazionala
HELBIDEA	Carrera 8 n° 13-31. Oficina 502. Bogotá ☎ (57 1) 2221630 ✉ anmusic@hotmail.com
HARREMANETARAKO PERTSONA	Aleyda Barreto (Zuzendaria)
LANAREN ARDATZAK	<ul style="list-style-type: none">• Landa-emakumeen, indigenen eta beltzen giza eskubideak

ERAKUNDEAREN IZENA	Emakumeen Etxea Korporazioa
HELBIDEA	Carrera 28 n° 51-22. Bogotá ☎ (57 1) 3103415 ✉ casmujer@colnodo.apc.org
HARREMANETARAKO PERTSONA	Olga Amparo Sánchez (Zuzendaria)
LANAREN ARDATZAK	<ul style="list-style-type: none">• Emakumeen eskubideak• Emakumeenganako indarkeria• Osasuna eta sexu-eskubideak eta ugalketa-eskubideak• Ikerketa

ERAKUNDEAREN IZENA	Sisma Mujer Korporazioa
HELBIDEA	Calle 38 n° 8-12. Oficina 502. Bogotá ☎ (57 1) 2880536 ✉ sismamujer@cable.net.co www.sismamujer.org
HARREMANETARAKO PERTSONA	Claudia Mejía (Zuzendaria)
LANAREN ARDATZAK	<ul style="list-style-type: none"> • Emakumeen eskubideak • Tokiz aldatutako emakumeak • Eragin politikoa • Justizia eta indarkeria • Ikerketa

ERAKUNDEAREN IZENA	HUMANAS-Giza eskubideen eta genero-justiziaren herrialde-zentroa
HELBIDEA	Carrera 7 n° 33-49 Oficina 701. Bogotá ☎ (57 1) 2325915 ✉ humanas@etb.net.co www.humanas.org.co
HARREMANETARAKO PERTSONA	Cecilia Barraza (Zuzendaria)
LANAREN ARDATZAK	<ul style="list-style-type: none"> • Emakumeen eskubideak • Justizia eta indarkeria • Ikerketa

ERAKUNDEAREN IZENA	IMP-Bakearen aldeko Emakume Kolonbiarren Ekimena
HELBIDEA	Avenida 22 n° 40-69 Oficina 403. Bogotá ☎ (57 1) 2448900 ✉ info@mujeresporlapaz.org www.mujeresporlapaz.org
HARREMANETARAKO PERTSONA	Patricia Buritica (Zuzendaria)
LANAREN ARDATZAK	<ul style="list-style-type: none"> • Bakearen aldeko agenda eraikitzea • Bakea eraikitzen den agertokietan emakumearen ordezkari

ERAKUNDEAREN IZENA	MAAP-Bakearen Aldeko Emakumeen Mugimendu Nazionala
HELBIDEA	Carrera 32 n° 16-45. Bogotá ☎ (57 1) 2472273 ✉ redistrital@hotmail.com www.mujeresporlapaz.org
HARREMANETARAKO PERTSONA	Angélica Velasco (Koordinatzailea)
LANAREN ARDATZAK	<ul style="list-style-type: none"> • Emakumeenganako indarkeria • Bakea eta gatazka armatua, genero ikuspuntu batetik

ERAKUNDEAREN IZENA	OFP-Emakumezkoen Herri-Erakundea
HELBIDEA	Carrera 22 n° 52B - 36. Barrancabermeja, Magdalena Medio. Santander ☎ (57 7) 6226625 ✉ femenina@colnodo.apc.org www.ofp.org.co
HARREMANETARAKO PERTSONA	Yolanda Becerra (Zuzendaria)
LANAREN ARDATZAK	<ul style="list-style-type: none"> • Osasun integrala • Emakume buruzagien prestakuntza • Indarkeriaren biktimentzako programak • Emakumeen eskubideak.

ERAKUNDEAREN IZENA	Karibeko Emakumeen Sarea
HELBIDEA	Calle 115 n° 29-103. Barrio La Pradera. Barranquilla ☎ (57 5) 3529144 ✉ aprodefa01@hotmail.com
HARREMANETARAKO PERTSONA	Audes Jiménez (Zuzendaria)
LANAREN ARDATZAK	<ul style="list-style-type: none"> • Emakumeen eskubideak • Emakumeenganako indarkeria • Bakea eta gatazka armatua, genero ikuspuntu batetik

ERAKUNDEAREN IZENA	Emakumeen Sare Nazionala
HELBIDEA	Calle 60A n° 5-54. Bogotá ☎ (57 1) 2880536 ✉ redmujeresbogota@etb.net.co
HARREMANETARAKO PERTSONA	Beatriz Helena Quintero (Zuzendaria)
LANAREN ARDATZAK	<ul style="list-style-type: none"> • Emakumeen eskubideak • Emakumeenganako indarkeria • Bakea eta gatazka armatua, genero ikuspuntu batetik

ERAKUNDEAREN IZENA	Bakearen aldeko Emakumeen Bide Baketsua
HELBIDEA	Carrera 28 n° 51-22. Bogotá ☎ (57 1) 2229145 ✉ coornacional@rutapacific.org www.rutapacific.org.co
HARREMANETARAKO PERTSONA	Marina Gallego (Koordinatzailea)
LANAREN ARDATZAK	<ul style="list-style-type: none"> • Bakea eta gatazka armatua, genero ikuspuntu batetik

Guatemala

Guatemalako emakumeen elkarteek hainbat oztopori egin diete aurre eta hazi eta garatu egin dira. Denbora pasa ahala, instituzio kutsua hartzen joan dira, baita formalizatzen ere, hobeto funtziona dezaten. Elkarte horien lan-ardatzak errepresioa jasan duten emakume biktimei babes ematea izan du helburu, baita Estatuak behar bezalako zigorrak ez jartzeagatik egindako aldarrikapenak ere. Errepresio bortitzaren ondorioz babesik gabe zeuden gatazkaren emakume biktimei laguntzeko sortu ziren esparru komunitarioko elkarte gehienak.

Urteak joan ahala, hainbat izan dira erdietsi dituzten lorpenak, hala nola, 2008. urtean onestu zen Feminizidioaren eta bestelako indarkerien aurkako legea. Lege hori gertaera gogoangarria izan zen genero-indarkeriaren kontrako borrokan, batez ere, hiltzen dituzten emakumeen kopuruari begira, izan ere, azken urteotan, 600 hilketa baino gehiago jazo dira. Egindako aurrerapauso hori Guatemalako emakumeen eta talde feministen elkarteek hamarkada askotan eta hainbat esparru, lan egiteko modu eta ikuspuntu ezberdinetatik egindako lanari zor zaio.

ERAKUNDEAREN IZENA	AMTV-Tierra Viva Emakumeen Elkarte
HELBIDEA	3ª Avenida 10-18. Zona 1. Ciudad de Guatemala ☎ (50 2) 22517372 ✉ tierraviva@guate.net.gt www.tierra-viva.org
HARREMANETARAKO PERTSONA	Alma Odette Chacón (Koordinatzailea)
LANAREN ARDATZAK	<ul style="list-style-type: none">• Emakumeen eskubideen defentsa• Emakumearen osasuna eta hezkuntza• Dokumentazio-laguntza legala

ERAKUNDEAREN IZENA	CALDH-Giza Eskubideen Legezko Ekintzen Zentroa
HELBIDEA	6ª Avenida 1-71. Zona 1. Ciudad de Guatemala ☎ (50 2) 22510555 ✉ caldh@caldh.org www.caldh.org
HARREMANETARAKO PERTSONA	Mario Minera (Director)
LANAREN ARDATZAK	<ul style="list-style-type: none"> • Herritarren partaidetza • Emakumeen eskubideak • Herri indigenen eskubideak • Gazteen eskubideak • Emagumeenganako justizia

ERAKUNDEAREN IZENA	CLADEM-Emakumearen eskubideak defendatzeko Latinoamerikako eta Karibeko Batzordea
HELBIDEA	4ª Calle 17-39. Zona. Ciudad de Guatemala ☎ (50 2) 22327866 ✉ clademgua@yahoo.es www.cladem.org
HARREMANETARAKO PERTSONA	Floralma Contreras (Coordinadora Nacional)
LANAREN ARDATZAK	<ul style="list-style-type: none"> • DESC eta globalizazioa • Herritarren partaidetza • Sexu-eskubideak eta ugalketa-eskubideak • Indarkeriarik gabeko bizitza

ERAKUNDEAREN IZENA	CODEFEM-Guatemalako Emakumeen Giza-eskubideak Defendatzeko Kolektiboa
HELBIDEA	11ª Calle 4-64. Zona 1 Edificio Passarelli 3ª Nivel of. 303. Ciudad de Guatemala ☎ (50 2) 22200841 ✉ codefemguatemala@yahoo.com
HARREMANETARAKO PERTSONA	Patricia Pinto (Zuzendaria)
LANAREN ARDATZAK	<ul style="list-style-type: none"> • Emakumeen eskubideen defentsa • Indarkeriaren biktimak izandako emakumeak

ERAKUNDEAREN IZENA	Sobrevivientes Fundazioa
HELBIDEA	11ª Calle 11-12. Zona 1. Ciudad de Guatemala ☎ (50 2) 22850139 ✉ info@sobrevivientes.org www.sobrevivientes.org
HARREMANETARAKO PERTSONA	Norma Cruz (Zuzendaria)
LANAREN ARDATZAK	<ul style="list-style-type: none"> • Emakumeenganako indarkeria

ERAKUNDEAREN IZENA	GIMS-San Juaneko Emakumeen Talde Integrala
HELBIDEA	2ª Calle 0-70. Zona 3. San Juan Sácate Peques ☎ (50 2) 66302826 ✉ asociaciongims@yahoo.com
HARREMANETARAKO PERTSONA	Ana María Top (Ordezkaría)
LANAREN ARDATZAK	<ul style="list-style-type: none"> • Nerabeen eta gazteen parte-hartze aktiboa sustatzea • Antolaketa sendotzea

ERAKUNDEAREN IZENA	Mayas Kagla Emakume Taldea
HELBIDEA	13 Calle. 31-92 Zona 7 Tikal III. Ciudad de Guatemala ☎ (50 2) 24396122 ✉ kaqla@inteln.net.gt
HARREMANETARAKO PERTSONA	Florinda Yax Tiu (Ordezkaría)
LANAREN ARDATZAK	<ul style="list-style-type: none"> • Antolaketa sendotzealkerketa • Emakume maiak

ERAKUNDEAREN IZENA	Emakumeenganako Indarkeria Ezarako Sarea
HELBIDEA	2ª calle 8-28 Edif. Los Cedros 40 nivel Zona 1. Ciudad de Guatemala ☎ (50 2) 22302674 ✉ ggms@inteln.net.gt
HARREMANETARAKO PERTSONA	Geovana Lemus (Ordezkaría)
LANAREN ARDATZAK	<ul style="list-style-type: none"> • Emakumeenganako indarkeria

ERAKUNDEAREN IZENA	Gizarte Zibileko Batzarreko Emakumeen Sektorea
HELBIDEA	Calle 5-57. Zona 1. Ciudad de Guatemala ☎ (50 2) 2532696 ✉ info@sectordemujeres.org www.sectordemujeres.org
HARREMANETARAKO PERTSONA	Sandra Morán (Ordezkaría)
LANAREN ARDATZAK	<ul style="list-style-type: none"> • Sexu-osasuna eta ugalketa-osasuna • Emakumeen parte-hartze politikoa • Indarkeriaren biktimak izandako emakumeak

ERAKUNDEAREN IZENA	UNAMG – Guatemalako Emakumeen Batasun Nazionala
HELBIDEA	7ª Avenida 4-73. Zona 1. Ciudad de Guatemala ☎ (50 2) 222304851 ✉ info@unamg.net
HARREMANETARAKO PERTSONA	Walda Barrios-Klee (Zuzendaría)
LANAREN ARDATZAK	<ul style="list-style-type: none"> • Emakumeen eskubideak • Emakumeen jabeakuntza • Emakumeen parte-hartzea • Generoko indarkeria



Kanpainak

Emakumezkoen erakundeek eta sareek, zabalak eta askotarikoak, bakea, bizikidetzeta eta adiskidetzeta eraikitzeko hainbat saio egin dituzte. Horretarako, bakerako hezkuntza eta kultura, herri indigenen eta afrondorengoen eskubideen babesa eta aintzatespena sustatu dituzte, eta biktimek egia, justizia, konponketa eta errepikapen ezaren eskubideak eskatzeko laguntza eman diete.

Gatazka armatua emakume, gazte eta neskatoei eragiten dien gizonekiko bazterkeria historikoa areagotu eta ugaltu duen espazio partikularra da. Gainera, gatazkak euren sexu-eskubide eta ugalketa-eskubideetan, eta eskubide sozial, politiko eta ekonomikoetan ere badu eragina. Gauzak horrela, emakumeak hainbat ahalegin egiten ari dira goera hori ikusarazteko eta Estatuari erantzukizunak eskatzeko.

Hurrengo atalean, lau ekimen azaltzen dira. Horietan guztietan, genero-harremanen gaineko eragin ezberdina murrizteko eta bakea eskuratzeko bideak proposatzen dira. Horregatik, emakumezkoen ekimenak bultzatzea garrantzitsua da, eurak direlako, azken finean, eragile sozial eta politikoak.

Ondoren aurkezten diren kanpainak hurrengoak dira:

- Zigorbetasun gehiagorik ez: hildako gehiagorik ez!.
- "Azala letreiatu". Memoria, Egia, Justizia eta Konponketa Emakumeentzako.
- Begizta zuria: gizonek emakumeenganako indarkeriarekin amaitzeko lan egiten dute.
- Ez Estaturik, ez gizon matxorik. Emakumearen aurkako gizarte-indarkeriari ez.

ZIGORGABETASUN GEHIAGORIK EZ: HILDAKO GEHIAGORIK EZ!	
Oinarrizko datuak	
Izenburua	Zigorgabetasun gehiagorik ez: hildako gehiagorik ez!
Esperientzia garatzen duten erakundeak	<p>Kanpaina sustazen duen Batzordea:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Solidaritate Sindikalerako Nazioarteko Zentroa AFL-CIO. • Giza Eskubideen Defentsarako eta Sustapenerako Batzorde Mexikarra A.C. (CMDPDH). • Emakumearen Komunikazioa eta Informazioa (CIMAC). • Milurteko Feministaren aldeko Erakunde Zibilen Koordinazioa. • ELIGE, Sexu- eta Ugalketa-eskubideen aldeko Gazteen Sarea. • Emakume Langileen Batasuna (MUTUAC-MAS). • Sexu-heziketarako Sistema Nazionala (SISEX). • Langileen Elkarte Nazionala, Genero Batzordea. • Vereda Themis "Emakumeentzako Defentsa Juridikoa eta Heziketa". • Artemisa, Genero, Gazteria, Sexualitate eta Giza Eskubideen Diziiplina arteko Taldea.
Lurralde eremua	Mexiko.
Burutzeko epea	2001eko azarotik 2003ko abendura.
Hizkuntza	Gaztelania.
Esteka	www.geocities.com/pornuestrashijas/doc0.html
Harremanetarako	pornuestrashijas@hotmail.com
Ekintzen laburpena	
Kanpainaren deskribapena	2001eko abenduan "Zigorgabetasunari stop. Ezta hildako bat gehiago ere!" kanpaina abiatu zen, gizarte zibileko 300 erakunde baino gehiagoren laguntzarekin eta Emakumearen Eskubideei buruzko Kontalari Bereziari eta Giza Eskubideen Batzorde Interamerikanoari (CIDH) bidalitako eskaera baten berri eman zen, Mexiko bisitatu eta emakumeek Ciudad Juárez eta Chihuahuan bizi zuten indarkeria egoera adierazteko; Errepublikako 20 estatutako erakundeek sinatu zuten eskaera hori.
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> • Gobernu federaleko eta tokiko gobernuko agintariak Ciudad Juárezen gertatutako emakumeen hilketei buruzko kontuak ematea sustatzea eta biktimen defentsa sozialaren bidez iritzi publikoaren korrontea sortzea, herrialdean eta gehienbat Ciudad Juárezen emakumeek bizi duten zigorgabetasun eta indarkeria egoera deusestatzeko. • Gobernuaren maila ezberdinetan kontuak ematea eta justiziaren gauzatzea sustatzea. • Emakumeen hilketak argitzeko (toki eta nazio) gobernuko maila ezberdinen partaidetza eraginkorra eskatzea. • Arazoa nazio eta nazioarteko mailan ikustea, mobilizazio nazionala eta nazioarteko laguntza sustatuta. • Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarraren (CIDH) aurrean kasu paradigmaticoak dokumentatu eta aurkeztea. • Iritzi publikoan eragitea emakumeen hilketei buruzko pertzepzioaren aldaketan eragiteko.

Parte hartzen duten aktoreak	Nazio eta nazioarteko gizarte zibileko 300 erakunde baino gehiago; emakumeen erakunde feministak, sexu erakundeak, gazteenak eta sindikatuak.
Ikusleria xedea	Gobernuko agintariak, federalak eta tokikoak; eta gizarte zibila.
Garapena	
Garatutako ekintzak	<p>a) Gizarte zibilarekin egindako mobilizazio ekintzak:</p> <p>Nazio mailan:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ciudad Juárez eta Chihuahuan erahildako emakumeen kasuei buruzko jarraipen estatistikoa, 1993tik 2003ko urtarrilera bitarteko jarraipen hemo- rografikoan oinarrituta. • 2002an eta emakumeenganako indarkeriaren kontrako egunaren testuin- guruaren barruan, "Solidaritatea globaliza dezagun" emakumeenganako indarkeriaren kontrako nazioarteko foroa egin zen Ciudad Juárezen. • 2002ko azaroan, zenbait erakundek Barruti Federaleko Zokalora ibilaldi handia antolatu zuten eta kanpainak oihartzun handia izan zuen bertan. <p>Nazioarte mailan:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gutunen kanpainaren zati batean Kontalariari bere bisita eskatu zitzaionez, kanpainak gutun ereduak ingelesera, frantsesera, italierara eta portugaler- ara itzuli zuen, eta nazioarte mailan era zabalean hedatu zuen. • Gutun eta postal batzuk diseinatu ziren. • Ciudad Juárezen emakumeen erahilketei begirako Aukerako Gaikako Txostena, CEDAWen Batzordeari gomendio bereziekin. • "Ez dugu beste Ciudad Juárez bat nahi munduko leku bakar batean ere" nazioarteko manifestua, "Emakumeenganako indarkeriaren kontrako 16 Aktibismo egun" nazioarteko kanpainaren testuninguruan. <p>b) Giza Eskubideen Babeserako Sistema Interamerikarrari (SIDH) kasuak aur- kezteko estrategiaren diseinua eta implementazioa.</p> <p>c) Iritzi publikoan eragingo zuen sentsibilizazio eta informazio kanpainaren diseinua eta gauzatzea.</p> <p>d) SIDDHren aurrean (Giza Eskubideen Babeserako Sistema Interamerikarra) giza eskubideen bortxaketari buruzko kasuak aurkezteko tresna erabilga- rriak egin eta zabaltzea emakumeen erakundeen artean.</p>
Ezarritako ikuspegi eta metodologiak	Txosten eta tresnak egitea, iritzi publikoaren sentsibilizazioa eta estrategia bat gauzatzea.
Lorpenak eta emaitzak	
Alde sendoak edota aukerak	<ul style="list-style-type: none"> • Arazoari buruzko ikuspegia berriro dimentsionatzea eta aldatzea, Ciudad Juárezeko eta Chihuahuako hilketa eta desagerketen gaia kontuan hartuta. • Giza eskubideen babeserako nazioarteko instantzien partaidetza, euren txostenetan Mexikoko Gobernuari aholkuak egin zieten instantziena, CEDAW edo CIDHren Batzordeak adibidez.

	<ul style="list-style-type: none"> • Chihuahua Estatuko gobernuak eta gobernu federalak sortutako Instituzioarteko Mahaien hasierako sorrera. • Errepublikako Prokuradoretza Orokorrek Ciudad Juárezeko 14 biktimen kasuak bereganatzea eta horren ondoren Fiskaltza Mistoaren eta Fiskaltza bereziaren sorrera. • Chihuahuan, Distritu Federalean eta herrialde askotan nazioarte mailan erakunde anitzek parte hartu zuten informazio-katearen sorrera. • Ciudad Juárezeko eta Chihuahuako erakunde batzuek kasuak dokumentatzeko eta estrategia juridikoak diseinatzeko neurriak eskuratzea. • Mota horretako arazoak Errepublikako beste estatu batzuetan ikustea.
Alde ahulak edota oztopoak	<ul style="list-style-type: none"> • Zailtasuna erahildako emakumeen kasuei buruzko datu estatistikoak biltzerakoan. • Txosten batzuk egiteko beharrezkoa izan zen legelari profesionalekin lan egitea. • Zailtasuna eragin handia izango zuen kanpaina diseinatzeko sasoiak.
Alde berriztatzaileak	Esperientzia berriztatzailea eta zaila zenez, hainbat erakunderen lankidetzaz egon zen; hori dela eta, helburu bereko Batzordea eratu zen.
Eragina	Elkarlanean egindako kanpaina zenez, posible izan zen berorren publizitatea hainbat esferatan egitea; hori dela eta, kanpainaren maila teorikotik (txostenak) maila praktikora (iritzi publikoan eragina) pasatu zen.
Iraunkortasuna	Kanpainak egitasmoak iraun zuen denboraren arabera iraunkortasuna izan zuen.
Ikasitako ikasgaiak	<ul style="list-style-type: none"> • Garrantzitsua da emakumeenganako bortizkeriaren gaitzak sakontzea eta gaiari esanahi berria ematea, baita pobrezia sortzen duen, kanporatzailea den eta emakumeentzako alternatiba eza sortzen dituen politika ekonomikoaren ondorioen testuinguruan kokatzea ere. Horixe da indarkeriaren zergatien gainean eta ez bakarrik bere ondorioen gainean lan egiteko era bakarra. • Kanpainan erakunde mota ezberdinak (erakunde feministak, sindikalak eta giza eskubideen erakundeak) elkartzeak eraginkortasunaren arloan eta kanpainaren funtzionamenduan erronka garrantzitsua mahaigaineratu zuen. Artikulazioaren logikan eta osagarritasunean erakundeek duten esperientzia desberdinak ezagutu eta elkartzeko gaitasuna behar da. • Oso garrantzitsua da era horretako prozesuetan parte hartzen duten erakunde eta instantzia guztiei informazioa era egokian, argian eta aldi berean bermatzea. • Gobernu maila ezberdinetatik egindako ekintzen aniztasunaren testuinguruan ezinbestekoa da gizarte zibileko erakundeek aldetik adierazleak diseinatzea, giza eskubideei buruzko nazioarteko akordioetan oinarrituta, eta horien bitartez gauzatutako ekintzen jarraipen sistematizatua egitea. Eta egiteko dagoena zer den eta hutsuneak zeintzuk diren baloratzea.

	<ul style="list-style-type: none"> • Beharrezkoa da gobernuko instantzia bakoitzari zer dagokion argi izatea, proposamenak non kokatu behar diren eta erantzukizunak nori eskatu behar zaizkion jakiteko. • Nazioarteko mekanismoak oso tresna baliagarriak dira Estatuak emakumeek bizi dituzten giza eskubideen urraketei erantzuna emateko. • Beharrezkoa da herriko erakunde zibil eta senideen erakundeekin harreman estua eta hurbila izatea; funtsezkoa da mahaigaineratzen diren ekintzen arrakastarako eta maila horretatik eraiki behar dira. • Azkenik, garrantzitsua da bidean geldialdia egitea eta testuinguruaren azterketa egitea, non, alde batetik parte hartuko duten aktoreak eta eragin esparruak kokatuko diren, eta arazoaren jatorria eguneratuko den; izan ere, testuingurua oso azkar aldatzen da eta egoera korapilatzen duten gero eta aktore gehiagok parte hartzen dute bakoitzean.
Ebaluazioa	Ez da ebaluazio txostenik egin.

"AZALA LETREIATU". MEMORIA, EGIA, JUSTIZIA ETA KONPONKETA EMAKUMEENTZAKO	
Oinarrizko datuak	
Izenburua	"Azala letreiatu". memoria, egia, justizia eta konponketa emakumeentzako.
Esperientzia garatzen duten erakundeak	<ul style="list-style-type: none"> • Emakume Sortzaileak Bizitzarako Korporazioa. • Vamos Mujer Korporazioa. • Kolonbiako gatazka armatuari negoziatutako irtenbidea ematearen aldeko Emakumeen Bide Baketsua (Antioquia Eskualdea).
Lurralde eremua	Antioquia Departamendua eta bertako Medellín hiriburua (Kolonbia).
Burutzeko epea	2006tik (garapenerako denbora muga barik, lantzen dituen gaiak direla eta).
Hizkuntza	Gaztelania.
Esteka	www.mujeresquecrean.org
Harremanetarako	comunicaciones@mujeresquecrean.org

Ekintzen laburpena	
Kanpainaren deskribapena	Kanpainak zera proposatzen du: herrialdeko gatazka armatuan eta bortizkerian bizirik atera diren emakumeen kontaketa, testigantzak eta eskaerak laguntza gisa erabiltzea.
Helburuak	Adierazpen artistikoa iritzi publikoa zigorgabetasunaren aurrean sentsibilizatzeko komunikabide gisa gehitzen duen kanpaina da, baita gatazka armatuaren biktima diren emakumeen egiaren, justiziaren eta konponketarako eskubideen aurrean kontzientzia sortzeko ere.
Parte hartzen duten aktoreak	Dei egiten duten erakundeak, Antioquiako museoa, Colombo Kulturtegi Amerikarraren arte garaikideko galeria, Medellínko emakumeen Idazkaritza, herriko alderdietako akademikoak eta emakumeak.
Ikusleria xedea	Erakunde publikoak, komunikabideak eta gizarte zibila orokorrean.
Garapena	
Garatutako ekintzak	<ul style="list-style-type: none"> • 2007an Egiaren Epaimahaira joatea. • Kanpainak beka emandako hiru lanen erakusketa Medellín hiriko hainbat liburutegi eta zentro akademiko eta kulturaletan. • Sormen artistikoko lehiaketako beka 2006an. • Emakumeen kontrako indarkerien bake laborategia (Colombo Kulturtegi Amerikarrean): hitzaldiak eta Libia Posada artista ezagunarekin performance talde-sormena. • Natalia Springer, Trantsizioko Justizian adituarekin hitzaldia. • Indarkerien biktima izandako emakumeekin tailerrak. • Alderdi estataleko tokiko agintariekin elkarrizketa topaketak. • Film eta dokumentalen zikloa. • Salaketa-karabana hirian barrena. • Medellínko auzoetan ekintza ludikoak. • Emakumeen giza eskubideen urratzeari buruzko txostena egin eta zabaltzea. • Prentsaurrekoa eta komunikazio estrategiaren garapena. • Gatazka armatuaren biktimak kontuan hartzeko ekintza sinboliko eta ludikoa.
Ezarritako ikuspegi eta metodologiak	<ul style="list-style-type: none"> • Artea espresio gisa eta komunikazio, salaketa eta sentsibilizazio bide indartsu gisa. • Artea zentzu politiko eraldatzailearekin. • Artea aldaketarako aliatua izan daiteke.

Lorpenak eta emaitzak	
Alde sendoak edota aukerak	<ul style="list-style-type: none"> • Irudien indarra, irudiak jendearen kontzientziara heltzen dira. • Erabiltzen den hizkuntza gizarte zibilera heltzen da. • Artea egiteaz gain, mezuak politikoak dira eta salaketa eduki handia daukate. • Hiritarrek, estatu mailako erakundeek eta gatazka armatuko aktoreek oroimen-prozesuen esanahi politikoa, historikoa eta sinbolikoa ulertzen dute; hori funtsezkoa da herrialde bat berreraikitzeko. • Egia eta justizia eskubideak eta konponketarako eskubidea aitortzen dira.
Alde ahulak edota oztupoak	<ul style="list-style-type: none"> • Kanpaina gauzatzen jarraitzeko finantza-baliabide urriak.
Alde berriztatzaileak	<ul style="list-style-type: none"> • Artea arrazoi politiko baten aliatu gisa, gai zail eta mintsuekin. • Elkarrizketa bideak eraiki ziren tokiko gobernu agintariekin, estatuko estamentuekin eta hiritarrekin, biktimen egia eta justizia eskubideak eta konponketarako eskubideak defendatzeko. • Medellín hirian ahanzmenduaren kontrako oroimenaren aldeko talde-estrategiak garatu ziren.
Eragina	<ul style="list-style-type: none"> • Publiko ezberdinen aldetik balorazio eta onarpen handia. • Tokiko eta nazioarteko egunkarietako iritzi orrialdeetan iruzkinak. • Emakume eta ikasleen erakundeen eta bestelako erakundeen bisitak, erakusketari buruzko inpresioak eta lanei buruzko pertzepzio eta irakurketak utzi zituzten.
Iraunkortasuna	Lortutako finantza-baliabideen menpe dago.
Ikasitako ikasgaiak	Artea erabili ahal da gatazka armatuan eta bortizkerian bizirik geratu diren emakumeek bizi izandako egoerak salatzen baliabide gisa.
Ebaluazioa	Ez da ebaluazio txostenik egin.

BEGIZTA ZURIA: GIZONEK EMAKUMEENGANAKO INDARKERiarekin AMAITZEKO LAN EGITEN DUTE	
Oinarrizko datuak	
Izenburua	Begizta zuria: gizonek emakumeenganako indarkeriarekin amaitzeko lan egiten dute.
Esperientzia garatzen duten erakundeak	Emakumeak Fundazioa (Estatu espainiarra); Mannsarde (Alemania); Collectif et Refuge pour Femmes Battues (Belgika); Les Traoubles (Frantzia); White Ribbon Campaign Norway (Norvegia); eta Swedish White Ribbon Campaign (Suedia).
Lurralde eremua	Kanada (idea jatorriz Kanadako da) eta Europa.
Burutzeko epea	1991n lazo zuriaren lehenengo kanpaina inauguratu zuten (abenduaren 6ko astearekin batera; 1989an Kanadan 14 nerabe emakumezko hil zituzten egun horretan, gizonen zuzendutako karrera ikaste hutsagatik: hiltzaileak, "feministak" ohikatu zuen eta fakultatean sartu eta hil egin zituen). Emakumeak Fundazioak jatorrizko kanpaina kanadiarra zabaldu zuen Estatu espainiarrean, Merkurio Egitasmoa izenarekin, eta 1999ko abendutik 2000ko ekainera zabaldu zuen.
Hizkuntza	Gaztelania.
Esteka	www.eurosur.org/FLACSO/lazoblanco.htm
Harremanetarako	mujeres@fundacionmujeres.es
Ekintzen laburpena	
Kanpainaren deskribapena	Lazo zuriaren kanpaina gizonengandik emakumeen aurkako edozein motatako indarkeriari amaiera ematen laguntzeko euren ahaleginak batu dituzten adin guztietako gizonen erakunde batek osatzen du.
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> • Lazo zuriaren kanpaina europarra sustatzea, genero-indarkeriaren kontrako borrokan gizonetzkoak inplikatu eta euren konplizitatea bilatzeko. • Kanpaina hori bultzatzeko Europar Plataforma komuna bultzatzea. • Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako borrokan gizonetzkoak inplikatzea. • Gaiari buruzko gizonetzkoen isiltasuna apurtzen laguntzea, eta gizonetzkoak publikoki indarkeriaren kontra agertzea. • Gizonak gonbidatzea genero indarkeriaren oinarrian dauden eredu matxistak eta portaera pertsonal matxistak aldatzera.
Parte hartzen duten aktoreak	Nazioarteko emakumezkoen hainbat erakunde, enpresak, sindikatuak eta banakako partaideak.
Ikusleria xedea	Gizarte zibila oro har; gizonen multzoa bereziki.

Garapena	
Garatutako ekintzak	<ul style="list-style-type: none"> • Erakunde europarren datu-basea sortzea. • Ohitura onen ereduak egokitzea eta hedapena. • Lazo zuriaren hedapena genero indarkeriaren aurka dauden gizonak ezberdintzeko tresna gisa. • Web orrialde bat sortzea: www.fundacionmujeres.es/mercurio. • Irratian eta idatzizko prentsan iragarki eta publizitatea egitea . • Lobby ekintzak ikus-entzunezkoekin. • Bestelako erakunde eta ekimenekin lotura . • 35 bozeramailerekin harremanetan jarri eta erakartzea. • Ikastetxeetako gazteentzako kanpaina berezia. • Ikus-entzunezko spota egiteko lehiaketa irekia antolatu zen Zinema eskoletako eta Publizitate eta Irudiaren Fakultateetako ikasleen artean.
Ezarritako ikuspegi eta metodologiak	Gizonezkoek lazo zuriaren pina bistan daramate. Horrez gain, euren lantokietan, eskoletan, unibertsitateetan eta abarrean beste gizon batzuekin hitzaldiak aurreratzen dituzte. Hitzaldi horien guztien helburua da gizonezkoak sentsibilizatzea emakumeen aurkako indarkeriaren gaiaren inguruan eta kanpaina honekin bat egingo duten gizon gehiago irabaztea.
Lorpenak eta emaitzak	
Alde sendoak edota aukerak	<ul style="list-style-type: none"> • Honako hauek guztiek daukate lazo zuriaren kanpainan parte hartzeko aukera zabalik: emakumearen aurkako edozein indarkeria mota gaitzesten duten gizonezkoek, gizon eta emakumeen arteko berdintasunarekin konpromisoa daukatenek eta euren bizitzetan emakumeen aurkako indarkeriaren edozein agerraldi aztertu eta aldatzeko prest daudenek. • Kanpaina honek giza eta talde eztabaida bultzatu zuen. • Maskulinitateari buruzko mito batzuk jarri ziren zalantzan.
Alde ahulak edota oztopoak	Denbora tarte laburra; kanpainak ez du aldizkakotasunik izan.
Alde berriztatzaileak	<ul style="list-style-type: none"> • Gizonezkoek daramaten lazo zuriak emakumeen borrokekin gizonezkoen solidaritatea eta emakumeen aurkako gizonezkoen indarkeriak salatzen borondatea irudikatzen ditu. • Eztabaida "gizonezkoen presentzia handia duten guneeetan" sustatzeko ekintzak gauzatu ziren, eta ohol sindikaletarako kartel bereziak, liburuxkak azalpenekin eta lazo zuria janztean onartzen den konpromisoaren mezua azpimarratzen zuten pegatinekin lazo zuriak egin ziren. • Publizitate mezuaren hartzaileak gizonezkoak izatea azpimarratu behar da.

Eragina	<ul style="list-style-type: none"> • Kanpainaren helmena hainbat herrialdetako erakunde ezberdinek hasi zuten, baina, denborarekin, nazioarteko helmena izan du. • Nazio Batuetako, erakunde publiko eta pribatuetako, eta gizarte zibileko hainbat agentziaren babes ezberdinak lortu ditu. • Publizitate kanpaina, karteleria, irratiko iragarkiak eta web orrialdearen edukiak ebaluatzeko galdeketa batzuk egin ziren. Inkestatuen %100ek kartelak ikusita zituen kalean eta kanpaina eta bere mezuei buruzko elkarrizketaren bat izan zuen lankide edo lagunekin. Kanpainako ekintzaren batekin zerikusi zuzena izan zuten guztiek eta webean sartu zirenen %100ek irakurri zuten manifestua. Inkestatutakoek %45ek sinatu zuten.
Iraunkortasuna	Ez dago egitasmoaren jasagarritasunik, ez dagoelako finantza-baliabide gehiago.
Ikasitako ikasgaiak	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte zibileko eta bizitza politikoko hainbat sektoretako gizonaentzakoak sentsibilizatzea posible izan da. • Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko gaietan erabakiak hartzen dituzten gizonak kontzientziaztea lortu da.
Ebaluazioa	<ul style="list-style-type: none"> • Espero zena baino garrantzi handiagoa izan du kanpainak; hainbat herrialdetako kanpaina nazional gisa sortu zen eta momentu honetan maila handiko nazioarteko helmena dauka. • Kanpaina ebaluatzeko erabili ziren galdetegiak oso balorazio positiboa erakutsi zuten, bai gizonaentzakoek eta bai andrazkoen aldetik. • Inkestatutako lagunen portzentaje handi batek kanpaina ezagutzen zuela baieztatu zuten.

EZ ESTATURIK, EZ GIZON MATXORIK. EMAKUMEAREN AURKAKO GIZARTE-INDARKERIARI EZ**Oinarrizko datuak**

Izenburua	Ez estaturik, Ez gizon Matxorik. Emakumearen aurkako gizarte-indarkeriari ez.
Esperientzia garatzen duten erakundeak	Duintasunaren eta Bizitzaren aldeko Emakumeen Elkarte – Las Dignas.
Lurralde eremua	Nazio mailan, lau udalerritan bereziki: San Salvador, Santa Tecla, Zacatecoluca eta Berlin.

Burutzeko epea	2005eko uztailetik – gaur egun.
Hizkuntza	Gaztelania.
Esteka	www.comunicacionparaeldesarrollo.org/media_files/download/CasosLasDignas.pdf
Harremanetarako	comunicaciones@lasdignas.org
Ekintzen laburpena	
Kanpainaren deskribapena	Emakumeen kontrako indarkeria areagotzen ari dela, gauza berria ez dela, aurrean bertan dagoela eta ikusezin bihurtzen dela erakustea. Gainera, Estatuaren eraginkortasunik eza agerian utzi nahi da.
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> • Emakumeei daukaten diskriminazio-egoera azaltzea. • Emakumeen kontrako abusuak, indarkeria eta diskriminazioak zigorgarriak izan behar direla ikusaraztea. • Tratu txarrak ematen dituen seinalatuta eta Estatuari erantzukizuna bere gain hartzeko eskatuta, isiltasuna apur daiteke.
Parte hartzen duten aktoreak	<ul style="list-style-type: none"> • Herrietako emakume-taldeak. • Sexista ez den hezkuntzarako Irakaskuntza Sarea. • Iksle-taldeak. • Hainbat Udal-gobernutako Genero Batzordeak.
Ikusleria xedea	<p>Lehen helburu-taldea:</p> <ul style="list-style-type: none"> • 18 eta 35 urte bitarteko emakume salvadortarrak, maila sozioekonomiko eskas edo ertain-eskasekoak, gehienbat sektore informalean (merkataritza) lan egiten dutenak; eta adin ugalkorrean dauden biztanleak, gehienak 155 dolar amerikar baino gutxiago irabazten dutenak. Bere ardurapean senideak daude (seme-alabak eta familia), eskolatze gutxikoak. • Familian bigarren mailan hazi diren eta gurasoei, nebei eta senideei, senarrei eta seme-alabei zerbitzatu dieten emakumeak. Uste dute emakumeak gizonen menpean daudela eta, gainera, seme-alabak hazteko bakarrik badaude, horrela izan behar dela onartzen dute. Horietariko askok indarkeria eta hainbat motatako abusuak jasan dituzte. Isiltasun- eta egoera horrekiko ohitze-jarrera onartzen dute. <p>Bigarren helburu-taldea:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Funtzionario publikoak, gobernu-liderrak, instantzia publikoak.
Garapena	
Garatutako ekintzak	<ul style="list-style-type: none"> • Emakumeenganako indarkeriaren arazoari buruzko tailerrak. • Emakumeen kontrako indarkeriari buruzko tribuna irekiak herrietan. • Foro publikoak. • Indarkeriaren kontrako jaialdia. • Salaketa publikoa eta kasuen jarraipena. • Eragin-ekintzak legegintza-organoan: korrespondentzia-piezak sartzea (indarkeriaren biktimak babesteko legea, kitapen morala funtzionario publikoentzat, etab.).

Ezarritako ikuspegi eta metodologiak	<ul style="list-style-type: none"> • Giza harreman zuzenak. • Berba jasoak eta politikoak ekiditen dira. • Emakumeek hausnartzea bilatzen da, jasaten duten indarkeria-ekintza bakoitza azpimarratuz. Ekintza zehatzak nabarmendu, azpimarratu eta nabariarazi egiten dira, emakumeengan eguneroko bizitzak gertaera horiek antzeman ahal izateko gaitasuna esnarazteko. • Funtzionarioei zuzendutako estrategia dago, Estatuaren motorrak diren aldetik arazo honetan duten erantzukizuna beren gain har dezaten.
Lorpenak eta emaitzak	
Alde sendoak edota aukerak	<ul style="list-style-type: none"> • Indarkeria “desnaturalizatzen” eta bortizkeriarik gabe bizi izateko eskubidea aldarrikatzen hasi dira. • Emakumeek Estua indarkeria-sustatzailatzat hartu dute; Estuak justizia ezarri behar du. • Emakumeek mobilizazioa eta salaketa beharrezkoak direla ikusi dute. • Emakume- eta lider-taldeek herri-gobernuei egindako eskaeretan kanpainaren edukia berrartu dute. • Zazpi ikastetxek, Sexista ez den hezkuntzarako Irakaskuntza Sarearen zeregin eginkor eta mobilizatzailetik, indarkeriaren kontrako kanpaina garatu dute. • Kanpainaren edukia emakumeen eskubideen agendako zenbait punturekin lotzea lortu da; adibidez, funtzionario publikoak aukeratzeko kitapen morala eskatzea; eta, kasu batzuekin, besteak beste, funtzionario publikoen abusu sexualarekin, eta abar. • Funtzionarioen arteko lagun batzuei emakumeenganako indarkeriaren arazoan euren ardurari buruz egin zaie deia.
Alde ahulak edota oztopoak	<ul style="list-style-type: none"> • Kanpainaren zati batzuk ez ziren ikusleria-xede talde batera egokitu, eta birplanteatu egin behar izan ziren. • Batez ere, arazo ekonomikoek mugatu zuten kanpainaren hedadura.
Alde berriztatzaileak	Hasiera eman zaio emakumeen erakundeek emakumeen kontrako indarkeriaren gainean egiten dituzten proposamenetarako giza babes prozesu bati.
Eragina	Instituzioetan eta gobernuan eragina izatea lortu da.
Iraunkortasuna	2006an soilik jarraitu zuen finantzaketak.
Ikasitako ikasgaiak	Lan komunikatiboa garrantzitsua da, eta gurekin lan egiten duten pertsonetara atzeraelikadurak etengabekoa izan behar du.
Ebaluazioa	Ez da ebaluazio txostenik egin.



Bibliografia

Jarraian, zenbait iturri bibliografiko interesgarri gomendatzen zaizkizue. Iturriok iparraldeko nahiz hegoaldeko egoera aintzat hartzen dute, gatazka armatuak genero-harremanetan dituen kontrako ondorioetan sakondu ahal izateko, baita bakea eraikitzeko emakumeek egiten dituzten ekarpenetan ere:

- AMANI, El Jack (2003): *Género y conflictos armados*. Erresuma Batua: Institute of Development Studies (IDS), BRIDGE.
- BADILLA, Ana Elena; TORRES, Isabel; eta NÚÑEZ, Denia (2007): *Femicidio: más allá de la violación del derecho a la vida. Análisis de los derechos violados y las responsabilidades estatales en los casos de femicidio de Ciudad Juárez*. Costa Rica: Giza Eskubideen Institutu Interamerikarra, Suediako Garapenerako Nazioarteko Lankidetzeta Agentzia eta UNFPA.
- CALDH (2005): *Asesinatos de mujeres: expresión del feminicidio en Guatemala*. Guatemala: CALDH.
- CONSORCIO ACTORAS DE CAMBIO (2006): *Rompiendo el silencio. Justicia para las mujeres víctimas de violencia sexual durante el conflicto armado en Guatemala*. Guatemala: Aldaketarako Eragileen Partzuergoa.
- MASSOLO, Alejandra (2006): *Género y Seguridad Ciudadana: el papel y el reto de los gobiernos locales*. El Salvador: PNUD.
- MEERTENS, BARRAZA, SÁNCHEZ, QUINTERO, eta ORDÓÑEZ (2006): *Colombia: brechas, diversidad e iniciativas. Mujeres e igualdad de género en un país en conflicto*. Bogota: ASDI.
- MONTANER, Mariliana (koordinatzailea) (2005): *Guerra no. Las mujeres en la conquista por la paz. Guatemala, El Salvador y Nicaragua*. El Salvador: UNIFEM.
- MOSER, Caroline; eta MCILWAINE, Cathy (2001): *La violencia en el contexto del posconflicto, según la percepción de comunidades urbanas pobres de Guatemala*. Washington, D.C.: Latinoamerika eta Karibea, Munduko Bankua.
- SISMA MUJER (2007): *Violencia sexual, conflicto armado y justicia en Colombia*. Kolonbia: Torreblanca.
- VILLELLAS, María (2006): *Hallar nuevas palabras, crear nuevos métodos. La participación de las mujeres en los procesos de paz*. Madril: Bakerako Ikerketa Zentroa (CIP-FUHEM).

3. Kapituluia

Emakumeen eragin politikoa
eta herritartasun-partaidetza



Ikuspegi feministak

Atal honek ondoko kontzeptuen esangura eta baloreez jarduten du: demokrazia, herri-tartasuna, nazionalitatea, eskubideak, erantzukizunak, parte-hartze politikoa, ordezkaritza eta Estatuak emakumeekiko duen erantzukizuna. Emakumeek bizitza publikoan eragina eta parte-hartzea izatea zaildu egiten du sistema patriarkalak. Horrenbestez, mugimendu feministak gizarte-mobilizazioaren eta horren eraginaren aldeko apustu egin du, ekitatea eta emakumeen autonomia lortze aldera. Mugimenduak, halaber, araudi-markoak betetzeko eskatu nahi dio Estatuari, emakumezkoen eskubideak eta eskaerak agenda publikoetan aintzat hartzeko eta ezartzeko.

Ikuspuntu feministak emakumeen partaidetzan eta eragin politikoan

Justa Montero

Emakumeek gizarte, kultura edo aisialdi arloko elkarte edo GGKEetan duten partaidetzari buruz espainiar Estatuan egin diren ikerketek argi diote: elkarte-sare horiek osatzen dituzten pertsona gehienak emakumezkoak dira, nahiz eta ikerketek ez duten esaten elkarte horien zuzendaritza batzordeak zelan dauden eratuta.

Emakumeen partaidetza hiritarra oso esparru desberdinetan eta helburu ugaritarako ematen da; guri dagokigunez, emakumeek gizartean duten egoera aldarazten duen ekintza kolektiboa, gizarte patriarkalak emakumeen askatasunari ezartzen dizkion mugak salatzeke eta erantzuteko mugimenduetako partaidetza eta gizartearen eraldaketa sakona bilatzen duen partaidetza interesatzen zaizkigu. Ikuspuntu horretatik, mugimendu feminista hartu behar da erreferentzia gisa, historiari berari kasu eginda: izan ere, berau izan da emakumeen mobilizazio sozialean, berdintasunean eta autonomian eman diren lorpenen eragile eta protagonista, eta, gainera, zeresan handia dauka ideien subertsioan eta indartsua da erakundeen gainean presioa egiteko.

Nabaria dirudien arren, nire ustez, feminismoa ez da dogma bat edo alderdi bat, ezpada guztiz anitza den mugimendu bat; bertan, aldarrikapenen gaineko ikuspuntu eta estrategia desberdinak elkartzen dira, eta, ekintza propiotik abiatuta, bere identitate kolektiboa, ideologia eta aldarrikapenak definitzen eta birdefinitzen ditu.

Ikuspuntu honetatik, emakumeen partaidetzak behar duena da, lehenengo eta behin, desirak eta beharrianak formulatzeko gaitasun etikoa duen subjektu aktibo gisa hartua izatea. Eta hori, bazterkeria edo menpekotasun egoerarik gordinenetan ere bai. Beraz, ihes egin behar da beti biktimizatzaileak diren ikuspuntuetatik; izan ere, horrek boterea kentzen die emakumeei eta, aldiz, emakumeak etengabe zaintzeko eta arautzeko politikak sorrarazten dituzte, gizonen zein erakundeen aldetik.

Bigarrenik, praktika feminista askotan, hiritartasunaren ideia inplizituak emakumeen partaidetza handitu nahi du, baina horrek talka egiten du gizartean nagusi diren kontzeptu eta praktika baztertzailerekin eta, esate baterako, soldatapeko lana gizarteratze-mekanismo nagusi gisa hartzean sortzen diren bazterketa-prozesuekin (modu horretan, eta adibiderik nabarmenenak baino ez aipatzearren, ezegonkortasunak bazterrean uzten dituen emakumeei, paperik ez dutelako "ilegalak" omen diren emakume etorkinei, emakume gazte askori edo sexuaren langileei –zeinei ez baitzaie egoera hori onartzen– hiritar gisa dituzten eskubide eta onarpenak kentzen zaizkie).

Emakumeen identitate ugari eta aldakorak (beste zenbait adskripzio sozial batzuen artean, generoa, arraza, maila edo aukera sexuala daude tartean, elkarrekintzan arituz eta beharrian, praktika eta identitate sozial konplexuak sortuz), sexismoak errealitate ekonomiko, sozial eta kultural desberdinetan daukan presentziak, eta generoaren arabera kokapen sozialak emakumeen subjektibotasunean dituen inplikazio desberdinak direla eta, aniztasun eta aberastasun izugarriko panorama sortzen da, emakumeen partaidetzaren adierazpide eta beharriari dagokienez eta proposamenak artikulatzeko moduei dagokienez. Horrek guztiak are konplexuago bihurtzen du mugimendu feministaren ekintza, eta aniztasuna artikulatzea oraindik beharrezkoagoa da, praktika eta proposamen feministen arteko elkarriketak eta aliantzak sortzeko, eta proposamenak eta elkarriketa soziala garatzeko gaitasuna indartzeko.

Arlo "politikoaren" esparruko harremana ere konplexua da. Hasteko, feminismoak berak zalantzan jartzen duelako esparru politikoa, eta politika eta ekintza publikoen irismena handitzea bilatzen duelako.

Aipatutakoa modernitateak modurik indartsuenean garatu duen dikotomietako batean sortu diren arrakala garrantzitsuetan oinarritzen da: hain zuzen ere, arlo pribatua (esparru pertsonala) eta publikoa (bertan gertatzen da interes orokorrekotzat hartzen dena) bereizten dituen dikotomian. Horrek eraldaketa handia ekarri du ekintzari dagozkion esparruetan. Espazio bien arteko harremanaren tratamendua interes handikoa da, ez dituztelako soilik esparru sozialak aintzat hartzen; gainera, iritzi eta arazoei zilegitasuna ematen edo kentzen dieten terminoak ere badira. Espazio horiei balio eta funtzio desberdinak esleitzen zaizkie, eta, egile batzuek planteatu izan dutenez, etika desberdinak ere aplikatzen zaizkie: arlo publikoa ardazten duten inpartzialtasunean eta elkarrekikotasunean oinarritutako justiziaren etika, eta arlo pribatuan proiektatzen den arretaren harreman-etika. Banaketa hori guztiz funtzionala da gaur egungoa bezalako krisi garaietan, non beharrianak birpribatizatzeko eta batari zein besteari ezaugarri berriak esleitzeko ahalegina egingo baita.

Hala ere, espazio batekoa edo bestekoa den horrek ez dauka mugarik eta ez dago berez finkatuta; hain zuzen ere, interes sozial, politiko eta ekonomiko desberdinak dituzten aktoreen norgehiagoka politiko eta ideologikoaren ondorioa da. Feminismoak, bere jarduerarekin, aldatu egin ditu muga horiek, eta esparru soziala finkatu du, espazio batekoa edo bestekoa zer den erabakitzeko balio duen esparru gisa. Hori horrela, interes kolektibokoa zer den eta partaidetza sozial eta politikoa non aplikatu behar den jakin ahal izango da, eta emakumeen beharrian eta eskaeren aurrean erabiliko diren neurri eta politika publikoak zehaztuko dira, emakumeen askatasunari ezartzen zaizkion muga eta bazterketei aurre egiteko.

Sarri askotan, nire ustez, eragin edo presio politikoa (ekintzarako tresna gisa) bi muturren artean mugitzen da: alde batetik, botere publikoei presio politikoa kentzen dieten praktikak, eta, bestetik, erraz sartzen direnak instituzionalizazio prozesuetara.

Emakumeen egoera arlo kulturalera edota sinbolikora murriztearen ondorioz, generoaren aginduak apurtzeko aukera emango duten justizia sozialeko eta berdintasuneko politikarik ez da eskatzen, eta, horrela, egitura sozial eta ekonomiko kapitalista eta patriarkalak sorrarazten dituzten desberdintasunak eta diskriminazioak agertzen dira.

Beste alde batetik, instituzionalizazio prozesu konplexuek feminismoaren izaera kritikoa suntsitzen dute, eta, beraz, gizartea benetan eraldatzeko gaitasuna ere kentzen diote. Instituzioekiko harremana ere konplexua da. Lehenengo eta behin, izaera desberdineko "entitateak" direlako. Instituzioek berdintasunaren diskurtsoaren logikarik formalena jasotzen dute (desberdintasun handiak daude diskurtsoaren zein edukien aldetik, boterea daukan alderdiaren arabera); sistema

onartzen da, eta, beraz, emakumeen askatasunerako dituen egiturazko mugak ere onartzen dira; desberdintasunak hierarkizatu eta egiturazko desberdintasun bihurtzen ditu; eta, gainera, generoa, kolorea eta jatorri kultural, sexual, etniko eta erlijiosoa herritarrak baztertu eta estratifikatzeko modu berri bihurtzen ditu.

Horrek presio instituzionalaren mugak zehazten ditu, eta, modu horretan, argi ikusten da aldaketa konkretuak lortzeko borroka eta neurri zehatzak zergatik doazen hain lotuta muga horiei egindako kritika erradikalarekin.

Eragin politikoa, prozesu horren tresna gisa, bi norabidetarantz mugitzen da: erakunde feministek ezartzen dutenetarantz eta instituzioek ezartzen dutenetarantz. Alde batetik, instituzioek akordioak eta adostasunak bilatu nahi dituzte, mugimendu feministaren agendak eta denborak markatzeko. Beste alde batetik, jarrera horrek mugimenduaren ikuspegi instrumentala dauka, uste baitu mugimendua bat etorri behar dela ekimen instituzionalekin eta kontrapuntu gisa jokatu behar duela, emakumeen egoeraren hobekuntza ororen aurka dauden sektoreen kritikei aurre egiteko orduan.

Modu horretan, herri administrazioekiko elkarrizketa-espazioetan lor daitekeen eragin edo presio politikoaren arrakastarako aldez aurreko baldintza bihurtzen da autonomia. Autonomia horrek presio politikoaren helburuak, denborak eta moduak aldatzeko balio behar du, eta, era berean, autonomiaren bitartez, diru-laguntzen politikek ez dituzte agenda feminista eta eduki feministak zehaztu behar, eta eragin politikoak mugimendua sendotu behar du; izan ere, eta asko dugu jokoan, mugimenduak emakumeen erantzunak artikulatu behar ditu, gizartea modu erradikalean eraldatzeko prozesuari dagokionez.



Herrialdearen egoera orokorra

Atal honetan, Boliviako eta Hondurasko egoera orokorra azaltzen da. Emakumeak politika, ekonomia, gizarte eta kultura arloetan duten egoera zehazten da, baita arlo horietan euren eskubideek izandako bilakaera ere. Xehekiago, Boliviari buruzko dokumentuan, Boliviako landa-emakumeek, afrondorengoek eta indigenek 1825ean Boliviako Errepublikari aldarrikatu zenetik gaur egunera arte egondako gobernu ezberdinei egindako eskakizunak jasotzen dira. Ondoren, Hondurasi buruzko testua aurkezten da. Testuak eskuratutako hainbat lorpen jasotzen ditu, hala nola, hezkuntzan genero-ikuspegia agertzea, araudi-marko bat sortzea emakumezkoen giza-eskubideen alde eta Estatu honetan generoari buruzko gaiak instituzionalizatzea.

Bolivia

Mónica Gil

Herrialdeko politika eta ekonomiaren sarrera historikoa

1825. urtean, ondoren Bolivia izango zen Bolívarren Errepublika aldarrikatu zuten. Bolívar bera presidentea zen; eta Sucre, presidenteordea. Errepublikako bizitzan oso ohikoa izan da gehiengoak diren biztanle nekazariak, jatorrizkoak eta indigenak, eta euren egitura politiko, sozial eta ekonomikoak baztertzea, boterea maila ekonomiko handi-handiko gutxiengo zuri eta mestizoen eskuetan zegoen bitartean.

Errepublika sortu zenetik, harik eta 1982an Bolivian epealdi demokratiko luzeena ezarri zen arte, herrialdeko egoera politikoan ezegonkortasuna zen nagusi; eta XX. mendeko bigarren zatian, batez ere, behin eta berriro gertatutako estatu-kolpe militarrek. Euren artean, Barrientosek 1964an zuzendutakoak nabarmentzen dira, iraultzaldiari amaiera eman ziolako, gerrillarien mugimenduen aurkako zapalkuntza itzela inposatu zuelako eta, besteak beste, Ernesto Che Guevarak zuzendutakoa uzkailli zuelako. Era berean, Hugo Bánzer-ek 1971n edo García Mezak 1981ean zuzendutakoak aipatu behar ditugu. García Mezak, gainera, erregimen ustel bezain zapaltzailea ezarri zuen ezkerreko mugimendu eta alderdien aurka.

Zenbait diktadura militarren ostean, 1982an, Hernán Siles Zuazok krisi ekonomiko bete-betean zegoen estatu ahul-ahularen gobernua hartu zuen bere gain. Gastu publikoa murrizten saiatu zen arren, defizitak gora egin zuenez, hedapen monetario handia gertatu zen, eta prezioen gorakada itzela izan zen 1984-85ean.

Krisi ekonomiko eta sozialaren ondorioz, hauteskundeak aurreratu egin ziren, eta Víctor Paz Estensoro aukeratu zuten presidente. Oso agintaldi esanguratsua izan zen, herrialdeko sistema politiko eta ekonomikoak nabarmen aldatu zirelako, nazioarteko erakundeek "iradokitako" garapen-eredu liberala ezartzean. Horrela, bada, Silesek eta Paz Estensorok berak 1952an hasitako Iraultza Nazionalean sortzen lagundu zuten estatu-ereduari eman zioten amaiera. Iraultza haren esparruan, hain zuzen ere, nekazaritzaren iraultza gertatu zen, meategiak nazionalizatu zituzten, boto unibertsala ezarri zuten...

Bolivian eredu neoliberala ezartzean, 1986tik 1993ra, Washingtingo Hitzarmenaren gomendioak kontuan hartuta, enpresa publikoak pribatizatzeko programa jarri zuten abian, eta, 1994an, legislatutako kapitalizazioaren bidez ordezkatu zuten.¹ Pribatizazioaren eta egokitzapen-neurrien

¹ Kapitalizazioak kanpoko bazkideak lortzea zuen helburu, sektore publikoko ondarearen balioa bikoizteko. Hona hemen kapitalizatutako zenbait enpresa: Elektrizitateko Enpresa Nazionala, Telefoniako Enpresa Nazionala, Boliviako Lloyd Aire Konpainia eta Boliviako Petrolio Hobi Fiskalak.

ondorioz, soldatak eta lanpostuak ikaragarri jaitsi ziren, ekonomia ireki egin zen eta gastu publikoak murriztu ziren. Neurri neoliberalen eta osteko eraldaketen ondorioz, moneta egonkortu egin zen eta inflazioa kontrolatu zuten. Nolanahi ere, nazioarteak finantza-laguntza handia eman arren, Boliviako ekonomiaren erantzuna geldoa eta moderatua izan zen.

Alde anitzeko erakundeek, Munduko Bankuak (MB) eta Nazioarteko Diru Fondoak (NDF), esaterako, aldebiko lankidetzaren erakundeek egindako balioespina ona izan arren, politika neoliberalen ondorioz, txirotasunaren eta gizarte-desberdintasunen indizeak gehitu egin ziren, lan-baldintzak ezegonkortu egin ziren eta biztanle gehienek eta, batez ere, bertakoen eta indigenen bizi-baldintzek txarrera egin zuten.

Boliviako txirotasun eta zor mailak hain handiak izan zirenez, HIPIC² herrialde moduan sailkatu zuten. Hori dela eta, herrialdeko alde anitzeko eta aldebiko zorraren zati bat murriztu zen. HIPICeko lehen fasea 1997tik 1999ra garatu zen, eta, bigarren fasean, herrialdeko txirotasuna murrizteko estrategia egin behar zen partaidetzan oinarrituta, baina ez zen inoiz sendotu.

Horren guztiorren ondorioz, krisi ekonomikoa sakonagoa izan zen, inoiz sendotu ez zen sistema demokratikoa hondatu egin zen eta gizarte ez zegoen batere pozik. Hori dela eta, gero eta gizarte-mobilizazio gehiago egin ziren, baina, batez ere, 2000. urtetik aurrera. Mobilizazio horien eraginez, biztanle nekazariak, jatorrizkoak eta indigenek bultzatutako nazionalismo boliviar berria sortu zen. Gainera, antzinako egituren bitartez, esparru nazionalerantz bideratu ziren, eta herrialde-proposamen alternatiboa aurkeztu zuten.

Testuinguru horretan emandako lehen gizarte-mobilizazioen artean, Boliviako Ekialdeko Herri Indigenen Ibilaldia garatu zen (1990), lurralde indigenak onetsi zituzten eta estatua lurraldeko berregituratu zezaten. Ibilaldi hori aurrekaria izan zen, azkenean 2006ko abuztuan hasi zen Batzar Eratzailerako prozesua ezartzeko herri-eskarietan.

Ondoren, 2000ko otsailean, "Uraren Gerra" ospetsua gertatu zen Cochabamban, edateko uraren zerbitzua pribatizatu zutenean. Kanpoko zorra berriro negoziatu ahal izateko, Munduko Bankuak, Nazioarteko Diru Fondoak eta Amerika Arteko Garapen Bankuak (BID) jarritako baldintza izan zen pribatizazioa, eta Boliviako gobernuak onartu egin zuen. Tunariko Ur Partzuergoak³ edateko uraren zerbitzuaren emakida lortu zuen, baina hilabete gutxi iraun zuen. Bere ezaugarrien artean, nabarmendu behar da ez zuela inbertsio berririk egin ur-sareen egokitzapen eta artapenean eta tarifen igoera %40 eta %300 artekoa izan zela.⁴

Bolivia oso herrialde txiroa da, nekazari asko daude eta biztanle gehienak jatorrizko herriak eta herri indigenak dira. Euren kulturaren, mundu-ikuskeraren eta biziraupenaren arabera, ezinbestekoa da baliabide naturalekin harreman zuzena edukitzea eta baliabideok erabili ahal izatea. Hori dela eta, "urre urdina" pribatizatzea eraso itzela izan zen eurentzat. Egoera horri aurre egiteko, Ura eta Bizia Defendatzeko Koordinakundea sendotu zen, ura giza eskubidea zela aldarrikatu zuen eta uraren merkantilizazioa salatatu zuen.

Estatuko segurtasun-indarrak Cochabambako plaza nagusiko kontzentrazio jendetsua debekatzeko saiatu zirenean sortu ziren gizarte-mugimenduen eta segurtasun-indarren arteko istiluak. Harrezkero, istiluak etengabeak izan ziren, eta hilabete iraun zuten. Horren ondorioz, mutil gazte bat hil zen, dozenaka zauritu egon ziren eta beste hainbeste atxilotu zituzten Cochabamban.

² Ingeleseko siglak dira eta honako hauxe esan nahi dute: Zor Handi-handidun Herrialde Txiroa.

³ Partzuergoa Ipar Amerikako nazioz haraindiko Bechtel enpresaren, Boliviako lau enpresa txikiren eta Euskadiko Abengoa enpresaren zuzendaritzapean zegoen. Bechtel enpresak Irakeko "berreraikuntzan" parte hartzen du, gainera.

⁴ Itun Sozial Kontinentaleko Emakumeen Lantaldea, 2004.

Gatazka larriagotu egin zenez, herrialde guztia aiduru egon zen, eta gobernuak Tunariko Ur Partzuergoari emakida kendu behar izan zion.

Gizarte-mobilizazio hori erreferentea izan zen nazioan zein nazioartean, tokian tokiko boterea izan zelako garailea, zurrumbilo neoliberal globalaren aurrean.

2000tik 2001era, Boliviako Langile Nekazarien Konfederazio Sindikal Bakarrak (CSUTCB) aimaren mobilizazio handiak antolatu zituen. Beraz, agerikoa zen bertako herrien eta indigenen auzo-egiturak eta diskurtso etniko zein nazionala berragertu eta sendotu egin zirela. Euren kabuz antolatzeko gaitasuna zutenez eta gobernu baztertzaila gaitzesten zutenez, agintari ofizialak bota eta auzo-agintarien sistema ezarri zuten euren lurretan. Horrez gain, Q'alachakako kuartel nagusia sortu zuten, mobilizatutako aimaren indarren estatu nagusia izan zedin.

Herria batere pozik ez zegoenez, 2003ko otsailean irmotasunez kaleratu zen berriro, Gonzalo Sánchez de Lozadaren gobernuak "zergakada" dekretatu zuenean, zerga-defizita murrizteko eta NDFren eskakizunak betetzeko. La Paz eta El Alto hirietako hasierako protestaldien ondoren, herri-matxinada gertatu zen. Hiriotako kaleak bi egunez egon ziren okupatuta, eta, errepresioaren ondorioz, 30 hildako baino gehiago egon ziren eta are zauritu gehiago.

Zortzi hilabete geroago, urte bereko urrian, "Gasaren Gerra" garatu zen, eta gizarte-matxinadako egun gogorrenak izan ziren Boliviako historia demokratiko osoan. Aurreko presidentek gasa⁵ saltzen zuten, diru-sarrerak lortzeko, baina ez zituzten inoiz inbertitu herrialdean hobekuntzak egiteko eta herritarren ongizatea handitzeko.⁶ Hori dela eta, Gonzalo Sánchez de Lozadak baliabide natural hori Txiletik esportatzeko asmoa zuela adierazi zuenean, herria matxinatu egin zen, erabaki hori geldiarazteko.

Mobilizazio horretako herri-eskari nagusia gasaren nazionalizazioa izan bazen ere, subiranotasun nazionala berreskuratzeko eta herrialdeko bertako baliabideak zein produktuak berdintasunez birbanatzeko aldarrikapena sumatzen zen horren atzean.

Urriko matxinada irailean hasi ziren prestatzen, honako ekintza hauek abian jarri zirenean: zenbait sektoretako protesta-ibilaldi jendetsuak, luzaroan iraun zuen gose-greba, zenbait herri geldiarazi zituzten herri-etenaldi handiak eta komunikazio-bide nagusien blokeoak herrialdea komunikaziorik gabe uzteko. Urriaren hasieran, herri-mobilizazioen era guztietako adierazpenak biderkatu ziren herrialde osoan. Guzti-guztietan, Errepublikako presidentek kargua utzi behar zuela adierazten zuten, eta herrialdea eraldatzeko Batzar Eratzailearen sorrera proposatzen hasi ziren.

"Urri beltz" ospetsuan, argi eta garbi geratu zen Boliviako gobernuak ezin izan zituela gutxieneko duintasun-baldintzak bermatu eta, egunero-egunero, Errepublikako emakume zein gizonen eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak urratzen zirela. Horren ondorioz:

- 60 lagun baino gehiago hil zituzten. Euren artean, zenbait adingabe zeuden. Horrez gain, 400 zauritu egon ziren, eta gehienak armadaren tiroen ondorioz zeuden zaurituta.
- Gonzalo Sánchez de Lozada presidentek eta Carlos Sánchez Berzaín defentsa-ministroak kargua bertan behera utzi eta Estatu Batuetara ihes egin zuten.

⁵ Gasa Boliviako baliabide garrantzitsuena da, izan ere, gas-erreserba gehien dituen bigarren herrialdea da Latinoamerikan (Venezuelaren atzetik).

⁶ Baliabide hau pribatizatu zutenetik, honako hauexek dira Boliviako gasa ustiatu eta prozesatzen duten enpresa pribatu nagusiak: Repsol, British Gas eta Enron.

- Batzar Eratzailearen inguruko eskaria orokortu eta herrialdeko hidrokarburoen jabetzari buruzko erreferendumerako deia egin zen.
- Gonzalo Sánchez de Lozadari eta bere laguntzaileei Erantzukizun Epaiketa egiteko eskatu zuten herriak.

Azken puntuek "Urriko Agenda" eratu zuten, eta Boliviako gizarte-mugimenduek betetzeko eskatu zioten presidente berriari.

Carlos Mesa ondorengo presidenteak 2004ko uztailaren 18a aukeratu zuen hidrokarburoei buruzko erreferenduma egiteko. Formagatik eta edukiagatik hainbat kritika jaso arren, lortutako emaitzek agenda politiko berria egiteko aukera eskaini zioten presidenteari. Horrez gain, plan ekonomikoa egin zezakeen, Estatuak hidrokarburo-baliabideak kontrolatzen zituzten nazioz haraindiko enpresen aurrean zeukan zeregina berbideratzeko. Aukera horren aurrean, presidenteak Munduko Bankuari eskatu zion Hidrokarburoei buruzko etorkizuneko Legea egiteko. Herrialdeko gizarte-mugimenduentzat, ordea, gobernuak ez zuen Errepublikak krisitik atera behar zuen hidrokarburo-politika subiranoarekin hartutako konpromisoa bete.

2005. urtearen hasieran, herri-mobilizazio handiak itzuli ziren herrialdera, baina, batez ere, El Altoko hirian gertatu ziren, bertako biztanleek ur zerbitzuaren hornitzailea zen "Agua del Illimani" enpresa pribatua irteteko eskatu zuten eta. Nazioz haraindiko Suez konpainia frantseseko enpresa zen, hain zuzen ere.

2005eko otsailean, Boliviako ekialdeko oligarkiak zuzendutako Santa Cruz de la Sierrako mugimendu autonomista indartu eta sendotu egin zen. Gaur egun ere, bere horretan dirau, eta indar handiz jarri du kolokan herrialdeko banaketa politiko eta administratiboa.

Mobilizazio orokorrak eta gizarte-eragileen zein estatuko segurtasun-indarren arteko gatazka nagusi zirenez, 2005eko maiatzean Carlos Mesa presidenteak behin betiko utzi zuen presidentetza, herrialdean bertan indigenen eta ez-indigenen artean gorrotoa nahiz arrazakeria piztu eta sustatu zituen polarizazio ikaragarria sortu ondoren. Eduardo Rodríguez Justiziako Gorte Goreneko presidenteak presidentetza hartu zuen bere gain, eta presidentetzarako hauteskundeetarako deia egin zuen.

2000. urteaz geroztik Cochabamban gertatutako guztiak ageri-agerian jartzen du nolako garrantzia eta gaitasuna duten Boliviako gizarte-mugimenduek politikan eragiteko orduan. Mobilizazio horien guztien ondorioz, "hamarkada bat eta erdi iraun zuen porrot-garaia sortu zen, eta indigenen nahiz herritarren protesta-zikloa hasi zen berriro, nagusi zen eredu neoliberalak kolokan jartzeko eta ideia-indar alternatiboak proposatzeko".⁷ Mobilizazio horietan, argi eta garbi zegoen herritarrek aurreko mendeetako jatorrizko eskari indigenak berreskuratu nahi zituztela, Boliviaren sorreran kanpoan geratu zen gehiengo nekazari eta indigena errespetatu eta kontuan hartzen zuen Estatua eratzeko.

Lidergo handiena gizonena izan arren, Boliviako emakumeek zeresan handia izan zuten eta bete-betean parte hartu zuten gizarte-mobilizazio horietan guztietan. Mobilizazioetan bertan, ageri-agerian jarri zen antolatze ahalmen handia zutela eta euren kontzientzia politikoaren maila handia zela.

Bertan, Boliviako bizilagun gehienentzat funtsezkoak ziren gaiak aldarrikatzen ziren; esate baterako, uraren pribatizaziorik eza edo gasaren eta baliabide naturalen nazionalizazioa. Hala ere, ez

⁷ STEFANONI HERVE DO ALTO, Pablo (2006): *Evo Morales, de la coca al Palacio. Una oportunidad para la izquierda indígena*. Bolivia: Malatesta.

ziren genero-eskari bereziak kontuan hartu. Mobilizazio horiek, ordea, pribatizazioaren aldeko politikei aurre egitea zuten helburu, ustezko ondorioak emakumeen kalterako izango zirelako, batez ere.

Boliviako errealitateari begira, ez zen berritzailea emakumeek aldarrikapen-testuinguru horietan parte hartzea. Independentziaren aldeko borroketan, zeresan handia izan zuten Bartolina Sisa eta Gregoria Apaza emakume aimarek. Hain zuzen ere, gizonen alboan iraultzan borrokatu ziren gainerako jatorrizko emakumeen eta indigenen isla baino ez ziren izan.

Emakumeen erakundeek XX. mendeko 20ko eta 30eko hamarkadetan egin zituzten lehen manifestaldiak. Garai hartan, agerikoa zen estrategia eta interes desberdinak zeudela emakumeen artean: batetik, emakume langileak Emakume Langileen Federazioaren inguruan antolatu ziren, aldarrikapen sindikalei eusteko (zortzi orduko lanaldia, esaterako); eta, bestetik, eliteetako emakumeek Boliviako Lehen Biltzar Feminista egin zuten.

Emakume indigenen eta ez-indigenen erakundeen arteko urruntasuna oso ohikoa izan da Boliviako emakumeen mugimenduen historian. Bertan, hain zuzen ere, sexu batekoa ala bestekoa izateari barik, adskripzio etnikoari eman diote lehentasuna. Horrela, bada, emakume nekazari, jatorrizko eta indigena gehienek oinarritzko ohiko erakundeen agenda politikoekin bat egin dute, eta gehienak mistoak dira. Euren ustez, gainera, baztertzailleak eta bereizkeriazkoak dira nolabaiteko maila ekonomikoko hiriko emakume mestizo eta zurien erakundeek egindako proposamenak.

Epealdi demokratikoan, emakume ez-indigenen erakundeak elkarreraginean egon dira gobernu-erakundearekin, eta, eragin politikoaren nahiz negoziaketaren bidez, euren agendetako zenbait puntu instituzionalizatzea lortu dute. 90eko hamarkadan, Boliviako testuinguruan emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan orain arte ezaguna den bultzada handiena gertatu zen. Une hartan, emakumeen erakundeak sendotu egin ziren (gehienetan gizarte zibilaren GKEizazioarekin bat egin zuten), eta, aldi berean, nazioarteko egoerari esker, agenda globalean sartu ahal izan zituzten gobernu nazionaleri egindako eskakizunak, proposamenak eta erronkak, emakumeen eskariak politika publikoetan kontuan hartu zituzten eta eskubide gehiago eman ziezazkieten.

Bultzada horren ondorioz, genero-gaiak instituzionalizatu ziren, baina, batez ere, emakumeen eskubide zibil, politiko, ekonomiko eta sozialen aldeko legezko eta arauzko zenbait aurrerakuntza. Euren artean, 1988an Emakumearen aurkako Bereizkeria Guztiak Ezabatzeari buruzko Konbentzioa (CEDAW) berretsi zen; 1994an, Herritarren Partaidetzari buruzko Legea, emakumeek herritarren partaidetzarako prozesuan parte hartu dezaketela zehazten duena; Alderdi Politikoei buruzko Legea, emakume eta gizon militanteek ordezkarietza politikoa eskuratzeko orduan aukera-berdintasuna sustatzen duena; 1997an, Kuotei buruzko Legea, diputatu eta senatari karguetarako zerrendetan emakumeen gutxieneko partaidetza %30ekoa izan behar dela zehazten duena; 1997an, Gizon eta Emakumeen arteko Aukera Berdintasunerako Dekretu Gorena, arlo politiko, sozial eta kulturean gizon eta emakumeen arteko berdintasun juridikoa bermatzen duena eta, horrez gain, politika publikoetan genero-zeharkakotasuna kontuan hartzen duena; Etxeko Lanari buruzko Legea; 1995ean, Familia Barruko Indarkeriaren aurkako Legea; eta familia barruko indarkeriaren atentziorako udal-zerbitzuen ezarpena.

Emakume indigenen eta ez-indigenen erakundeen artean desberdintasun asko eta urruntasun handia daudenez, emakume indigenek ez dituzte lorpen horiek bere egiten, eta prozesuetatik baztertu dituztela diote. Errealitate hori ondo baino hobeto islatu zen Hego Amerikako Emakume Indigenek NBEko Emakumeen Estatusaren Batzordeko 49. Bileran⁸ egin zuten adierazpenean. Bertan, hain zuzen ere, Boliviako emakume indigenen ordezkariak parte hartu zuten:

⁸ New York, 2005eko otsailaren 28a-martxoaren 11.

1. "... Politika publikoetan emakumeen baldintza orokorren hobekuntzarako ekintzak kontuan hartzeko ahaleginak egin diren arren, oraindik ere ez dira emakume indigenentzako politika bereziak sortu...".
2. "Kairoko Ekintza Programari esker aurrera egin arren eta Durbango Adierazpena zein Programa abian jarri arren, estatu-nazioen politikak ez dira herri indigenetara heldu kulturari begira egokiak diren ekintzen bitartez...".
3. "Emakume indigenek Nairobin, Kairon, Beijingen eta Durbanen hasitako prozesuak gure eskubide-kontzientzia sendotu du apurka-apurka, proposamenetan parte hartzeko ditugun gaitasunak egituratu eta garatu egin ditu, eta genero, kultura eta herri moduan ditugun oinarrizko eskubideak aitortzeko ahaleginari eusteko adorea eman digu".

Gaur egungo egoera sozio-ekonomikoa

Boliviako bilakaera historikoak gaur egungo errealitatea baldintzatu du, eta argi eta garbi antze-man daiteke hurrengo datu estatistikoetan adierazten den argazkian.

Boliviako biztanle-kopurua⁹ 8.274.325 lagunekoa da. Euretatik, %50,16 emakumeak dira, eta %49,84, gizonak. Biztanleen batez besteko adina 20,12 urtekoa da, eta jaiotzean duten bizi-itxaropena 63 urtekoa da ia-ia.

Hona hemen boliviarren oinarrizko bi ezaugarri: batetik, landa-ingurunetik hirirako migrazio-fluxuak areagotu egin direnez, biztanle gehienak Errepublikako hiri nagusietan bizi dira (La Paz, Santa Cruz, El Alto eta Cochabamba). Bestetik, biztanle gehienak jatorrizko herri edo herri indigenaren batekoak direnez, Bolivia aniztasun kultural handieneko herrialdeetakoa da Latinoamerikan:

I. taula. Euren burua jatorrizko herri edo herri indigenatzat duten 15 urtetik gorako biztanleak, guneen eta sexuaren arabera ¹⁰							
Boliviako jatorrizko herriak eta herri indigenak							
Gunea	Kitxuak	Aimarak	Guaraniak	Txikitanoak	Mojeñoak	Beste batzuk	Ez bata ez bestea
Hiria							
Emakumeak	422.257	391.010	21.187	37.987	15.740	19.954	810.642
Gizonak	368.179	370.702	21.821	38.819	16.935	21.838	711.589
Landa-gunea							
Emakumeak	383.712	253.114	16.318	15.011	4.164	14.571	182.264
Gizonak	381.493	263.055	19.033	20.399	6.464	18.874	217.860

Bere historian zehar, nazioarteak herrialdeko baliabide naturalak arpilatu dituzenez, Boliviako txirotasun eta desberdintasun mailak eskualdeko handienak dira. Zenbatespenen arabera, biztanleen %51 txirotasun dira hiriguneetan, eta %80, landa-inguruneetan. Bestetik, biztanle aberatsenen %10en diru-sarrerak biztanle txiroenen %40ren diru-sarrerak baino 25 aldiz handiagoak dira.

⁹ Biztanleen eta Etxebizitzaren Azken Errolda Nazionala, 2001, Estatistika Institutu Nazionala (INE).

¹⁰ Bertan egindakoa, 2001eko Erroldan oinarrituta, INE.

2005eko Giza Garapenaren Indizea (GGI)¹¹ 0,695ekoa zen, eta, beraz, Bolivia 117. postuan zegoen, adierazle horren kalkulua egin zuten munduko 177 herrialdeen artean. Beraz, Hondurasen azpitik (0,7) eta Guatemalaren gainetik (0,689) zegoen.

Bolivian, beste edonon bezala, txirotasunak eta desberdintasunek ez dute eragin bera emakumeengan eta gizonengan. Egunez eguneko zenbait arlori buruzko zenbakiak Boliviako gizarteko emakume eta gizonen artean dirauten desberdintasunen adierazgarri ezin hobekak dira. Arlo ekonomikoan, oraindik ere emakumeen ardurapean dago soldatarik gabeko ugalketa-lan soziala. Izan ere, arlo ekonomikotik baztertutako lana da eta ez da batere balioesten. Errealitate horri lotuta, ekonomiari begira ez-aktiboak diren biztanle gehienak emakumeak dira (%45,22, 2005eko INEko datuen arabera horrela sailkatutako gizonen %28,55en aldean); langabeziak eragin handiagoa dauka emakumeengan gizonengan baino (%6,54 eta %4,54, hurrenez hurren, 2005eko INEko datuen arabera); kalitate gutxiko lanpostuen %64 emakumeek betetzen dituzte; eta, azkenik, INEko datuen arabera (2003), soldata-haustura handi-handia dago emakumeen eta gizonen artean, sektore guztietan.

Partaidetza politikoari dagokionez, INEko datuen arabera (2005), 18 urtetik gorako emakume boliviarrak %33k ia-ia ez du nortasun-agiririk. Hori dela eta, zailtasunak dituzte hauteskundeetan eta herri-galdekietan parte hartzeko oinarrizko eskubide politikoa erabiltzeko. Horren aurrean, gizonen %76k badu nortasun-agiririk. Bestetik, Emakumeen Koordinakundeak CEDAWi buruz egindako Txostenean azaltzen denez, 1995. urtetik 2004. urtera emakumeek agerpen handiagoa lortu dute botere judizialean, legegintza-boterean eta botere betearazlean eta udal-kontzejuetan. Dena dela, agerpen hori ez da oraindik legearen arabera zehaztutako eta ezarritako minimoetara iristen.

Egiturazko genero-desberdintasunak bere horretan dirauenez, harreman afektiboak botere-menderakuntzan oinarrituta daude oro har, eta emakumeen aurkako indarkeria ez da inondik inora desagertu. Herrialde osorako erregistro ofizialerako sistemarik ez dagoen arren, oraindik ere askotan emakumeen aurkako indarkeria tabua dela kontuan hartuta, interesgarria da nabarmentzea Boliviako bost hiri handienetako Lege Zerbitzu Integralean 4.585 indarkeria-kasu erregistratu zirela 2003ko bigarren seihilekoan¹² eta, euretatik, %43 inguru izan zirela indarkeria fisikoaren biktimak diren emakumeen kasuak. Bestetik, herrialdeko 8 hiritako Familiaren Babeserako Brigadetan ere 11.774 indarkeria-kasu erregistratu ziren 2003ko bigarren seihilekoan¹³ eta, euretatik, ia-ia %40 izan ziren indarkeria fisikoagatiko kasuak. Ia-ia, erailketa-saialdien %84n, emakumeak dira biktimak, eta familia bereko gizonak, erasotzaileak.

Sexu eta ugalketa arloko osasunari dagokionez, oso garrantzitsua da nabarmentzea amen hilkortasun-indizea oso handia dela Boliviako emakumeen artean. Jaio aurreko kontrola oso eskasa da, eta haurdunaldi goiztiarrak zein nahi gabeko haurdunaldiak gero eta ohikoagoak dira nerabeen artean. Sexu eta ugalketa arloko osasuna ez kontrolatzean ugalkortasun-tasak handiak direnez, familia boliviarrak %44k ia-ia bost kide baino gehiago dituzte.

Dena dela, idatz-zati honetan adierazi dugunez, orain arte azaldutako genero-desberdintasunak ez ezik, Bolivian etniagatiko desberdintasunak ere badaudela nabarmendu beharra dago. Alde horretatik, CEPALen "Emakume indigenak Bolivian, Brasilen, Ekuadorren, Guatemalan eta

¹¹ GGI zenbait aldaerak osatutako hiru adierazletan oinarrituta dago: bizi-maila (benetako *per capita* BPGren arabera neurtutakoa), hezkuntza-maila (helduen alfabetatze-mailaren eta hezkuntzako matrikulazio-tasa gordinarenean arabera neurtutakoa) eta bizi-luzetasuna (jaiotzean dugun bizi-itxaropena).

¹² CIDEM, CPMGA, IFFI et al. (2004): "Participación y Representación Política, Violencia Familiar o Doméstica y Femicidio" in *Sistema de Información para la Vigilancia Ciudadana desde una Perspectiva de Género*, 3. urtea, 3. zk.

¹³ CIDEM, CPMGA, IFFI et al. (2004), *Op. Cit.*

Panaman" azterlanean, zenbait arlori buruzko zenbaki argigarriak agertzen dira; analfabetismoari eta enpleguari buruzkoak, esaterako. Desberdintasunak murrizteko orduan alfabetizazioa beharrezko elementua dela kontuan hartuta, oso garrantzitsua da argitzea Boliviako biztanle indigenen analfabetismoa ez-indigenena baino handiagoa dela eta, biztanle indigenen artean, emakumeen analfabetismoak gizonena hirukoizten duela. Emakume indigenen eta ez-indigenen errealitatea alderatuz gero, lehenengoan analfabetismoak bigarrenena bikoizten duela ikusi ahal izango dugu.

Aitzitik, CEPALen azterlanean adierazten denez, indigena-izaerak barik, pertsonen sexuak zehazten du nolako lotura duten ekonomiari begira aktiboak eta ez-aktiboak diren biztanleekin: biztanle indigenen %71 aktiboak dira ekonomiari begira, baina emakume indigenen %44 eta emakume ez-indigenen %40 baino ez dira kategoriatan sartzen. Edonola ere, emakume indigenen lan-baldintzak emakume ez-indigenen lan-baldintzak baino txarragoak izan ohi dira.

Bereizkeria bikoitzaren eraginez, emakume indigenek eta beltzek Boliviako errealitatearen ondorio larrienak jasaten dituztenez, urteen joan-etorrian Boliviako txirotasunak emakume indigenen aurpegia duela esan daiteke.

Aurrera egiteko gaur egungo erronkak

Boliviako Errepublikak lege asko ditu emakumeen giza eskubideen erabilera bermatzeko. Nolanahi ere, aurreko atalean aurkeztutako argazkian argi eta garbi adierazten da emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun handiak daudela eskubide zibil, politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalen erabileran. Beraz, legegintzako aurrerapenen eta aurrerapen horien ezarpenaren arteko haustura dagoenez, Boliviako emakumeen eta, batez ere, jatorrizko emakumeen eta emakume indigenen eskubideak urratzen dira.

Hori dela eta, oraindik ere agenda luzea eztabaidatu eta negoziatu beharra dago emakumeen erakundeen eta 2005eko abenduko hauteskundeetan funtsean aldatu ziren gobernu-erakundeen artean. Gaur egungo esparru politiko boliviarra erabat aldatu da emakumeen erakundeek gobernuarekin duten harremanari dagokionez. 2006. urtera arte, hiriko emakume ez-indigenen erakundeek instituzio ofizialetan eragin zuzena bazuten ere, harrezkero jatorrizko emakumeen eta emakume indigenen oinarriko erakundeek izango dute gobernuarekin negoziatzeko aukera handiagoa.

2006ko urtarrilean Sozialismorako Mugimenduaren (MAS) Gobernua ezarri zenean gertatu dira aldaketa horiek. Izan ere, etapa berria hasi da herrialdean, Boliviako historian lehen aldiz jatorrizko herrien eta herri indigenen ordezkaria den gobernuak agintzen baitu. Horrez gain, biztanle nekazarien, jatorrizkoen eta indigenen bereizkeria eta gizarte-bazterketa murriztea eta nazioko politikan eta ekonomian parte hartzea du helburu nagusi.

Gaur egungo gobernuaren iritziz, historiari begira Boliviako politikak inportatutako ereduak jarri ditu abian. Horren ondorioz, aberastasuna gutxi batzuen esku dago eta txirotasuna nagusi da herrialdean. Beraz, "*Bolivia duina, subiranoa eta emankorra, ondo bizitzeko*" Garapen Plan Nazionalean adierazten duenez, MASEk gehiengo indigenen gizarte-desberdintasunari eta bazterketari aurre egitea du helburu nagusi, bai eta elkarrekiko estatu bateratuaren eraketa proposatzea ere. Horrela, biztanle guztiek oinarriko zerbitzuak izango dituzte, azpiegituraren, osasunaren eta hezkuntzaren arloan. Hona hemen helburu hori betetzeko neurri nagusiak, besteak beste: nekazaritzaren erreforma berria, ikuspegi etnikoa kontuan hartzen duen hezkuntza-erreforma, Batzar Eratzailearen garapena eta hidrokarburoen nazionalizazioa.

Gobernuak proposamen berriak dituen eta bere lehentasunak zehaztu dituen, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako politikak ere berbideratu egin dira. Orientazio berri horren ondorioz, emakumeen eskubideak babesten dituen gobernu-instituzioaren botere betearazlearen hierarkia jaitsi egin da. Gobernu berriak genero-berdintasuna nola jorratu duen ikusita, gobernuak berdintasun-politiken bilakaeran atzera egin duela uste dute hiriko emakume ez-indigenen erakundeek. Emakume indigenen erakundeek, ordea, historian lehen aldiz politika horrekin bat egin dute erabat.

Inolako zalantzarik gabe, Bolivia testuinguru berrian bizi da gaur egun, eta, bertan, biztanle indigenen eta ez-indigenen arteko indar-korrelazioa aldatu egin da. Herrialdea benetan garatu eta hazteko, boliviarren eta, batez ere, jatorrizko emakumeen zein emakume indigenen eskubideetan egin behar da aurrera. Horretarako, estrategia instituzional berriak zehaztu behar dira, genero eta etnikotasun arloko gaiak txertatzeko. Bestetik, oso-oso garrantzitsua da emakume indigenen eta ez-indigenen erakundeen arteko harreman horizontala berrezartzea eta sendotzea, errespetuan eta ulermenean oinarrituta. Horrela, alderdi guztiek eta, azken batean, herrialdeak berak ikasi egingo dute eta hazi egingo dira.

Bibliografía

ARI, Marina (2006): "La epopeya de las mujeres aymaras en 1781: Jan axsariri warminaka". Hementxe argitaratutako artikulua: *Pukara*. 1. urtea, 8. zenbakia. La Paz, Bolivia: Jatorrizko herrien kultura, gizartea eta politika.

ARNOLD, Denise y SPEDDING, Alison (2005): *Mujeres en los movimientos sociales en Bolivia 2000-2003*. Bolivia: CIDEM eta ILCA.

EMAKUME ETA GARAPEN UNITATEA, CEPAL: www.eclac.cl

"Emakumeak uraren alde" I. Topaketa Nazionaleko Memoria, La Paz, 2006ko ekainaren 12a, 13a eta 14a, Solón Fundazioa eta UNIFEM, Bolivia.

EMAKUMEEN INFORMAZIO ETA GARAPEN ZENTROA (CIDEM) (2004): "Participación y Representación Política. Violencia Familiar o Doméstica. Femicidio" in *Sistema de Información para la Vigilancia Ciudadana desde una Perspectiva de Género*, seihelekarria, 3. urtea, 3. zk. Bolivia: CIDEM, CPMGA, IFFI, ECAM, Juana Azurduy Zentroa, Rebeldía Taldea.

ESTADÍSTIKA INSTITUTU NAZIONALA: www.ine.gob.bo

GARAPENAREN PLANGINTZARAKO MINISTERIOA (2006): *Plan Nacional de Desarrollo: Bolivia Digna, Soberana, Productiva y Democrática para Vivir Bien*. Bolivia.

GÓMEZ, Luis A. (2004): *El Alto de pie. Una insurrección aymara en Bolivia*. HdP La Paz, Comuna eta Indymedia Qollasuyu Ivi Iyambae Bolivia. Bolivia.

ITUN SOZIAL KONTINENTALEKO EMAKUMEEN LANTALDEA (2004): *Las mujeres en la defensa del agua como un derecho humano fundamental*. Tunupa berripapera, 24. zk. Bolivia: Solón Fundazioa.

LATINOAMERIKARAKO BATZORDE EKONOMIKOA (CEPAL) (2007): *La Mujer indígena en Bolivia, Brasil, Ecuador, Guatemala y Panamá*. 86. zk. Txile: CEPAL, Emakumeak eta Garapena serieak.

MORALES, Rolando (2000): *Bolivia: Política económica, geografía y pobreza*. Bolivia: Simón Bolívar Unibertsitate Andetarra.

NAZIO BATUEN GARAPENERAKO PROGRAMA (PNUD): www.pnud.org

NOYA, Martha; MONTERREY, Javier; eta VILASECA, Fernando (2005): *Informe CEDAW*. Bolivia: Emakumeen Koordinakundea.

RICO, Susana eta SALGUERO, Elizabeth (2004): *Índice de compromiso cumplido –ICC– Bolivia. Un instrumento de control ciudadano*. Bolivia: CIDEM.

STEFANONI HERVÉ DO ALTO, Pablo (2006): *Evo Morales, de la coca al Palacio. Una oportunidad para la izquierda indígena*. Bolivia: Malatesta.

ZABALAGA, Carmen (2007): *La asamblea constituyente: un desafío de las mujeres para lograr la refundación de un país que incluya la equidad*. Helbide honetan kontsulta daiteke:
http://mail.repem.org.uy/la_red_va.htm

Honduras

Pilar González

Bi hamarkada eskaseko garapen demokratikoan, Hondurasek, Erdialdeko Amerikako istmoko gainerako herrialdeek bezala, erronka handiari aurre egin behar dio, gizarte-desberdintasun sakonak eta txirotasun-maila handiak daudelako.

Milurteko Helburuen Garapenaren Ezarpenari buruzko Herrialdeko Txostenaren arabera¹, Hondurasko biztanleen txirotasun-mailak larriak dira, eta bertako biztanleen erdiak baino gehiago daude egoera horretan. Horrez gain, euren bostenak dolar bat baino gutxiagorekin bizi dira egunean. Faktore horien ondorioz, Honduras desberdintasun-tasa handieneko herrialdeetako da Latinoamerikan, diru-sarreraren banaketari dagokionez.²

Baieztaatu egin daiteke oinarri neoliberalak eta txiroen ahotsek ez dutela bat egiterik, politika makroekonomikoek ez dutelako inolako zerikusirik etxeko ekonomiarekin. Merkatu askeak giza eskubide unibertsaletatik kanpo dagoen kontsumoaz hitz egiten duen bitartean, lehiakortasunak abantaila lehiakorrez hitz egiten du inolako berdintasun-irizpiderik gabe eta emankortasunak zein eraginkortasunak ez dute inolako loturarik gizarte eta genero arloko berdintasunarekin.

Txirotasuna eta gizarte-desberdintasuna azterketa-kategoria sozialtzat hartutako generoarekin gurutzatzean, oso fenomeno ezaguna sortzen da, nahiz eta sarritan hazkuntza ekonomikorako ereduak eta garapenerako lankidetzak ezkutatu. "Txirotasunaren emakume-aurpegiak" ari gara, emakumeen ahulezia sustatu eta euren askatasuna zein aukerak mugatzen dituelako.

Hondurasko biztanle txiro gehienak emakumeak dira, Hondurasko biztanleen %51 emakumeak direlako eta, gutxienez, hamarretik zazpi direlako txiroak.³ Horrez gain, familiak gero eta azkarra-go desegituratzen dira edo immigrazioa areagotu egin da, batez ere gizonak Estatu Batuetarantz joan direlako. Hori dela-eta, azken urteotan gero eta emakume gehiagok dute familiaren ardura osoa.

Emakume hondurastarrok nola bizi dugun txirotasuna eta nolako garapena lortu nahi dugun⁴ agirian, herrialdeko zenbait eskualdetako emakumeen lekukotasunak azaltzen dira. Horren arabera,

¹ HONDURASKO MILURTEKO GARAPEN HELBURUAK (2007): *Segundo Informe de País. El logro de los ODMs: una responsabilidad compartida*. Tegucigalpa, Honduras: SNU.

² Gogoan eduki behar dugu Mitch urakanak herrialdea bete-betean astindu zuela 1998ko urrian, eta, horren ondorioz, gaur egunera arte iraun duten txirotasun-indizeak larriagotu zirela.

³ COFEMUN (2005): *Índice de compromiso cumplido en Honduras. Una estrategia de control ciudadano de la equidad de género*. Managua: Z y Z Impresiones.

⁴ COFEMUN (2005): *Cómo vivimos la pobreza y qué tipo de desarrollo queremos las mujeres hondureñas*. Managua: Z y Z Impresiones.

eskubideak ukatzean (oinarrizko zerbitzuen falta: osasuna, hezkuntza, etxebizitza eta ura) sortzen da txirotasuna; premiei aurre egiteko diru-sarrerarik ez edukitzean; soldatapekoa ez den etxeko lana handitzean (higadura, nekea eta narriadura); gazteen lana esplotatzean; eta azkenik, egoera aldatzeko itxaropenik ez edukitzean.

Alde horretatik, Hondurasek epe luzerako erronka handi bezain konplexuei aurre egin beharko die ekonomian, partaidetza politikoa, hezkuntzan eta emakumeen sexu zein ugalketa arloko esku-bideetan.

Gaur egungo egoera sozio-ekonomikoa

Azterketa ugari ikuspegi ekonomikotik egiaztatzen dute azken bi hamarkadotan Erdialdeko Amerikako eskualdeko emakumeak laneratzeko prozesua azkartu egin dela, eta, batez ere, merkataritza-irekieran esparruan sortutako jarduera ekonomiko berrietan dihardute. Euren artean, ehungintzako makila eta esportaziorako ezohiko laborantzak dira garrantzitsuenak.

Nolanahi ere, emakumeen partaidetza ekonomikoaren mailan aldaketa handiak gertatu diren arren, agerikoa da politika ekonomikoek emakumeak kontuan hartu ez dituztela. Bestetik, partaidetza-tasa ez da handitu genero-instituzionaltasunak eta/edo emakumeen mugimendu antolatuak berriazko politikak sustatu dituztelako. Antza denez, eskualdea ekonomia globalen txertatzeko eredu berriaren logikarekin dauka zerikusia, besteak beste, emakumeen lan-indarra "birbaloratu" duelako, lehiakortasunerako faktore estrategikoa izateko.

Estatistika Institutu Nazionalak (INEK) 2006an Hondurasko Familiei buruz egindako Inkestaren arabera, emakumeek oztupoak gainditu behar dituzte jarduera ekonomikoan bete-betean integratu ahal izateko. Euren lan-partaidetzaren tasa %33,3koa da, gizonen %70en aldean.⁵ Iturri horien arabera, 1990. urteaz geroztik emakumeen proportzioa zertxobait igo da nekazaritza ez den sektoreko soldatapeko lanpostuetan: %41,7, 2006. urtean.

Bestetik, proportzioan, emakumeek kalitate txikieneko lanpostuak dituzte, eta emakume asko norberaren konturako langileak eta soldatarik gabeko familia-langileak dira. Horiek horrela, ekonomiarik begira aktiboak diren emakumeen %35 baino ez dira sektore pribatuko (etxeko kategoria sartuta) edo publikoko soldatapeko langileak.⁶

Alde horretatik, nabarmendu egin behar da Hondurasko emakumeen artean lan informaleko zenbait jarduera hedatu direla, txirotasunari aurre egin ahal izateko. Horrela, bada, etxeko zenbait lan-mota eta enpresa txikien instalazioa ekonomia informalaren hazkuntzarekin eta txirotasunarekin daude lotuta aldi berean. Horrez gain, lan horiek kalean garatzen dira oso baldintza osasungaitzetan, ez dira batere seguruak eta lanaldiak oso-oso luzeak dira. Oro har, euren ekintzailtzak ekonomiako sektore baztertuenetan gertatzen dira, eta kreditua, informazioa, ekoizpena eta jakintza eskuratzeko aukerak mugatuagoak dira. Horrela, txirotasun-baldintzek kapital txikiagoarekin, bokazio edo enpresa arloko jakintza-gabeziekin eta kalitate txikiagoko jakintzarekin dute zerikusia.

Azken batean, azterketa-ikuspegi honetan onartu egiten da emakumeek zeresan dutela diru-sarrera nazionaletan eta maila mikroekonomikoan eta emakumeek eurek jarduera berrietarako

⁵ ODM 3ren txostenean aipatua: "Emakumeen genero-berdintasuna eta autonomia sustatzea", 2005. Nazio Batuetako sistema. Nazio Batuen Garapen Programa (PNUD). Prospektiba eta Estrategia Unitatea (UPE).

⁶ HONDURASKO ERREPUBLIKAKO GOBERNUA (2004): *Estrategia para la Reducción de la Pobreza*. Aurrerapenen Txostena 2004.

estrategiak sustatzen dituztela familiaren diru-sarrerak bermatzeko. Beraz, ekarpen hori eduki ezean, gaur egun txiroak ez diren familia asko txiroak izango lirateke.

Hori dela-eta, gobernu askoren joera gainditu behar da emakumeak gizarte-politiken onuraduntzat hartzen dituztelako eta ez eragile ekonomiko eta sustatzailatzat, emakumeen premien araberako politikak diseinatzeko orduan. Politika horiek, hain zuzen ere, txirotasuna gainditzea eta emakumeek garapenean bete-betean parte hartzea dute helburu.

Sexu eta ugalketa arloko osasuna

Bestetik, Hondurasko emakumeak oso-oso ahulak dira osasunaren arloan. Txirotasuna eta sexu zein ugalketa arloko eskubideen erabilera bateratzen baditugu, oso-oso androzentrikoak diren ideiak eta jarduera sozial eta kulturalak nagusi direla ikusiko dugu. Horren ondorioz, emakumeak arrisku-egoera larrian daude.

Hondurasko amen heriotza-tasa Erdialdeko Amerikako eskualdeko handiena da.⁸ 1997. urtera arteko zenbatespenen arabera, 31 orduoro emakume bat hiltzen zen haurdunaldian, erditzean edo erditu ondoren. Horrez gain, urtero 1.406 neska-mutiko amarik gabe geratzen ziren amen hilkortasunarekin zerikusia zeukaten arrazoiengatik¹⁴². Hondurasko Amen eta Emakume Ugalkorren Heriotza Tasari buruzko Ikerketaren arabera (1997ko txostena), arrazoi saihesgarrien ondorioz hiltzen dira amak.

Amen heriotza-tasan bezala, Honduras zerrendako lehen postuan dago eskualdean amatasun goiztiarrari dagokionez. 2001eko Epidemiologiari eta Familien Osasunari buruzko Inkesta Nazionalaren arabera, Hondurasek ugalkortasun-tasa handiena lortu zuen nerabeen artean, erdiki-eten %21,6 20 urtetik beherako gazteenak ziren-eta. Iturri berberen arabera, nerabeen amatasuna ohikoagoa da desabantaila ekonomiko handiagoan bizi diren gazteen artean eta, batez ere, oso gutxi edo inoiz eskolaratu ez diren landa-emakumeen artean. Amatasun goiztiarra erronka nagusietakoa da, txirotasunaren belaunaldi arteko transmisioa eteteko, neska gazteen ugalketa-osasunean eta ongizatean duelako eragina, emakumeen hezkuntza-aukerak eragozten dituelako, epe luzera emakumeen autonomia sozial eta ekonomikoa murrizten duelako eta emakumeen zein jaioberrien osasuna jartzen duelako kolokan.

Bestetik, emakumeek botererik (genero-nortasuna, indarkeria eta presio soziala) eta baliabiderik (zerbitzuak, informazioa eta hezkuntza) ez dutenez, sexu-transmisioko infekzioak handitu eta ugaltu egiten dira euren artean, GIB/HIESa bera barruan sartuta. Izan ere, Honduras Erdialdeko Amerikako eskualdeko kaltetuena da, eta bosgarren prebalentzia-tasa handiena du Amerikan.⁹

Era berean, GIB/HIESari dagokionez, hamabi gizon kutsatuko hamar emakume kutsatu daude, batez beste, hau da, antzemandako kasuen %47 emakumeak dira. Infekzioen %84 harreman heterosexualetan gertatzen dira; eta %6, amek kutsatzen diete seme-alabei. Emakumeen kasuek gora egin dutenez, "GIB/HIESak emakume-aurpegia" duela esaten da.¹⁰

Alde horretatik, Hondurasen jazo berri den gertaerak egiaztatu egiten du estatuko zenbait sektoretan eta presio-talde berezietan sustraitutako jarduera eta sinesmen zaharren sistemak bere

⁷ OMS (Osasunaren Munduko Erakundea) (2003): *Género, Salud y Desarrollo en las Américas 2003*. OPS/OMS.

⁸ COFEMUN (2005): *Índice de compromiso cumplido en Honduras. Una estrategia de control ciudadano de la equidad de género*. Managua: Z y Z Impresiones.

⁹ ODM 3ren txostena: "Emakumeen genero-berdintasuna eta autonomia sustatzea", 2005. *Op. Cit.*

¹⁰ COFEMUN (2005), *Op. Cit.*

horretan dirauela. Hori dela-eta, emakumeek ez dute euren sexu eta ugalketa eskubideak askatasunez erabiltzerik.

2006. urtearen amaieran, Hondurasko gobernuak HIESaren aurkako Munduko Fondoarekin sinatu zuen hitzarmena, sexu-transmisioko infekzioetarako arriskua hezkuntza-sistema formaleko prebentzio-jardueren bidez gutxitzeko. Hitzarmen horren esparruan, Osasun Ministerioak sustatutako eta Nazioarteko Lankidetzak egindako eta finantzatutako gida metodologikoak argitaratzen ahalegindu ziren. *Nire osasuna eta bizia zaintzen* izeneko gidak oinarritzko curriculum nazionalen txertatu nahi zituzten aurre-oinarritzko eta oinarritzko hezkuntzako irakasleentzako material lagungarri moduan. Hezkuntza-agiriak jakintza zientifikoak, balioak, jarrerak eta trebetasunak sendotu nahi zituen iradokizun metodologikoen bidez, herrialdeko zenbait arazo konpondu nahian: sexu-transmisioko gaixotasunen indize handiak, GIB/HIESa, nerabeen haurdunaldia, amen hilkortasuna eta emakumeen aurkako indarkeria.

Materialak haserrea sortu zuen gobernuaren zenbait sektoreren artean, baina batez ere, talde erlijiosoen artean. Izan ere, gobernuari eskatu zioten gidak eteteko eta oinarritzko hezkuntza-sistematik berehala kentzeko. Euren esanetan, gaztetxoek sexu-hezkuntza etika kristauaren irizpide biblikoan oinarritu behar zen eta ez humanismoaren postulatuetan, humanismoak balio kristaurik ez duelako eta liberaltasun sexualaren filosofian txertatzen delako.¹¹

Ondoren, Hondurasko Kongresu Nazionaleko Hezkuntza Batzordeko presidentek dekretu-proiektua aurkeztu zuen parlamentuan, gida metodologikoak hezkuntza-sistematik behin betiko kentzeko. Giza eskubideen eta, batez ere, sexu zein ugalketa arloko eskubideen aldeko sektore asko erabaki horren aurrean erantzun zuten. Horiek horrela, gizarte zibilaren erakundeek, emakumeen mugimendu feministak, gazteen erakundeek eta nazioarteko lankidetzako zenbait eragilek gida metodologikoen aldeko zabalkunde-kanpaina jarri zuten abian.

Nabarmendu egin behar da gertaera horretan emakumeen erakundeek eta mugimenduek aurrekaririk gabeko egoera sortu zutela, hezkuntza-material hori eskola-sistematik ez kentzeko. Agerikoa da emakumeen giza eskubideen alde bat egin zutela eta talde-lan eraginkorra garatu zutela, euren arteko desberdintasunak eta desadostasunak alde batera utzita.

Zoritxarrez, azkenean, *Nire osasuna eta bizia zaintzen* gidak behin betiko kendu zituzten, honako hauxe adierazita: "materialak irudi iraingarriak ditu, informazio anbiguo eta osagabea eskaintzen du, sexu-esperientzia sustatzen du, gustu sexualak arakatzen ditu eta manipulazio genitala bultzatzen du. Horren ondorioz, adin goiztiarretik suspertzen du promiskuitate sexuala".¹² Gaur egun ere, agiri didaktiko horiek hezkuntza-sistematik kanpo daude.

Esperientzia horrek gogorarazi egiten digu oso garrantzitsua dela sustraitutako ideien eta jardueren berrikuspen kritikoa sortzea, giza eskubideen erabateko erabilera eragozten dutelako. Era berean, garapenerako lankidetzan oinarrituta, oso garrantzitsua da arlo politiko, juridiko, sozial eta etxean jarrera-aldaketak sustatzea, genero-desberdintasunak murriztu ahal izateko.

Nolanahi ere, erronka handi horiek alde batera utzita, nabarmendu egin behar da herrialdean lorpen nabariak izan dituela azken urteotan.

¹¹ COFEMUN (2006): "Sexualidad, Estado y Familia" in *Defensa de los Derechos Sexuales y Reproductivos*. Helbide honetan kontsulta daiteke: www.cofemun.org

¹² COFEMUN. "Proyecto Decreto. Congreso Nacional. República de Honduras" in *Defensa de los Derechos Sexuales y Reproductivos*. Helbide honetan kontsulta daiteke: www.cofemun.org

Lorpenak eta gaur egungo erronkak

Aurrerapen adierazgarrienetakoa hezkuntzaren arloan erdietsitakoa da. Gero eta ume gehiago eskolaratzen direnez, neska ikasleen mesederakoa izan da. 1990. urtean, gizonen alfabetizazio-tasak handiagoak ziren, baina epealdi honetan, emakumeen alfabetizazio-tasak handitu egin dira lehen hezkuntzan eta eskolaurrean agerpen handiagoa dute-eta. Familiei buruzko Inkestaren arabera¹³, 1990etik 2006ra 15 eta 24 urte arteko emakumeen alfabetizazio-tasa 6 gradu igo da gutxienez, 2002. urtetik aurrera hezkuntza-agintariek eta nazioarteak ahalegin handia egin dutelako, hezkuntzan zein giza garapenean dauden hausturak murrizteko.

Unibertsitate-hezkuntzari buruzko datuak nabariak dira, 2002-2004an emakume graduatu gehiago daudelako (8.110) herrialdeko unibertsitate publiko eta pribatuetan, gizonen aldean (3.063).¹⁴

Edonola ere, lehen hezkuntzako eta unibertsitateko zenbait gradutan emakumeak gizonen gainetik badaude ere, lan-arloko joera gizonen aldekoa da, lan-aukera gehiago, soldata hobek eta zuzendaritzara iristeko eta erabakiak hartzeko abagune gehiago dituztelako. Era berean, emakumeek gaur egun lan-baldintza eta gaitasun berberetan jasotzen duten soldata gizonek sorrarazitako soldataren %67,6koa baino ez da gutxi gorabehera. Beraz, gizon batek ogibide edo lan zehatz batean 100 lenpira (5 dolar) irabazten baditu, emakume batek 67 lenpira (3 dolar eta erdi) baino ez ditu jasotzen.¹⁵

Bestetik, herrialdeak lorpen handiak egin ditu eskubideen eta genero-berdintasunaren arloan, esparru juridiko eta legala zein politikak egokitzean. Horrez gain, genero-instituzionaltasuna sendotu du estatuan, apurka-apurka.

Emakumeen mugimendu feministek laurogeita hamarreko hamarkadan egindako mobilizazio zabalaren ondorioz, Hondurasko gobernuak konpromisoa hartu zuen bere gain, zenbait politika bultzatzeko eta emakumeen zenbait eskubideren sustapenerako mekanismo bereziak ezartzeko.

Gobernuak hartutako konpromiso nagusien artean, emakumeen udal-bulegoen sustapena nabarmendu beharra dago. Hain zuzen ere, Emakumeen Gobernu Bulegoak bultzatu zituen 1997an. Gaur egun, 73 bulego daude herrialdeko zenbait udalerritan barreiatuta.¹⁶ Nolanahi ere, bulego horiek ez dute udal-korporazioak esleitutako aurrekonturik, aparte eta emakumeen gai moduan hartzen dituztelako kontuan. Beraz, zoritxarrez, ekimenak ez du behar beste baliabiderik eduki, proposamenak egiteko edo lidergoa suspertzeko.

Gauza bera gertatzen da Emakumeen Politika Nazionala zuzentzen duen Emakumeen Institutu Nazionalari (INAMi) esleitutako aurrekontuarekin, aurrekontu-joera oso mugatua delako. Halaber, INAM sortu zenetik gaur arte, bere aurrekontua ez da herrialdeko aurrekontu orokorraren %0,05etik gorakoa.¹⁷

Genero-arloko lege berezien ezarpenean egindako aurrerapenen artean, 2000ko apirilaren 11n Legegintza Botereak onartutako Emakumeentzako Aukera Berdintasunari buruzko Legea (LIOM) azpimarratu behar dugu, genero-berdintasunaren aldeko politika publikoen aurrerakuntzarako esparru juridikoa delako Hondurasen.

¹³ INE (zenbait urte): Familiei buruzko Inkesta.

¹⁴ DES (2004): Hondurasko Unibertsitate Nazional Autonomoa.

¹⁵ PNUD (Nazio Batuen Programa) (2006): "Hacia la expansión de la ciudadanía" in *Informe sobre Desarrollo Humano Honduras*.

¹⁶ NAZIO BATUETAKO GARAPEN FONDOA EMAKUMEENTZAT (UNIFEM) (2007): "Gizarte Arriskuan dauden Emakumeak eta Nerabeak (MARS)" proiektutik lortutako iturriak.

¹⁷ ODM 3ren Txostena: "Emakumeen genero-berdintasuna eta autonomia sustatzea", 2005. *Op. Cit.*

LIOMek Hondurasen duen garrantzia eztabaiaezina da, genero-bereizkeriaren aurkako printzipioen funtsezko sintesia delako. Printzipio horiek, gainera, erreferenteak dira Hondurasko legerian. Hala ere, lege hori ezartzeko arazoak daude, biztanleen artean behar bezala zabaldu ez delako. Izan ere, herritarrentzako tresna barik, adituek erabiltzeko lege-osagarria dela uste dute.

Legean zehaztutako ekintza positiboen artean, apurka-apurka %30eko oinarria ezartzen dela nabarmendu beharra dago, harik eta arlo politiko, kultural, ekonomiko eta sozialean gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko eta genero-desberdintasunaren haustura murrizteko. Agindu hori lorpen handia da inolako zalantzarik gabe, besteak beste, emakumeen partaidetza politikoan eta boterearen erabileran islatzen delako Hondurasko genero-desberdintasuna. Horrela, bada, 2007ko Giza Garapenari buruzko Munduko Txostenaren arabera, herrialdea munduko sailkapeneko 47. postuan dago, 93 herrialdetako Generoa Sustatzeko Indizea (GSI) kontuan hartuta.¹⁸

Epealdi hau aztertzen badugu (2006-2010), agerikoa da aurrerapen handiak lortu direla, emakume diputatu gehiago daudelako Kongresu Nazionalean, emakumeen zuzendaritzapean dauden diputazioen kopurua %9tik %23ra igo delako. Horrela, Kongresu Nazionalako eserlekuen %25 emakumeek betetzen dituzte, oraindik minimotzat hartutako %30en arabera zazpi puntu beherrago badaude ere.¹⁹

Bestetik, 1997ko azaroaren 15etik indarrean dagoen Etxeko Indarkeriaren aurkako Legea nabarmendu beharra dago. Lege hori Belem do Parako Konbentzioaren eta CEDAWren esparruan kokatzen da, eta xedapen publikoak ezartzen ditu, emakumeen gorputz, ondare eta sexu arloko osotasuna ezkontideen edozein indarkeria-motaren aurrean defendatzeko. Legean, bikoteen edo bikote ohien zenbait lotura-mota aipatzen dira, bai eta gorputz, sexu, emozio eta ondare arloko indarkeria-motak ere. Prebentzio-ikuspegia du, eta zenbait neurri ezartzen ditu, biktimak atenditzeko eta erasotzaileak errehabilitatzeko.

Nolanahi ere, gai horren aldeko testuinguru juridiko eta legala egon arren, oraindik ere haustura handi-handia dago lege zein politika horietan xedatutakoaren eta euren ezarpen eraginkorraren artean. Era berean, emakumeen aurkako indarkeria Hondurasko arazo larrietakoa da, eta, azken urteotan arlo juridikoan gizonen indarkeriaren biktimak diren emakumeen babesean aurrera egin den arren, emakumeen aurkako erasoei buruzko zenbakiak oraindik zer egin ugari dagoela adierazten digute.

Horren adierazgarri, 2005-2006ko Demografia eta Osasunari buruzko Inkesta Nazionalean azaltzen da Hondurasko 15 urtetik gorako emakumeen %15ek tratatu txarrak jasan dituztela noizbait, eta emakumeen %9k abusu sexualak jasan dituzte 12 urte zituztenetik; eta %11k, adin hori eduki aurretik.

Erdialdeko Amerikako eskualdeko beste herrialde batzuetan bezala, Hondurasen gero eta emakume gehiago hiltzen dira feminizidioaren ondorioz²⁰, eta, horren inguruko joera kontuan hartuta, gero eta metodo ankerragoak erabiltzen dira sarraski horietan. 2005. urtean, San Pedro Sulako Biziazen aldeko Emakumeen Foroaren salaketan arabera, 200 emakume gazte baino gehiago hil, bortxatu, mutilatu eta moztu dituzte. Horrez gain, komunikabideek sentsazionalismo eta amari-

¹⁸ Generoa Sustatzeko Indizearen (GSIren) arabera, generoagatiko hausturak eta desberdintasunak daude partaidetza ekonomiko, politiko eta profesionalaren arloan.

¹⁹ COFEMUN (2005), *Op. Cit.*

²⁰ Hondurasen, orain dela urte gutxi hasi dira feminizidioa erregistro polizial edo judizialean modu berezian erregistratzen. Hala ere, oraindik ez dago indarkeria-mota honen genero-berezitasunak kontuan hartzen dituen inolako erantzun juridikorik eta zigor berezirik.

Ilismo handiz hitz egiten dute erailketa horiei buruz, pasiozkoak direla esatean edo biktimak maretako kideak direla edo sexu-merkataritzan dihardutela adieraztean.

Nolako gertakaria den kontuan hartuta, Hondurasko emakumeen aurkako indarkeria agenda publikoan hartu dute kontuan, emakumeen mugimenduek eta erakundeek egindako ekintzen ondorioz. Hori dela-eta, arazo hori agerian jartzeko azterlanak eta ikerketak²¹ egin dituzte, bai eta egoera larri horri aurre egiteko mekanismo estatalen aldarrikapenerako hainbat ekintza ere.

Emakumeen mugimenduak egindako ekintzen artean, Indarkeriaren aurkako Emakumeen Taldearena²² nabarmentzen da. Emakume diputatu baten bidez, hain zuzen ere, 2004ko urrian mozioa aurkeztu zuen Kongresu Nazionalan, feminizidioen ikerketarako batzordea sortzeko, arazoaren garrantziaz ohartzeko, gobernuari zein gizarteari berehalako erantzuna eskatzeko eta eraso horiek geldiarazteko. Mozioa onartu egin zuten, eta, azaroan, Emakumeen Taldeak aktibismo-kanpaina jarri zuen abian, "Heriotza gehiago ez, eraildakoez izena dute, hiltzaileek ere bai, akabo zigorgabetasuna" lelopean. Azaroaren 24an, instituzio arteko batzordeak Etxeko Indarkeriaren aurkako Legea eraldatzeko proposamena aurkeztu zuen Kongresu Nazionalan. Eraldaketaren ondorioz, erasotzaileen aurkako neurriak gogortu dira, eta babes handiagoko mekanismoak sortu dira biktimentzat. Proposamenarekin batera, Indarkeriaren aurkako Emakumeen Taldeak mobilizazio handia egin zuen, harik eta 2006ko martxoaren 11an eraldaketa onartu zen arte.

Edonola ere, emakumeen erakundeek ustez, atentzio handiagoa eskaintzen diote arlo pribatuko indarkeriari indarkeria publikoari baino, estatuak berak ezkutatu egiten duelako. Alde horretatik, Nazio Batuen Erakundeak²³ eta Emakumeen Institutu Nazionalak (INAMek)²⁴ egindako azterlanak azpimarratu behar dira. Bertan adierazten denez, oraindik ez da Etxeko Indarkeriaren aurkako Legea behar den moduan eta eraginkortasunez ezarri, jarraipenerako mekanismorik, giza baliabiderik eta baliabide materialik ez dagoelako.

Hona iritsita, amaitzeko, berriro esan nahi genuke oso garrantzitsua dela emakumeak garapen-eragileak direla onartzea, euren premien arabera politikak, legeak eta mekanismoak diseinatu eta sustatzeko orduan. Horrela, txirotasuna gainditu ahal izango da, eta giza eskubideen erabilera erabatekoa izango da.

Zentzu horretan, herrialdeak erronka ugari aurre egin beharko die. Gainera, nahiz eta emakumeen zein feministen mugimenduek gero eta proposamen-gaitasun handiagoa duten eta gobernuak genero-instituzionaltasuna sendotzea modu formalean onartu duten, arlo politiko, juridiko, sozial eta kulturean oinarri ideologikoa den pentsaera patriarkala oztopo nagusia da, emakumeek proposatutako agendak zehaztu eta sustatzeko orduan.


Horri dagokionez, genero-ikuspegiaren zeharkakotasuna onartu eta bermatu egin behar da garapen-ekintza guztietan, horrela bakarrik aldatu ahal izango delako emakumeen desberdintasun eta menderakuntza jarrera. Izan ere, dimentsio saihestezina da, eraldaketa ekonomiko, sozial, politiko eta kulturalak egiteko orduan.

²¹ Emakumeen Eskubideen Zentroaren (CDMren) argitalpenak nabarmentzen dira: "Tiempo de leer". 7. edizioa, 2006koa; eta "Violencia contra las mujeres en Honduras. Una reflexión en el camino", 2005ekoa.

²² Hona hemen Indarkeriaren aurkako Emakumeen Taldeko kideak: Emakumeen Eskubideen Zentroa (CDM), Hondurasko Emakumeen Ikaskuntza Zentroa (CEM-H), Garapenerako Ikaskuntza eta Ekintza Zentroa eta Latinoamerikako eta Karibeko Lantaldea Hondurasko Emakumeen Eskubideen Defentsarako (CESADEH-CLADEM).

²³ BAHN CABALLERO, Karen (2004): *Violencia contra las mujeres y seguridad en Honduras. Un estudio exploratorio*. Tegucigalpa: Nazio Batuen Garapen Programa (PNUD).

²⁴ EMAKUMEEN INSTITUTU NAZIONALA (2005): *Eficacia y eficiencia en la aplicación de la Ley contra la violencia doméstica. Diagnóstico sobre la situación de la respuesta institucional a la Ley contra la violencia doméstica de 1997 de Honduras*. Tegucigalpa.



Latinoamerikako emakumeen elkarteengandik eta elkarte feministengandik ikasiz

Atal honetan, Latinoamerikako emakumeen elkarte biren hurrengo esperientziak jasotzen dira: alde batetik, "Genero-ekitaterako komunikazioa eta emakumezkoen parte-hartze politikoa", Ada Sareak (Bolivia) bideratua. Ekimen horri esker, lankidetzaren espazio nazional bat eratu da, herrialdeko landa-emakumeen eskaera eta proposamenen gaineko kontsulta parte-hartzailea aurrera eramateko. Bestetik, "Emakumeen lehen udal-bulegoen sorrera Hondurasen", Emakumeen Eskubide Zentroak (Honduras) gauzatua. Ekimen honen bidez, Emakumearen Udal Bulegoak sortu eta abiarazi dira, Hondurasko emakumeen eragin politikoari esker.

Emakumeen partaidetza politikorako eta genero ekitaterako mezua

Red Nacional de Trabajadoras/es de la Información y Comunicación

Boliviak 9 milioi biztanle dauzka eta horien %51 emakumeak dira. 2001ean egindako azken Biztanleria eta Etxebizitza Erroldaren arabera, biztanleria oso horren %62k 36 kultura edo herri indigena edo jatorrizkoen partaide dela dio.

Kolonia aurreko jatorrizko herrien mundu-ikuskerak

Herri indigena edo jatorrizkoek mundu-ikuskerak edo kontzepzio eta munduaren irudia dute, eta beronen bitartez, euren berezko ingurua eta inguru kulturala antzeman eta interpretatzen dute, ikuspuntu kosmozentrikotik. Horrela aldi bereko munduen esistentzia azaltzen da, paraleloak eta elkarrekin lotuta daudenak, eta bizitza eta izaki natural eta espiritualen arteko harremana onartzen da bertan.

Mundu-ikuskerak horren oinarritzko printzipioetariko bat ezberdinaren batasuna da: bizitza inorkanporatu gabe edo bere edozein elementuri balio txiki edo handiagoa eman gabe garatu behar dela ulertzen da printzipio horren arabera, guztiek betetzen dute funtzio bat eta modu ziklikoan aldatzen dira, gelditu gabe. Pertsonak era objektiboan (agerikoan) eta subjektiboan (ez agerikoan) bere inguruko gauza guztiekiko duen kokapenak eta harremanak erabateko osagarritasuna eta elkarrekotasuna dute, portaera-trukea, eta elkarrekin eraikiko dira, batak bestea aldatuko duen efektuak jasota eta elkarri emanda.

Beste printzipio bat oreka eta harmonia dira; bai pertsonen eta bai elkartearen (gizartearen) ekintza guztiak arautzen dituzten arau eta jarraibide guztiak pertsona, animalia, natura eta kosmosaren arteko harmonia eta oreka mantentzeko eginak daude, eta berdintasun eta ekitatean bizitzeko beharra goresen dute.

Printzipio horiek agintzen dute gizon eta emakumeen arteko harremanean eta botere politikoa- ren jarduerak gizarteko biztanleen ekitate ekonomikoa eta espirituala bermatu behar zuten gehienbat, giza ekitatearekin batera. Agintariak txandaka izendatzen ziren, betetzen zuten gunea ordezkatzeko, eta karguan bikoteka jardun behar zuten: gizon eta emakumeak, osagarritasunaren printzipioarekin bat etortzeko. Oinarritzko rola betetzen zuten emakumeak eta onespren handia zeukan, bizitza-emale eta Pachamama -Ama Lurra- gisa ezagutzen zelako.

Kolonia garaian

Menderatzearen lotura berriak biztanleria indigenari mendeko izaera ematen zion eta are gehiago emakume indiarrei. Bi sentipen horien batuketak, emakume eta indiarren gutxiagotasunak,

gizon eta emakumeen arteko harremanek ezaugarri berriak hartu zituzten gunea sortu zuen mundu kolonialean. Emakumeen estatusa euren parekoena baino gehiago beheratu zen "...emakumezkoek eta indigenek gizon espainiar edo zuri batek baino hiru aldiz gutxiago balio zuten".¹

RED-ADAK egindako "Generoa eta Etnizitatea" agirian, aldi honetako emakumeen errealitatea deskribatzen da. Gero eta nabariagoa da bertoko emakumeek gizonen aldean modu ezberdinean bizi izan zutela espainiarren inbasioa. Ezarri ziren menderatze modu berriek era berezian eragin zuten emakumezkoen identitatean: konkistatzaileekin izandako ezkontzaz kanpoko sexu-harremanek eta tradizioz boterean eta lurraren jabetzan izandako eskubideen gaineko urraketek emakumeen izaera soziala hondatu dute. Osagarriak eta, beraz, berdintasunezkoak ziren gizon eta emakumearen arteko harremanak gainbeheratzen doaz aipatutako gizarteak inperioaren segidako hedapenen menpe dauden heinean, eta, horren ondorioz, gizon eta emakumeen arteko harremanak gero eta desberdinagoak dira.

Legedia hispaniarrak emakumea adin txikiko gisa sailkatu zuen juridikoki. Horren ondorioz, emakume batek parte hartzen zuen transakzio legal guztietan bere tutorea izango zen gizonezko baten alde aurreko baimena behar zuen. Emakume batek heredatutako ondasunak edo ezkontzara dotearekin ekarritakoekin zerikusia zuten transakzio guztiak gauzatzeko beharrezkoa zen bere tutoraren onarpena eta baimena. Emakumeek ondasun horiengan ohiturazko eskubidea izan arren, lege aldetik euren senarren ardurapean zeuden. Espainiako legediaren arabera, emazteek ezin zuten euren ondasuna era librean antolatu, eta gai horretan Andeetako tradizioa legearekin kontraesanean zegoen. Oraindik ere indarrean dagoen tradizio andetarrak zera defendatzen zuen eta defendatzen du: emakumeek eskubide autonomoa dute ondasun guztietan, lurra barne, eta beste era batean heredatu edo eskuratu ahal dira, ezkondu-estatusa albo batera utzita.

Ondasunen administrazioarako, transakzio komertzialetarako eta beste ekintza ekonomiko eta juridikoetarako gizon bati lotuta zegoen bizitza osoan: adin txikikoa zenean aitari, gero senarrari edo berau hildakoan seme nagusiari. Gizonak ziren bizitza publikoan parte hartu eta kargu garrantzitsuak betetzeko bestean zeuden bakarrak. Gutxienez XVI. mendetik indarrean zegoen tradizio juridiko espainiarraren arabera, emakume espainiarrek ezin zuten postu politikorik bete, ezta epaile edo abokatuak izan ere. Administrazio kolonialaren jendaurreko kargu politiko eta formal guztiak gizonezkoentzat gorde ziren, baita eremu indigenetan ere.

Errepublika garaian

Aldaera batzuekin, Errepublikak gobernuaren logika eta indiarren eta emakumezkoen kategorizazioarekin jarraitu zuen. Gizonen pentsamoldetik egituratutako gobernagarritasun sistemak emakumeak ahazten jarraitzen zuen, estatu europarren antzera; bertan, gizonak ezartzen zuten botere ekonomikoa eta emakumeak eremu pribatuan kokatu ziren, parte hartzeko eskubide barik. Egoera horrek 1952ra arte jarraitu zuen; orduan, emakume indigenek sufragio eskubidea, botoa lortu zuten. Hala ere, emakume indigenek aipatutako eskubidea gauzatu ahal izan gabe jarraitu zuten, ez zeukatelako oinarritzko dokumentaziorik.

Boto unibertsala izan arren, populazio indigenak ez zeukan berezko ordezkartzarik, mekanismo batzuek politika mundutik kanpo uzten zutelako; horregatik, burgesia ordezkatzeko zuten alderdi politikoen alde bozkatu behar izan zuen.

Hiriko emakume mestizoak, euren mugak izan arren, gehienbat joera nazionalistako alderdi politikoetan parte hartzen hasi ziren, baina euren zeregina hauteskunde kanpainetako alde logistiko

¹ Barne dokumentua: RED-ADA (2005eko abendua): *Género y Etnicidad*. La Paz, Bolivia.

eta propagandistikoak gauzatera mugatzen zen gehienbat. Emakume gutxi gailendu ziren kargu politiko garrantzitsuetan.

70eko eta 80ko hamarkadetan, diktadura militarrek biztanleria indigenaren parte-hartzea ezereztu zuen, eta gobernu militarrek ezarritako nekazarien akordio militarra apurtzen ahalegintzen ziren liderrak jazartzen zituen. Erresistentzia marko horretan, emakumeen partaidetza garrantzitsua izan zen demokraziara itzultzea lortzeko. Horrela, etxekoandre meatzariak egindako gose-greba historikoa da, izan ere, Estatu demokratikoaren itzulerarekin bukatu zen ekintzen andana eragin zuen. Partaidetza izan arren, 80ko eta 90eko hamarkadetako sistema demokratikoak ere ez zuen lortu emakumeak botere- eta erabaki-esparruetan gehiago parte hartzea, eta are gutxiago ikusi zen hori emakume indigenengan.

Emakumeen egoera gaur egun Bolivian

• Emakumeen partaidetza nazio-politikan

2000. urtetik aurrera, erreforma legal batzuk hasi ziren herrian eta emakumeen elkarteek arlo hori erabili zuten, hiriko erdi mailetakoez gehienbat. Horrela, eraginaren bitartez, emakumeen aldeko araudia sortzea lortu zen, hauteskunde-erregimenaren osaketarako eta Erreformen Legerako, adibidez ("Kuoten Legea" gisa ezagutzen dena). Hauteskunde kodean sartutako lege horrek alderdi politikoak zera bermatzera behartzen ditu: %30eko emakumeen partaidetza euren hautagaien zerrendetan, eta Herri Indigena eta Herritarren Elkarten Legearen barruan, emakumeen %50eko partaidetza hautagaien zerrendetan.

Hala ere, borondate politiko ezak arautegiari iruzur egitea lortu zuen, emakumeak ordezkotutako erakundeetan utzi zituen eta emakume askok euren karguari uko egin zioten jazarpen politikoa zela eta. Boliviako emakume zinegotzien elkartearen arabera, 2000tik 2006ra bitartean 202 emakume parlamentari eta udal zinegotzik egin zioten uko euren karguari arrazoi horregatik.

• Emakumeak azken Udal Hauteskunde eta Hauteskunde Nazionaletan

Azken Udal Hauteskundeak honako datuak ditu: 1.750 zinegotzi eta hautetsietatik, %17 dira emakumeak eta %83 gizonak. 2005eko Hauteskunde Nazionaletan hauexek heldu ziren botere betearazlera hautetsi titular eta ordezkotutako gisa: Parlamentuko bi ganberetako (Kongresua eta Senatua) 314 ordezkari. Ordezkari guztietatik 73 emakumeak dira eta 241 gizonak; horietatik 22 emakume eta 108 gizon dira titularrak, 50 emakume eta 107 gizon ordezkotutakoak. 27 Senatari titular dituen Senatuan, emakume bakar batek hartzen du parte titular gisa.

I. koadroa. 2007ko Kabinete Ministerialaren osaera				
	Karguak	Gizonak	Emakumeak	Emakume indigenak
Ministerioak	18	13	5	2
Ministeriordetzak	45	42	3	0
Guztira	63	55	8	2

Emakumen partaidetza ez da %30era heltzen Udal botere eta botere Exekutibo mailan; era horretan argi geratzen da Kuoten Legeak ez duela botere eremuetan emakumeen presentziarik bermatzen, alderdi politikoek gauzatzen dituzten kako-mako batzuegatik gehienbat.

II. koadroa. 2007ko Biltzar eratzaileren osaera			
Batzarkideak guztira	Gizonak	Emakumeak	Emakume indigenak
255	168	87	38

Batzar eratzailan aukeratutako emakumeak batzarkide guztien %34ra iritsi ziren, Sozialismorantzako Mugimenduak (MAS) bozketaren gehiengoa eta barruti desberdinetan emakume hautagaien presentzia lortu zituelako. Emakumeen presentzia nabarmena da hautaketa horretan lehen aldiz, euren artean indigenak gutxi izan arren.

- **Emakumeen kontrako bortizkeria**

Emakumeen kontrako bortizkeria herriko arazo korapilatsuenetariko bat da. Bortizkeria hori norbere eta talde garapenerako benetako mehatxua da: Emakumearen Ministeriordetzak 2005ean azaldutako datuen arabera, 10 emakume bolibiarretik 9k bortizkeria motaren bat jasaten du, eta zehatzago, 10 emakumetik 4k sexu-bortizkeria pairatzen du.

- **Emakume-hilketa**

RED-ADAK 2004an egindako ikerketak erakusten duenez, emakumeen hilketak gorantz doaz Bolivian. Justizia motela da eta bortizkeriaren biktimei ez die osoko arreta egokirik ezta bermerik ere ematen, eta askotan hilketarekin amaitzen da.

2004a bitartean 373 emakume erail zituzten, eta horietatik 18 tipifikatu ziren hilketa gisa eta epaia jaso zuten edo lege aldetik zigortu ziren. Bi kasu baino ez zituzten auzipetu erailketa kategoriarean, eta beste 353 kasuak agiritegian gorde ziren, salaketa egin eta bukaera arte kasuen jarraipena egingo zuen kontrako alderik ez zegoelako. Halaber, Zigor Kodearen barruan *emakume-hilketa* ez dago delitu-irudi gisa tipifikatuta; horrek zaildu egiten du kasu horien trataera.

- **Sexu- eta ugalketa-osasuna**

Biztanleria eta Garapenerako Nazioarteko Konferentziaren Ekintza Programa (CIPD) eta Emakumeen Laugarren Mundu Mailako Konferentziako Mundu Ekintzako Plataformaren ustez, ezinbestekoa da arreta eta informazioa eta heziketaren hedapena gazteentzako sexu osasunean; hori dela eta, nazioarteko akordioak betetzeko konpromisoak sinatu zituzten estatuek aipatutako arloetara heltzea bermatu behar dute, hezkuntzaren bitartez pertsonak euren sexu-bizitza eta ugalketari buruzko erabakiak modu oso eta askean hartu ahal izateko.

Hala eta guztiz ere, Boliviako datu estatistikoek erakusten dutenez, egunero dago eragina emakumeen sexu- eta ugalketa-osasunean. Hauexek dira gai horri buruzko daturik garrantzitsuenak:

- Amatasun hilkortasuna: urtean 650 emakume hiltzen dira herrian.²
- Umetoki-lepoko minbizia: hiltzen diren emakume guztien %25 minbiziagatik hiltzen da eta %63 umetoki-lepoko minbiziagatik.³
- Nahi gabeko haurdunaldia: azken 5 urteetan gertatutako jaiotzen %40 nahigabeak izan ziren.⁴

² COLECTIVO REBELDÍA (2007ko ekaina): "Derechos Sexuales y Reproductivos". Santa Cruz – Bolivia.

³ *Ibidem*.

⁴ *Ibidem*.

- Abortua: egunean 15 eta 20 abortu artean egiten dira.⁵
- Emakumea, eta GIB/HIESa: GIBek infektatutako 2 gizonezko bakoitzeko emakume bat dago GIBekin bizitzen.⁶

- **Emakumeak eta hezkuntzara heltzea**

Emakume boliviarren hezkuntza-egoera era nabarmenean hobetu da azken hamarkadetan, gizonekin alderatuta duten egoera oraindik ere oso desberdina izan arren. Hori guztia eskualdeko larrienen artean dauden hutsuneak erakusten dituen hezkuntzako testuinguruan, orokorrean hiru faktore nagusiri lotuta: generoa, arraza eta estratifikazio soziala. Analfabetismo mailak jaitsi egin dira, baina emakumezkoen tasak motel jaitsi dira eta nekazalguneetan emakumeen erdia analfabetoa da oraindik ere. Gaur egun, hauxe da eskola-uzte goiztiarra nekazalguneetan: 100 neskatotik 43k lehen mailako hezkuntza burutu baino lehen uzten du eskola.

- **Emakumeak eta lurraren jabetzara heltzea**

RED-ADAK egindako ikerketa lanen arabera, gizonei pribilegioak ematen dizkieten arrazoi soziokulturalek eragina daukate emakumeek lurraren jabetza legez izateko eskubidearen erabileran. Horrela, emakumeek lurra erabili dezakete, euren aita, neba, senar edo ohaidearena baldin bada, baina ez norbere aprobetxamendurako. Lurra administratu, landu eta jabeak izan ahal dira, baina ez daukate ondasun eskubiderik.

Emakumeek erabilera horretan aurrera egin izan arren, eta Nekazal Erreformatarako Institutu Nazionalak (INRA) emandako datuen arabera, 2006an eta hamar urteko aldirian emandako titulu guztiak 27.088 izan ziren, horietatik 12.189 gizonezkoek eman zitzaizkien, 4.546 jabetza-titulu andrazkoek eta 8.684 talde-titulazio modalitatean eman ziren.

- **Emakumeen irudia gizarteko komunikabideetan**

RED-ADAK egindako komunikabideen ikerketa masiboaren arabera, herrian eguneroko idatzizko prentsan 600 eta 700 berri artean sortzen dira, politika mundukoak gehienbat eta, gero, ekonomia gaiari buruzkoak; ikerketaren emaitzak zera adierazten du: prentsaren informazio-estaldura osoaren %19k baino ez daukala zerikusirik emakumeekin. Bortizkeria ekintzen biktima direnean dira albiste eta "kronika gorrian" baino ez dira ikusten.

Irratsaioei dagokienez, saio batzuetan emakumeen parte-hartzea zilegia bada ere, saioen edukiek pentsaera patriarkal matxista indartzen laguntzen dute.

Telebistako mezuei dagokienez, emakumeen irudia betegarri osagarrien eta sexu-objektuen rol hutsean geratzen da. Modu horretan, emakumeengan azpibalarazioa eta gutxiagotasuna eragiten da. Sexu-subjektibitate eta subjektibitate patriarkalak telebistako hitzaldien ohiturak definitzen dituzte, emakumeen balio-gutxitzea legezkatat jotzen dute eta euren autobalarazioa sustatzen dute. Komunikabide masiboaren gehiengoaren mezuen egituraketak hizkera sexistaren nagusitasuna uzten du agerian.

⁵ Aparteko eranskina: Periódico EL Deber, 2007ko maiatzaren 13a.

⁶ GIB/HIESarekin bizi diren emakumeen Zentroa "Egua Kuñatai" (2007ko maiatza): "Mujeres que viven con VIH". Santa Cruz-Bolivia.

- **Banandutako emakumeak**

Erdi mailako hiriko emakumeek eta feminista legez agertutakoek ez dute lortu emakume indigenekin aliantza politikorik eraikitzerik. Oraindik ez da onartzen emakumeak desberdinak direnik, mailen arteko ezberdintasunak eta kultura ezberdinetakoak izateagatik desberdintasunak daudena.

Gai hau erdi mailako aktibista feministek proposatu eta onartu dute, eta hauxe diote orain dela gutxiko prentsako artikuluko batean: "Gaur faktura hau kobratzen zaigu: emakume indigenek ez dute genero kontzeptua euren egiten, zeren eta, adibidez, akatsa izan da emakumeak berdin egitea okerreko genero kontzeptu batetik, generoak maila, arraza eta kultura dituela onartu gabe. Beste arlo bat da emakume hauek ez ditugula protagonista gisa ikusten, betidanik izan direlako egitasmo baten onuradun eta ordezkatzailleak"... "Emakumeak zatituta daude La Pazen, herrian bezala, ez zelako mugimenduen hitzetan aliantzarik egin. Ez zen aliantzarik egin oinarritzko emakumeekin eta emakume indartsuen erakunde edo elkarteekin; horrexegatik ez dago, esan dezagun, zuzendaritza gisa existitzen den emakumeen mugimendu erreala. Hiriko eta baserrietako emakumeok aurrez aurre gaude, ez dagoelako aliantzarik eta ez garelako interkulturalitatea eraikitzeko gai izan".⁷

RED-ADAREN komunikazioa emakume boliviarren errealitatearen aurrean

Deskribatutako egoeraren aurrean, RED-ADAK badaki ez dagoela komunikazio-ekintza neutrorik; hori dela eta, gure erakundeko komunikatzaileok jarrera politiko argia hartzen dugu geure gain: ekitate, berdintasun, justizia eta interkulturalitatean oinarritutako gizartea eratzen laguntzea komunikaziotik, nagusitasuna bortizkerian oinarritzen duen eliteak eraikitako botere patriarkal eta matxista ezabatzeke.

Gure gizartean alegiazko menderatzaileak suntsitzeko egiten dugu lan, emakumeen eta indiarren izen ona galtzea ekartzen duen pentsaera koloniala ezabatzeke. Gure herriek adostasunean eraikitako irudia geureganatzea bilatzen dugu.

Zentzu horretan, jarrera finkoko komunikazio politikoa garatzen dugu, gure gizarte-egoerak lotzen gaituen beste gizarte-sektore batzuekin antigorputzik sortuko ez duena, erdi maila adibidez, hau da, erakargarritasuna erabiltzen dugu, baina begirunerik eza ere bai, euren boterea beti gehiengoaren kontra, emakumeak gehienbat, bidegabeki eduki dutenak agerian uzteko.

Heziketa aldatu eta gure herrien jakituriatik kontuan hartzeko borrokatzen dugu, bestelako kultur dinamikak alde batera utzi gabe, baina herriak bizikidetzara modu berria proposatu ahal izateko aukera izan dezan, desberdintasun horien ezberdintasunak eta osagarritasuna boterearen asimetria gabe errespetatzeko.

Neoliberalismoa arrazonamendu sendoekin uzten dugu agerian, baina gure herrien berezko garaipena eta existentzia bideen berreskuratze historikoa bultzatzen duten proposamenekin.

Botere esparruetan dauden emakumeek ekintza politiko eragingarriak sendotzea planteatzeko ekarpena egiten dugu, komunikaziotik, jotzen gaituen errealitatea aldatzeko bidea horrela baka-rrik konponduko dugu eta.

⁷ URIOSTE, Diana (2007): "Situación del movimiento de mujeres en La Paz". Bolivia. Artikuluan parte hartzen dute: Diana Urioste Emakumearen Koordinadorakoak, Sandra Aliagak eta Estela Machacak (CR-LPko Zuzendaritzako emakumeen laguntzarekin).

Gure komunikazio-prozesuak emakumeen asmo eta eskaerak jasotzen ditu, botere sektoreetara bideratzeko eta, horrela, euren alde egingo duten politika publikoen aurkezpenean eragiteko, biztanleriaren gehiengo sektoreek bilatzen duten helburu komunitik bereizi gabe. Horrela, genero-ekitatearen alde lan egitea gehienbat keinu politiko eraldatzailea dela ulertzen dugu.

Eraikuntza generikoek botereen interesa daukate atzean; hori dela eta, emakumeen mendekotasuna, baztertzea eta kanporatzea legezkatat jotzen dute. Esparru horretan, gizon eta emakumeen arteko boterearen oreka lortzeko, oso paper garrantzitsua betetzen du komunikazioak, elkarreentzako onura daukana eta ez banakakoa edo taldekkoa.

Emakumeak historiari kanpo daude tradizionalki, estatistiketan eta herritarren jardutean. Hala ere, jendaurreko esparruan eta esparru politikoan ia ikusezinak dira eta ez daukate euren eskubide zibil, politiko, sozial, ekonomiko eta kulturalak erabiltzeko eskubiderik. Hori dela eta, komunikazioaren zereginak egoera hau lehengoratzeko ekarpen garrantzitsua osatzen du.

RED-AJAtik egiten den komunikazioak gure gizartean emakumeen egoera eta maila hobetzeko ekarpena egiten du, berau bizitzako arlo guztietan ikusita, hiritartasun subjektu gisa, pertsona guztientzako genero ekitate, justizia eta bakea izango dituen gizartearen eraikuntzaren alde eginda. Genero ekitatea duen komunikazioak emakumeek zuzendutako ekimenak sustatzen ditu, euren pobrezia egoerari eta baztertze sozio-ekonomikoari eta bortizkeriari aurre egiteko. Genero ekitatea eta ikuspegi kulturala dituen komunikazioak emakumeen istorioak, lanak, ametsak, beldurrak eta nahiak berreskuratu eta ikusten ditu, denak beti anonimoak, bizitzaren dimentsio guztietan emakumeen "boterea izatea" posible egingo duen utopia baten aukera bueltzateko.

- **RED-ADAREN ikuskera eta eginkizuna**

Komunikatzaileen sarea gara, parte-hartzailea, identitate kultural eta demokratikoenganako errespetuzkoa, eta komunikazioaren alde egiten dugu eraldaketa sozial, politiko eta kulturalerako tresna gisa, genero ekitatea eta gizarte- eta sexu-aniztasunarenganako errespetuzko bidezko gizarte indartzen laguntzeko.

Hezkuntzako komunikazio-prozesuak sarean era artikulatuan garatu eta sendotzea, giza eskubide, genero ekitate, generazioen eta kultur ikuspegitik, herri-politikan eta emakumeen erakundeen sendotzean, herritarren partaidetzan eta gizartearen kontrolean eragiteko.

RED-ADAREN gaikako ardatzak, egitura organikoa eta funtzionamendua:

- I. gaikako ardatza: bortizkeria, indarrean dagoen gizarte sistemaren gaixotasun gisa.
- II. gaikako ardatza: emakume, jatorrizko, nekazari, afroboliviarrak eta emakumeen txertatzea nazio eta nazioarteko mahai-inguruetan.
- III. gaikako ardatza: gizarte-komunikazioa, giza eskubideen erabilera gisa.
- IV. gaikako ardatza: sexu- eta ugalketa-eskubideak.

- **RED-ADAREN egitura organikoa**

Gaur egun, Informazioaren eta Komunikazioaren Langileen Sare Nazionalak, RED-ADAK (Ada indarra eta edertasuna esan nahi duen berba hebrearra da), 350 bazkide inguru dauzka maila pertsonalean eta herrialde osoan elkargoan batutako 30 komunikabide; batzuek zein besteek 9 departamentu koordinatzaileekin koordinatzen dituzte ekintzak, La Paz, Beni, Pando, Santa Cruz, Cochabamba, Chuquisaca, Potosí, Oruro eta Tarijakoko departamentuetako hiriburuetan daude eta

4 eskualde koordinakundetan Bermejo-Tarijan: Trópicon, Quillacollon-Cochabamban; eta El Alto-La Pazen.

1994ko abuztuaren 7an Cochabamba hirian sortu zenetik, giza harremanetan edozein diskrezio mota baztertuko duen bidezko eta berdintasunezko gizarte ekitatiboaren eraikuntzaren alde egiten du lan, genero ekitate, prebentzio eta emakumeen kontrako bortizkeria errotik ateratzearen aldeko mezu hezitzaileak sortu, ekoitzi eta hedatuta.

Nazio-bilera bat egiten dugu urtero eta, bertan, eragin politikoko ekintzak planifikatzen dira, ikuspuntu komunikazionaletik eta departamentu eta eskualdeetako bileretan erabili ahal izateko. Batzarretik etorritako aginduei jarraituta, maila horietan, gehienbat emakume indigenen elkarteekin eta RED-ADAREN antzeko beste erakunde batzuekin koordinatuta, komunikazio-ekintzak eta eragin politikokoak gauzatzen dira. Afiliatuek aukeratzen dituzte departamentuetako eta eskualdeetako koordinazioak.

Emakumeen partaidetza politikorako esperientzia arrakastatsua

RED-ADAK zuzendutako komunikazio lan trinkoari esker, guneak zabaltzea lortu da, emakume indigenek beraiek, jatorrizkoek eta afro-ondorengoek, euren ahotsa entzunarazi ahal izateko, izan ere, orokorrean Estatu eta GKEN moduko aktoreak izan dira emakumeen beharrian eta lehentasunak interpretatu dituztenak.

Ekimen horren zabalkundea, 2001. urtetik aurrera, ordura arte inoiz elkarrekin egon ez ziren emakumeen elkarte batzuen batzarrekin amaitu zen, eta zera izan zen ondorioa: herri-, departamentu eta nazio-mailetan beharrezkoa zela prozesuak bultzatzea, bertan nekazaritza-guneetako emakumeek beraiek inolako bitartekotzarik gabe euren berezko garapen historikoa finkatzea bilatzeko. Horrela, emakumeen elkarte eta taldeak agertzea proposatu zen, aurretik Estatuak ezezik emakumeen mugimenduak berak ere alde batera utzi izan zituenak, jatorrizko mugimendu indigena eta nazioarteko kooperazioarekin batera.

RED-ADAREN helburua, komunikazio-lanetik, herrialdeko nekazaritza-guneetako emakumeen eskaera eta proposamenei buruzko kontsulta parte-hartzailea aurrera eraman zezakeen koordinazio nazionalerako gunearen hedapena erraztea izan zen. Nekazaritza-guneetako emakumeek sendotze prozesu nazionala hastearen aldeko benetako kezka zegoen, izan ere, gehienak euren oinarritzko erakundeetan mimetizatuta zeuden.

Lehen bilera egin zen eta, bertara, nazio-mailan dagoeneko ezagunak ziren erakunde nagusietako buruez gain, erakunde emankor, amen elkarte eta departamentu eta sektore-mailan garrantzitsuak diren beste elkarte batzuetako emakume buruzagiak ere heldu ziren. Horrela, sektore guztietako nekazaritza-guneetako emakumeen artikulazio-prozesu garrantzitsua hasi zen, bai goi-lurretan zein behe-lurretan.

Elkarte batzuk zatituta heldu ziren, gizonek zuzendutako erakunde nagusiak kontrako jarreretan banatuta zeudelako, eta emakumeek euren buruzagiek hartutako jarrerari jarraitzen zitelako. Hori dela eta, hasiera batean euren arteko gatazka sortzeko beldurra egon zen, are gehiago, prozesua ezartzeko baldintzak zeudenaren gaineko zalantza sortu zen. Hala ere, bilerak arrakasta lortu zuen eta zazpi urtean bilera gehiago egitea eragin zuen, erabilitako metodologiak hitzarmen sindikalarena eta borroka politiko-ideologikoarena gainditu zituelako. Arbasoen printzipioen edo kosmobiarioaren oinarrien gainean bakoitzak zeukan berariazko nortasunaren errekonozimenduaren ondorioz elkarriketa sortu zen. Gune horiek politikoak, pedagogikoak eta kultur-berrindartzekoak izan ziren, komunikaziozko euskarriarekin.

2001ean hasitako esperientzia horren emaitzak hauexek izan ziren: emakumeen elkarte ezberdinen batasuna izatea, gaur egun kargu publikoetan dauden eta Batzar Eratzaileko partaide diren emakume buruzagien trebakuntza, eta garrantzitsuena, Batzar Eratzaileari eman zitzaion eta era adostuan eraiki zen Emakume Indigenen Agenda izatea.

Batzarkideek eraikitako testu konstituzional berriak emakume indigenek planteatutako proposamenen gehiengoa biltzen du; hori dela eta, Evo Moralesen gobernuari eman zitzaion Estatuaren Konstituzio Politiko berria ofizialki onartzen bada, Boliviako emakume guztien egoera eta mailaren hobekuntzarako tresna garrantzitsua izango da.

RED-ADAK lortutako emaitza garrantzitsuak

- RED-ADA erakundea ezaguna da gizarteko komunikabideekin, gizarte zibileko sektoreekin, emakumeen mugimenduekin eta mugimendu feministekin emakumeengan egiten den edozein bortizkeria mota prebenitu eta errotik ateratzearen bila egindako lanagatik.
- RED-ADAK, azken urteetan, komunikabideek emakumeen hiritartasuna zabaltzeko funtsezko tresna izateko duten betebeharrean gogoeta egiten lagundu du.
- RED-ADAK gizarteko komunikabide batzuek euren eguneroko lanean hizkera ez sexista erabiltzeko ahalegin handiak egin ditu, emakumeen eta gizonezkoen generoarekiko errespetua eta informazioa eta albisteen trataeran erabilera egokia sustatuta.
- Bere ekintza lerro nagusien garapenetik aurrera: ekoizpen-zabalkundea; gaikuntza-trebakuntza; hiritarren partaidetza-mobilizazioa; ikerketa eta zerbitzuak, eragin instituzionaleko hainbat esparrutan emaitza desberdin eta berariazkoekin 30 egitasmo baino gehiago garatu ditu.
- "RED-ADA" aldizkariak emakumeen eta Boliviako eta Latinoamerikako mugimendu feministaren ekintzak euren eguneroko eta politikako zereginetako hainbat gaitan berreskuratu eta sistematizatzen lagundu du.
- RED-ADAK nazio mailako Informazioaren eta Komunikazioaren Langileen Sare Nazionala bultzatu du, eta horrek esperientziak berreskuratu eta komunikaziotik egindako elkarteko lan-estrategiak garatu ahal izatea ekarri du.
- RED-ADA genero ikuspegiari eta nazio- eta nazioarte-mailako komunikazio eta genero ikuspegiari buruzko informazio iturri garrantzitsua bihurtu da. Indigenen Komunikazio Sistemaren indartzea bultzatzen du, sarearen barnera bertara, eta, han, herriko 30 irrati komunitariotik, hartzaile nekazari indigenari zuzenean helduko zaion informazioa zabaltzen du.
- Indigenen irrati komunitarioekin lerrokatzeak RED-ADAK herri guztiko baserriko emakumeekin, indigenekin, jatorrizkoekin eta nekazariekin ekintzak koordinatzea posible egiten du, ekintza plataforma bakarraren eraikuntzarako.
- Gaikuntza gaietarako eta genero ikuspegia daukan nekazaritza-garapenerako aholkularitza teknikoetarako erreferente garrantzitsua da.
- Emakume-hilketan, giza komunikabideetako emakumeen irudiaren erabileran, komunikazioan hizkera sexistaren erabileran, herriko hainbat pisu ekologikotako genero harremanetan, kultur aniztetasuneko genero pertzepzioan, emakumeen partaidetza politikoan eta beste batzuetan ikerketa lan garrantzitsuak egin ditu.

- RED-ADAK emakume indigenen erakunde guztiekin, jatorrizko herrikoekin eta hiri-barrutiko emakumeen elkarte nagusiekin harremanak ditu hitzarmenpean. Halaber, informazio sareen zati da nazioartean, eta baztertutako biztanleria sektoreekin koordinatuta egiten du lan, adibidez lesbiana, gay, transexual eta bisexualen komunitateekin (LGTB), sexu-langileekin eta beste batzuekin.

RED-ADA eta emakumeen elkarteentzako erronkak

Sarearen lanarekin jarraitu ahal izateko, derrigorrezkoa ikusten dugu berezko komunikabideak izatea, beste mundu bat posible dela uste duten emakumeen helburuak lortzea indar handiagoz sustatzeko.

Emakume indigenak, euren aldetik, honako erronka hauek dituzte aurrez aurre euren partaidetza politikoa sendotzeko:

- Emakume indigenen nazio-artikulazioa sendotzea.
- Beste elkarte batzuekin eta hautazko bitartekoekin batera Komunikazioko Hezkuntza Plana lantzea, osagarritasuna, erkidetasuna eta generoen artean botere-asimetria gabeko ekitateari buruzko arbasoen pentsaera erreskatatzeko, natura eta kosmosa kontuan izanda eta gaur egun gure gizartea zuzentzen duen pentsaera matxista, patriarkala, androzentrikoa eta baztertzalea alde batera uztea bilatzeko.
- Botere eta erabaki esparruetan ekitatea bermatzeko dagoen araudia doitzea.
- Trebakuntza eta gaikuntza planen esana betetzen duten jarduera hezitzaileekin emakumeentzako lidergo programak garatzea.
- Emakumeen erakundeak sendotzea eta politika munduan sartu ahal izateko guztiz kualifikatutako koadroen osaera bultzatzea.
- Tokiko ekintza hezitzaileekin eta komunikazio-laneko ekintza multimediatikoekin Eragin Politikoko Plana garatzea, eta hezkuntza-curriculumetan eragitea, emakumeak eskubide eta garapenaren menpeko gisa ikusten uzten duen pentsaera matxista eta arrazizta ezeztatzea.
- Erdi mailako emakume aktibistekin elkarrizketa eremuak irekitzea, hiriko emakumeen eta nekazarien artean gai komunak bilatzeko eta argiro definitutako arloetan aliantza politikoak lortzeko oinarriak ezartzeko.

Emakumeen lehen udal-bulegoen sorrera Hondurasen

Centro de Derechos de Mujeres

Sarrera

Emakumeen Eskubideen Zentroak (CDMk) honako lehentasun hauek ditu emakumeen partaide-tzaren eta eragin politikoaren arloan:

- Emakumeen jabetasuna lortzea eta lidergoak sendotzea. Horretarako, euren eskariei tokian tokiko eta udaleko agintarien aurrean eragiteko eta negoziatzeko duten gaitasuna indartzea.
- Emakumeen aurrerapen-mekanismoak tokian-tokian instituzionalizatzea; esate baterako, Emakumeen Udal Bulegoak. Horrela, genero-desberdintasunak murriztu eta generoa kontuan hartzen duten politikak ezarri ahal izango dira udal-korporazioetan.
- Emakumeek eskubidedun subjektuak direla sentitzea, hau da, euren eskubideak erabiltzea; eta erabateko herritarrak direla sentitzea.

Esperientzia eraldatzailearen prozesua

Gure esperientzia partekatu nahi dugu, Hondurasako zenbait udalerriri emakumeen udal-bulegoak sortzeko, sustatzeko eta aholkatzeko prozesuetan lagundu diegun erakundea gara-eta. Instantzia horiek tokian tokiko mekanismoa dira, eta emakumeen aurrerapenerako ekintzak koordinatzen dituzte. Horretarako, itun estrategikoak ezartzen dituzte udalerriarren toki-garapenean lan egiten duten eragileekin, Emakumeen Politika Nazionaleko bost ardatzetan.

2000. urtean, herrialdeko barrualdeko udalerrietan lan egiten hasi ginen, eta La Paz departamentuko Marcalako udalerriko proiektu eredugarria jarri genuen abian. Garai hartan, oso emakume-erakunde gutxi zeuden, eta emakumeen eskubideen aldeko lan hasi berria zen herrialde osoan, baina batez ere, barrualdeko udalerrietan.

Nazioarteko hitzarmenen eta, batez ere, Emakumeen aurkako Era Guztietako Bereizkeriei buruzko Konbentzioaren babespean, CDM gizarte-erakundeetako emakumeak, emakume nekazariak, lekaimak eta emakumeen kooperatibak prestatzen hasi zen, udal-gobernuaren eta toki-agintarien aurrean zereginetan, proposamenetan eta negoziaketetan bete-betean parte hartu zezaten.

Bestetik, inguruan etxeko indarkeria eta indarkeria sexuala oso ugariak zirenez, sentsibilizazio-jardunaldiak garatu ziren justizia-eragileekin (epaileak, fiskalak eta poliziak), estatuak gizarte-arazo horretan esku hartzean jarrera-aldaketak egon zitezten.

Zenbait sektoreen prestakuntzaren ondorioz, Etxeko Indarkeriaren aurkako Legearen Ezarpenaren Jarraipena egiteko Erakunde arteko Batzordea sortu zen, eta toki-agintariak, CDMk eta erkidego-ko emakume-erakunde batek (Emakumeen Klinikak) parte hartu zuten bertan. Batzordeak emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea eta errotik desagerraraztea zuen helburu nagusi. Horretarako, Etxeko Indarkeriaren aurkako Legearen betearazpena aztertu eta zaindu egiten zuen, legearen ezarpenean edo letran zeuden gabeziak agerian jartzeko.

Oso laster, bi gauza garrantzitsuri erreparatu genien: batetik, koordinazio-eremua sendotu behar zen, eta, horretarako, emakume-erakunde gehiago sartu behar ziren; eta bestetik, batzordean bertan jorratutako gaien esparrua handitu behar zen, emakumeen erabateko herritartasunarekin, parte hartzeko eskubidearekin eta toki-agintarien aurrean eskariak aurkezteko eskubidearekin zerikusia zuten gaiak landu ahal izateko. Horrela, inguruko erakundeen eta gobernu-sektorearen beste ordezkari batzuk elkartzen dituen sarea izan zen batzordea.

Era berean, beste instantzia bat sortu zen, generoaren ikuspegia alkatetzak udal-garapenerako sustatutako plan eta proiektuetan kontuan hartzen zela bermatzeko eta koordinatzeko. Garai hartan, Emakumeen Gobernu Bulegoak emakumeen udal-bulegoak sortzeko ekimena jarri zuen abian, herrialdeko presidenteordearen zuzendaritzapean. Nolanahi ere, ez zegoen bere sorrera babesteko inolako lege-esparrurik, ez eta instantzia horien eginkizunak, helburuak eta funtzionamendu-erak azaltzeko agiririk. Beraz, hutsetik hasi beharra zegoen.

Horrela, Marcalako Indarkeriaren aurkako Saretik, udal-gobernuan eragiteko prozesua hasi zen, emakumeen aldeko ekintzak koordinatzen zituen udal-instantzia sortzeko.

Hona hemen eskaria:

- Emakumeen Udal Bulegoa (OMM) sortzea. Alkateak emakumeen batzarrean hautatutako emakumeen artean aukeratu behar zuen bertako arduraduna.
- Bere funtzionamendurako aurrekontua esleitzea, bulegoko arduradunak udal-korporazioari eztabaidatzeko aurkeztutako Urteko Plan Eragilearen arabera.
- Bere funtzionamendurako eremu egokia esleitzea.

Sasoi hartan, herritarren partaidetzaren kontzeptua ez ezik, etxean sartuta zeuden emakumeek adierazpenak egitea, eskaerak egitea eta toki-agintariekin negoziatzea ere bazen berria.

2000. urterako, Munizipalitateen Legeak 10 urte zeramatzan onartuta, eta herritarren partaidetzarako mekanismoak proposatzen zituen. Hala ere, udal-agintariak ez duten partaidetza-eremurik irekitzen, eta gaur egun ere batzuek ez dute egiten, ez dakitelako, ohiturarik ez dutelako edo botere politikoaren kontrola galduko ote duten beldur direlako, historiari begira larderiaz eta bertikaltasunez erabili ondoren.

Marcalako udalerrria ez da salbuespena. Gobernu bat igaro zen, eta OMMren izena kontuan hartzeko eta hurrengo urterako aurrekontua esleitzeko aginduak baino ez zituen utzi. Nolanahi ere, gobernu horren amaieran, 2001. urtean, Indarkeriaren aurkako Sareak foro publikoa egin zuen udal-alkatetzarako hautagai guztiekin. Euretako bat emakumea zen, gainera. Emakumeen Udal Bulegoa irekitzeko konpromiso publikoa hartzea zen helburu nagusia.

Toki-gobernuaren hurrengo epealdirako, sareak eragiteko eta negoziatzeko lanari eman zion jarraipena emakume alkate berriarekin. Orduan, alkatearekin audientziak egin ondoren eta

erregidoreekin garatutako lobby-lanaren emaitza eduki ostean, udal-korporazioak udal-bulegoa irekitzeko erabakia hartu zuen, eta emakumeen batzarrean egindako galdeketa boto gehien lortu zituen emakumea izendatu zuten bulegoko arduradun. Edonola ere, aurrekontuak OMMko arduradunari "laguntza ekonomikoa" ematea baino ez zuen helburu, hau da, ez zizkioten lan-eskubideak aitortzen, alkatetzak fondo nahikorik ez zuelako. Abian jartzeko eremu egokia eman zioten.

Harrezkero, toki-gobernua aldatzean, eragin-ekintzak garatu dira, honako hauxe lortzeko: OMMak udal-egituran txertatzea, alkateak instantziaren koordinatzailea berrestea eta lan-eskubideak aitortzea.

- Esperientziaren errepikapena

2001. urtean, herritarren partaidetzari modu sistematikoagoan eutsi ondoren, lana geografiari begira hedatu zen. Marcalako udalerrian egindako esperientziak eta erabilitako irizpideak kontuan hartuta, Cholutecako departamentuan lan egiten hasi ziren. Bertan, aurretiazko loturak zeuden, CDMk Buruko Osasunari buruzko Proiektua garatu zuelako erkidegoan, Mitch urakanaren ostean.

Departamentu horretan, prestakuntza-prozesuak garatu ziren emakumeen partaidetzaren eta gobernagarritasun demokratikoaren arloan, eta indarkeriaren aurkako sareak sortu ziren hiru udalerritan, udalerrri bakoitzean emakumeen udal-bulegoak sortzeko, bertako koordinatzailea izendatzeko eta bulegoetarako aurrekontua lortzeko. Era berean, lehendik zegoen Cholutecako OMM sendotu zen.

OMMak irekitzeko asmoz, udal-agintariaren aurrean garatutako eragin-prozesua desberdina izan da hegoaldeko zenbait udalerritan, negoziaketako emaitzei dagokienez. Zenbait agintariren jarrera proaktiboa izan da, arduraduna izendatu dute eta bulegoa behar bezala ibiltzeko behar besteko laguntza eman dute. Beste kasu batzuetan, helburua erdietsi dugu, alkateak emakumeen batzarrean edo emakumeen kabildo irekian aukeratutako arduradunaren proposamena onartu duenean.

Zenbait mekanismo erabili ditugu, emakumeen proposamenak aurkezteko. Euren artean, hauteskundeen urtean, udal-alkatetzarako hautagaiekin egin ditugu foro publikoak eta euren konpromiso publikoa lortu dugu.

Gurekin lan egiten duten udalerrri gehienetan, udal-agintariak sinatutako konpromiso horien betearazpena erdibidean geratu da. Hori dela-eta, hausnarketa-guneak antolatu behar dira etengabe, eta eragin-estrategiak zehaztu behar dira berriro, agintariei presioa egiteko eta hartutako konpromisoak betetzeko. Oro har, ez da OMMetako arduradunek egindako Urteko Plan Eragilean zehaztutako premien arabera aurrekontu eskusiborik esleitzen.

Udalerrietako emakumeen eskariak kontuan hartuta, udal-agintariak sentsibilizatzen eta irekitzen hasi direnez, herrialdean berehala hedatu da udal-instantzia horiek sortu behar direla, euren sorrera babestu eta eskatzen duen lege-esparrurik egon ez arren.

Herrialdeko 298 udalerrietatik, %41,6k Emakumeen Udal Bulegoa dute, eta badaude horrelako bulegoak ireki nahi dituzten udal-agintariak eta emakume-erakundeak. Horrelako bulego asko oso baldintza txarretan irekitzen dira, baina bertako arduradunek prestasun eta interes handia dute.

- Zer dio estatuko eta nazioarteko lege-esparruak?

1982. urtean, Hondurasko estatuak Emakumearen aurkako Bereizkeria Guztiak Ezabatzeari buruzko Konbentzioa (CEDAW) berretsi zuenez, konpromisoak hartu zituen, emakumeen aurrerapenerako behar besteko baldintzak eta mekanismoak sortzeko.

Orain arte, Hondurasek norabide horretarantz egin du aurrera, eta zenbait xedapen kontuan hartu ditu estatuko lege-esparruan, aurrerapenerako mekanismoak zein instantziak sortzeko eta arlo guztietan genero-hausturak desagertzeko (Emakumeen Institutu Nazionala eta emakumeen Fiskaltza Berezia). Nolanahi ere, oraindik oso astiro goaz, ekintza horiek koordinatzeko toki-instantziaren jarduketarako lege-esparrua sortu ez delako.

- **Proposamena gizarteratzen**

2004. urterako, herrialdeko sektore askok Munizipalitateen Legea eraldatu beharra zegoela adierazi zuten, proposamena egitea erabaki genuen, generoaren ikuspegia eta gizarte-ikuskaritza kontuan hartzeko eta emakumeen aurrerapenerako toki-mekanismoak sortzeko.

Lehen proposamen hori oso ondo gizarteratu zen herrialdeko 4 eskualdeetan, proposamena jakitera eman eta aberasteko. Parte-hartzaileen artean, herrialdean lehendik zeuden OMMetako arduradunak zeuden, bai eta indarkeriaren aurkako sareetako nahiz beste gizarte-erakunde batzuetako ordezkariak ere. Ordurako, 20 OMM inguru zeuden herrialde osoan.

- **Proposamen bakarra eratzen**

2006. urterako, Kongresu Nazionalak Hondurasko Udalerrien Elkarteari (AMHONi) eskatu zion gizarte zibilaren eraldaketa-ekimen guztiak biltzeko. Horrela, aztertu eta proposamen bakarra egin ahal izango zuten.

Bestetik, Emakumeen Institutu Nazionalak (INAMek) ere beste ekimen bat zuen, genero-berdintasunaren ikuspegia kontuan hartzeko eta OMMak ezartzeko. Hori dela-eta, bi ekimenei buruzko eztabaida egin genuen beste erakunde feminista batekin, koordinazioarekin eta Hondurasko Emakume Munizipalisten Aliantza Nazionalako (ANAMMHko) Zuzendaritza Batzordearekin, proposamen bakarra eratu ahal izateko. Ondoren, aliantzak berak era ofizialean aurkeztu zuen AMHONen.

Horretarako, itun estrategikoak sustatu eta sortu behar izan genituen generoaren ikuspegia eta OMMak Munizipalitateen Legean kontuan hartu nahi zituzten instantziekin: Hondurasko Emakume Munizipalisten Aliantza Nazionala (ANAMMH), Hondurasko Emakumeen Ikaskuntza Zentroa (CEM-H), Emakumeen Institutu Nazionala (INAM) eta Generoaren Agentzia arteko Lantaldea. Horrela, eragin-prozesua garatu ahal izan genuen AMHONen aurrean. Horrez gain, proposamenari buruzko jarrera-agiria sortu zen, eta AMHONi, Kongresu Nazionalako emakume diputatuei eta aliatuei bidali genien.

Bestetik, proposamen berria gizarteratzeko eta aberasteko prozesuak egin genituen berriro; esate baterako, herrialdeko Emakumeen Udal Bulegoetako 70 emakume koordinatzaileekin egindako Topaketa, koordinazio-estrategia kolektiboak zehazteko. Bertan, proposamena udalerrien sareekin gizarteratzea eta alkateekin zein departamentuetako diputatuekin kabilo-ekintzak egitea erabaki genuen. Horretarako, eskualdekako 5 batzorde eratu ziren herrialdean.

- **Proposamena AMHONekin negoziatzen**

AMHONeko talde teknikoaren aurrean egindako eragin-ekintzei esker, ANAMMHeko Koordinazioak, inplikaturako erakunde feministen aholkularitzaz, OMMak sortzeko, aurrera eramateko eta euren aurrekontua esleitzeko 8 artikulua onartzea eta txertatzea lortu zuen. Ekimena bultzatu zuen taldea pozik zegoen, oztopo bat gainditzea erdietsi genuelako. Edonola ere, zenbait urrats gehiago eman behar genituen, geure helburua lortzeko: alkateen batzarraren onarpena eta Kongresu Nazionalan proposamenari buruz egin beharreko eztabaida.

AMHONen Batzarrean, alkateek proposamena aldatu eta gizarte-garapenerako unitateak, sailak edo gerentziak sortzea onartu zuten, emakumeen, umeen, helduen, gazteen, elbarrien, etnien eta lehentasunezko beste talde batzuen premiei aurre egiteko, udalerrriaren finantza-aukerak kontuan hartuta. Hala ere, gure ustez, badago arriskurik, emakumeen gai eta arazo bereziak familia-ikuspegiaren barruan jorratu litezkeelako, hau da, baliteke emakumeen ugalketa-zeregina eta ama/semi-alabak binomioa bakarrik kontuan hartzea. Era berean, gure ustez, baliteke beste biztanle-talde batzuei lehentasuna ematea eta emakumeen aurrerapenaren aldeko lana atzeratzea. Horren ondorioz, urte hauetan guztietan lortutako instituzionaltasuna galduko genuke azkenean.

- **Non gauden orain: Hondurasko Udalerrien Elkartearekin eta Gobernazio Idazkaritzarekin negoziatzen**

Berriro ere, itopuntuan geunden, baina 2008ko apirilean, AMHONek Munizipalitateen Legea eraldatzeko proposamena berrikusteko aukera eman zuen, aurreproiektuaren azken agiria Kongresu Nazionalean aurkeztu baino lehen. Beraz, gure proposamenaren argudioak azaldu genizkion Gobernazio eta Justiziako ministroordeak zuzendutako batzorde juridikoari.

Emakume-erakundeok eta INAMek legea eraldatzeko prozesua monitorizatu behar dugu, eta eragin-ekintzen plangintza egin behar dugu Kongresu Nazionaleko diputatuekin.

Ahalegin handiz, honako hauexek dira gure lorpenak eta arrakastak

- Emakumeen udal-bulegoak sortzea, nahiz eta batzuek aurrekontu txikia eduki.
- Genero-berdintasunaren ikuspegiaren bidez, OMMek emakume heldu, nerabe eta neskatilen arazo bereziak agerian jarri eta politizatu egin ditu, gizarteko eta estatuko arazoak balira bezala konpondu eta aitortu daitezten.
- OMMek eta indarkeriaren aurkako sareek udal-eremuak sortu dituzte, emakumeen aurkako indarkeria atenditzeko (Cholutecako Emakumeen Atentzio Integralerako Zentroa, CAIM).
- Toki-agintari batzuk ireki egin dira, eta emakumeak eskubidedun subjektuak direla onartu dute.
- CDMk atenditutako udalerrri guztietan, OMMetako arduradunek laguntza eta aholkularitza eskaintzen dizkiete indarkeriapean bizi diren emakumeei, eta justizia-eragileen jarduketak zaintzen dituzte.
- OMMak udal-erreferenteak dira emakumeekin, toki-garapenarekin, osasunarekin eta beste arlo batzuekin zerikusia duten gaietan.
- Zenbait udalerritan, OMMko arduraduna ez ezik, Indarkeriaren aurkako Sareko koordinatzaileak ere bada.
- Gobernu-aldaketetan, sareek eragin-ekintzak jarri dituzte abian, OMMko emakume arduradunei eusteko eta berresteko.

Gure erronkak


Hona hemen OMMetako emakume arduradunen eta gure erakunde feministaren erronkak:

- Udaleko eta tokian tokiko agintariek gure proposamenei jarritako oztopoak gainditzea.
- Emakumeen Udal Bulegoa Munizipalitateen Legean kontuan hartzea.

- Emakumeek udal-egituran aurrera egiteko toki-mekanismoak instituzionalizatzea eta, horretarako, emakumeen arazoan araberako aurrekontua esleitzea.
- Tokian tokiko politika publikoen diseinuan eta betearazpenean eragin handiagoa edukitzea.

Erronka horiei aurre egiteko, toki eta udal agintariak sentsibilizatzen eta inplikatzeko jarraitu behar dugu, emakumeen aurrerapenarekin bat egin dezaten. Era berean, OMMetako emakume ardura-dunak prestatzen jarraitu behar dugu, eta, betiko moduan, lan egiten lagundu behar diegu.

Amaitzeko, jakin badakigu udal-agintarien eta Kongresu Nazionalaren aurrean eragiten jarraitu behar dugula, etorkizun hurbilean munizipalitateetako plan, programa, proiektu eta aurrekontuen diseinuan eta betearazpenean genero-berdintasuna kontuan hartzeko. Beharbada, horrelaxe hasi ahal izango gara eskubide, aukera eta tratu berdintasuna eskaintzen duen munduan bizitzeko ametsa betetzen..



Latinoamerikako emakumeen elkarte eta elkarte feminista batzuen direktorioa

Giza-eskubideekin lotutako gaiak, hala nola, herritartasuna, boterea, buruzagitzaren erakitzea eta emakumeen parte-hartze politikoa zabal jorratu izan ditu emakumeen elkarten mugimenduak. Halaber, talde feministen agendak tokiko mailan, maila nazionalan eta mundu mailan jartzeko beharra antzeman eta horren alde lan egin du. Halere, oraindik lan handia dago egiteke gobernuek euren agendetan genero-ikuspuntua aintzat har dezaten, eta emakumeek berdintasun-egoera benetakoa eta eraginkorra izan dezaten. Gainera, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko, aldaketa-estrategiak diseinatu behar dira. Ez da nahikoa legeak aldatzea, aldatu nahi duguna egungo sistema patriarkala delako; izan ere, ezin dugu benetako demokrazia berba egin, biztanleriaren erdia baino gehiago botere politikotik aldentzen duten hesiak mantentzen diren bitartean.

Eskuartean duzun kapitulu honetan, Boliviako eta Hondurasko emakumeen zenbait elkarte eta talde feministaren izenak jaso dira. Herrialde horiek biak hartu dira eredu gisa kapitulu osoan, emakumeen partaidetza eta eragin politikoaren gaia jorrazteko. Gisa horretan, erakunde horiek, garapenerako eragile diren aldetik, nazioarteko lankidetzaren esparruan ezagutzera emango dira, aintzat har daitezten. Era berean, GGKEi animatu nahi diegu aipatutako erakundeekin batera sareak eta itunak sina ditzaten. Horrela, emakumeak eta euren interesak ikusgai egingo dituzten lan-ildoak garatuko dira nazioarteko garapen-eremuan.

Badakigu emakumeen eta talde feministen elkarte ugari dagoela Latinoamerikan, baina tinko lan egiten dutela ere, emakumeek herritartasun-eskubideak eta parte-hartze politikoa izan ditzaten. Alabaina, horietako bakan batzuk soilik aipatuko ditugu orain, beste asko egiten ari diren ahalegin eta lan interesgarria ahortzi gabe.

Bolivia

Bolivian emakumeen borroka historia luzea du, eta mugimenduak hainbat emakume mota hartu ditu barne: emakume meatzariak, nekazariak, hirietako etxeoandreak, indigenak eta kokaleroak. Guztiek eskatu dute euren aldeko ekintzak bideratzea eta presentzia publiko handiagoa izatea. Klase bakoitzak bere aldarrikapenak egin ditu bere ugalketa-beharren arabera, baita bere familia-ren ugalketa-beharren arabera ere. Emakumeen elkarteek funtsezko zeresana izan zuten lurra eta lurraldearen defentsan, giza-eskubideen aldeko aldarrikapenetan eta demokraziaren eraikuntzan. Halarik ere, politika formalaren barnean ez zituzten emakumeak kontuan hartu, eta euren etxee-tako bakartasunera zokoratu zituzten.

80ko hamarkadaz geroztik, berriz, emakumeen elkarte eta talde feministen sareek zeresan garrantzitsua izan dute Boliviako agenda publikoa zertzeko orduan. Alabaina, beharrezkoa da azpimarratzea emakume indigenen elkarten eta emakume ez indigenen elkarten artean dagoen aldea. Diferentzia horrek emakume boliviarren mugimendua ezaugarritu izan du; izan ere, atxi-pipen etnikoak garrantzi handiagoa izan du, sexu bereko kide izatea baino.

ERAKUNDEAREN IZENA	AMUPEI-Ekitatearen eta Berdintasunaren aldeko Emakumeen Erakundea
HELBIDEA	Avenida Juan Pablo II y Calle Eulert nº 215. Zona 16 de Julio. La Paz ☎ (591 2) 2846783 ✉ amupej@amupei.bo www.amupej.bo
HARREMANETARAKO PERTSONA	Lourdes Montero (Zuzendaria)
LANAREN ARDATZAK	<ul style="list-style-type: none">• Emakumeen parte-hartze politikoa• Hezkuntza• Ekonomia eta pobrezia• Sexu-eskubideak eta ugalketa-eskubideak• Emakumeenganako indarkeria

ERAKUNDEAREN IZENA	ROMUIN-Harresi Ikusezinak Apurtzen. Ikerketa, Ekintza eta Produkzio Zentroa
HELBIDEA	Alto lima 1º sección Zona Adrián Castillo. Avenida Ecuador Esquina San Salvador. El Alto. La Paz ☎ (591 2) 71597541 ✉ ciromuin@hotmail.com
HARREMANETARAKO PERTSONA	Lucía Zuñiga (Ordezkaría)
LANAREN ARDATZAK	<ul style="list-style-type: none">• Ikerketa eta trebakuntza, "feminismo iraultzaile aktiboa eta integratzailearen" ildotik

ERAKUNDEAREN IZENA	Gregoria Apaza Emakumeak Sustatzeko Zentroa
HELBIDEA	Calle Eulert n° 215 y n° 280. Zona 16 de Julio. La Paz ☎ (591 2) 2840441 ✉ gregorias@gregorias.org.bo www.gregorias.org.bo
HARREMANETARAKO PERTSONA	Lourdes Montero (Zuzendaria)
LANAREN ARDATZAK	<ul style="list-style-type: none"> • Emakumeak esparru politikoan, ekonomikoan eta pertsonalean jabetzea • Emakumeen elkarteak sendotzea

ERAKUNDEAREN IZENA	CDIMA-Aimara Emakumearen Garapen Integralerako Zentroa
HELBIDEA	Plaza 1 de mayo. Plan 56 A Calle 9 n° 791, bus 219 desde Ceja. Esquina Centro de Salud a izquierda. La Paz ☎ (591 2) 2833910 ✉ cdima-amuytha@hotmail.com www.cdima.org
HARREMANETARAKO PERTSONA	Alicia Canaviri (Zuzendaria)
LANAREN ARDATZAK	<ul style="list-style-type: none"> • Emakume aimarak buruzagi izateko prestakuntza eta trebakuntza • Gizarte-komunikazioa • Emakumeen ekimen ekonomikoak

ERAKUNDEAREN IZENA	CIDEM-Emakumearen Informazio eta Garapen Zentroa
HELBIDEA	Calle Boquerón Esquina Almirante Grau. Edificio El Carmen 2º mezanine. San Pedro. La Paz ☎ (591 2) 249 0319 ✉ cidem@accelerate.com www.cidem.org.bo
HARREMANETARAKO PERTSONA	Mary Marca (Zuzendaria)
LANAREN ARDATZAK	<ul style="list-style-type: none"> • Politika publikoak eta genero-ikuspuntua • Emakumeen parte-hartze politikoa eta herri-partaidetza • Osasuna eta sexu-eskubideak eta ugalketa-eskubideak

ERAKUNDEAREN IZENA	FENATRAHOB-Etxeko langileen Federazio Nazionala
HELBIDEA	Alcoreza 971 esquina Avenida Buenos Aires. La Paz ☎ (591 2) 76266137 ✉ fenatrob@hotmail.com www.fenatrahob.org
HARREMANETARAKO PERTSONA	Miguelina Colque (Zuzendaria)
LANAREN ARDATZAK	<ul style="list-style-type: none"> • Etxeko langileen antolakuntza

ERAKUNDEAREN IZENA	FNMCB "BS"- "Bartolina Sisa" Boliviako Landa-emakume Indigenen Federazio Nazionala
HELBIDEA	Avenida Perú esquina Calle Constitución nº 105. La Paz ☎ (591 2) 2287858 ✉ bartolinas@bartolinasisa.org www.bartolinasisa.org
HARREMANETARAKO PERTSONA	Leonilda Zurita (Zuzendaria)
LANAREN ARDATZAK	• Emakume indigenen eskubideak

ERAKUNDEAREN IZENA	RED-ADA, Informazioaren eta Komunikazioaren Langileen Sare Nazionala
HELBIDEA	Avenida Mariscal Santa Cruz. Edificio Esperanza. Piso 4, oficina 5. La Paz ☎ (591 2) 2317056 ✉ helbidea@redada.org www.redada.org
HARREMANETARAKO PERTSONA	Teresa Canaviri (Zuzendaria)
LANAREN ARDATZAK	• Partaidetza politikoa • Komunikazioa • Genero-indarkeria eta kultura

ERAKUNDEAREN IZENA	REMTE Bolivia-Boliviako Ekonomia Aldatzen ari diren Emakumeen Sarea
HELBIDEA	Avenida 20 de Octubre y Campos 2578. La Paz ☎ (591 2) 2840441 ✉ remtebolivia@yahoo.es www.remtebolivia.org
HARREMANETARAKO PERTSONA	María Esther Ibáñez (Ordezkaría)
LANAREN ARDATZAK	• Emakumeen eskubide ekonomikoak

ERAKUNDEAREN IZENA	TAHIPAMU-Emakumearen partaidetza eta Historia-tailerra
HELBIDEA	Calle Jaimes Freyre nº 2957 Esquina Muñoz Cornejo. La Paz ☎ (591 2) 2419232 ✉ tahipamu@accelerate.com
HARREMANETARAKO PERTSONA	Ineke Dibits (Zuzendaria)
LANAREN ARDATZAK	• Sexu-eskubideak eta ugalketa-eskubideak

Honduras

Hondurasko emakumeen elkarteak 70eko hamarkadan hasi ziren sortzen, bereziki, landa-emakumeen elkarte bi finkatu egin zirenean. 90eko hamarkadan, are elkarte gehiago antolatu ziren, eta horrekin batera, eskubide eskaerak handitu ziren, bai tokiko mailan bai maila nazionalean. Gisa horretan, gobernua, nazioarteko lankidetzak eta gizarte zibila ohartzen hasi ziren garapenak emakumeengan izan zituen ondorio negatiboez. Horrenbestez, hainbat gobernu-elkarte eta gobernu kanpoko elkarte sortu eta instituzionalizatu ziren, Hondurasko emakumeen eskubideak benetan eta modu eraginkorrean gauzatzeko.

Gaur egun, badira 80 bat emakumeen elkarte Hondurasen, eta gehienak landa-emakumeen elkarteak dira. Elkarteek emakumeen eskubideen alde lan egiten dute, besteak beste, emakumeen jabetza-eskubidearen, lurra erabiltzeko eta kontrolatzeko eta kredituak eskatzeko eskubidearen alde, gizonezkoen baldintza berberetan egon daitezzen. Emakume beltzen eta indigenen elkarteak ere aintzat hartzekoak dira Hondurasen, izan ere, etnien barnean genero-ekitatearen alde lan egiten dute. Era berean, badira beste emakumeen elkarte batzuk ere, nekazaritzaren, artisautzaren eta industriaren ekoizpenarekin erlazionaturik dauden kooperatibak, alegia. Halaber, ondoko gaiak lantzen dituzten bestelakoak ere badaude: sexu-indarkeria, emakumeen herritartasun-partaidetza, eragin politikoa eta buruzagitza, besteak beste.

ERAKUNDEAREN IZENA	ASOHMUN-Hondurasko Emakume Indigenen eta Beltzen Batzorde Nazionala
HELBIDEA	Col. Bella Vista, Edificio Esquina Verde 10 Calle, 12 Ave. Tegucigalpa ☎ (50 4) 4432492 ✉ ofraneh@laceiba.com
HARREMANETARAKO PERTSONA	Elida Herrera Mena (Ordezkarria)
LANAREN ARDATZAK	<ul style="list-style-type: none">• Emakumeen parte-hartze politikoa

ERAKUNDEAREN IZENA	ANAMUCH-Hondurasko Landa-emakumeen Elkarte Nazionala
HELBIDEA	Edificio Midence Soto Piso 5, Cubículo 515. Tegucigalpa ☎ (50 4) 265 6333
HARREMANETARAKO PERTSONA	Ana Rosa Flores (Zuzendaria)
LANAREN ARDATZAK	<ul style="list-style-type: none">• Generoko indarkeria• Genero-ekitatea• Emakumeen eskubideak• Legedia• Lurraren erabilpena eta kredituak eskatzea

ERAKUNDEAREN IZENA	CDM-Emakumeen Eskubideen Zentroa
HELBIDEA	Colonia Lara Norte, Ave. Manuel José Arce Calle Lara N 834. Tegucigalpa ☎ (50 4) 2210459 ✉ cdm@derechosdelamujer.org www.derechosdelamujer.org
HARREMANETARAKO PERTSONA	Gilda María Rivera (Koordinatzailea)
LANAREN ARDATZAK	<ul style="list-style-type: none"> • Etxeko indarkeria • Sexu-indarkeria • Emakumeen eskubideak • Emakumeen parte-hartze politikoa

ERAKUNDEAREN IZENA	CEM-H Hondurasko Emakumearen Ikerketa Zentroa
HELBIDEA	Colonia Palmira, 1ª calle, Casa nº 642. Tegucigalpa ☎ (50 4) 232 6301 ✉ cemh@hondunata.com www.cemh.org.hn
HARREMANETARAKO PERTSONA	Suyapa Martínez (Zuzendaria)
LANAREN ARDATZAK	<ul style="list-style-type: none"> • Emakumeen eskubideak • Emakumeenganako indarkeria

ERAKUNDEAREN IZENA	CESADEH-Hondurasko Garapenerako Ikerketa eta Ekintza Zentroa
HELBIDEA	Barrio Guadalupe Sendero Pinalejo Edificio Italia, 2º Piso cubículo 10. Tegucigalpa ☎ (50 4) 2383021 ✉ cesadeh@yahoo.es www.cladem.org/english/national/honduras/honduras.asp
HARREMANETARAKO PERTSONA	María del Carmen Castro (Zuzendaria)
LANAREN ARDATZAK	<ul style="list-style-type: none"> • Emakumeen prestakuntza eta jabekuntza enpresa komunitarioetan; etxebizitza • Sexu-osasuna eta ugalketa-osasuna • Lege-laguntza

ERAKUNDEAREN IZENA	CODEMUH-Hondurasko Emakumeen Kolektiboa
HELBIDEA	10 calle, 7 y 8 avenida N.O., Casa nº 48 Barrio Guamilito. San Pedro de Sula ☎ (50 4) 6691180 ✉ codemuh@codemuh.org www.codemuh.org
HARREMANETARAKO PERTSONA	María Luisa Regalado (Zuzendaria)
LANAREN ARDATZAK	<ul style="list-style-type: none"> • Emakumeenganako indarkeria • Sexu-eskubideak eta ugalketa-eskubideak • Emakumeen eskubideak

ERAKUNDEAREN IZENA	COFEMUN-Unibertsitateko Emakumeen Kolektibo Feminista
HELBIDEA	Col. Miramontes, 5ta Calle, Ave. Altiplano Casa 2502. Tegucigalpa ☎ (50 4) 2323419 ✉ mujersu@cablecolor.hn www.cofemun.org
HARREMANETARAKO PERTSONA	Blanca Estela Dole (Zuzendaria)
LANAREN ARDATZAK	<ul style="list-style-type: none"> • Prestakuntza eta jabeakuntza • Ikerketa • Eragin politikoa • Emakumeenganako indarkeria eta emakumeen eskubideak

ERAKUNDEAREN IZENA	CONAMUGAH-Hondurasko Emakume Garifunen Koordinakunde Nazionala
HELBIDEA	Apartado Postal 341, La Ceiba. Atlántida ☎ (50 4) 4432492 ✉ ofraneh@laceiba.com
HARREMANETARAKO PERTSONA	Juana Menchú (Koordinatzailea)
LANAREN ARDATZAK	<ul style="list-style-type: none"> • Tradiziozko medikuntza garifuna • Emakume garifunen identitate kulturala • GIB/HIESa

ERAKUNDEAREN IZENA	ENMUNEH-Hondurasko Emakume Beltzen Bitartekaria
HELBIDEA	Colonia Los Castaños Avenida Minas de Oro Calzada Palma Real nº 110, Costado. Merz Automotriz, Blvd. Morazán. Tegucigalpa ☎ (50 4) 2321218 ✉ enmuneh@multivisionhn.net
HARREMANETARAKO PERTSONA	Emelda Esther Vargas López (Eskualdeko koordinatzailea)
LANAREN ARDATZAK	<ul style="list-style-type: none"> • Emakumeen parte-hartze politikoa • Identitate kulturala • ITS/GIB/HIESaren Aurrezaintza

ERAKUNDEAREN IZENA	FEHMUC-Land-emakumeen Federazio Hondurastarra
HELBIDEA	Barrio la Granja, Edificio CGT, Apartado postal 1236. Comayagüela ☎ (50 4) 225297
HARREMANETARAKO PERTSONA	Deysi Felipa Ibarra (Ordezkarria)
LANAREN ARDATZAK	<ul style="list-style-type: none"> • Familiako ortuak • Landa-emakumeen eskubideak



Kanpainak

Emakumeak munduko biztanleriaren erdia baino gehiago dira, eta azken urteotan aurrerapauso eta ahalegin handiak egin badira ere, aukera-berdintasunari dagokionez, emakumeen parte-hartze eraginkorrak, bai espazio publikoetan bai espazio pribatuetan, murriztua izaten jarraitzen du.

Emakumezkoen parte-hartze soziala eta politikoa funtsezko estrategiatzat jo behar da, genero-ekitatea lortzeko. Era berean, genero-ekitatea eskuratzeko, esparru orotan emakumezkoen bazterkeriaren eta gutxiespenaren gaineko kontzientzia soziala eraikitzea beharrezkoa da. Hau da, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasun soziala eta politikoa lortzeko, arlo sinbolikoan kultura-aldaketa bat egin beharra dago, hartara, genero-ekitatea eta emakumea baloratzea lortuko da.

Herritarrek aukeratutako karguetan edota erabakiak hartzeko espazioetan egoteko, emakumeek egun dituzten trabak gizonezkoen nagusitasuna duen sistema patriarkalarekin dago erlazionaturik zuzen-zuzenean, baita sistema horren adierazpen batekin ere: lanaren banaketa sexuala, espazio publiko eta pribatuetan. Erabaki politikoko karguetan, bai tokiko mailan bai maila nazionalean, emakumezkoen presentzia urriak eragiten duen arazo sozialari irtenbidea aurkitzeko, ekintzak bideratu behar dira euren presentzia gisa horretako karguetan bermatzeko. Hala, emakumezkoen beharrak eta interesak barne hartzen dituzten politika publikoak abiaraziko lirateke.

Horrenbestez, emakumezkoen ekimenak bultzatzea oso garrantzitsua da, baita emakumeek hitzarmen politiko eta herritartasun-hitzarmenen eragile zein subjektu aktibo gisa duten estatusa aintzat hartzea ere, zapalkuntzaren jatorriak identifikatuz eta demokrazia nahiz hiritartasuna birpentsatu eta berrantolatuz, emakumeak eskubide-dun subjektu gisa har daitezten

Hurrengo atalean, emakumezkoen hainbat sare eta elkartek gai honen inguruan abiarazitako lau kanpaina jasotzen dira, emakumeek benetako berdintasun egoera batean euren eskubideak erabil ditzaten.

Hauetako dira aurkezten diren kanpainak:

- Irailaren 28ko Kanpaina, Abortuaren Despenalizazioaren aldekoa, Latinoamerikan eta Kariben.
- Emakume Gehiago, Politika Gehiago.
- Emakumerik gabe, ez da demokrazia.
- Zure ahotsa funtsezkoa da fundamentalismoaren aurka.

IRAILAREN 28KO KANPAINA, ABORTUAREN DESPENALIZAZIOAREN ALDEKOA, LATINOAMERIKAN ETA KARIBEN	
Oinarrizko datuak	
Izenburua	Irailaren 28ko kanpaina, abortuaren despenalizazioaren aldekoa, Latinoamerikan eta Kariben.
Esperientzia garatzen duten erakundeak	Koordinazio orokorra Latinoamerikako eta Karibeko Emakumeen Osasun Sareak (RSMLAC). Parte hartu duten beste erakunde batzuk: Katolikoak Erabakitzeke. Eskubidearen Alde eta Artikulazio Fenimista Eskualdeko Sarea MERCOSUR.
Lurralde eremua	Latinoamerika eta Karibe.
Burutzeko epea	2008ko irailaren 28a.
Hizkuntza	Gaztelania.
Esteka	www.reddesalud.org/espanol/sitio/023.htm
Harremanetarako	publicaciones@reddesalud.org
Ekintzen laburpena	
Kanpainaren deskribapena	Eskualdeko kanpaina honek bilatzen duena da legezko abortu eta abortu librearen eskaera giza eskubideen, justizia sozialaren eta demokraziako gai gisa kokatzea, eta, horretarako, gizarteko aktore guztiei deitzen die, eskubide hau onartu eta berma dezaten.
Helburuak	Sexu- eta ugalketa- eskubideei, sexu-autonomia eta ugalketa autonomiari buruzko ahalik eta informaziorik zabalena eta heziketa eskatzea. Sexualitatea gure nortasunaren osagai gisa eta ugalketatik banatu behar den zerbait gisa defendatzea. Ziurtasun gabeko abortuak emakumeen bizitzan dituen ondorioak hedatzea, amatasun heriotza eta morbiditateen arrazoi nagusi gisa gehienbat. Emakumeen mugimenduaren barruan koalizioak ezartzea, medikuen gremioekin, juridikoekin eta beste batzuekin, zenbat seme-alaba izan nahi diren eta noiz, edo eduki nahi ez diren erabakitzeke eta eragindako abortuaren arreta ziur eta gizatiartua izateko eskubidea bermatuko duten legeen eta politiken aldeko informazio kanpainak egiteko.
Parte hartzen duten aktoreak	Eskualde latinoamerikarreko eta karibetarreko herrialdeetako antolatutako emakumeak, eskualde mailako sare eta koalizioak barne.
Ikusleria xedea	Gizarteko aktore guztiak.
Garapena	
Garatutako ekintzak	Hedapen publikoko eta herrialde bakoitzeko agintariak interpelatzeko ekintzak, eragindako abortua zigortzen duten legeen aldaketa, abortatzen duten emakumeen aurkako salaketan amaiera, eta abortuaren arreta ziurra sustatuta.
Ezarritako ikuspegi eta metodologiak	Erakunde bakoitzak ekintza publikoak egiteko askatasuna dauka. Ekintza komun bakarra dago, eskualdeko adierazpenaren aldeko sinaduren bilketa.

Lorpenak eta emaitzak	
Alde sendoak edota aukerak	<p>Kanpaina honek eskaintzen dituen aukerak eskualde latinoamerikarrek eta karibetarrek herri ezberdinen artean elkarrekin egindako deklarazioaren bidez eskaera komuna artikulatzeko aukerarekin lotzen dira, erakunde bakoitzak herri-mailan bere ekintza propioak dituen bitartean.</p> <p>Horrek estrategia komunaren bitartez emakumeen erakundeen ahotsa indartzeko baimena ematen du, eta estrategia horrek, gainera, emakumeen eta feministen mugimenduko partaide ez diren lagun eta erakundeen babes bilatzen du.</p> <p>Amaitzeko, berriro ere posible izan zen emakumeen sareen existentzia agerian uztea, euren eskubideen babeserako instantzia politiko boteretsu gisa.</p>
Alde ahulak edota oztopoak	<p>Ahultasuna oraino masifikatu ez diren informazioaren teknologia berrien erabilerarekin dago lotuta oraindik ere, baliabide gutxiagoko herrialde eta komunitateetan bereziki. Horrek ekintzarako deialdiei erantzun jendetsua goa ematea oztopatzen du.</p> <p>Herrialdeetako ekintzek berezko dinamika daukate eta euren emaitzak egunak aurrera joan ahala ebaluatuko dira. Hala ere, beharrezkoa da onartzea lortzen zailena erabaki hartzaileek eguneroko eskaera horien aurrean erreakzionatzea dela, izan ere, abortuak zigor sozial eta politiko handia daukan gaia izaten jarraitzen du.</p>
Alde berriztatzaileak	<p>Berriztatzaileena izan zen atxikimendu sinadurak biltzeko eskualdeko adierazpena bultzatzea; egun gutxi batzuetan zabal sakabanatu zen adierazpena. Halaber, bere jarraitasunak emakumeen eskaerei eskualde mailako babesaren hazkundera hautematen utziko du.</p>
Eragina	<p>Eragina sinbolikoa izan da, abortu ziur eta legalaren aldeko eskaera eskualdeko gizartearen hainbat sektoretan kokatzea lortu den heinean.</p> <p>Herrialde mailako ekintzek, aitzitik, iritzi publikoan oso eragin zuzena daukate oro har, eta, sarritan, komunikabideetan.</p>
Iraunkortasuna	<p>Ahalegin horrekin jarraitzea espero da, bildutako atxikimendu guztien adierazpena nazio eta nazioarteko agintariei ematearekin batera eskualde mailako ekintza berria egiteko. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 60. Urtemugarekin batera egingo da hori.</p> <p>Nazio mailako ekintzen kasuan, irailaren 28ra mugatzen dira, abortua laneko agenden barruan dagoen kasu horietan bereziki.</p>
Ikasitako ikasgaiak	<p>Begi bistakoena informazioaren teknologia berrien erabilera bultzatzearen premia da, informazioa jasotzeko sasoiaren azkartasuna bideratzen dutelako.</p> <p>Halaber, erakundeetako abortuaren gaia lan-ildo etengabea bihurtzea posible egingo dieten funtsak lortzeko ahaleginak egitea ere premia da, euren estrategia eta helburu definituekin, eta horrek esan nahi du prozesuak eta ez egitasmo puntualak martxan jartzea.</p>

Ebaluazioa	<p>Irailaren 28aren inguruan hainbeste babes eta atxikimendu izan zituen eskualdeko ekintza lortzea oso garrantzitsua izan zen; horrek erakusten du abortuaren gaiari giza eskubideen eta justizia sozialaren gai gisa heltzeko guneak zabaltzen ari direla apurka-apurka. Horrelako dokumentu batetik abiatuta erabakiak hartuko dituztenengan aldaketaren bat eragiteko gaitasunak, ordea, estrategikoki aurre egin behar diegun benetako zailtasunak ditu.</p> <p>Herrialde mailan, bestalde, garrantzitsua da egiaztatzea erakundeak data adierazgarri horrekin konprometitu direla, baliabideetara heltzeko eta abortuaren inguruan irauten duen kondena sozialarekin lotutako hainbat zailtasun gaindituta.</p>
-------------------	---

EMAKUME GEHIAGO, POLITIKA GEHIAGO	
Oinarrizko datuak	
Izenburua	Emakume gehiago, politika gehiago.
Esperientzia garatzen duten erakundeak	Hauexek dira bazkideak: Kontzejuen Federazio Nazionala (FENACON), Udalerrien Federazio Kolonbiarra (FCM), Nazio Batuen Emakumeen Garapenerako Funtza (UNIFEM), Nazio Batuen Emakumearentzako Programa (PNUD), Nazioarteko Gaietarako Institutu Demokrata Nazionala (NDI), Nazioarteko Garapenerako Estatu Batuen Agentzia (USAID), Friedrich Ebert Stiftung Kolonbian (FESCOL) eta Garapenerako Kooperazio Alemanaren Agentzia (GTZ).
Lurralde eremua	Kolonbia.
Burutzeko epea	2005 - gaur egun.
Hizkuntza	Gaztelania.
Esteka	www.masmujeresmaspolitica.org
Harremanetarako	campanamasmujeres@gmail.com
Ekintzen laburpena	
Kanpainaren deskribapena	Emakume Gehiago, Politika Gehiago kanpaina erabakitze-guneetan emakumeen parte-hartzea bultzatzen duen instituzioen arteko ekimena da, bai sare, giza mugimendu eta alderdi politikoetan antolatutako emakumeak trebatuz, lagunduz eta enpoderatuz, bai, haien interesak defendatzeko eta ordezkatzeko, arlo publikoan emakumeen parte-hartzea handiagoa izatea helburu duen interes ezberdinen arteko elkarriketa errazteari eta kualifikazteari begirako bitarteko lanak eginez.

Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> • Emakumeak politikan duen parte-hartze eskasaren gainean dagoen tolerantzia-maila jaisteko iritzi publikoa sortu. • Emakume (hautetsiak direnak eta ez direnak), erakunde eta sareek kudeaketa publikoan, ikuskaritzan eta kontrol politikoan duten gaitasuna indartzea eta esperientzia ikusaraztea. • Kongresu-aulkien, erabakitze-guneetako emakumeen eta emakumeen mugimenduen arteko elkarrizketa-guneak bultzatzea. • Emakumeen parte-hartzea politikan sustatzeko legegintzako ekimenak eta neurriak hartzeko babesa ematea.
Parte hartzen duten aktoreak	<p>Zuzenean: kanpainaren bazkideak.</p> <p>Zeharka: kongresuko emakumeen batzorde akzidentala, alderdi politiko bakoitzeko emakume-istantzia erantzuleak, (SNU) Nazio Batuen Sistemaren genero-mahaia eta nazioarteko lankidetzak, komunikabideak, nazio-, departamentu- eta udalerrri-mailako politika publikoaren instantziak.</p>
Ikusleria xedea	<ul style="list-style-type: none"> • Iritzi publikoa. • Alderdi politikoak. • Politikoak. • Sare eta erakunde sozialak. • Irakaskuntzako profesionalak. • Gaiaren ardura duten estatu-instantziak (emakumearen sailak, bulegoak eta idazkaritzak).
Garapena	
Garatutako ekintzak	<ul style="list-style-type: none"> • Komunikazio-piezak ekoiztea: ikus-entzunezko irudia, kartelak eta liburuxkak interesa duten pertsonen artean banatzeko. • Kanpainaren web orrialdea eraikitzea: www.masmujeresmaspolitica.org. • Interesko informazioa, elkarrizketak, artikuluak, berriak, gaiarekin lotutako gertakariak eta abar dituzten kanpoko aldizkaria. • Kanpainari buruzko informazioa herri, eskualde eta nazioko komunikabideetan. • Emakumeak eta Politika izeneko bloga, kanpainari buruzkoa. Ikusgai www.votebien.com orrialdean. • Bideratzaile-taldea osatzea. • Dauden dokumentu, baliabide eta tresnen inbentarioa osatzea. • Dokumentuak eta materialak prestatzea: kanpaina-teknikei eta emakumearen parte-hartze politikoari buruzko eskuliburua egitea. • Emakumezko hautagaiak trebatzea: kanpaina-tekniketan eta parte-hartze politikoan eta generoan trebatzea. • Emakume liderrak gaitzea. • Genero-ikuspegian plagingtza duten emakumezko alkateak trebatzea. • Emakume-aulkiei laguntza ematea: batzorde hori eta genero-ikuspegiaren ulermena indartzea. Nazioarteko Foroan sinatutako hitzarmenari babesa ematea.

	<ul style="list-style-type: none"> • Alderdiekin lan egitea: alderdiekin gaia lantzeko agendak prestatzea. Ranking bat egitea jakiteko nola lantzen duten alderdiek emakumeen sarrera. • Ikerketa bat argitaratzea identifikatzeko bai emakumeen parte-hartze politikoaren baldintzak, mugak eta aukerak, bai oztopoak gainditzeko eta zeregin-na baiezkagoa izateko beharrezkoak diren estrategiak eta ekintzak.
Ezarritako ikuspegi eta metodologiak	<p>Honako estrategia hauek garatu dira:</p> <p><i>Komunikazioa:</i></p> <p>Kanpainak honako helburu hauek lortzeko informazio-plataforma bihurtzeko egin du lan: arlo politikoan emakumeek duten egoera ikusaraztea, gaiarekin lotutako ikasketak eta kopuruak laburtzea, kargu politikoetan egon diren eta dauden eta talde bilduetan edo izen bakarreko karguetan dauden emakumeen lorpenak azpimarratzea eta esperientzia arrakastatsuek eta haiengandik ikasitako ikasgaiak indartzea.</p> <p><i>Alderdi politikoak eta arau-erreformak:</i></p> <p>Estrategia honetan bi ikuspegitan egin da lan: 1) Alderdiei eta mugimenduei lagunduta genero-kontuez arduratzen diren instantziak sortzera edota indartzera; eta 2) Emakumeen parte-hartzea politikan sustatzeko legegintzako ekimenak eta neurriak hartzera lagunduz.</p> <p><i>Gaitasunak handitzea:</i></p> <p>Botere publikoko erabakitze-karguetan dauden edo egotera lehiatzen diren emakumeen gaitasun tekniko-politiko indartzea, arlo politikora sartzeko gaitasunen eta tresnen ikuspuntutik.</p> <p><i>Itun estrategikoak:</i></p> <p>Estrategia honek akademia, gobernu kanpoko erakunde, alderdi, talde bildu, gobernu-instantzia, komunikabide eta nazioarteko lankidetzaren ahaleginen artikulazioa bultzatu nahi du, ekintzen bikoiztasuna ekiditeko, batetik, eta haien indartzea errazteko, bestetik.</p>
Lorpenak eta emaitzak	
Alde sendoak edota aukerak	<ul style="list-style-type: none"> • Generoaren gaiarekin eta parte-hartze politikoarekin lotura duten erakundeekin eta entitateekin harremanak ezarri dira. • 500 emakumezko hautagai trebatu dira; horietariko %9k irabazi zuten; %36 eskualde-mailan, Bogota kontuan hartu barik. Trebatze hauek departamentuen %60 baino gehiagora eta ia-ia udalerrien %15era heldu ziren. • Itunak nazio eta nazioarteko erakundeekin, instituzioekin (publikoak eta pribatuak), emakume-sareekin, besteak beste, antzeko interesak dituztenekin eta nazio eta eskualde mailan ekintzak aurrera atera ahal izan dituztenekin. • Gaia artikulatzeko nazioarteko lankidetzaren interesa. • Lanarekiko hurbilketa- eta jarraipen-mekanismoak: alderdien arteko genero-mahaia eta alderdien gizonen eta emakumeen arteko berdintasun-rankinga.
Alde ahulak edota oztopoak	<ul style="list-style-type: none"> • Kultura politiko ahula. • Politikaren izen-galtzea. • Oso polarizazio handia.

<p>Alde berriztatzaileak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • <i>Alderdi politikoetan emakumeen sarrera-rankinga:</i> Rankinga alderdi politikoaren barruko emakumeen benetako berdintasuna neurtzeko adierazle-bateria da; alderdi bakoitzaren emaitzak alderatuz, besteekiko duten egoera ikus daiteke, eta Kolonbiako alderdi politikoetan berdintasun-maila islatzen duten antolamendu-, hauteskunde-, ideologia- eta programa-arloak integratzen dituen rankinga sortzen da. Rankingetik kanpainak alderdi bakoitzaren barruan berdintasunera zuzentzeko plan bat ezarriko du eta horretan lagunduko die. • <i>Alderdien arteko genero-mahaia:</i> 2008ko martxoan kanpainako bazkideetarikoa batek (PNUD eta Nazioarteko IDEA) alderdien arteko genero-mahaia sortu zuen eta, gaur egun, mahaiaren idazkaritza tekniko bere gain dauka. • <i>Artikulazioa eta erakundeen arteko erakundetasuna:</i> Alderdien arteko mahaiaz gain, kanpainak etengabe bazkideak diren erakundeek eta emakumeen parte-hartze politikoaren alde ekintzak garatzen dituen edozein entitatearen ahaleginak artikulatzea lortu nahi du, eta, horretarako, Nazio Batuen Sistemaren genero-mahaian eta nazioarteko lankidetzan parte hartzen du. Halaber, erakunde bazkideen edo beste erakunde batzuen eskualdeko ahaleginak aprobetxatzen saiatzen da, Iknow Politics, América Latina Genera, etab. bezalako esperientziekin nazioarteko lana nazioarteko mailara artikulatzeko. Baita ekimen horiekin etengabeko lotura mantentzen ere, ahaleginak biltzeko eta indartzeko. • <i>Informazioa ekoiztea eta ikusaraztea:</i> Azkenengo bi hauteskundeetan emakumeek, parte-hartze politikoari dagokionez, izan duten egoerari buruzko informazioa produzitu eta ikusarazi da.
<p>Eragina</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Eragile garrantzitsuekin gaia mahaigaineratu da, baita emakumeen parte-hartze politikoa bultzatzeko beharra ere: alderdi politikoak, komunikabideak, emakumeen erakundeak eta nazioarteko lankidetzak. • Emakumezko hautagaien trebatzea: 19 departamendutako ia 500 emakume, herri osoko 125 udalerritan. Kanpaina politikoetako beren-beregiko gaietako tresnak eskaintzeaz gain, emakumeak genero-gaietan suspertzeko, politikan elkarrekiko laguntzak duen garrantzia ikusarazteko eta genero-agendak aurkezteko lan egiteko ariketa bihurtu zen.
<p>Iraunkortasuna</p>	<p>Kanpaina bazkideak diren erakunde bakoitzaren ahaleginen artikulazio-eszenatokia da, bai modu finantzarioan bai teknikoan. Ekimen hau egingarria eta jasangarria da, ahaleginak artikulatzen badira, bazkide guztiak agerrarazten diren ekimen estrategikoak sortzen badira eta ekimen bakoitzean lotura zuzena duten bazkideei kreditu bereziak ematen bazaizkie.</p> <p>2011rako proposatutako helburuak lortzea espero da.</p>
<p>Ikasitako ikasgaiak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Alderdi politikoekin erantzukidetasun harreman estuagoa sendotzeko beharra. • Politikan emakumeek duten egoerari buruzko informazio-sistema sendotzeko beharra; horrela, datu guztiak bilduko lirateke.
<p>Ebaluazioa</p>	<p>Kolonbiako emakumeen parte-hartzearen gaineko erakundearen arteko etorkizun handiko artikulazio-praktika izan da.</p>

EMAKUMERIK GABE, EZ DA DEMOKRAZIA	
Oinarrizko datuak	
Izenburua	Emakumerik gabe, ez da demokrazia.
Esperientzia garatzen duten erakundeak	ACSUR-LAS SEGOVIAS, Politika Feministako Foroa, Genera Enlaces, Giza-Eskubideen aldeko Batzorde Hispano-Guatemalarra, AIETI, Sisma Mujer eta norberaren izenean jarduten duten emakumeak: Eveling Carrazco, Almudena Cabezas, Belén Sobrino eta beste batzuk.
Lurralde eremua	Espainiar estatua.
Burutzeko epea	1. fasea: 2007ko uztailetik 2008ko uztaileira. 2. fasea: 2008-2009. 3. fasea: 2009-2010.
Hizkuntza	Gaztelania.
Esteka	www.acsur.org http://sinmujeresnoesdemocracia.wordpress.com
Harremanetarako	genero@acsur.org
Ekintzen laburpena	
Kanpainaren deskribapena	Erdialdeko Amerikako eta Espainiar Estatuko emakumeek dituzten partaidetza-estrategiak, ordezkartza politikoko eta herritartasun-karguetan.
Helburuak	Helburu nagusia: <ul style="list-style-type: none"> Gizarte espainiarra Erdialdeko Amerikako emakumeen mugimenduak egiten duen lanarekiko sentsibilizatzea, ordezkartza politikoko eta herritartasun-karguetan emakumeen partaidetza sustatzeko. Helburu espezifikoak: <ul style="list-style-type: none"> Zenbait kolektibo espainiar Erdialdeko Amerikako emakumeen mugimenduak egiten duen lanarekiko sentsibilizatzea, ordezkartza politikoko eta herritartasun-karguetan emakumeen partaidetza sustatzeko. Genero-ekitate lortzeko, ordezkartza politikoko eta herritartasun-karguetan emakumeen esku-hartzeak politikan eta gizartean duen garrantzia azpimarratzea. Erdialdeko Amerikako emakumeen elkarteek sustatzen duten politika eta herritartasun modu ezberdinak ikusaraztea eta zabaltzea.
Eragile parte-hartzaileak	<ul style="list-style-type: none"> Erdialdeko Amerikako Genero-Hitzarmenean parte hartzen duten Erdialdeko Amerikako elkarte feministak, ACSUR-LAS SEGOVIASekin batera. Hitzarmena Garapenerako Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentziak (AECID) finantzatzen du. El Salvador: Mélida Anaya Montes Emakumeen Mugimendua (Las Mélidas) eta Duintasunaren eta Bizitzaren aldeko Emakumeen Elkarte (Las Dignas). Nikaragua: María Elena Cuadra Emakumeen Mugimendua (MEC). Honduras: Emakumeen Eskubideen Zentroa (CDM). Guatemala: Guatemalako Emakumeen Batasun Nazionala (UNAMG) eta Giza Eskubideen Legezko Ekintzen Zentroa (CALDH).

Ikusleria xedea	<ul style="list-style-type: none"> • Komunikabideak. • Unibertsitate ezberdinetako graduondoko ikastaroetako ikasleak. • Mugimendu feministak. • GGKEak. • Antolatu gabeko emakumeak. • Berdintasun Batzordeetako eta Diputaturen Kongresuko Koordinazioko diputatuak.
Garapena	
Garatutako ekintzak	<ul style="list-style-type: none"> • Hainbat elkarte feminista, GGKE eta emakume elkarteri egindako gonbidapena plataforma bat sor dezaten, kanpaina bultzatzeko. • Kanpainaren oinarria izango den dokumentu teorikoa gauzatzea. • Estatu espainiarreko hirietan xede diren hainbat talderi sentsibilizazio hitzaldiak ematea: Bartzelona, Santander, Madril, Coruña eta Santiagon. • Kanpainaren gaineko informazio-blog bat sortzea eta mantentzea, kanpainari buruzko berri aipagarrienekin. • Materialak diseinatzea, gauzatzea eta zabaltzea: triptikoak, posterrak eta pegatinak. • Hedabideen bidez sentsibilizatzea: irratia, prentsa eta aldizkari digitalak. • Kongresuko emakumezko diputatuekin emakumeen eragin politikoa jorratzea. • Kanpainari amaiera ematea jakinarazpen baten irakurraldiarekin, Madrilgo Liburu Azokan.
Ezarritako ikuspegi eta metodologiak	<ul style="list-style-type: none"> • Kanpainak giza-eskubideen eta emakumeen eskubideen ikuspuntutik heltzen dio gaiari. • Kanpainaren metodologiak iparraldeko eta hegoaldeko erakundeen lan parte-hartzailea eta deszentralizatu du oinarri, eta babes eta komunikazio estrategiez baliatzen da.
Lorpenak eta emaitzak	
Indarguneak edota aukerak	<ul style="list-style-type: none"> • Erakunde ezberdinek kanpaina definitzeko, gauzatzeko eta ekintzak bideratzeko prozesu parte-hartzailea bermatzea, GGKEen eta mugimendu feministaren artean eztabaida piztuz. • Erdialdeko Amerikako emakumeen elkarteen lana jasotzen du, hango emakumeek definitzen duten gisa berean. • Erdialdeko Amerikako emakumeen elkarteek egindako lana Espainiako emakumeen egoerarekin lotzen du. • Emakumeak euren eskubideen subjektu aktibotzat jotzen ditu, antolatutako eta aldarrikapenak egiten dituzten emakume gisa.
Ahulguneak edota oztopoak	<ul style="list-style-type: none"> • Erdialdeko Amerikako eta Espainia Estatuko emakumeen beharrak eta borrokak uztartzeko zailtasunak. • Hedabideetan agertzeko aukera gutxi. • Antolatu gabeko emakumeak sentsibilizatzeko aukera gutxi. • Giza-baliabide eta baliabide ekonomiko gutxi, kanpaina behar bezala garatzeko. • Estatu espainiarrean uste da Erdiko Amerikako emakumeak bertokoak gaintu dituzten diskriminazio-prozesuak bizitzen ari direla.

Alderdi berritzaileak	<ul style="list-style-type: none"> • Gai berria da gizarte espainiarrarentzako. • Irudi sortzaile berria eta harrigarria.
Eragina	<ul style="list-style-type: none"> • Emakumeek kanpainaren aldeko babes-plataforman parte-hartzea sustatu du, eta ondorioz, kanpainaren beraren helburua bete du, hau da, emakumeen parte-hartze politikoaren alde egitea. • Lankidetzat Batzordetik ekintza jakin batzuk bideratzea eskatu da: Espainiako parlamentuko ordezkari bat Erdialdeko Amerikara bidaiatzea, eta Erdialdeko Amerikako parlamentariak Espainiako Diputatuen Kongresuan lege-gintza-teknikei buruzko ikastaroetan parte-hartzea. • Erdialdeko Amerikako eta Espainiako emakumeen elkarten artean loturak sortu ditu.
Iraunkortasuna	Bi fase gehiago egin nahi dira. Horietan, emakumeen eskubide ekonomikoak landuko dira, baita emakumeenganako indarkeria ere, eta goiburua berbera izango da: "Emakumerik gabe, ez da demokrazia".
Ikasitako lezioak	<ul style="list-style-type: none"> • Sentsibilizazio-hitzaldietan eztabaida gehiago bultzatzea, parte-hartzaileen iritzia jasotzeko. • Gai adituak eta aktibistak diren iparraldeko nahiz hegoaldeko emakumeen parte-hartzeari etekina ateratzea. • Dokumentu teorikoa ikertzea eta gauzatzea kanpainaren oinarri gisa, sakonago eragiten duen berbaldi bateratuaren eta komunaren alde egiteko. • Gizarte espainiarrean emakumeen parte-hartze politikoan eta ordezkari postuetan genero-ekitatea lortuta dagoelako ustea desegitea lehentasuneko da.
Ebaluazioa	Kanpainaren lehen fasearen ebaluazioa bidean dago.

ZURE AHOA FUNTSEZKOA DA FUNDAMENTALISMOEN AURKA	
Oinarrizko datuak	
Izenburua	Zure ahoa funtsezkoa da fundamentalismoen aurka.
Esperientzia garatzen duten erakundeak	Marcosur Artikulazio Feminista.
Lurralde eremua	Nazioartekoa.
Burutzeko epea	2002-gaur egun.
Hizkuntza	Gaztelania, ingelesa eta portugaleria.
Esteka	www.mujeresdelsur.org.uy/index_e.htm
Harremanetarako	afm@mujeresdelsur.org.uy

Ekintzen laburpena	
Kanpainaren deskribapena	Kanpaina honek fundamentalismo mota guztiak salatzen ditu, bai politikoa, erlijiosoa edo kulturala, eta gatazkei aurre egiteko era demokratiko, baketsu eta negoziatuak defendatzen ditu. Ezberdintasunak onartu, berdintasuna aldarrikatu, solidaritatea baieztatu eta aniztasuna baloratu ahalko duten moduak.
Helburuak	"Pentsaera bakarraren" eta diskriminaziozko praktiken, diskurtsoen eta errepresentazio sozialen kontra dauden ahotsak handitu eta agerian uztea.
Parte hartzen duten aktoreak	Emakume eta gazteen erakundeak, eta mugimendu sozialak.
Ikusleria xedea	Gizarte zibila oro har.
Garapena	
Garatutako ekintzak	<ul style="list-style-type: none"> Hainbat materialen ekoizpena: dokumentuak, karpetak, liburuxkak, kamisetak eta kartelak. Munduko Foro Sozialaren zabalarekin batera aldi bereko martxak egin dira eta, bertan, milaka eta milaka aho banatu dira eta marraztutako aho handiekin globo erraldoia jaurti da. Kanpainaren izen bereko liburua argitaratu da eta bideo/animazio bi ekoiztu dira: <i>"Zure ahoa funtsezkoa"</i> eta <i>"Mundua alderantziz, posible da"</i>.
Ezarritako ikuspegi eta metodologiak	Kanpaina hau nazioarte mailan igortzeak bestelako gizarte mugimenduekin elkarrizketa guneak zabaltzen lagundu nahi duen korrante feminista honen kokatzea markatu du. Publizitatearen munduko tresna eta teknikak erabiltzen dira ideiak zabaltzeko.
Lorpenak eta emaitzak	
Alde sendoak edota aukerak	Kanpaina funtsezkoa izan da, beste modu batean eginez gero zatituta agertuko ziren salaketak, eskaerak eta hainbat mugimenduren proposamenak etika eta estetika komunaren barnean biltzeko.
Alde ahulak edota oztupoak	<ul style="list-style-type: none"> Kanpainaren alde nagusiei eta garapenari jarraipena egiteko oso baliabide gutxi dago. Material gehiago ekoizteko zailtasun ekonomikoak.
Alde berriztatzaileak	Kontzeptu/metodoa sortzen da: PUBLIGANDA; erdia publizitatea eta erdia propaganda.
Eragina	Kanpaina Uruguain sortu zen, baina Latinoamerika osoan, Bombayn, Washingtonen eta abarren erabiltzen da.
Iraunkortasuna	Finantza-baliabideen arabera.
Ikasitako ikasgaiak	Publikoaren alderdi guztietara heltzeko komunikazioaren eta lengoiaren garrantzia.
Ebaluazioa	Latinoamerikan eta Kariben estatuen laiotasunari buruzko eztabaida sortu da, eta horrek mugimendu feministaren zati handi batek bere ekintzen zati handi bat batzeko balio izan du.

A decorative graphic in the top-left corner consisting of several overlapping, horizontal brushstrokes in shades of grey. Below these strokes is a faint, light-grey symbol that resembles a stylized female symbol (a circle with a vertical line and a horizontal line) or a similar abstract shape.

Bibliografia

Jarraian, zenbait iturri bibliografiko interesgarri gomendatzen zaizkizue. Iturriok iparraldeko nahiz hegoaldeko egoera aintzat hartzen dute, emakumeen eragin politikoan eta parte-hartzean sakondu ahal izateko:

- BUTLER, Judith (2006): *Deshacer el género. Identidad, sexualidad, secularismo*. Barcelona: Paidós.
- DIBBITS, Ineke eta BOER, Mariska de (2002): *Encuentros con la propia historia. Interculturalidad y trato humano desde las perspectivas de un equipo de salud*. Bolivia: Tahipamu.
- EMAKUMEEN ESKUBIDEEN ZENTROA (2006): *Ejercicio de derechos sexuales y reproductivos en adolescentes*. Tegucigalpa: CDM eta Oxfam Internacional.
- ERABAKITZEKO ESKUBIDEAREN ALDEKO EMAKUME KATOLIKOEN LATINOAMERIKAKO SAREA (2007). *Viejos temas. Nuevas miradas*. Argentina: CDD Buenos Aires.
- GARCÍA, Adela (koordinatzailea) (2004): *Género y ciudadanía*. Barcelona: Icaria eta ACSUR-LAS SEGOVIAS.
- HONDURASKO EMAKUMEEN KOLEKTIBO FEMINISTA (2006): *Análisis de la participación política de la mujer hondureña 2005*. Tegucigalpa.
- LEMA, Ana M^a; CHOQUE, M^a Eugenia; eta JIMÉNEZ, Maritza (2006): *La participación de las mujeres en la historia de Bolivia*. Bolivia: Emakumearen koordinakundea.
- LLANOS, Beatriz eta SAMPLE, Kristen (2008): *Del dicho al hecho: manual de buenas practicas para la participación de mujeres en los partidos políticos latinoamericanos*. Peru: IDEA Internacional.
- PORTOLÉS, Asunción Oliva (2007): *En tiempos de Evo ¿Qué feminismo queremos?: reflexiones*. 3 zenbakidun Lan-koadernoan. Bolivia: Gregoria Apaza Emakumearen Sustapen Zentroa.
- VALCÁRCEL, Amelia (1997): *La política de las mujeres*. Madrid: Cátedra.

